Jakintza Arloa: Psikologia

# Bakearen dimentsio kulturala Euskal Herriko uste sistema eta pertzepzioetan

Egilea: **LUIXA REIZABAL ARRUABARRENA**

Urtea: 1995

Zuzendaria: JOSE VALENCIA GARATE

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8428-268-3

## Hitzaurrea

Lan hau "*Bakeari buruzko Ikerketa*" (Peace Research) delako diziplina zientifiko globalaren baitan kokatzen da. Hau gatazka suntsitzaileak sortzen dituzten baldintzak argitzera zuzentzen
den diziplina zientifiko orokorra bezala ulertzen da. Era berean, biolentzia fisiko, egitural -edo egituralki baldintzaturiko beharren pribazioa- zein kultural maila jaisteko beharrezkoak diren baldintzak ezagutzea ahalbidetzen du diziplina honek. Biolentzia kulturalak, biolentzia egiturala zein zuzena justifikatzeko erabiliak izan daitezkeen gizarte-kontzientzia eta oroimenean ainguratutako pertzepzioak, jarrerak, munduari buruzko uste sistemak, e.a. barneratzen dituen biolentziaren dimentsioa adierazten du (Galtung, 1990).

Biolentzia zuzenak eta egituralak bere aurkakoak dituzten bezalaxe, biolentzia kulturalak Bake kulturalean du bere aurkakoa, zeinean bake zuzena zein egiturala justifikatzeko eta zilegitzeko balio duten kultura baten aspektuak aurkituko liratekeen.

Ideologiak, erlijioak, identitatearen eraketarako prozesuak eta exotaldeari buruzko pertzepzioak barne hartzen dituen bakearen dimentsio kultural honek, izugarrizko garrantzia duela aipatu behar da. Bakerako heziketa honen inguruan antolatzen dela esatea besterik ez dago (Gutierrez, 1991).

Dimentsio kultural honen azterketan kokatzen da, hain zuzen, lan honen helburua. Gure asmo orokorra, aldagai batzuren eraginez Euskaldunen uste sistema eta pertzepzioetan aurki daitezkeen bake zein biolentzia kulturalaren elementuak ikertu eta definitzea da. Horretarako gure kultura politikoaren bi alde garrantzitsu aztertuko ditugu: (1) *Munduari buruzko uste sistemak:* hauek bakeari buruzko uste sistemen bidez aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, Irudikapen Sozialen eremu teorikoaren baitan. Irudikapen hauek eta Identitate soziala eta ideologia abertzalea zein politikoaren arteko dinamiketan sakonduko dugu, irudikapen hauetan aurki daitezkeen bake zein biolentzia kulturalaren aldeak izan daitezkeenak eratortzeko asmoz. (2) *Exotaldeari buruzko pertzepzio eta ebaluaketak:* hauetan identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak eta identitate sozialaren salientzia bezalako aldagaiek duten eragina ikertuko dugu, aldagai hauen arabera exotaldearen etsai-irudi desgizakor bat ematen den ala ez aztertuko dugularik.

Proiektu honen izaera berriztatzailea eta originala azpimarratu nahi genuke, bakeari buruzko ikerketaren eremua nahiko berria bait da. Are gehiago Euskal Herrian, non eremu honetan burutu diren ikerketak oso urriak izan diren. Bestalde, nazioarte mailan eremu honetan egindako ikerketek ez dute orain arte inoiz bakearen dimentsio kulturalean sakondu. Teorikoki ere nahiko berria dela esan daiteke, irudikapen sozialen eremua gizarte-zientzien alorrean nahiko berria bait da.

Azterketa-objektu bezala bakeari buruzko uste sistemak aukeratzearen arrazoia, egun kontzeptu hau balio emozionalez kargaturik egotea izan da. Gainera, bakearen definizio zabal bat egoteak Bakea uste sistema bat bezala

kontsideratzea inplikatzen duela ere kontutan hartu behar da, bakea, era batera ala bestera, "sistema"ren baten ezaugarri bat bait da: pertsona-barnekoa, pertsonartekoa, gizarte-barnekoa, gizarte-artekoa... Bakea sistema bati egokitutako kontzeptu bat denez, gizarte horretan kontzeptuen eta sistemen sorreran nagusi diren ohiturek zehazturik egotea derrigorrezkoa da (Galtung, 1985). Honen ondorioz, dimentsio kulturalak paper garrantzitsua izango du bakearen definizioan.

Uste sistemak ikertzeko helburuarekin, hauek "uste barreiatuen" eremu teorikoan kokatu ditugu. Ikuspegi honen arabera, uste sistemak errealitatearen edo honen alde sozial adierazgarri baten ikuspenak direnez, "usteak" lirateke. Bestalde, "barreiatuak" lirateke, ez bait daude pertsonarteko harreman zehatz batera mugaturik eta, azkenik, sozialak lirateke taldeak zabalki onarturik daudelako (Gaskell eta Fraser, 1990). Uste sistema hauek Irudikapen sozialak bezala aztertzearen egokitasuna ikusirik (Farr eta Moscovici, 1984), gure herrian bakeari buruz dauden uste sistemak irudikapen hauen eremu teorikoaren baitan aztertzea erabaki dugu.

Irudikapen sozialek portaera eta praktika sozialen gida bezala paper garrantzitsua jokatzen dute eta ideologiarekin zerikusi handia ere badute (Jodelet, 1986). Hain zuzen ere, ideologiak Irudikapen Sozialen edukia baldintzatzen duela eta irudikapen hauek sistema ideologiko zabalago baten azpisistematzat har daitezkeela esan ohi da (Doise, 1986). Honekin batera, munduaren eraipen kognitiboa alde ideologiko, balio eta mundu honekiko interbentzio zuzenak zehazturik dagoela baieztatu ohi da (Amerio, 1991). Guzti hori dela eta, lan honetan bakeari buruzko unibertso eratzailea ikertzen saiatu gara, horretarako dimentsio ideologikoa kategorial diskriminatzailetzat hartu dugularik.

Guzti hori dela medio, Irudikapen sozialen eta talde pertenentziak eta pertenentzia ideologikoaren arteko dinamiketan sakondu dugu. Horretarako, lehenik eta behin, metodologia kualitatibo baten bidez, pertsonarteko, Euskadi zein mundu mailan bakearekin zerikusia duten irudien, bakearekiko portaera ereduen, bakeari buruzko balorazioen eta Euskal Herrian ematen den bake ezari buruzko azalpenen inguruan esplorazio bat burutu dugu. Esplorazio honetatik eratorritako elementuetan oinarriturik, ikerketa kuantitatiboa burutu ahal izateko neurketa-tresna eratu genuen.

Bigarren helburuari dagokionez, gizabanako independente edo talde bateko partaide bezala elkarrekintzatzen dutenean subjektuen jokabidean ezberdintasunak emango direla azpimarratzen duen Tajfel-en Identitate sozialari buruzko teoria (Tajfel, 1981, 1982, 1983, 1984) eta gatazka sozial bati norgehiagokako jarrera baten bidez aurre eginez gero eta gatazka areagotu eta iraunkortzen duen gizarte prozesu bat ematen dela dioen talde-arteko gatazkari buruzko teoria (Doise, 1986; Deutsch, 1973; Sherif, 1966) tartekatu ditugula adierazi behar da. Teoria hauetatik abiatuz, identitate ezberdinen (indibiduala/soziala) salientzia eta bestearen ebaluaketaren artean dauden zenbait prozesu hipotetiko soziokognitibo planteatu ditugu. Prozesu hauek,

beste batzurekin batera, exotaldearen aurkako biolentzia zuzenerantz gida gaitzaketen neurrian, biolentzia kulturalaren oinarrietako bat osa dezaketela kontsidera daitekeelarik (Galtung, 1990).

Aurkezten den Tesi proiektuaren egiturari dagokionez, lau kapitulu nagusitan zatitu dugula aipatu behar da. Kapitulu hauek, honela izendatu ditugu: *Oinarri Teorikoak, Metodologia, Emaitzak* eta *Konklusio Orokorrak*.

Lehen kapitulua -*Oinarri Teorikoak*- hiru ataletan banatzen da. Lehena -Bakeari Buruzko Uste Sistemak eta Bakeari Buruzko Ikerketa-, sarrera modukoa litzateke eta honen bidez, lan hau Bakeari Buruzko diziplina zientifikoaren barnean kokatu nahi izan da. Honekin batera, ikerketa mota honen gai-eremua zehaztu duen bake nozioaren garapena ere azaltzen da.

Bigarren atalean -Uste sistemak, Uste Barreiatuak eta Irudikapen Sozialak- Tesi-proiektu honen lehen zatiaren eremu teorikoa -"Uste Barreiatu"ena alegia (Gaskell eta Fraser, 1990)- aurkezten da. Uste sistema hauek Irudikapen sozialen eremuan kokatu ditugunez, honetaz ere luzaro hitz-egingo dugula azpimarratu nahi dugu.

Hurrengo atalean -Talde arteko Gatazka- identitate sozialaren salientzia eta identitate gatazkatsuekiko taldekidetza aldagaiek bestearen ebaluaketan duten eragina teorikoki azaltzen saiatu gara. Horretarako, Identitate soziala (Tajfel, 1981, 1982, 1983, 1984), talde arteko gatazkari buruzko teoriak (Doise, 1986; Deutsch, 1973; Sherif, 1966), eta beste batzuren artean Lederach-ek egindako gatazkari buruzko zenbait argibide orokor azaltzen ditugu.

Bigarren kapituluan, -*Metodologia*- lan honetan egin diren bi eremu-lanak burutu ahal izateko jarraitutako prozedura eta metodologia ezberdinak aztertzen ditugu. Laburpen moduan, aipatu behar da lan honetan metodo kualitatibo zein kuantitatiboak erabili ditugula, ikuspegi honen bidez, gure lanari dimentsio sozial eta kultural bat ematen saiatu garelarik (Jodelet, 1986).


Hirugarren kapituluan –*Emaitzak*-, burututako eremu-lanaren emaitzak aztertzen dira. Lehen atalean, -Aldagai Demografikoak-, aldagai demografikoen arabera, lagina deskribatzen da. Bigarren atalean -Aldagaien Egituraketa- aldagai ezberdinak osatzen dituzten itemei "Varimax" delako errotazioaz egindako azterketa faktorialean oinarrituz, aldagaien egituraketa azaltzen da. Hirugarrenean berriz, -Bakearen definizioa Euskal Herrian- bakearen dimentsioei buruzko lehen hipotesiari dagozkion datuak agertzen dira. Laugarren atalean -Bakeari buruzko Irudikapen Soziala Euskal Herrian- Bakeari buruzko Irudikapenaren inguruan laginak emandako datuen deskribaketa egiten da. Hurrengo atalean -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala-, identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak bakearen irudikapen sozialean duen eraginari buruzko datuak aztertzen saiatzen gara. Seigarren eta zazpigarren ataletan -"Ideologia Politikoa eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala", eta "Ideologia Abertzalea eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala"- ideologia ezberdinek aldagai honetan duten eraginari buruzko datuak

azaltzen dira. Zortzigarren atalean -Gatazka Euskal Herrian-, laginak gatazkari buruz azaltzen dituen emaitza orokorrak aztertzen dira. Bederatzigarrenean -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza, identitate sozialaren salientzia eta gatazka- identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak eta identitate sozialaren salientziak bestearen ebaluaketan duten eragina azaltzen da. Hamargarrenean, aldiz, -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta identitate sozialaren salientziaren arteko interakzioa eta gatazka- arestian aipatzen genituen bi aldagaiek bestearen ebaluaketan duten eraginari buruzko datuak aztertzen dira. Azkenik, hamaikagarren atalean -Aldagaien arteko Harremana- hurrengo aldagaien arteko harremanei dagozkien datuak aipatzen dira: identitate sozialaren salientzia, gatazka hautematua, deslegitimizazioa, balio diferentzia hautematua eta exotaldearen ebaluaketa.

*Konklusio orokorrak* izenburuaz izendaturiko laugarren kapituluaren ondoren, neurketa-tresnak jasotzen dituzten bi eranskin agertzen dira. Eta azkenik, lana amaitzeko, erabilitako liburu eta artikulu zerrenda aurkezten da.

Aurkezpen honekin amaitzeko, aipatu behar dugu lan hau hego Euskal Herrian zentratzen dela, Iparraldeko egoera ezberdina izateaz gain, bertan inkestak pasatzeak zailtasun ugari ekartzen bait zituen.

Luixa Reizabal
1994




# BAKEAREN DIMENTSIO KULTURALA EUSKAL HERRIKO USTE SISTEMA ETA PERTZEPZIOETAN

*LUIXA REIZABAL ARRUABARRENA*

**DOKTOREGO-TESIA**

*ZUZENDARIA: JOXE VALENCIA GARATE DRE. JAUNA*

**1.994-eko Iraila**

# ESKERRONA

Doktorego-Tesi moduan aurkezten dudan lan honen atarian, eskerroneko hitzak zuzendu nahi nizkieke nire ahaleginetan bidelagun izan ditudan pertsona zein erakundeei. Beraiengatik izan ez balitz, hemen aurkezten dudan lan hau bideratzeko aukerarik ez nuen izango.

Lehenik eta behin, esker bereziak Joxe Valencia irakasleari izan duen pazientzia eta jakinduria direla medio, eskeini didan laguntzagatik.

Ezin ahaztuko ditut galde-sortak pasatzeko lan nekagarria egin zuten lankideak eta inkesta hauek betetzeko lan astuna egin zuten subjektuak.

Lerro hauetatik ere nere eskertza luzatzen diet, unerik gogorrenetan bere laguntza ordaingaitza eskeini didaten lagun eta senide guztiei.

Oroitzapen berezia *Gizarte Psikologia* eta *Oinarrizko Prozesu Psikologikoak* sailetako lankideei eta irakasleei eta *Gernika Gogoratuz Bakerako Ikertegia*-ri eskeinitako aholku eta erreztasun guztiengatik.

Era berean, *Gipuzkoako Foru Aldundia* eta *Heinrich Böll Fundazioa*-ri beraiek emandako laguntza ekonomiko estimagaitza eskertzen diet.

Tesi honen bilakaeran, neurri batean edo bestean, asko izan dira moralki ere lagundu nauten pertsonak. Guztiei, bihotzez esker mila.

*Luixa Reizabal Arruabarrena*

# AURKIBIDEA


**0. AURKEZPENA** ..... I

**I. KAPITULUA: OINARRI TEORIKOAK**

1.1.- BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK ETA BAKEARI BURUZKO IKERKETA ..... 1

1.1.1.- Bakeari buruzko ikerketaren sorrera ..... 1

1.1.2.- Bakeari buruzko ikerketa eta berarekin zerikusia duten beste zenbait ikerketa eremu ..... 3

a) Nazioarteko harremanak ..... 3
b) Polemologia ..... 4
c) Gatazkaren azterketa ..... 5
d) Azterketa estrategikoak ..... 5
e) Irenologia ..... 5

1.1.3.- Bake nozioa eta honen garapena ..... 6

a) Greziar tradizioa ..... 7
b) Erromatar tradizioa ..... 7

1.1.4.- Bakearen Konzepzio Berria ..... 9

a) Curle-ren ikuspegia: etsai harremanak eta harreman baketsuak ..... 10
b) Galtung-en ikuspegia: bake definizio positiboa eta negatiboa. Biolentzia motak ..... 11
c) Beste autore batzuren eritzia ..... 17

1.1.5.- Bakeari buruzko ikerketaren garapena .... 21

a) 1. etapa: Estatuaren Paradigma ..... 21
b) 2. etapa: Jarrera eraikitzailea ..... 23
c) 3. etapa: Zortzigarren hamarkada. Alternatibak ..... 27

1.1.6.- Bakeari buruzko ikerketaren a) xedeak eta b) ezaugarriak ..... 28

1.1.7.- Bakeari buruzko ikerketaren baitako korronte ezberdinak ..... 30

a) Galtung-en sailkapena ..... 31
b) Pardesi-ren sailkapena ..... 32
c) Röling-en sailkapena ..... 33
d) Curle-ren sailkapena ..... 33
e) Boulding-en sailkapena ..... 36
f) Korronteen ezaugarri amankomunak ..... 38

1.1.8.- Bakeari buruzko ikerketaren egungo lehentasunak ..... 39

a) Biolentzia fisikoaren ikuspegia ..... 40

b) Biolentzia egituralaren ikuspegia .... 40
d) Biolentzia politiko-errepresiboaren ikuspegia ..... 41
e) Bakerako heziketaren ikuspegia ..... 41

1.1.9.- Gizarte-Psikologiaren beharra Bakeari buruzko Ikerketaren baitan ..... 41

1.2.- USTE SISTEMAK, USTE BARREIATUAK ETA IRUDIKAPEN SOZIALAK ..... 45

1.2.1.- Uste Sistemak ..... 46

1.2.2.- Uste Sistemen sorrera, artikulazioa eta funtzioak ..... 49

1.2.3.- Uste Sistemak eta Uste barreiatuak ..... 50

1.2.4.- Uste Barreiatuen ikerketari hurbilketa bat: Irudikapen Sozialak ..... 53

1.2.5.- Irudikapen sozialen jatorria eta definizioa ..... 55

1.2.6.- Irudikapen sozialen alde "soziala" ..... 58

1.2.7.- Irudikapen Sozialen ezaugarri eta funtzioak ..... 61

1.2.8.- Irudikapen sozialen elaborazio edo lanketa ..... 64

1.2.9.- Irudikapen Sozialen prozesuak ..... 66
a) Objetibizazio fasea eta bere azpifaseak ..... 67
b) Aingurapen fasea ..... 69

1.2.10.- Irudikapen Sozialen edukia ..... 70
a) Azalpenak edo informazioa ..... 71
b) Irudikapen eremua edo Informazioaren egitura ..... 73
c) Jarrerak ..... 74

1.2.11.- Irudikapen sozialak eta ideologia ..... 76
a) Ideologiaren definizioa eta ezaugarriak ..... 77
b) Ideologiari lotzen zaizkion faktore psikosozialak ..... 80
c) Ideologia abertzalea ..... 81
d) Ideologiari buruzko ikerketa ..... 82
e) Ideologia eta Irudikapen Sozialen arteko harremana ..... 86

1.3.- TALDE ARTEKO GATAZKA ..... 95

1.3.1.- Gatazkari buruzko zenbait argibide ..... 98
a) Gatazka motak ..... 98
b) Gatazkaren izaera positiboa ..... 100
d) Gatazkari izaera negatiboa eman diezaioketen zenbait elementu ..... 101

1.3.2.- Gizarte-Kategorizazio prozesua ..... 103

a) Kategorizazioaren definizioa eta bere ezaugarriak ..... 103
b) Taldearen definizioa eta bere osagaiak ..... 104

1.3.3.- Identitate Soziala ..... 106

1.3.4.- Portaera indibidualetik portaera sozialera ..... 108

a) Jokabide indibiduala ..... 108
b) Jokabide soziala ..... 109

1.3.5.- Taldekidetza eta Testuingurua ..... 111

1.3.6.- Taldearteko diferentziaziotik estereotipoetara ..... 113

a) Taldebarneko homogeneizazio eta taldearteko desberdintzapen prozesuak ..... 113
b) Estereotipoak ..... 114

1.3.7.- Norgehiagokako Joera duten gatazkak ..... 115

1.3.8.- Esklusio morala ..... 117

1.3.9.- Esklusio moralaren operazionalizazioa ... 120

a) Balio distantzia hautematua ..... 121
b) Deslegitimizazioa ..... 122

**II. KAPITULUA: METODOLOGIA**

2.1.- SARRERA ..... 129

2.2.- HIPOTESIAK ..... 131

2.3.- IKERKETA KUALITATIBOA: BAKEAREN ESANAHIA EUSKAL HERRIAN ..... 135

2.3.1.- Lagina ..... 135

2.3.2.- Prozedura ..... 136

2.3.3.- Galdesortaren itzulpena ..... 138

2.3.4.- Erantzunen kodifikazioa ..... 138

2.4.- IKERKETA KUANTITATIBOA ..... 141

2.4.1.- Lagina eta prozedura ..... 141
2.4.2.- Aldagaien neurketa ..... 142

a) Aldagai askeak ..... 142
b) Menpeko aldagaiak ..... 145

2.4.3.- Galdesortaren itzulpena ..... 150

**III. KAPUTULUA: EMAITZAK**


3.1.- Aldagai soziodemografikoak ..... 153

3.2.- Aldagaien egituraketa ..... 163

3.3.- Bakearen definizioa Euskal Herrian ..... 175

3.4.- Bakeari buruzko uste sistemak Euskal Herrian .... 181

a) Balioak ..... 181
b) Bakeari buruzko irudiak ..... 182
c) Bake ezari buruzko azalpenak ..... 185
d) Bakearekiko emozioak ..... 185
e) Bakearekiko jarrerak ..... 186
f) Bakearekiko portaera-intentzioak ..... 187
g) Identitate soziala, bakeari buruzko irudiak, azalpenak eta portaera-intentzioa ..... 189

3.5.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta Bakeari buruzko uste sistemak ..... 193

a) Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta balioak ..... 194
b) Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakeari buruzko irudikapenaren edukia .... 196

b.1.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakeari buruzko irudiak ..... 197
b.2.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bake ezari buruzko azalpenak ..... 199
b.3.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakearekiko emozioak ..... 200
b.4.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakearekiko jarrerak ..... 201

3.6.- Ideologia politikoa eta Bakeari buruzko uste sistemak ..... 205

a) Ideologia politikoa eta balioak ..... 206
b) Ideologia politikoa eta bakeari buruzko irudikapen sozialaren edukia ..... 207

b.1.- Ideologia politikoa eta bakeari buruzko irudiak ..... 207
b.2.- Ideologia politikoa eta bake ezari buruzko azalpenak ..... 210
b.3.- Ideologia politikoa eta bakearekiko emozioak ..... 211
b.4.- Ideologia politikoa eta bakearekiko jarrerak ..... 213

3.7.- Ideologia abertzalea eta Bakeari buruzko uste sistemak ..... 219

a) Ideologia abertzalea eta balioak ..... 220
b) Ideologia abertzalea eta bakeari buruzko irudikapen sozialaren edukia ..... 221

b.1.- Ideologia abertzalea eta bakeari buruzko irudiak ..... 221
b.2.- Ideologia abertzalea eta bake ezari buruzko azalpenak ..... 223
b.3.- Ideologia abertzalea eta bakearekiko emozioak ..... 224
b.4.- Ideologia abertzalea eta bakearekiko jarrerak ..... 225

3.8.- Gatazka Euskal Herrian ..... 229

a) "Bestea" ..... 229
b) Gatazka hautematua ..... 230
c) Balio ezberdintasun hautematua ..... 230
d) Deslegitimizazioa ..... 231
e) Bestearen ebaluaketa ..... 232

3.9.- Taldekidetza, honen salientzia eta bestearen pertzepzioa eta ebaluaketa ..... 235

3.9.1.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bestearen pertzepzioa eta ebaluaketa ..... 235

a.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta gatazka hautematua ..... 237
b.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta balio diferentzia hautematua ..... 237
c.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta delegitimizazioa ... 237
d.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bestearen ebaluaketa ..... 238

3.9.2.- Identitate sozialaren salientzia eta bestearen pertzepzioa eta ebaluaketa .... 240

a.- Identitate sozialaren salientzia eta Gatazka hautematua ..... 240
b.- Identitate sozialaren salientzia eta balio diferentzia hautematua .... 241
c.- Identitate sozialaren salientzia eta Deslegitimizazioa ..... 241
d.- Identitate sozialaren salientzia eta Bestearen ebaluaketa ..... 242

3.10.- Identitate Sozialaren salientzia eta Identitate gatazkatsuekiko pertenentziaren arteko interakzioaren eragina bestearen pertzepzioa eta ebaluaketan ..... 245

a) Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina gatazka hautematuan ..... 245
b) Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina balio diferentzia hautematuan ..... 246
c) Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina deslegitimizazioan ..... 247

d) Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina bestearen ebaluaketan ..... 249

3.11.- Identitatearen salientzia, gatazka hautematua, balio ezberdintasun hautematua, deslegitimizazioa eta bestearen ebaluaketa aldagaien arteko harremana ..... 251

**IV. KAPITULUA: KONKLUSIO OROKORRAK** ..... 253

**BIBLIOGRAFIA** ..... 287

**ERASKINAK**

1. eraskina: Galde-sorta kuantitatiboa. Identitate soziala azpimarratzen duen bertsioa

2. eraskina: Galde-sorta kuantitatiboa. Identitate indibiduala azpimarratzen duen bertsioa

# AURKEZPENA

Lan hau "*Bakeari buruzko Ikerketa*" (*Peace Research*) delako disziplina zientifiko globalaren baitan kokatzen da. Hau gatazka suntsitzaileak sortzen dituzten baldintzak argitzera zuzentzen den disziplina zientifiko orokorra bezala ulertzen da. Era berean, biolentzia fisiko, egitural -edo egituralki baldintzaturiko beharren pribazioa- zein kultural maila jeisteko beharrezkoak diren baldintzak ezagutzea ahalbidetzen du disziplina honek. Biolentzia kulturalak, biolentzia egiturala zein zuzena justifikatzeko erabiliak izan daitezkeen gizarte-kontzientzia eta oroimenean ainguratutako pertzepzioak, jarrerak, munduari buruzko uste sistemak, e.a. barneratzen dituen biolentziaren dimentsioa adierazten du (Galtung, 1989).

Biolentzia zuzenak eta egituralak bere aurkakoak dituzten bezalaxe, biolentzia kulturalak Bake kulturalean du bere aurkakoa,

zeinean bake zuzena zein egiturala justifikatzeko eta zilegitzeko balio duten kultura baten aspektuak aurkituko liratekeen.

Ideologiak, erlijioak, identitatearen eraketarako prozesuak eta exotaldeari buruzko pertzepzioak barne hartzen dituen bakearen dimentsio kultural honek, izugarrizko garrantzia duela aipatu behar da. Bakerako heziketa honen inguruan antolatzen dela esatea besterik ez dago (Gutierrez, 1991).

Dimentsio kultural honen azterketan kokatzen da, hain zuzen, lan honen helburua. Gure asmo orokorra, aldagai batzuren eraginez Euskaldunen uste sistema eta pertzepzioetan aurki daitezkeen bake zein biolentzia kulturalaren elementuak ikertu eta definitzea da. Horretarako gure kultura politikoaren bi alde garrantzitsu aztertuko ditugu: (1) *Munduari buruzko uste sistemak*: hauek bakeari buruzko uste sistemen bidez aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, Irudikapen Sozialen eremu teorikoaren baitan. Irudikapen hauek eta Identitate soziala eta ideologia abertzalea zein politikoaren arteko dinamiketan sakonduko dugu, irudikapen hauetan aurki daitezkeen bake zein biolentzia kulturalaren aldeak izan daitezkeenak eratotzeko asmoz. (2) *Exotaldeari buruzko pertzepzio eta ebaluaketak*: hauetan identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak eta identitate sozialaren salientzia bezalako aldagaiek duten eragina ikertuko dugu, aldagai hauen arabera exotaldearen etsai-irudi desgizakor bat ematen den ala ez aztertuko dugularik.

Proiektu honen izaera berriztatzailea eta originala azpimarratu nahi genuke, bakeari buruzko ikerketaren eremua nahiko berria bait da. Are gehiago Euskal Herrian, non eremu honetan burutu diren ikerketak oso urriak izan diren. Bestalde, nazioarte mailan eremu honetan egindako ikerketek ez dute orain arte inoiz bakearen dimentsio kulturalean sakondu. Teorikoki ere nahiko berria dela esan daiteke, irudikapen sozialen eremua gizarte-zientzien alorrean nahiko berria bait da.

Azterketa-objektu bezala bakeari buruzko uste sistemak aukeratzearen arrazoia, egun kontzeptu hau balio emozionalez kargaturik egotea izan da. Gainera, bakearen definizio zabal bat egoteak Bakea uste sistema bat bezala kontsideratzea inplikatzen duela ere kontutan hartu behar da, bakea, era batera ala bestera, "sistema"ren baten ezaugarri bat bait da: pertsona-barnekoa, pertsonartekoa, gizarte-barnekoa, gizateartekoa... Bakea sistima bati egokitutako kontzeptu bat denez, gizarte horretan kontzeptuen eta sistimen sorreran nagusi diren ohiturek zehazturik egotea derrigorrezkoa da (Galtung, 1985). Honen ondorioz, dimentsio kulturalak paper garrantzitsua izango du bakearen definizioan.

Uste sistemak ikertzeko helburuarekin, hauek "uste barreiatuen" eremu teorikoan kokatu ditugu. Ikuspegi honen arabera, uste sistemak errealitatearen edo honen alde sozial adierazgarri baten ikuspenak direnez, "usteak" lirateke. Bestalde, "barreiatuak" lirateke, ez

bait daude pertsonarteko harreman zehatz batera mugaturik eta, azkenik, sozialak lirateke taldeak zabalki onarturik daudelako (Gaskell eta Fraser, 1990). Uste sistema hauek Irudikapen sozialak bezala aztertzearen egokitasuna ikusirik (Farr eta Moscovici, 1984), gure herrian bakeari buruz dauden uste sistemak irudikapen hauen eremu teorikoaren baitan aztertzea erabaki dugu.

Irudikapen sozialek portaera eta praktika sozialen gida bezala paper garrantzitsua jokatzen dute eta ideologiarekin zerikusi handia ere badute (Jodelet, 1986). Hain zuzen ere, ideologiak Irudikapen Sozialen edukia baldintzatzen duela eta irudikapen hauek sistema ideologiko zabalago baten azpisistematzat har daitezkeela esan ohi da (Doise, 1986). Honekin batera, munduaren eraipen kognitiboa alde ideologiko, balio eta mundu honekiko interbentzio zuzenak zehazturik dagoela baieztatu ohi da (Amerio, 1991). Guzti hori dela eta, lan honetan bakeari buruzko unibertso eratzailea ikertzen saiatu gara, horretarako dimentsio ideologikoa kategorial diskriminatzailetzat hartu dugularik.

Guzti hori dela medio, Irudikapen sozialen eta talde pertenentziak eta pertenentzia ideologikoaren arteko dinamiketan sakondu dugu. Horretarako, lehenik eta behin, metodologia kualitatibo baten bidez, pertsonarteko, Euskadi zein mundu mailan bakearekin zerikusia duten irudien, bakearekiko portaera ereduen, bakeari buruzko balorazioen eta Euskal Herrian ematen den bake ezari buruzko azalpenen inguruan explorazio bat burutu dugu. Explorazio honetatik

eratorritako elementuetan oinarriturik, ikerketa kuantitatiboa burutu ahal izateko neurketa-tresna eratu genuen.

Bigarren helburuari dagokionez, gizabanako independiente edo talde bateko partaide bezala interaktuatzen duenean subjektuen jokabidean ezberdintasuna emango direla azpimarratzen duen Tajfel-en Identitate sozialari buruzko teoria (Tajfel, 1981, 1982, 1983, 1984) eta gatazka sozial bati norgehiagokako jarrera baten bidez aurre eginez gero eta gatazka areagotu eta iraunkortzen duen gizarte prozesu bat ematen dela dioen taldearteko gatazkari buruzko teoria (Doise, 1986; Deutsch, 1983; Sherif, 1966) tartekatu ditugula adierazi behar da. Teoria hauetatik abiatuz, identitate ezberdinen (indibiduala/soziala) salientzia eta bestearen ebaluaketaren artean dauden zenbait prozesu hipotetiko soziokognitibo planteatu ditugu. Prozesu hauek, beste batzurekin batera, exotaldearen aurkako biolentzia zuzenerantz gida gaitzaketen neurrian, biolentzia kulturalaren oinarrietako bat osa dezaketela kontsidera daitekelarik (Galtung, 1990).

Aurkezten den Tesi proiektuaren egiturari dagokionez, lau kapitulu nagusitan zatitu dugula aipatu behar da. Kapitulu hauek, honela izendatu ditugu: *Oinarri Teorikoak, Metodologia, Emaitzak* eta *Konklusio Orokorrak*.

Lehen kapitulua -*Oinarri Teorikoak*- hiru ataletan banatzen da. Lehena -Bakeari Buruzko Uste Sistemak eta Bakeari Buruzko Ikerketa-,

sarrera modukoa litzateke eta honen bidez, lan hau Bakeari Buruzko disziplina zientifikoaren barnean kokatu nahi izan da. Honekin batera, ikerketa mota honen gai-eremua zehaztu duen bake nozioaren garapena ere azaltzen da.

Bigarren atalean -Uste sistemak, Uste Barreiatuak eta Irudikapen Sozialak- Tesi-proiektu honen lehen zatiaren eremu teorikoa - "Uste Barreiatu"ena alegia (Gaskell eta Fraser, 1990)- aurkezten da. Uste sistema hauek Irudikapen sozialen eremuan kokatu ditugunez, honetaz ere luzaro hitzegingo dugula azpimarratu nahi dugu.

Hurrengo atalean -Talde arteko Gatazka- identitate sozialaren salientzia eta identitate gatazkatsuekiko taldekidetza aldagaiek bestearen ebaluaketan duten eragina teorikoki azaltzen saiatu gara. Horretarako, Identitate soziala (Tajfel, 1981, 1982, 1983, 1984), talde arteko gatazkari buruzko teoriak (Doise, 1986; Deutsch, 1983; Sherif, 1966), eta beste batzuren artean Lederach-ek egindako gatazkari buruzko zenbait argibide orokor azaltzen ditugu.

Bigarren kapituluan, -*Metodologia*- lan honetan egin diren bi eremu-lanak burutu ahal izateko jarraitutako prozedura eta metodologia ezberdinak aztertzen ditugu. Laburpen moduan, aipatu behar da lan honetan metodo kualitatibo zein kuantitatiboak erabili ditugula, ikuspegi honen bidez, gure lanari dimentsio sozial eta kultural bat ematen saiatu garelarik (Jodelet, 1986).

Hirugarren kapituluan -*Emaitzak*-, burututako eremu-lanaren emaitzak aztertzen dira. Lehen atalean, -Aldagai Demografikoak-, aldagai demografikoen arabera, lagina deskribatzen da. Bigarren atalean -Aldagaien Egituraketa- aldagai ezberdinak osatzen dituzten itemei "Varimax" delako rotazioaz egindako azterketa faktorialean oinarrituz, aldagaien egituraketa azaltzen da. Hirugarrenean berriz, -Bakearen definizioa Euskal Herrian- bakearen dimentsioei buruzko lehen hipotesiari dagozkion datuak agertzen dira. Laugarren atalean -Bakeari buruzko Irudikapen Soziala Euskal Herrian- Bakeari buruzko Irudikapenaren inguruan laginak emandako datuen deskribaketa egiten da. Hurrengo atalean -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala-, identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak bakearen irudikapen sozialean duen eraginari buruzko datuak aztertzen saiatzen gara. Seigarren eta zazpigarren ataletan -"Ideologia Politikoa eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala", eta "Ideologia Abertzalea eta Bakeari buruzko Irudikapen Soziala"- ideologia ezberdinek aldagai honetan duten eraginari buruzko datuak azaltzen dira. Zortzigarren atalean -Gatazka Euskal Herrian-, gatazkari buruzko laginak azaltzen dituen emaitza orokorrak aztertzen dira. Bederatzigarrenean -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza, identitate sozialaren salientzia eta gatazka- identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak eta identitate sozialaren salientziak bestearen ebaluaketan duten eragina azaltzen da. Hamargarrenean, aldiz, -Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta identitate

sozialaren salientziaren arteko interakzioa eta gatazka- arestian aipatzen genituen bi aldagaiek bestearen ebaluaketan duten eraginari buruzko datuak aztertzen dira. Azkenik, hamaikagarren atalean -Aldagaien arteko Harremana- hurrengo aldagaien arteko harremanei dagozkien datuak aipatzen dira: identitate sozialaren salientzia, gatazka hautematua, deslegitimizazioa, balio diferentzia hautematua eta exotaldearen ebaluaketa.

*Konklusio orokorrak* izenburuaz izendaturiko laugarren kapituluaren ondoren, neurketa-tresnak jasotzen dituzten bi *eraskin* agertzen dira. Eta azkenik, lana amaitzeko, erabilitako liburu eta artikulu zerrenda aukezten da.

Aurkezpen honekin amaitzeko, aipatu behar dugu lan hau hego Euskal Herrian zentratzen dela, Iparraldeko egoera ezberdina izateaz gain, bertan inkestak pasatzeak zailtasun ugari ekartzen bait zituen.

# I. KAPITULUA

# OINARRI TEORIKOA

# 1.1. BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK ETA BAKEARI BURUZKO IKERKETA

Lan hau "Bakeari buruzko Ikerketa"ren (Peace Research) alorrean kokatzen denez gero, lehen zati honetan ikerketa mota hau aztertzen saiatuko gara. Honekin batera, eta bakeari buruzko ikerketaren eremuaren hedapena kontzeptu honen garapenaren eskutik suertatu den neurrian, bake kontzeptuaren garapena aztertuko dugu.

## 1.1.1. Bakeari Buruzko Ikerketaren sorrera

Bakeari buruzko ikerketaren sorrera ("Peace Research" delakoarena, alegia), mundu mailako bi guden arteko garaian koka daiteke. Garai honetan, marginalki izan arren, zenbait pertsona, bakeari buruzko ikerketara dedikatzen hasten dira. Mundu

mailako bigarren guda arte mantendu zen egoera hau, bakerako ikerketaren kondairaurretzat hartua izan da (Visas Armengol, 1987).

Berez bakeari buruzko ikerketa esaten zaiona, aipaturiko gerrak eragindako hausnarketetik gudaren arrazoiak eta hau ekiditzeko bideen beharrei erantzuteko sortzen den "nazioarteko harremanak" delako disziplina zientifikoaren eskutik jaiotzen dela esan daiteke.

Hasera batetan eta garai hartan zegoen bake konzepzioaren eraginez, bakeari buruzko ikerketa gudaren ikerketan zentratzen zen. Hala ere, bere historia laburrean zehar bere ikerketa eremua zabalduz joan da, egun atentzio-gune zabala eta ezaugarri zientifikoak dituen disziplina izatera iritsi arte.

Mundu mailako bigarren gudaren ostean suertatu ziren eta bakearekin zerikusi handia zuten zenbait gertakizunek, -(1) gizadi guztia arriskuan jartzen duen arma-nuklearren agerpena, (2) hondamendi ekologikoa ekar dezaken desarrollismoa eta (3) bakearekin zerikusi handia duten azpigarapena, gosea eta mixeria bezalako arazoak hain zuzen- beste dimentsio bat eman zioten bakeari buruzko ikerketari, bere oinarri eta eremuaren birplanteamendua eman zelarik: Ordurarteko paradigma nagusia -estatua eta boterearena alegia, honen ikerketa-ikuspegi bakarra gudaren arrazoiak eta bake/segurtasun/ordena triologiaren baldintzak aztertzea eta bere oinarrizko azterketa-unitatea

estatu-nazioen portaera diplomatiko-estrategikoa zirelarik- beste paradigma bategatik aldatu zen. Azken honen ikerketa-eremua mundua zen eta atentzio-gunea gizakia eta honen beharrak. Era honetara, bakea -biolentzia fisiko eza hutsaz gain, biolentzia sozial eta ekonomiko eza ere barneratzen dituena- balio eta lortu beharreko xede bihurtu zen.

Esan daiteke gudaren arrazoiak argitu eta beste gerra bat ekiditzeko sortu zela berez bakeari buruzko ikerketa esaten zaiona.

### 1.1.2. Bakeari Buruzko Ikerketa eta honekin zerikusia duten beste zenbait ikerketa eremu

Bakeari buruzko ikerketaren eremuan, aportazio ezberdin ugari aurkitzen dira, askotan ainiztasun honek aportazio hauek sailkatzeko lana zaildu egiten duelarik. Zenbait autorek aportazio hauek hobeto deskribatzeko, bakeari buruzko ikerketarekin zerikusia duten lanak honako sail zabal hauetan sailkatzea proposatu izan dute (Visas Armengol, 1987; Fisas, 1987; Arenal, 1990):

a) Nazioarteko harremanak: Zientziaren eremu aplikagarri hau, mundu mailako politika arduradunek erabaki politikoak hartzeko prozesuari zuzenduta

dago, hori dela eta dimentsio nazional bat hartzen du. Estatuen arteko harremanak, diplomazia, nazioarteko zuzenbidea, gatazkak, bakearen eraikuntza eta ordena eta hau nola mantentzen den aztertzen ditu eremu honek.

Bakeari buruzko ikerketaren helburua, berriz, nazioarteko bakea da eta ikuspegi supranazional batetik biolentziaren prebentzio eta soluzioari zuzendurik dago. Nazioarteko harremanei buruzko ikerketek ere xede hau dutela esan daiteke, baina hauek aktoreetan oinarrituriko afirmazio nazionala duten bitartean, bakeari buruzko ikerketak protagonismoa pertsona, erakunde eta antzeko aktore ez estatalei ematen die (Visas Armengol, 1987).

b) Polemologia: honen helburua botere politikoa zein iritzi publikoa fenomeno gatazkatsuen garrantziaz arduratzen laguntzea da, honekin batera fenomenu hauen prebentzioa bultzatzen duelarik. Horretarako, guda eta gatazken azterketa-elementutzat hartzen diren gertaera, egitura, koiuntura eta funtzioak aztertzen dituen disziplina ainitzeko metodologia bat erabiltzen du.

Bakeari buruzko ikerketak, berriz, ikerketa-eremu zabalagoa du eta ukiezina eta neurtezinak diren kuestioetan erdiratzen da: ez ditu gudak bakarrik aztertzen. Alternatiba politiko eta sozial, giza eskubide eta abarretan ere erdiratzen da. Honela, polemologiaren helburua guden amaiera bada, bakeari buruzko ikerketarena edozein motatako

biolentzia desagertzea eta justizia soziala lortzea dela esan daiteke.

c) Gatazken azterketa: Hau ere gatazketan oinarritzen da, kasu honetan kultura artekoak ez direnak (industrialak, pertsonalak,...) ere kontutan izaten dituelarik. Gatazkaren sorreran, garapenean eta ondorioetan oinarritzen da eta egoera gatazkatsuetan suertatzen diren talde eta subjektuen arteko erreakzioak aztertu eta aldatzen saiatzen da. Gatazken azterketa hauek, gatazken azterketa sakona egiten duten neurrian, bakeari buruzko ikerketaren oinarritzat har daitezke.

d) Azterketa estrategikoak: Hauen helburua gudak irabazteko bideak aurkitzea litzateke. Ikus daitekenez, helburu honek ez du bakeari buruzko ikerketarekin zerikusi handirik. Hala ere, azterketa hauek beharrezkoak dira bakeari buruzko ikerketan.

e) Irenologia: ikerketa-objektuarekiko konpromezu pertsonal batetik abiatuz, bakea aztertzen du, honi lehentasunezko balorazioa emanez. Irenologiaren baitan, bakerako heziketa, giza eskubideak, bakerako mugimendua, bakeari buruzko kulturaren diskurtsoa eta mundialismoa kokatzen dira.

## 1.1.3. Bake nozioa eta honen garapena

Bakeari buruzko ikerketa definitzeko lanari ekin baino lehen, beharrezkoa da bake kontzeptu teorikoaren azterketa bat burutzea. Behar honen arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik eta aipatu dugun bezala, bakeari buruzko ikerketaren gai-eremuaren eboluzioa bake nozioaren garapenarekin batera suertatu izana eta bestetik, bakeari buruzko ikerketa deritzanaren ikerketa-eremuaren izaera, aukeratutako bake-nozioak baldintzaturik egotea.

Bake-nozioari buruz, esan daiteke tradizionalki, bakea gudaren amaiera edo guda-prebentziotzat hartu izan dela. Horren ondorioz, bakea bere aurkakoaren arabera -gudaren arabera, alegia- definitua izan da. Hala ere, lehen aldian jada, zenbait autorek egungo bake nozioatik hurbil zebiltzan zenbait planteamendu egin zituzten. Hauen artean, duela bi mende Inmanuel Kant-ek bakea honela definitu zuen: estatuen arteko guda eza eta estatuen arteko guda erasotzailerako prestakuntza eza bezala (Kant, 1795 in Galtung 1985).

"Bakea, era batera edo bestera definitu arren, "sistema"ren baten ezaugarri bat da: pertsona-barnekoa, pertsonartekoa, gizarte-barnekoa, gizateartekoa... Sistema bati egokitutako kontzeptu bat da; hori dela eta, gizarte horretan kontzeptuen formazioan eta sistemen sorreran nagusi diren ohituren eragina jasotzea derrigorrezkoa da" (Galtung, 1985, 75. orr.). Honela, mendebaldeko

kulturan nagusi den bake kontzeptua bi tradizio nagusik eragindurik dagoela esan daiteke (Galtung, 1985):

a.- Lehen joera Greziatar Tradizioa litzateke, ("eirene" konzeptuaren baitan gauzaturik), honek bakea "kanpoko mehatxuen aurkako barne-batasun" bezala definitzeko joera du. Planteamendu honetatik atera dezakegun ondorioa, kanpoko mehatsuak barne-batasuna (Estatua) indartzen duela da. Era honetan sortzen da defentsa armatuaren oinarria den "gu besteen aurka"-ko ideia, honen helburua dimentsio bikoitza duen bakea da:

a.1. - Alde batetik, kanpotarrekiko defentsan, bakeak Estatuaren defentsarako armamentismo eta militarismoaren garapena suposatzen du eta a.2.- bestetik barneko ordena eta bakea mantentzea. Joera honen arabera, bakea kanpo zein barne biolentzia eza litzateke. Honela Estatua bakearen kontzepzioaren oinarrizko elementu definitzailea bilakatuz.

b.- Bigarren joera, Erromatar tradizioa, Erromako inperiotik agerian dago eta honen arabera, "mendebaldean sortu eta kokatzen den unibertsalismo"an oinarrituz, bakea "lege eta barne-ordena" litzateke, honen erreferentzi-puntua ere Estatu Soberanuak direlarik.

Honela, Galtung-ek (1985) Erdi Aro Garaiako "Erdi-aroko Berpizkundean" kokatzen duen "aro modernoan" garatutako filosofia eta teoria politikoak, gizarte-bizitza bi mundutan zatitzen dute: alde batetik, **estatua**, non legeak, bakeak eta ordenak agintzen duten eta bestetik **nazioarteko gizartea**, hemen berriz, anarkiak eta indartsuenaren legeak agintzen dute. Zatiketa honek bake kontzeptua era negatibo eta externo batetan zehaztuko du. Honela bakea gizakiaren historiaren ezaugarri eta lege edo ordenik gabeko nazioarteko gizartean normalak diren guda ainitzen arteko egoera zirkunstantzial bezala aurkeztuko da. Kontzepzio honen arabera, estatu baten baitan barne-desordenik ez badago, estatu hori bakean egongo da, bakea nazioarte mailako zerbait bezala kontsideratuz: estatu arteko guda eza hutsa, hain zuzen.

Arestian aipaturiko joera Greko-Erromatar hauetatik batez ere sortu zen bake kontzepzio negatiboa, hau gaur egun Mendebaldeko kulturaren hedapenaren eta konkisten ondorioz, munduan ikuspegi nagusia delarik. Honek bakea bi gatazka edo guden arteko denbora-tartera edo estatu edo ideologiaren batek beste batekiko garapenera mugatzen du, bakearen alde positiboak erabat baztertuz. Guzti honengatik tradizionalki bakeari buruzko ikerketa zientifikoa guda, gatazka eta hauek ekiditzeko bideei buruzko ikerketa hutsa izan ohi da. Hau izango litzateke Galtung-en ustez (1981) benetan lortu nahi dugun bake-irudirik ez egotearen arrazoia.

Egoera hau azken lau hamarkadetan poliki-poliki aldatzen hasia da, nahiz eta, esan bezala, lehenago bake kontzepzio berri baten lehen pausoak eman ziren. XVI. mendean adibidez, Martin Lutero "justizian oinarritutako bakea"z hitzegiten hasi zen eta XVIII.-ean, 1795.ean Kantek "Kanposantuetako Bakea"-ri uko egin zion, errepresioan oinarritutako zerbait ezin litekeela bake izan azpimarratuz.

Geroago, Marxismoak eta explotazioaren aurkako borrokek Kant eta Luteroren planteamendu hauek eguneratu zituzten. 1940garren urtean "Commission to Study the Organization of Peace" delako erakundeak, "bakea berezko aktibitate bezala eraiki daitekeen eta mundu mailako justizia, askatasuna eta segurtasuna lortzeko instituzio eta mekanismo bereziak behar dituen prozesu dinamiko bat dela" deklaratu zuen. Guzti honengatik, azken 40 urteotan bakea guda eza soiltzat zuen bake nozioa eraldatzen hasi da eta bere definizioari askatasuna, berdintasuna eta justizia bezalako balio positiboak gehitu zaizkio.

### 1.1.4. Bake kontzepzio berria

Arestian azterturiko garapenaren ondorioz, bake kontzepzio berri eta zabalago bat sortzen hasi da. Honen arabera, bakea gizabanako, talde, aberri edo unitate handiagoen arteko kooperazioan

oinarritutako harreman bat litzateke.

a) Curle-en Ikuspegia: Autore honen ikuspegiaren arabera, **harreman baketsuak** gizabanako edo taldeak, bakoitzak bere aldetik lortzea ezinezkoak lirateken helburuak elkarrekin lortzeko baldintzapean jartzen dituzten harremanak lirateke. **Etsai harremanetan**, berriz, inplikaturik dauden aldeak elkarri min egiten diote. Honen ondorioz, besteak duen errealizatzeko edo garatzeko gaitasuna murriztu egiten da eta bakoitzak bere aldetik lortuko lukeena baino gutxiago lortzen du. Beste era batetara esanda, etsai harremaneta nahiz eta parte batek abantailak lortu, beste partea kalteturik ateratzen da (Curle, 1978).

Curle bakearen definizio positibo eta negatibotik abiatzen da. Honela, **definizio negatiboa**ren arabera, harreman baketsuak gatazkarik ez dutenak lirateke. Hala ere, gatazka ezak asoziazio eza suposa dezake. Honi bake negatiboa deitzen dio eta autore honek bakea **positiboki definitzea** nahiago du.

Honen arabera, pertsona mailako harreman baketsuak sor daitezkeen edozein diferentzia gainditzeko lain zabalak liratekeen adiskidetasun eta ulermenean oinarrituriko harremanak lirateke. Maila altuago batetan, harreman baketsuek lankidetza eraikitzaile eta armoniosoa, elkarlan aktiboa, planifikaturiko kolaborazioa eta suerta daitezkeen arazo eta gatazkei irtenbide bat emateko

ahalegin adimentsua inplikatu beharko lituzkete. Honela, harremanetan dauden talde zein pertsonek, bakoitzak bere aldetik lortuko ez lituzketen gauzak lortzeko gai izango lirateke.

Bakearen alde honek, Curlek (1971) "garapena" deitzen duenarekin zerikusi handia du: garapen batek suertatu behar badu, hau da, harreman batek eraginkorki eta armonikoki hazi behar badu, argi dago berdintasun eta elkarrekikotasun maila handi bat egotea ezinbestekoa dela. Harreman baketsuetan ez da menperaketa edo inposaketarik ematen. Hauen ordez, elkar laguntza, elkar ulermena, kezka, lankidetza eta interes solidarioa eta elkarlaguntza honetatik sorturiko kolaborazioa ematen dira. Kontzepzio honen arabera, bake nozioak ezin du murritza izan, globala eta zabala izan behar du. Baina, era berean, kontzepzio honetara iritsi ahal izateko, biolentziaren kontzepzio multidimentsional bat beharrezkoa dela azpimarratzen du autore honek (Curle, 1971).

b) Galtung-en ikuspegia: Galtung-ek 1964ean planteatu zituen biolentzia eta bake tipologiak izan dute benetazko eragina gai honi buruzko eztabaidan. Galtung-en ustez (1985, 27-72) biolentzia "gizabanakoak, bere errealizazio efektibo, somatiko eta mentalak burutzeko garaian negatiboki eragindurik sentitzen direnean ematen da. Eragin honen ondorioz, errealizazioa ez da behar bezala ematen, errealizazio maila

potentzialaren azpitik geldituz". Ikus daitekeenez, autore honek bakea giza-errealizazio indibidual zein globaleraino zabaltzen du. Ekidingarria izanik, potentziala efektiboa baino handiagoa denean, biolentzia ematen da. Efektiboa, nahiz eta hau oso maila bajuan kokatuta egon, ekidingaitza denean, berriz, ez dago biolentziarik. Adibide bat jarriko dugu: gaur egun edozein lurraldetan jendea gosez hiltzea beste batzuk diruarekin zer egin ez dakitenean biolentzia egituralaren adibide latz bat da. Beste adibide bat, edozein lurraldetan lurrikara baten ondorioz milaka pertsona hiltzea litzateke, indar bereko lurrikara batek EEBBetan ehunen bat hildako baino ez bait luke sortuko.

Galtung-en ustez, "errealizazio maila potentziala" delakoa zera litzateke: baliabide eta ezagutza maila zehatz bat izanik lortzen dena. Ezagutza eta baliabideak talde edo klase bakar baten eskutan daudenean edo/eta beste gauza batzuetarako erabiltzen direnean, errealizazioa bere maila potentzialaren azpitik gelditzen da, eta esan daiteke sistemak eragindako biolentzi bat ematen dela, honi **Biolentzia egiturala** deitzen diolarik. Biolentzia egitural hau biolentzia zuzen edo fisikotik bereizten du. Galtung-en esanetan (1981) gizatarren oinarrizko beharrak asetzen ez direnean, lau biolentzia mota ematen dira:

i) Giza-gorputzaren aurkako biolentzia fisikoa.
ii) Pobrezia edo egituralki baldintzaturiko gizakiaren oinarrizko beharrak ez asetzea.

iii) Errepresioa edo egituralki baldintzaturik dagoen giza eskubideen aurkako erasoa. Hau intolerantzia errepresiboa litzateke.
iv) Goi-mailako beharrak ez asetzea edo egituralki baldintzaturiko alienazioa.

Hauetariko lehena, **biolentzia fisikoa**ren baitan kokatuko litzateke, beste hirurak **biolentzia egituralaren** baitan leudekelarik. Sistemak eragindako biolentzia egiturala, baliabideak talde edo klase baten eskuetan daudenean edo beste helburu batzuetarako erabiltzen direnean suertatuko litzateke. Honen ondorioz, maila efektiboa potentzialaren azpitik gelditzen da.

Ikus daitekeenez, Galtung-ek biolentzia gizatarren oinarrizko lau beharren aurkako erasotzat hartzen du. Behar hauek ondorengoak dira: **superbizipenerako beharrak**, **ongizaterako beharrak** eta **identitate eta askatasun beharrak**. Lau mota hauen artean, izadiarekiko harremanari buruzko beharrik ez du zuzenean aipatzen, nahiz eta oreka ekologikoaz -"ecobalance" delakoaz alegia- hitegiten digun. Oreka hau existentziarako nahitaezkoa litzateke eta bakea definitzeko garaian kontutan izaten du, bere ustez, bakea lau beharrak asetzearen eta oreka ekologikoaren batura litzatekeelarik (Galtung, 1985).

Galtung-ek ondoren biolentzia egiturala sakonduko du, bere lanik adierazgarriena "Inperialismoaren Teoria Egiturala" izanik (in Falk

& Kim, 1980, "The War sistems: a Interdisciplinary Approach"). Galtung-ek, teoria honek mundu honetako gertaerarik nabarmenenen artean ondorengo bi hauek abiapuntutzat hartzen dituela adierazten du: alde batetik, gizatarren bizitzaren maila guztietan ematen den ezberdintasuna eta bestetik, ezberdintasun honen aldaketarako erresistentzia.

Autoreak desberdintasuna nola azaldu eta borrokatzen jakitea lortu nahi luke, ezberdintasun hau bait da biolentzia egituralaren adierazpenik gogorrenetariko bat. Biolentzia egituralarengandik askatzeko teoria orok teoriko eta praktikoki dominazio sistemaren aurkako ideia egokiak aurrez onartzen ditu, eztabaidatzen den menperaketa era berezia inperialismoa izanik (Galtung, 1980).

Biolentzia egituralaz gain, **biolentzia zuzena** dugu. Hau suertatzen da lehen aipaturiko errealizazio bideak -ezagutza edo/eta baliabideak- zuzenean suntsitzen direnean. Biolentzia mota honek dinamismoa eta bapateko aldaketa dakartza, beraz, nabarmena da. Egiturala, ordea, prozesu isil eta estatiko bat da. Honen objektua biolentzia hau ikus ez dezan konbentzitu daiteke, honen ondorioz askotan hau jasaten dutenak ez dira honetaz ohartzen. Biolentzia egituralaren baitan ere mota ezberdinak daudela baieztatzen du (Galtung, 1969).

Biolentzia zuzena eta egituralaren arteko bereizketatik abiatuz, bakearen kasuan paralelismo bat egiten du **bake negatiboa** edo biolentzia zuzen eza -honen bidez egoera negatibo bat ekiditen

delarik- eta **bake positibo** edo edozein biolentzia mota eza -honen joera egoera positibo bat lortzea delarik- kontzeptuak sartuz. Gizarte justiziaren bidez bake positiboari gizartearen integrazioaren sentsua ematen dio.

"Positibo" eta "negatibo" terminuak erabiltzearen arrazoia oso xinplea da: biolentzia zuzena desagertzeak ez gaitu positiboki definituriko egoera batetara eramaten. Gizarte justizia bezala definitu dugun biolentzia ezak, berriz, positiboki definituriko egoera batetara eramaten gaitu (botere eta ondasunen banaketa igualitarioa). Galtung-en (1981) arabera, benetazko bakeak edozein motatako biolentziaren desagerpena suposatzen duenez, sistemaren berregituraketa bat behar du. Aipatu behar da bakearen bi alde hauek garrantzi berdina dutela.

1989. urtean, Galtungek biolentziaren definizioa zabaldu egiten du honi beste konzeptu bat gehituz: **Biolentzia Kulturala**. Bake Kulturala ez litzateke ez ekintza bat -biolentzia zuzena-, ez eta prozesu bat ere -biolentzia egiturala-, denbora tarte luzeetan aldatu gabe dagoen gauza iraunkorrago bat baizik: konzientzi eta oroimen sozialean denbora luzez ainguratutako zerbait. Galtungen hitzetan, biolentzia kulturala "biolentzia -zuzena zein egiturala- justifikatzeko erabil daitezkeen kulturaren aldeek osatzen dute", beraz biolentzia egiturala edo/eta fisikoa zilegi direla hautematera eramaten gaituzten kulturaren

aldeak lirateke (Galtung, 1990).

Nahiz eta kultura batean biolentzia zuzena zein egiturala justifikatzeko zenbait elementu aurkitu ahal izan, ezin da esan kultura hori bere osotasunean baketsu edo biolentoa denik, "Y kulturaren X aldea biolentzia kulturalaren adibide bat" dela baizik (Galtung, 1989).

Galtung-ek erlijioa eta ideologia nazionalista jartzen ditu biolentzia kulturalaren adibidetzat, bien arteko analogia bat egiten duelarik. Honela, erlijioaren kasuan "Jainkoak aukeraturikoak" eta "ez aukeraturikoak" dauden bezalaxe, ideologia nazionalistaren kasuan "gu" eta "besteak"en arteko ezberdintasuna sortzen da, honen ondorioz "maldan-behera"ko (298.or.) prozesu bat ematen delarik: "gu"aren balioa areagotu eta "bestea"rena zeharo gutxitzen dira, "bestea"ren gizatasuna gutxitu edo ukatzera irits daitekeelarik. Prozesu hau gertatzen denean, "Bestea"ren aurkako biolentzia -zuzena edo egiturala- justifikatu egiten da eta orduan, hau biolentzia kulturalaren alde bat dela (Galtung, 1990) esan daiteke.

Biolentzia egituralak eta zuzenak antonimoak dituzten bezelaxe, -bake egiturala eta zuzena alegia- biolentzia kulturalak badu ere bere antonimoa: **bake kulturala**. Bake kulturala, bake egiturala eta zuzena justifikatzeko kulturak dituen zenbait aldek osatzen dutela azpimarratzen du.

Dimentsio kultural honen azterketan kokatzen da, hain zuzen, ikerketa honen helburua. Gure asmo orokorra, aldagai batzuren eraginez euskaldunen uste sistema eta pertzepzioetan aurki daitezkeen biolentzia edo bake kulturalaren elementuak aurkitu eta definitzea da. Horretarako, gure kulturaren bi alde aztertuko ditugu: (1) Bakeari buruzko uste sistemak: Euskal Herrian bakeari buruzko uste sistemak azterturko ditugu Irudikapen Sozialen eremu teorikoaren baitan. Irudikapen hauek eta taldekidetza eta ideologiaren arteko dinamiketan sakontzen saiatuko gara, irudikapen hauetan aurki daitezkeen bake edo biolentzia kulturalaren adibideak aztertuko ditugularik. (2) Exotaldeari buruzko pertzepzioa: alde batetik pertzepzio hauetan identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak eta identitate sozialaren salientzia bezalako aldagaiek duten eragina aztertuko dugu. Beste alde batetik, aldagai hauen arabera exotaldearen etsai-irudi desgizakor eta kriminalizatu bat ematen den ala ez aztertuko dugu.

c) Beste ikuspegi batzu: Bakearen definizioekin jarraituz, **Lebowk** (1983) baieztatzen du aberri, gizabanako edo talde bat bakean dagoela bere beharrak -ez bakarrik biologikoak, eragin negatiboa duten estimuluak sortzen dituzten harreman guztiak baizik- asetu, ezabatu edo konponduak izan direnean. Behar hauek asetzen ez direnean edo beste parteko beharrekin gatazkan daudenean berriz, elkarren arteko ostilitateak sortzen dira.

**Burton** (1986), gatazkari buruzko ikerketa eta bakeari buruzko ikerketaren arteko loturatzat har daiteke. Hau ere gatazkan erdiratzen da, baina bere helburua ez da honekin bukatzea, hau kontrolatu eta bideratzea baizik. Burtonen ustez, gatazka gizatarren arteko harremanetan beharrezko zerbait litzateke eta beharren teoria bat planteiatu zuen gatazken erabakikuntzaren ("Conflict Resolution") eremuan aplikatzeko. Burton-ek dioenez, hasteko, gatazka kontzeptua argitu beharko litzateke. Bera ez da egunero suerta daitezkeen gatazketaz arduratzen, jendea hil edo erahiltzeko prest agertzen den gatazketaz baizik, hauek bait dira oinarrizko balioetan eragina dutenak. Honela, "Conflict Settlement" -gatazkari buruzko ikuspegi tradizionalak- eta "Conflict Resolution" -gatazkaren izaeran sakondu eta oinarrizko balioetan eragina duten gatazketan erdiratzen den ikuspegia- delako ikuspegiak bereizten ditu. Autore honen arabera, gatazkei irtenbide bat emateko zientzia berri bat sortzen ari da. Honek gizatarren beharrei -identitate, garapen eta segurtasun beharrei hain zuzen-, gatazkan dauden parteeen interesei eta interes hauek asetzeari garrantzia handia ematen die. Burtonekin bat datozen beste ikerlari batzu Mitchell (1981), Bercovitch (1984) eta Banks (1984) dira.

Autore adierazgarrienen iritziekin osaturiko bake kontzepzio ezberdinen zerrenda honekin amaitzeko, **Naidu** aipatuko dugu (1986). Honen arabera bakea gizatarren bizitza ahalik eta gizabidezen gorde edo zaintzea izango litzateke.

Bake nozio honek bake kontzeptu positibo zein negatibo baten beharra azaltzen du, bakeak honako bost dimentsio hauek ditu:

i) Biolentzia eza.
ii) Justizia ekonomikoa.
iii) Gizarte berdintasuna.
iv) Askatasun politikoa.
v) Anaitasun Psikologikoa (Naidu, 1986).

Ikus daitekeenez, idazle gehienek bakea izateko gizarte-justizia funtsezkoa dela uste dute (Curle 1971; Galtung, 1985; Naidu, 1986; Talcott, Parsons, e.a.). **Fogarty**-k, ordea, kritika bat egin berri dio planteamendu honi, justizia bakerako ezinbestekoa dela dioten froga enpirikoak dauden bezala, aurkakoa dioten frogak ere aurki daitezkela esanez. Bestela esanda, justuak ez diren gizarte baketsuak -Erromako bakea aipatuz- edo gizarte justu baina ez baketsuak aurki daitezkeela dio -Sparta zaharrekoa adibidez- (Fogarty, 1992).

Idazle honen arabera, beste zenbait arazo filosofiko eta logiko ere ba dira: ez dugu bakearen definizio onik lan egin ahal izateko. Bakea guda eza hutsa baino gehiago dela dioen sentimendu bat besterik ez dugu, baina hau frogatzen duen ezer ez dago.

Bestalde, justiziaren definizioak ere arazoak dakartza, hau mendebaldeko tradizio judeo-kristauean oinarrituriko nozio etnozentrikoa bait

da. Berak kulturalki neutrala den justiziaren definizio baten beharra azpimarratzen du.

Bakearen definizioak bi ezaugarri izan beharko lituzkeela aldarrikatzen du: alde batetik, izaera sozialekoa izan beharko litzatekeela, hau da, talde baten ezaugarri izan beharko luke eta ez motibazio eta jokabide indibidual bat. Errealitate psikologiko bat baino gehiago, zerbait kolektiboa izan behar duela ere baieztatzen du. Bestalde, bakearen definizioak kultura guztientzako baliagarri izan behar duela azpimarratzen du, alde etnozentrikoak ekidinez. Honela, bakearen elementu klabeetariko bat gurekin harremanetan daudenen ekintzen aurresangarritasuna litzatekeela dio, elementu hau bakea eman dadin aurre-betebehar bat izanik. Beste oinarrizko elementu bat justizia dugu, bere ustez, "gizarte ordenaren lejitimotasuna" edo gizadian agintzen duten legeak denok bereganatu eta onarturik egotea litzateke.

Fogarty-k konklusio bezala honako hau esaten du: justizia eta bakearen arteko harreman bat ba dagoela, baina harreman honek ez duela zergatik derrigorrezkoa izan behar. Gizarte-orden justu batek uste, balio eta arauekiko benetazko kontsensuan oinarritu beharko luke, hau bakea epe luzean mantentzeko erarik seguruena bezala ikusten duelarik (Fogarty, 1992).

## 1.1.5. Bakeari Buruzko Ikerketaren garapena

Bakeari buruzko ikerketarekin hasi baino lehen, hau bere garapenarekin batera bere ikerketa-eremua zabalduz joan dela aipatu nahi dugu. Bere garapenean, ondo bereizturiko honako **hiru etapak** aurki ditzakegu (Visas Armengol, 1987; Arenal, 1990):

a) Lehenengo etapa, 40-50 urteetakoa, Estatuaren paradigma: Esan bezala, bakeari buruzko ikerketak lehenengo mundu-gudaren ondorioz probokaturiko hausnarketetan ditu bere aitzindariak, "nazioarteko harremanak" delako disziplina zientifikoaren garapenean hain zuzen. Garai hartan bakea mantentzea aberri guztietako oinarrizko kezka bihurtzen da, nahiz eta une hartan arazoari aurre egiteko ikuspegia tradizionalista izan. Hau da, garrantzitsuena estatuen botere armatua da eta bakea borondate ona eta estatuen indar militarraren arteko konbinaketa da (Roling, 1984).

Garai hartan egindako ikerketarik nagusienak, Richardson eta Wright-ek mende honetako laugarren hamarkadan guda kontrolatzeko helburuarekin buruturiko lanak ditugu. Bi autore hauekin gatazka biolentoen ikerketari hasera ematen zaio. Bakeari buruzko ikerketaren lehen urte hauetan eta bostgarren hamarkadaren amaieran hain zuzen, ikerketa mota honen izaera multidisziplinarrari

hasera ematen zaiola esan daiteke (Visas Armengol, 1987).

Aipatu behar da bakeari buruzko ikerketak nolabait garaiko egoera politikoa isladatzen zuela (Niezing, 1985). Zentzu honetan, bakeari buruzko ikerketaren lehenengo etapa hau guda hotzean eman zenez, ikerketa, maila handi batean, Ekialde-mendebalde enfrentamenduan oinarritzen zela aipatu behar da. Bestalde, une honetan bakea EEBBetan agintzen zuten disziplina teorikoek eragindurik suertatu zen -hasera batetan matematiketan oinarriturik zegoen jolasen teoriarena hain zuzen-. Honen ondorioz, Estatu eta Boterearen paradigman oinarritu zen, paradigma hau hiru baieztapenekiko onarpenen inguruan ainguratzen zelarik:

> i) Azterketarako ikuspegi bakarra gudaren arrazoiak eta bake/segurtasun/odena triologiaren baldintzak zirela.
> ii) Honen azterketa-unitate nagusia Estatu-Aberrien portaera diplomatiko-estrategikoa zela.
> iii) Estatu hauek, anarkia eta autoritate zentral ezaren sistema baten baitan aritzen zirela (Holsti, 1985).

1955. urtean, ordea, Lentz-ek bere "Towards a Science of Peace" delako liburuan bakeari buruzko ikerketaren izaeraren zenbait ezaugarri azaldu zituen, honek bakeari buruzko ikerketetan eragin handia izan zuelarik. Bakeari buruzko zientziari buruz emandako bere ideiak, aurretik egindako bi

aportazioetan oinarriturik zeuden: batetik, 1929.ean lantzen hasi zen izaeraren zientzia eta bestetik 1943.ean landu zuen demokraziaren zientzia, bere bakerako zientzia 1967.ean etikarako zientzia batekin osatu zelarik. Autore honen iritziz, lau zientzi hauek bereiztezinak dira eta bere osotasunean gizatar bat zoriontsu egiteko beharrezkoa denaren zientzia osatuko lukete.

Amaitzeko eta laburbilduz, esan dezakegu garai hartako ikerketak gudaren arrazoiak eta bakea errazten duten baldintzak aztertzen saiatu zirela.

b) Bigarren etapa. 60 eta 70 urteak, jarrera eraikitzailea: Mende honetako seigarren hamarkadan, ikerlariek ordurarteko paradigmak arma-karrera eta guda berri baten arriskua handitzen zituela ikusi zuten. Uste honek bakeari buruzko ikerketa ikuspegi internazionalista bat hartzera bultzatu zuen (Roling, 1984).

Bestalde, garai honetan munduan bakeari buruzko ikerketan eragina izango zuten aldaketa garrantzitsuak suertatu ziren: bi potentzia nagusien arteko distentsio bat eman zen, honen ondorioz iparralde-hegoalde arteko harremana, errepresioa, biolentzia egiturala, iraultza eta abarrengatik interes handiagoa sortuz. Honela, bakeari buruzko ikerketak bere ikerketa eremua zabaldu zuen. Zabaltze honekin batera, ordurarte egindako ikerketak eta aldarrikapenak kritikatu

egin ziren, kritikak honako hauek izanik:

i) Kontserbatzaile eta ofizialistak zirela eta, gatazkaren eta biolentziaren errealitatea ez zituzten kontutan hartzen, biolentziaren adierazpen gogorrenengatik soilik kezkatzen bait ziren.
ii) "Status Quo" delakoa edo indarrean zegoen ordena mantentzearen alde zeudela ere kritikatu zitzaien, honela bakearen errealizaziorako xedea desagertzen zelarik. Bakeari buruzko ikerketa biolentzia fisiko edo zuzenean erdiratzeaz gain, gizarte harremanen baitan zeuden biolentzia ekonomiko eta sozialaz ere arduratu behar zela aldarrikatzen zen, hauen ondorioek armak baino maila handiago batean suntsitzen bait dute gizatarren bizitza.
iii) Teoria eta ereduengatik gehiegi kezkatzen ziren.

1959. urtean Oslon eragin handia izan zuen gertaera bat suertatu zen: Galtung-en zuzendaritzapean "International Peace Research Institute, Oslo" (PRIO) delakoaren sorrera.

Beranduago, 1964. urtean hain zuzen, bakeari buruzko ikerketaren kontzepzio berrian eragin handia izan zuen gertakari bat eman zen. Lehen aipaturiko PRIO institutuak argitaratu eta Galtung-ek zuzenduriko "Journal of Peace Research" delakoaren lehen aleko editorialean Galtung-ek, biolentzia egitural eta zuzenaren arteko

diferentzia azpimarratu zuen. Bi bake mota hauen arteko bereizketa honek eztabaida gogorrak sortu zituen. Eztabaida hauen ondorioz, bakeari buruzko ikerketa epe luzeko bake finko bat sortzeko helburuan erdiratu zen.

Ezberdintasun hauekin batera, Galtungek bakeari buruzko ikerketaren hildoak azaldu zituen, humanitatea separatzen duten muga asko egonik muga hauetatik soilik gutxi batzu nazionalak diren neurrian, bakeari buruzko ikerketa ezin zela nazioarteko gatazkan soilik erdiratu adieraziz. Estatu-nazio delako gertakizun iragankor bat ikerketa disziplina bat definitzeko erizpide bakartzat hartzea etnozentrikoa eta estratejikoki miopea zela aipatu zuen.

Bere ustez bakearen alde positiboek biolentzia egiturala zein zuzentzat hartzen laguntzeaz gain, pertsona, unitate zein aberrien arteko kooperazio ez-biolento, ez-explotatzailea, ez-errepresibo eta igualitario bat ere kontutan hartzen lagunduko digutela azaldu zuen (Galtung, 1974). Guzti honen ondorioz, autore honentzat bakeari buruzko ikerketak garapenari buruzko ikerketei loturik egon beharko lirateke, bakeari buruzko ikerketaren ezaugarri den ikuspegi global eta holistikoaren zati bereiztezinak izanik (Galtung, 1985). Aipaturiko prozesu honen eraginez bakeari buruzko ikerketa, bultzada handi bat hartzeaz gain, bere paradigma berezia garatzen hasi zen, horretarako, funtsezko hiru prozesu tartekatu zirela esan

daiteke:

i) Biolentzia egiturala kontzeptura iritsi arte, biolentzia, bake e.a. kontzeptuen azterketa kritikoa.
ii) Ikusi zen munduan ematen den biolentzia fisiko edo zuzenaren ehuneko handi bat dominazio egoerak mantentzeko erabiltzen zela, honek lau osagai hauek osaturiko egitura zuelarik: explotazioa, penetrazioa, fragmentazioa eta marginazioa.
iii) Enpirismo hutsarekin apurtu zen.

Hausnarketa hauetatik abiatuz, errealitatearekiko jarrera kritiko bat hartzearen beharra sortu zen, honekin batera gizatarrek desiratuko lituzketen beste errealitate batzu sortzearen jarrera eraikitzaile bat ere eman zen.

1968. urtean Schmid-ek proposatu zuen ikertzaileek, gatazka nabariak kontrolatzen saiatzeaz gain gatazka gorde edo latenteak nola agertzen diren azaltzen saiatu beharko luketela, berarentzat gatazkak nola polarizatzen diren aztertzea funtsezkoa bait zen. Autore honek ere ordurarteko bakeari buruzko ikerketari kritika gogorra egin zion "gatazken gidatze" (ingeleseraz "Conflict Management") delako teoriak era integratzaile batetan aplikatzeagatik eta gatazkan dauden aldeekiko jarrera "objektiboa" izateagatik, bakeari buruzko ikerketa "Status Quo" delakoa mantentzen ari zela uste bait zuen.

Autore honen iritziz, ordurarte egin ziren bakeari buruzko ikerketak herri kapitalisten klase gidarien interesak defendatu zituen, hau onartezina zela uste zuelarik. Bere iritzien arabera, bakeari buruzko ikerketak iraultza eta askapenarako joera hartu beharko luke, kritika honek ikertzaile bakoitzak bere helburuak gehiago zehazteko eta bakeari buruzko ikerketaren hildoa birdefinitzeko balio izan zuela esan daiteke (Visas Armengol, 1987).

c) Hirugarren etapa. Zortzigarren hamarkada: alternatibak: Zazpigarren hamarkadaren bukaeran gizatarren oinarrizko beharretan erdiratzen zen fase berri bati hasiera eman zitzaion. Honela bakeari buruzko ikerketa pobrezia eta errepresioaren desagerpenean eta bizitzaren kontserbazioan zentratzeaz gain, ongizatea, askatasuna eta bizitza hobea izatean ere erdiratzen hasi zen.

Hildo horretatik, Galtung-ek bakeari buruzko ikerketek, bakeari buruzko ikerketaren ezaugarria den ikuspegi orokor eta holistikoaren osagaiaren zati bereiztezina den bilakaeraren ikerketekin loturik egon behar dutela aipatu zuen (Galtung, 1985). Bere ustetan bakeari buruzko ikerketa zertan datzan azaldu zuen, honen baitan bereiztezinak diren honako hiru dimentsio hauek azpimarratuz:

i) Bakeari buruzko ikerketa enpirikoa: hau lehen aldian gertatutako arazoei buruzko azterketan oinarritzen da, datuak hemendik soilik atera bait daitezke.
ii) Bakeari buruzko ikerketa kritikoa: hau orainaldiko arazoetan erdiratzen delarik.
iii) Bakeari buruzko ikerketa eraikitzailea: hau geroaldian erdiratzen da eta bakerako zenbait estrategia landuz, bere helburuak biolentzia eza, ongizate ekonomikoa, gizarte justizia, giza eskubideak eta oreka ekologikoa lirateke.

### 1.1.6. Bakeari Buruzko Ikerketaren xedeak eta ezaugarriak

Esan daiteke bakeari buruzko ikerketa, ikerketa-eremutzat mundua eta ikerketa-gunetzat gizakia eta honen behar eta eskubideak dituen disziplina zientifiko orokorra bilakatu dela, honentzat bakea -positibo zein negatiboa- lortu beharreko helburu nagusia izanik. Honetan, ikerketa eta ikasketa, ekintza eta heziketarekin tartekatzen dira.

a) Bakeari buruzko ikerketaren helburuei dagokienez esan daiteke gatazkak eztandatzen diren baldintzak argitzen saiatzen den disziplina zientifikoa dela (Cresup, 1977), honekin batera

biolentzia zuzena zein egiturala maila murriztearren, bake baldintzak ere aztertzen dituelarik (Hoivik, 1983). Azterketaren helburuak, gutxienez, gatazkaren arautzea antolatu behar du, honela honen adierazpen gogorrak ekidinez (Cresup, 1977).

Eckhardt-en arabera (1985), bakeari buruzko ikerketaren helbururik nagusiena, guda politika-tresna bezala erabiltzeko bidezkotasuna zalantzan jarri eta kooperazioan, giza eskubideen begirunean eta biolentziaren -fisiko, egiturala zein moralaren- murrizketan oinarrituriko harremanak sortuko lituzketen jarrerak eta ezagutzak garatzea da. Ikus daitekeenez, honen arabera bakeari buruzko ikerketaren xedea epe luzekoa litzateke. Zentzu horretan, bakeari buruzko ikerketa ezagutzera eman eta zabaltzen saiatzeaz gain, jarrerak aldatzen saiatu beharko luke. Ikuspegi honetatik, gizakien balioen definizio erradikalak eguneratzea bultzatu beharko luke bakeari buruzko ikerketak (Eckhardt, 1986).

b) Ezaugarriei dagokienez, bakeari buruzko ikerketak honako ezaugarri hauek lituzke:

i) Alde batetik, disziplina ezberdinetako ezagutzaren sintesi organikoa den neurrian, bere izaera diziplina ainitzekoa eta diziplina artekoa. Honek, disziplina bakoitzaren medio propioen tartekatze bat suposatzen du, arazoak

ikuspegi orokor aberatsago batetik aztertuz (Senghaas, 1981).

ii) Bestetik, bere izaera normatiboa -maila metodologiko, kontzeptual eta teorikoan balio-judizio eduki maila altua- eta ekintzari zuzendua egotea: bere helburua bakea izanik, gizakien beharren asetzea eta gizakia guztiz errealizatzeko beharrezkoak diren baldintzak lortzen saiatzen bait da (Arenal, 1984).

iii) Gainera, bere izaera interdisziplinarioa: gatazka eta bakea aztertzeko disziplina ugarien aportazioak erabiltzen ditu. Honek bakeari buruzko ikerketa disziplina ezberdinek eskeintako ezagutzaren sintesi bat bilakatzen du, ezagutza hau bake dimentsio ezberdinen bitartez aberasten delarik.

iv) Dinamikoa da; etengabe bake eta biolentziarekin zerikusia duten arazoen irtenbidearen bila bait dabil.

v) Bere xedeei dagokienez, humanoa da.

vi) Metodoei dagokienez, zientifikoa.

vii) Izaeraz, nazioartekoa da.

viii) Bere experimentazioan oso pragmatikoa da (Thee, 1983).

### 1.1.7. Bakeari Buruzko Ikerketaren baitako korronte ezberdinak

Bakea ulertzeko era ezberdin asko dagoenez,

ikerketa, metodologia, eskola eta korronte ugari dago bakeari buruzko ikerketaren baitan. Zenbait autorek (Galtung, 1975; Pardesi, 1982; Röling, 1984; Curle 1976; Boulding, 1980;...) jarraian aurkeztuko ditugun korronte-sailkapen ezberdinak egin dituzte. Aipatu behar da sailkapen hauek erlatibotasunez hartu behar direla, askotan eztabaidak sortu bait dituzte. Hala ere, sailkapen hauek bakeari buruzko ikerketaren konplexutasuna ulertzen laguntzen dutenez, jarraian zenbait ikertzailek egindako sailkapenak aztertzea erabaki dugu:

a) Galtungek (1975), adibidez, i) gatazkari buruzko eta ii) bakeari buruzko ikerketa artean bereizten ditu:

> i) **Gatazkari buruzko ikerketa:** Gatazka mota ezberdinen ulermena errazten saiatuko litzateke, horretarako hauen arteko azterketa, konparazio, eta kontrastazioa erabiltzen dituelarik. Bere joera kuantitatiboa eta behaviorista da.
>
> Gatazkari buruzko ikerketaren baitan ere, hiru lerro nagusi aurki ditzakegula dio: hauetariko bat gatazkaren zergatitzat gizatarren agresibitatea hartuz, agresibitate honen izaera eta zergatia aztertzen saiatzen da. Bigarrena, berriz, gatazkaren azterketa psikologikoa, politikoa eta soziologikoa

burutzen du, hirugarrenak nazioarteko harremanen ikuspegia duelarik.

Ikerketa mota honekin loturik, beste zenbait ikerketa-eremu ditugu, hauen artean "Conflict Management" delakoa dugularik. Hau, gatazkaren dinamika, garapena eta konponbidearen arloetaz kezkatzen da, eremu honen barruan "Conflict Resolution" delakoa garrantzitsua izanik.

ii) **Bakeari buruzko ikerketa:** honek alde batetik pertsona, talde zein estatu mailako biolentzia aurresan ditzaken uneko, iraganeko edo etorkizuneko baldintzak eta, bestetik, pertsona, talde zein aberrien arteko harreman armoniotsu eta eraikitzaileak bultzatzeko badintzak ikertzen ditu (Galtung, 1975).

b) Pardesi-ren sailkapena: Pardesik (1982), ere bakeari buruzko ikerketaren baitan bi eskola daudela dio: i) amerikarra eta ii) europarra.

i) **"Amerikarra":** Ikuspegi honen arabera, guda eta bake arazoak gizartearen beste zenbait arazotatik -inperialismoa, explotazioa...- bereiz daitezke, korronte hau nazioarteko sistemaren azterketan erdiratzen delarik.

ii) **"Europarra"** edo **"erradikala":** Honek, ordea, bakeari buruzko ikerketak explotazio eta zapalkuntza arazoetan erdiratu behar duela

uste du, hauek bait dira bakearen elementurik nagusienak.

c) Röling-en sailkapena: Bi korronte daudela dioten beste idazle batzuren artean, Röling dugu (1984), zeinarentzat bi ikerketa mota dauden: **"gogorra"** eta **"biguna"**. Idazle honen ustez, gertakizunak gogorrak edo bigunak izan daitezke. Lehenengoak mundu errealekoak lirateke, bigunak berriz kontzientziaren mundukoak liratekelarik, azken hauek neurtezinak izanik. Horregatik, bi motatako ikerketa hauek planteatzen ditu; gogorra edo kuantitatiboa eta biguna edo kualitatiboa eta neurtezina.

d) Curle eta beste batzuren sailkapena: beste idazle batzuk -Curle (1976) eta Arenal (1990) adibidez- hiru joera bereizten dituzte elkarren artean: **minimalista**, **tartekoa** eta **maximalista**. Hiru korronte hauek bakea biolentzia eza bezala definitzen dute, baina biolentzia mota ezberdinetaz hitzegiten dutenean eta ikertzeko garaian ez dira bat etortzen, bide ezberdinak jarraituz.

i) **Minimalista:** Minimalistentzat, bakea nazioarteko guda eza litzateke, korronte honetako idazle gehienak gudaren zergatien arazoan erdiratzen direlarik. Minimalisten artean, "Status Quo" delakoa defendatzen dutenak gehiengoa dira. Korronte honi egin

dakizkioken kritiken artean honako hauek ditugu:

* Errealitatearen azterketarako alferrikakoa den estatu eta boterearen paradigman ainguraturik daudela.

* Zenbait datuen ezagutza eza ere aurpegiratu izan zaie; adibidez, gudetan inplikaturik dauden benetazko interesak, interes hauek ordezkatzen dituzten talde edo klaseak, interes hauek ainguraturik dauden egitura ekonomikoa, hauek azaltzeko egitura politikoa eta aparatu militarra ekintzarako tresna bezala.

* Gudan gehiegi erdiratzearen ondorio bezala, bakea definitzeko garaian beharrezkoak diren beste biolentzia motak baztertzen dituztela.

* Bere izaera kontserbatzailea eta egungo nazioarteko ordenua mantentzearen aldekoak direla; ikertzaile hauen helburu bakarra gudaren zergatiak aztertuz honekin bukatzea da, honen arrazoi ugari aurkitzen diren egituretan inongo aldaketarik planteatu gabe.

ii) **Tarteko korrontea:** Tarteko korrontearentzat bakea, guda, eta guda mehatsu eza (guda-tresna eta guda-instituzio eza alegia) litzateke. Korronte honen baitan, bakea antolaturiko barne zein nazioarte mailako biolentzia eza bezala planteatzen duten autoreak ditugu, hau aurrerapausu garrantzitsu bat izanik. Korronte honetan

gatazkari buruzko ikerketa delakoaren aportaziorik gehienak sartzen dira.

Ikus daitekenez, bakearen definizioa oraindik oso negatiboa da, ez bait da gizarte egituren aldaketarik planteatzen. Horregatik, izaera kontserbatzailea duela eta bakearen alde positiboak ez dituela kontutan izaten esan daiteke.

iii) **Maximalista:** Azkenik, maximalistentzat, bakea era guztietako biolentzia eza -zuzena zein zeharkakoa,...- litzateke. Korronte honen barruan, zenbait autorek bakearen konzepzio positiboa gehitzen dute. Esan daiteke, hau dela benetazko bakeari buruzko ikerketa. Korronte hau, ordurarte buruturiko gatazka eta gudari buruzko ikerketei erantzuteko sortzen da eta aipatu bezala, ordurate zegoen paradigmaren ordezko berri baten bila ibiltzea (Tromp, 1980), bere kezka normatiboa, bere diziplinartekotasuna eta ekintzarako zuzendurik egotea dira bere ezaugarrietariko batzu (Thee, 1983).

Korronte honen baitan, bi ikuspegi daudela esan daiteke (Arenal, 1984):

* Humanista: Hemen Galtung, Curle, eta abar leudeke. Autore hauen arabera, biolentzia mota guztiak -biolentzia egiturala gainditzeko biolentzia fisikoaren erabilpena barne- dira

bakearen aurkakoak.

* Marxista edo iraultzailea: Honetan, beste batzuren artean, Senghaas (1971), Krippendorf (1973) eta Schmid (1968) ditugu eta hauen ustetan, bakeari buruzko ikerketak zanpatu eta explotaturiko herri, talde zein aberrientzako signifikatiboak diren terminuetan planteiatu beharko lituzke arazoak eta ez nazioarteko instituzio zein erakunde supranazionalentzat. Honela, bakeari buruzko ikerketak gatazka latenteak nola agertzen diren azaldu beharko luke, gatazka gogorrak nola kontrolatzen diren alde batera utzirik. Bakeari buruzko ikerketa, iraultza eta askapenera zuzendu behar dela azpimarratzen dute (Schmid, 1968). Hauen ustez, zapalketari aurre egiteko biolentzia zuzena erabiltzea zilegi da.

e) Boulding-en sailkapena: Azkenik, korronteen sailkapenik erabilgarriena (Visas Armengol, 1987) Boulding-ena dugu (1980). Honek ere hiru ikuspegi bereitzen ditu:

i) Lehenengo ikuspegiari **Egiturala** deitzen dio. Egiturazaleak eredu eta irudi estatikoen arabera pentsatzen dute eta mundua egituren terminoetan baloratzen dute. Korronte honen barruan biolentziaren erabilpenari uko egiten dion autore asko dago (Galtung, 1969; Singer, Rummel, Richardson...). Hauek, herri zein pertsonarteko harreman era berriak

lortzeko gizarte-egitura aldatzearen garrantzia azpimarratzen dute. Beste autore batzuk, ordea (Talcott, Parsons, Weber, Pareto...) biolentzia zuzenaren erabilpena justifikatzen dute, Estatuen eskutik ematen den meneramena, hierarkia edo gizarte-kontrola bezalako kontzeptuei buruz teorizatuz.

ii) **Dialektikoa** deitzen dion ikuspegiak, berriz, egitura eta interes ezberdinen arteko interakzio eta enfrentamenduek sorturiko borroken sahiestezintasunean oinarritzen du bere diskurtsoa. Planteamendu honetatik bi formulazio erator daitezke: lehenengoak, giza eskubideak garantizatuko dituen gizarte-prozesu baten sorreraren beharra azpimarratzen du. Honekin batera biolentzia zapuzten du. Bigarrenak, berriz, ez du biolentzia gaitzesten eta klaseetan zatituriko gizarte honekin bukatzeko kasuan onartzen du. Ikuspegi honen arabera, bakea klaserik gabeko gizartea litzateke.

iii) Ikuspegi **eboluzionista** da hirugarrena eta honetan kokatzen du Boulding-ek bere burua. Ikuspegi honen arabera, mundua parametro-aldaketa iraunkorretako (mutazio) baldintzapean jarduten den espezie askoren interakzioak desorekatutako sistema bat litzateke. Kasu honetan ere biolentzia onartzen ez dutenak eta justifikatzen dutenak aurki ditzakegu. Lehenengoek, biolentzia

zapuzteaz gain, garrantzi handia ematen diete interakzioa, oreka ekologikoa, portaeraren heziketa e.a. bezalako kontzeptuei. Ikuspegi honen arabera, bakea gizarte-giro eta portaeraren arteko elkarrekiko egokitze eta pazifikazio prozesu bat litzateke. Biolentzia onartzen duten eboluzionistek, berriz, (Hardin, Smith, Darwin,...), Darwinismoa, neoinstintibismoa eta soziobiologiaren zati baten alde azaltzen dira. Autore hauek superbizipenerako borroka, indartsuenaren superbizipena, e.a.-en diskurtsoa eraiki dute.

f) Korronteen arteko ezaugarri amankomunak: Ikus daitekeenez, korronteak sailkatzeko era asko dago, honek bakeari buruzko ikerketaren baitan eritzi ezberdin ainitz dagoela adierazten digularik. Hala ere, esan daiteke korronte guzti hauek amankomunean ba dituztela zenbait ezaugarri (Arenal, 1990):

i) Denek ikuspegi klasiko eta zientifikoa nolabait bateratzeko beharra ikusten dute.
ii) Honekin batera, alde kuantitatiboa eta kualitatiboa bereiztezinak direla aipatzen dute.
iii) Errealismoa idealismoarekin tartekatu behar dela defendatzen dute.
iv) Teoria eta substantziaren arteko loturak arazoen irtenbiderako emaitza praktikoak sor ditzan, lehenago funtsezkoa zen teoria eta ereduei buruzko gehiegizko kezka alde batera

utzi eta munduko arazo errealetaz kezkatzen dira.

v) Politikaren erronka, benetazko aldaketa baten bidez gizatarren arteko gatazkak armonizatzea dela dioen ustetik abiatzen dira.

vi) Azterketa eta ikerketa nazioarteko eginbeharretako bat dela aldarrikatzen dute, honela, etnozentrismoa gaindituz herrialde ezberdinen aportazioen ezagutza eta herrien arteko komunikazioa bultzatu nahiean.

vii) Estatu arteko sistemari mundu mailako sistema bat ordezkatzen ari zaiola baieztatzen dute.

viii) Azkenik, ikerketa orok izan behar duen izaera antropozentrikoa aldarrikatzen dute.

### 1.1.8. Bakeari Buruzko Ikerketaren egungo lehentasunak

Bakeari buruzko ikerketaren objektua hain zabala izanik eta bakeari buruzko ikerketa bereizturiko eta projekzio praktikorik gabeko ikerlan multzo bat besterik bilakatu ez dadin, beharrezkoa da lehentasun batzu ipintzea (Arenal, 1990). Hori dela eta, zenbait autorek bakeari buruzko ikerketaren logika eta lehentasunak mugatzen saiatu izan dira, hauen artean garrantzitsuena Thee (1983) delarik. Thee-k bakeari buruzko ikerketaren ikerketa-eremua, hildo nagusia,

balio, ikuspegi, arau, helburu eta ikasketa mailaren arteko harremanak eta ikerketaren egungo egoera adierazten duen lehentasun-koadro bat egin zuen. Jarraian honetatik eratortzen diren ikuspegiak azaltzen saiatuko gara:

a) Thee-ren koadroaren arabera, lehenengo ikuspegia Biolentzia fisiko nabarmenarena izango litzateke. Ikuspegi honen balio eta helburuak nazio barneko zein nazioarteko segurtasuna, gudaren aurreikustea edo/eta desagerpena lirateke, bere helburuak gatazka armatu handirik ez egotea litzatekeelarik. Arauei dagokienez, gizakiaren bizitzaren ukiezintasuna eta nazioarteko zein nazio mailako superbizipena dira eta bere ikerketa-eremua desarmea, arma-kontrola, militarismoa, gatazken erabakikuntza eta defentsarako estrategia ez-biolentoak.

b) Bigarren ikuspegia, berriz, biolentzia egitural sozio-ekonomikoarena litzateke. Ikuspegi honen balio, signifikazio eta helburuak gizatarren oinarrizko beharren asetzea, explotazio eta pobreziaren desagerpena, nazioarteko orden justu bat antolatzea edo eratzea eta nazioarteko harremanen demokratizazioa lirateke. Arauei dagokienez, gogokidetasuna, ongitasuna eta gizarte, klase zein egitura mailako baldintzak hobetzea. Bere ikerketa eremua, berriz, azpigarapena/gaizki-garapena/garapena, inperialismo/dependentzia eta ekintza ez-biolentoa direla esan behar da.

c) Hirugarren tokian, biolentzia politiko errepresiboaren ikuspegia dugu. Honen balio, signifikazio eta helburuak giza-duintasuna eta autonomia, tolerantzia eta autoerrealizazioa, errepresioa/askatasuna/demokrazia eta oinarrizko giza-behar espiritual eta ezmaterialak asetzea lirateke. Arauei dagokienez, giza eskubideen defentsa, bakerako eskubidea eta banako zein talde mailako autodeterminazio eta garapen eskubideak dira eta bere ikerketa-eremua giza-eskubideen kenketa/agerpena eta balio eta bereiztasun sozio-kulturalen elkargarritasuna dira.

d) Azkenik, bakerako heziketaren ikuspegia dugu. Honen balioak, esanahiak eta xedeak giza-kontzientzia/ezaguera eta jarrera moral eta etikoak lirateke. Bere arauak banako/talde/nazioarteko razionaltasuna eta giza-jokabidea lirateke. Bere ikerketa-eremua desarmerako heziketan, bakeari buruzko ikerketan, gizarte zientzia, ikuspegi pedagogikoan eta aldaketarako estrategien ezagutzan oinarrituko litzateke.

### 1.1.9. Gizarte psikologiaren beharra Bakeari Buruzko Ikerketaren eremuan

Aipatu dugun bezala, bakeari buruzko ikerketaren ezaugarrietako bat bere

diziplinartekotasuna dugu, zientzia ezberdinetako aportazioak jasotzen bait ditu: zientzia politikoa, ekonomia, historia, soziologia, psikologia,.... Zientzia hauek bakeari buruzko ikerketan betetzen duten papera oso garrantzitsua da.

Psikologiari dagokionez, esan daiteke disziplina honek bakearen ikerketen haseratik ekarpen garrantzitsuak egin izan dituela (Fisas, 1987). Gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen ari dira psikologiaren kontzeptuak eta ikerketak, psikologoek bakeari buruzko gaien aurrean dituzten eritziak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direlarik. EEBBetan, adibidez, "American Psychological Association" delakoak, bakearako psikologiari buruzko sail bat antolatu du. Japonen ere bakearen aldeko psikologo elkarte bat dago. Guzti hori dela eta, uste dugu psikologoak ikerketa mota honetan aktiboki parte hartzeko garai egokian gaudela. Baina, zein da hain zuzen ere eremu honetan gizarte-psikologiaren papera?.

Gizarte-Psikologia zientzia ezberdinen arteko zubi bat da. Aldagai psikologiko (sentimendu, hautemate,...) eta aldagai egitural edo soziokulturalen (gizarte egitura, talde sozialak, instituzioak, eta abarren) arteko jarraitasuna zehazten saiatu behar duen zientzia bat da (Secord, 1986). Ikuspegi hau funtsezkoa da bakeari buruzko ikerketan eta are gehiago bakearen dimentsio kulturalaren azterketan.

Gizarte-psikologiak banako eta talde mailen

arteko gatazka aztertzen du eta gatazkan dauden ondoko hiru elementuek osaturiko errealitatearen interpretazioa azpimarratzen duelako nabarmentzen da: ego edo gizabanakoa, alter edo subjektu soziala eta objektu erreala edo sinbolikoa. Hiru elementu hauen artean kokatzen ditugun harreman gatazkatsuak, ingurune soziokulturalean eta honen ezaugarri diren uste eta irudikapen guztietan oinarrituriko egiturek baldintzaturik daude. Gure ikuspegia bagaia horretan oinarriturik eraikitzen dugu. Gizarte-psikologiaren ezaugarririk nagusiena, zientzia askoren bidegurutzean dauden objektuekiko begirada berezi bat inplikatzen duela litzateke (Secord, 1986).

Zentzu honetan, gizarte-psikologiak paper garrantzitsu bat bete dezake bakeari buruzko ikerketan. Honetan eragin handia duten kategorizazio soziala, azalpen sozialak eta jokabide soziala, prozesu afektibo, kognitibo eta konportamentalak, identitate soziala, gatazka eta antzeko prozesu indibidualak eta egituralak uztartuko ditu.

Honela, gizarte-psikologoei buruz aipatu behar da bakeari buruzko ikerketarekin loturik dauden zenbait gai jorratu izan ditugula: biolentziarekiko jarrerak eta arma-nuklearren hautematea, gatazken irtenbidea, kooperazioa, kultura-arteko negoziazioa, pertsona bat bakezale bihurtzeko prozesua, e.a. ("Psychologists for social Responsibility Research Directory", 1990). Euskal

Herrian, ordea, gai honi buruzko ikerketa eza azpimarratu behar da.

Bakeari buruzko ikerketan gizarte-psikologoek badugula zeresanik uste dugu. Gure lana gizarte egitura -talde, erakunde,...- eta gizabanakoaren arteko harremanak eta hauen barne-funtzionamendua aztertzea da. Gai hauen azterketa eta taldeen dinamikak, talde zein banakoen arteko gatazkaren garapen eraikitzaileari buruzko teoriak garatzen lagun gaitzakeela uste dugu. Teoria hauek gizarte-errealitatean aplikatu eta honela besteekin baketsuki bizitzen lagunduko digun mundu berri bat sortu ahal izango dugu.

# 1.2. USTE SISTEMAK, BARREIATURIKO USTEAK ETA IRUDIKAPEN SOZIALAK.

Arestian esaten genuen bezala, ikerketa hau biolentziaren dimentsio kulturalaren azterketan erdiratzen da. Dimentsio honek biolentzia egiturala zein zuzena justifikatzeko erabiliak izan daitezkeen gizarte-kontzientzia eta oroimenean ainguratutako pertzepzioak, jarrerak, munduari buruzko uste sistemak eta abar barneratuko lituzke (Galtung, 1990).

Ikerketaren lehen kapituluaren atal honetan, uste sistemetan sakontzen ahaleginduko gara. Uste sistema hauetan biolentzia -edo bake- kulturalaren adibideak izan daitezken elementuak eratortzeko, egun balio emozionalez kargaturik dagoen elementu bati, hau da, bakeari buruzko uste sistemak aukeratu ditugu.

Uste sistemak ikertzeko helburuarekin aukeraturiko eremu teorikoa "uste barreiatuena" da (Gaskell & Fraser, 1990). Ikuspegi honen arabera, uste sistemak errealitatearen edo honen alde sozial esanguratsu baten ikuspenak direnez, "usteak" lirateke. Bestalde, "barreiatuak" lirateke, ez bait daude pertsonarteko harreman zehatz batera mugaturik eta, azkenik, sozialak lirateke taldeak zabalaki onarturik daudelako (Gaskell & Fraser, 1990).

Uste sistema hauek Irudikapen sozialak bezala aztertzearen egokitasuna ikusirik (Farr & Moscovici, 1984),gure herrian bakeari buruz dauden uste sistemak irudikapen hauen eremu teorikoaren baitan aztertzea erabaki dugu, hauen eta taldekidetza eta ideologia bezalako aldagaien arteko dinamikatan sakonduko dugularik. Honela aldagai hauen arabera eratutako talde bakoitzaren uste sistematan aurki daitezken bake eta biolentzia kulturalaren adibideak eratorri eta aztertuko ditugu.

Has gaitezen, ba da, uste sistemaz hitzegiten.

## 1.2.1. Uste sistemak

Esan dezakegu uste sistemek gizarte zientzietan orohar eta hain zuzen gizarte psikologiaren eremuan duten garrantzia areagotuz

joan dela (Almond & Verba, 1965; Himmelweit, 1991). Honela, gai honi buruz zientzi ezberdinek egindako aportazioak ugariak izan dira. Hor ditugu, adibide gisa, antropologiaren aportazioa (Tylor 1873 in Seliktar, 1985), zientzi politikoaren aportazioa kultura politikoan (Almond & Verba 1965) eta eritzi publikoan (Himmenweit, 1991), Soziologiarena (Durkheim & Mannheim, 1922), psikologia sozialarena (Irudikapen sozialak, Moscovici 1981), psikosoziologiarena (Habermas, 1975), eta abar.

Nahiz eta Uste Sistema konzeptua psikologia politikoan oso hedatua egon, badira nolabait bere argitasuna eragozten duten zenbait faktore, hauen artean a) kontzeptu honi eman ohi zaizkion esanahi ezberdinak eta b) prozesu makro eta mikrosozialen arteko artikulazioaren arazoa ditugularik (Seliktar, 1985).

a) Kontzeptuari egotzitako esanahiak: Lehenengo arazoari dagokionez, esan behar da kontzeptu honi esanahi ugari egotzi izan zaizkiola, beste batzuren artean, balioak (Easton, 1965), irudikapen soziala (Moscovici, 1981), ideologia (Dahrendorf, 1954; Johnson, 1966), kultura (Tylor, 1873), iritzi publikoa (Cooley 1909 in Valencia 1990)... ditugularik. Nahiz eta kontzeptu hauek ezberdinak izan, esan dezakegu beraien artean harreman inplizito bat dagoela: guztiek subjektuek errealitate fisiko eta sozialak azaltzeko, errealitate hauen aurrean posizionatzeko eta,

errealitate hauek ordenatzera zuzenduriko ekintza sozialak justifikatzeko ideia multzoak isladatzen bait dituzte (Seliktar, 1985).

Arazo honi irtenbide bat emateko, uste sistemak eta ondorioz gure ikerketa, beranduago -1.2.3. atalean hain zuzen- azalduko dugun "Uste Barreiatu"en marku teorikoan kokatu ditugu (Gaskell eta Fraser, 1990).

b) Prozesu makro eta mikrosozialen arteko artikulazioaren arazoa: arazo hau aurrekoa baino larriagoa dela esan daiteke. Uste sistemak ikertzeko garaian, bi ikuspegi izan ohi dira: alde batetik, talde baten propietateak gizabanakoen propietateen baturara murriztea ezinezkoa dela dioen ikuspegi "holistikoa" dugu. Honen arabera, uste sistemak gizabanakoaren esperientzia eta ikuspegi intelektualen arteko interakzio konplexuan sortzen dira (Mannheim, 1955).

Bestalde, gizabanakoen prozesu psikologikoetan erdiratzen den ikuspegia dugu. Honen arabera pertsona baten uste sistemak, elementu osagarrien arteko interdependentzi eraren batek murrizturiko ideia multzo bat lirateke (Converse, 1964). Ideia multzo hau ekintzara zuzendurik legoke, helburuak eta hauek lortzeko bideen izaera zehazten bait du (Frank, 1977).

Bigarren arazoa, ba da, aipaturiko prozesu makrosozial edo holistikoak prozesu mikrosozialekin

nola integratzen diren aztertzean datza. Arazo honen irtenbidetzat Berger eta Luckmann-en (1966) azterketa fenomenologikotik abiatzen den ikuspegi "interakzionista" aukeratu dugu, honen arabera, "gogamen subjektibo batek errealitate subjektibo bat sortzen du (externalizazioa), hau, denboran zehar, kultura bilakatu (objetibizazioa) eta, azkenik, berriz ere subjektuaren gogamenean eragiten du hau modelatuz" (Schmid, 1981, 62. or.). Horregatik, uste sistemek multzo sinboliko bat osatzen duten neurrian, hauek gizarte-interakzio iraunkorretik sorturiko uste indibidualen ondorio eta determinatzaile direla esan daiteke (Merkl, 1970).

### 1.2.2. Uste sistemen sorrera, artikulazioa eta funtzioak

Jakina da badirela elkarte zientifikoan uste sistemei buruz orohar adostasuna lortu duten zenbait alde: Uste sistemen sorrera, artikulazio eta funtzioetaz ari gara.

Sistema hauen sorrerari dagokionez, Durkheim (1898) eta Mannheim-ek (1955) ezagutzaren soziologiari buruzko lanean formulatutako teoria zientzia politikoak zabalki onartua izan da, teoria honen arabera, taldeek bere uste sistemak gizartean nagusi diren produkzio-bide eta baldintza

sozialetan oinarritzen dituztelarik.

Bere artikulazioaz ere, orokorrean onartua izan da Converse eta bere kideek 1964. urtean planteaturiko ikuspegia, honen arabera uste sistemak bere elementu eratzaileen artean ematen den interdependentzi eraren batek indarturiko ideia-konfigurazio bat liratekeelarik.

Amaitzeko, uste sistemen funtzioetaz aipatu behar da orohar bi baieztapen onartu direla: alde batetik, errealitate fisiko eta sozialak kokatzeko eta azaltzeko eta errealitate hauek ordenatzeko erabiltzen diren ekintzak justifikatzeko baliagarriak direla (Abercombie eta Turner, 1978) dioen baieztapena. Bestetik, uste sistema hauek, lortu beharreko helburuak zehazteaz gain, hauek lortzeko bideak azaltzen dizkigutenez, ekintzara zuzendurik daudela (Frank, 1977), hau da, portaerako erabakia hartzeko plana proposatzen dutela dioen planteamendua (Handel, 1979).

### 1.2.3. Uste sistemak eta uste barreiatuak

Elkarte zientifikoak orokorrean onartutako beste alderdi bat, uste sistema hauek ideologia, kultura, iritziak,... bezalako antolakuntza kognitibo eta afektibo zabalagoen osagaiak direla dioen baieztapena da. Antolakuntza hauek Gaskell eta Fraser-ek (1990) "uste barreiatu"-ak deitzen

dituztenen adibideak dira, terminu honek ikuspegi teoriko edo kontzeptual integratzaile bat duen eremu zabal bat adierazten duelarik.

Autore hauen arabera, uste sistemak errealitatearen edo honen alde sozial signifikatiboren baten ikuspenak direnez, "usteak" lirateke. Bestalde, "barreiatuak" lirateke ez daudelako pertsonarteko harreman zehatz batera mugaturik. Gainera, giza-taldeek zabalki onarturik daudenez, sozialak direla azpimarratzen dute (Gaskell eta Fraser, 1990).

1909. urtean jada eta iritzi publikoari buruz ari zela, Cooley-k (in Valencia 1990) baieztatu zuen uste sistema bat ez dela bereizturiko judizio indibidual multzo soil bat, baizik eta elkarrekiko eraginetik eta komunikaziotik eratorritako emaitza kooperatibo bat edo antolakuntza bat. Honela, Moscovici-ren Irudikapen Sozialek egiten dutenaren antzera, uste sistemek bakoitzaren gogoan eragina dute, baina ez dira subjektuek pentsatutakoak, hauek ber-pentsatu, ber-aipatu eta ber-irudikaturikoak baizik (Moscovici, 1984). Uste sistemak, ba da, lanketa eta aldaketaren emaitza orokorrak lirateke.

Azpimarratu nahi dugu uste barreiatuetaz ari garenean ez garela ari estatistikoki barreiaturiko usteetaz -normalean, edonon aurkituko ditugu antzeko usteak dituzten pertsonak-. Gaskell eta Fraser-en iritziaren arabera uste barreiatuak, bere

jabetasunak definizio sozialean era berezi batean laguntzen duten usteak dira, hauek bait dira soilik interesgarriak psikologia sozialaren ikuspegitik.

Alde hau kontutan izanik, autore hauek uste barreiatuak "kategoria sozial bat definitu eta kategoria hau mantentzeko balio duten usteak" bezala definitzen dituzte (Gaskell eta Fraser, 1990. or: 11). Zentzu honetan, uste barreiatuak talde batekiko taldekidetza-inplikazioak eramatea eta definizio kategoriala barneratzea ezinbestekotzat ikusten dute.

Uste hauek mantentzean, jendea talde bati lotuta dago eta lotura horretan usteak duen papera onartzen du. Guzti honen ondorioz, uste sistemek taldea definitzen eta mantentzen paper garrantzitsua betetzen dutela esan daiteke.

Autore hauek gizarte psikologiaren ikuspegitik interesgarri diren uste barreiatuetaz eman zuten definizioa oso murritza dela esan ohi da, kasu batzutan jendeak deskribatzaile hutsak ez diren eta balio-judizioa duten usteak partekatu bait ditzake talde batekiko identifikazioa konszienteki sentitu gabe (Gaskell eta Fraser 1990).

Hori dela eta, autoreek definizio zabalago bat planteiatu zuten, non talde zehatz batekiko taldekidetzarekin lotura duten usteetaz aparte, erreferentzi talde bati konszienteki loturik ez dauden usteak eta mota deskriptibo hutsetik at dauden eta bere baitan talde batekiko lotura

zehatzik ez daramaten usteak ere sartu zituzten. Uste barreiatuen definizio zabalean, beraz, nahiz eta talde batekiko inplikaziorik ez izan, balio bati loturiko edo jabetza pertsonal bat suposatzen duten usteak ere kokatu zituzten (Gaskell eta Fraser, 1990).

### 1.2.4. Uste barreiatuen hurbilketa bat: irudikapen sozialak

Tradizionalki uste barreiatuen ikerketa, gizabanakoan erdiratzen den gizarte psikologia indibidualistaren eremuan kokaturiko jarreren azterketaren bidez burutu ohi da (La Piere, 1958; Bentler eta Speckhart, 1981; Breckler, 1984; Kelman, 1974; Abelson, 1976; Ajzen, 1988...). Ikerketa hauek funtsean gizabanakoen arteko ezberdintasuna aurresateko diseinaturik zeuden (Gaskell eta Fraser 1990).

Identitate soziala (Tajfel, 1982) eta irudikapen sozialei (Moscovici, 1961) buruzko ikerketen bidez Europak egindako aportazioak, "soziala"ren berreridipena izan du ondorio bezala.

Azken urteetan eta uste barreiatuen azterketaren egoera teorikoa zein den ikusirik, uste hauen ikerketarako preskripzio multzo bat eskeintzearen desegokitasuna aipatua izan da, hori

dela eta pluraltasun konzeptual eta metodologiko bat mantentzea aholkatzen delarik (Gaskell eta Fraser 1990). Pluraltasun honen barruan, azken urteotan uste barreiatuak Irudikapen Sozialak bezala aztertzeko posibilitatea begi onez ikusten duen ikuspegi bat dago (Farr eta Moscovici, 1984). Irudikapen hauek "uste barreiatuen egitura eta edukinak" bezala definitu izan dira (Brewer & Kramer 1985, or.:27). Uste sistemak irudikapen sozial moduan ikertzeko ikuspegi honek Europa aldean arrakasta handia izan du.

Arrakasta hau ikusirik eta irudikapen hauek ideologia eta kulturarekin duten lotura eta gizarte praktikatan eta portaeraren gidaritzan betetzen duten papera (Jodelet, 1986) kontutan izanik, gure ikerketa irudikapen sozialen eremu teorikoan murgiltzea erabaki genuen.

Bestalde, eta irudikapen-objektuari dagokionez, bakeak gure herrian duen balio emozionala eta bakearen definizioan kulturak duen eragin zuzena izan ziren aztergai bezala bakea aukeratzera bultzatu gintuzten faktore nagusiak -gogoratu "bakea, era batera ala bestera, "sistema"ren baten ezaugarri bat dela: pertsona-barnekoa, pertsonartekoa, gizarte-barnekoa, gizateartekoa... sistema bati egokitutako kontzeptu bat denez, gizarte horretan kontzeptuen eta sistemen sorreran nagusi diren ohiturek zehazturik egotea derrigorrezkoa da" (Galtung 1985, 75. orrialdean)-. Horretarako, aurrerago ikusiko den bezala, metodo kualitatibo zein kuantitatiboak

erabili genituen. Ikuspegi honek gure ikerketari dimentsio sozial eta kultural bat ematen dio (Jodelet 1986).

## 1.2.5. Irudikapen sozialen jatorria eta definizioa

Irudikapen sozialen ikuspegiaren arabera, irudikapen hauek gizarte-prozesu dinamiko baten bidez, beste batzuren artean politikak eta zientziak ekartzen dizkiguten berrikuntzak ainguratu eta objetibatzeko balio duten zinezko teoriak lirateke. Honela irudikapen sozialek errealitatea komunikatu eta eraikitzen dute (Gaskell eta Fraser 1990).

Kontzeptu honen jatorriari buruz, esan behar da S. Moscovici (1961/1976) izan zela mende honetako seigarren hamarkadan "La Psycoanalyse son Image et son Publique" bere lanean Irudikapen Soziala terminua lehen aldiz erabili zuena. Lan honek Frantziar Estatuan psikoanalisia bezalako ezagutza baten hedapena eta honen hiztegia kultura herrikoiaren zati bilakatze-prozesua nola suertatu zen aztertzen zuen.

Nahiz eta hogei urte luze pasa behar izan teoria hau gizarte psikologiak onartua izateko, gaur egun Europako gizarte psikologian "Identitate Soziala" (Tajfel, 1972; Turner, 1975; Doise 1978) eta "Gutxiengoaren Eragina"ri (Moscovici, 1978;

Mugny, 1979) buruzko teoriekin batera, teoriarik emankorrenetariko bat da.

Irudikapen sozialen teoriak hiru iturritatik jasotako eragina aitortzen du: Durkheim-en (1898) irudikapen kolektiboetatik, Heider-en (1958) "Psicología Ingenua" delakoatik eta ezagutzaren soziologoek Gizarte Eraiketari buruz egindako aportazioetatik (Berger & Luckman 1966) hain zuzen.

Definizioari dagokionez, konzeptu honetaz hitzegitean, sozialki landuta eta barreiatua dagoen eta gizarte multzo baten errealitate amankomunaren eraikuntzan joera praktikoa duen ezagutza (Jodelet, 1986). Beste era batetan esanda, sorrera soziala, adierazpen soziala eta portaeraren indukzioan funtzio praktikoa duen ezagutza forma berezi batetaz arituko gara.

Irudikapen hauek, gizarte-subjektuok eguneroko bizitzaren gertaerak, ingurugiroaren ezaugarriak eta honetan dabiltzan informazioak, gure inguru hurbil zein urruneko pertsonak, e.a. hatzematen ditugun erari dagozkio, hau da, normalean "zentzu komuna" edo "pentsamendu naturala" izendatzen dena lirateke.

Ezagutza hau gure experientziatik eratortzeaz gain, gizarte komunikazioa, heziketa eta ohitura edo kulturaren bidez jaso eta transmititzen ditugun informazio, ezagutza eta pentsamendu ereduetatik abiatuz ere osatzen da. Hori dela eta ezagutza hau sozialki sortua eta partekatua dela esan daiteke.

Alde honi azpimarragarria deritzogu, askotan bere izaeraren alde berezi hau ez bait da kontutan izaten. Hain zuzen ere, azken urteotan burututako zenbait ikerketek ez dute kontutan izan irudikapenek funtzionatu egiten dutela eta testuinguruaren arabera aldatzen direla. Honela, ikerketa hauek, taldeetan orden sinbolikoak negoziatzen eta aldatzen diren testuinguruak alde batera utzi dituzte. Honen ondorioz, irudikapenei buruz egindako ikerketetan gizarte-deskontestualizazio bat eman dela esan daiteke (Echebarria, Elejabarrieta, Perera, Ruiz, Valencia, Villarreal, 1991).

Bestalde, irudikapen sozialak gure errealitatearen eraikuntza sozialean parte hartzen duen ezagutza praktikoa direla ere esan daiteke (Moscovici, 1961/1976; 1981; 1988; Jodelet, 1985; 1989; Doise, 1988; Palmonari & Doise 1986; Herzlich, 1973; 1986; Kaes, 1968; Flament, 1987; Abric, 1987; Di Giacomo, 1981). Pentsamendu normalizatuak ez bezala, ezagutza honi ez zaio zientziaren erizpide egiaztatzailerik jartzen, kontsentsuatua dagoen neurrian, nabarmentzat hartzen da eta (Moscovici, 1983).

Irudikapen sozialak, ezagutza zientifikoa ezagutza arrunta izatera nola iristen diren aztertzeko sortuak dira (Moscovici 1961/1976; Moscovici & Hewstone, 1983,1986). Zentzu amankomuna edo gertakari sozial bat sailkatu, azaldu eta aurresateko talde batek partekaturiko ezagutzari

erreferentzia egiten diote.

## 1.2.6. Irudikapen sozialen alde "soziala"

Alde "soziala"ri buruz hitzegiterakoan, kontutan izan behar dugu terminu honen inguruan nahaste handia dagoela. Hau argitu nahian, McGuire-k 1986. urtean "soziala" terminuaren jarraian aurkezten diren honako sei erabilpen hauek azaldu zituen (aipatu hauek ez direla elkarrekiko esklusiboak):

i) Objektu sozialak ez direnei aurre eginez, objektu sozialei buruzko jarrera edo pertzepzioak.
ii) Durkheim-ek azaltzen duen zentzuan, irudikapen partekatua.
iii) Beste batzuekiko interakzioan sorturiko irudikapena.
iv) Pertsonartean komunikagarria den zerbait.
v) Kultur edo gizarte-sistema bat mantentzeko balio duen irudikapena.
vi) Ia traszendentala den zerbait.

Aipaturiko sei erabilpen hauetatik bostgarrena hartzen badugu eta aldaketa txiki bat egiten badiogu, ikusiko dugu nola Gaskell eta Fraser-en uste barreiatuen definizio zehatza lortzen dugun: "Gizarte kategoria bat definitu eta mantentzen duten usteak". Zentzu honetan, Tajfel-en Identitate

Sozialaren teoriarekiko lotura bat dagoela esan daiteke (Tajfel 1978, 1981; Turner 1978, 1987).

Irudikapen sozialak ez dira talde sozialetatik at ematen. Honek taldeen adierazpenak direla eta taldeek sorturikoak direla esan nahi du, hain zuzen ere, taldeei mundua irudikatzeko era kontsentsuatu (CONSENSUADA) eta homogeneo bat izatea erraztuko dien talde-dinamika bat mantendu ahal izateko. Era berean, Irudikapen Sozialak taldearteko harremanetako dinamikan oinarritzen dira pentsamendu eta objektu zein beste taldeekiko ekintza-gida bilakatzen bait dira (Echebarria et al., 1991).

Irudikapen sozialek, uste barreiatuak diren heinean, paper garrantzitsua dute taldearen eta honen jokabidearen definizioan, identitate sozialen sorreran eta mantenimenduan (Moscovici Hewston, 1983) eta, orohar, errealitate kolektiboen sorreran.

Irudikapenak, errealitatea ulertzeko "ezagutza soziala" eta elkarbideki gizabanako zein taldeek beraien interesa pizten duten egoera, gertakizun, objektu eta komunikazioen aurrean duten posizioa zehazteko burutzen duten "gogamen-iharduera" dira. Zentzu honetan, alde sozialak hauetan gizabanako edo taldeak gizartean kokaturik dauden testuingurua, hauen artean ematen den komunikazioa, kulturak eskeintzen dituen hatzemate-marku eta taldekidetza zehatzekin erlazionaturiko kode, balio

eta ideologien bidez eragin zuzena dute. Honela, gerta daitezkeen komunikazioak, balioak edo talde ikuspegiaren arabera desiragarriak diren edo ez diren jokabideak zehazten dituzte, oihartzun afektibo eta ebaluatiboa izanik (Jodelet, 1986).

Moscoviciren esanei jarraituz, bizitza kolektiboaren dimentsio ideologikoek (joera politikoek adibidez) errealitatearen interpretazioan eragin handia dutela uste dugu. Pertsona zein gauzei buruz egiten ditugun judizioetan ere eragina izateaz gain, judizio horiei lotuta dauden emozioen sorrera dira eta gure jokabidea gidatzen dute, hau dela eta, gure irudikapenak era honetara gauzatzen direlarik. Esan dezakegu irudikapen sozialak ideologien oinarrizko osagai zabalak direla, nahiz eta hauen islada hutsa ez izan. Egoera bati egokituriko eta ekintza sozialerako ikuspegi zehatz bat duten zentzu komunaren ezagutza tresnen birprodukzio eta aktibazio bat dira (Paez et al. 1987).

Irudikapen sozialen izaera dinamikoak talde arteko harremanetan irudikapen hauek betetzen duten funtzio soziala aztertzera bultzatzen gaitu. Honela, izaera praktikoak kontestualizazio bat lortzen du eta era berean, Irudikapen Sozialen aldaketan eragina duten zenbait elementu aztertzen hastea posible bilakatzen da. Hori dela eta, Irudikapen Sozialak Identitate Sozialaren teoriarekin elkartzen eta Bakearen Irudikapen Sozialaren funtzionamendua eta produkzioa ulertzeko testuinguru sozial dinamiko bat lortzen saiatu

gara, honela irudikapen sozialen funtzio sozialaren zenbait alde aztertuz (Echebarria, Elejabarrieta, Perera, Ruiz, Valencia, Villareal, 1991).

## 1.2.7. Irudikapen sozialen funtzio eta ezaugarriak

Ez da lan erraza irudikapen hauen ezaugarriak aztertzea. Hala ere, zenbait autorek ezaugarri hauek izendatzen saiatu dira, ondoko ezaugarri hauek proposatuz (adibidez, Jodelet, 1986; Farr, 1986; Jaspars eta Fraser 1984):

i) Sozialki barreiatuak eta landuak daudela esan daiteke. Era honetara, gizabanakoen jokabidean eragina izan dezakeen errealitate sozial bat osatzen dute (Jaspars eta Fraser, 1984).
ii) Izaera praktikoa dute.
iii) Objektu bat ordezkatzen duten irudi edo sinboloak dira.
iv) Objektuak, gertakariak edo/eta ideia abstraktoak sinbolikoki irudikatzeko balio duten sinboloak dira eta izaera sortzailea dute.
v) Hala ere, ez dira gizarte-objektuen birprodukzio hutsak: objektu sozialak sailkatuz, objektu hauek ebaluatu eta hauen ezaugarriak azaltzen dituztenez, errealitatea eraikitzen dute. Era berean, interakzioak gidatzeko ere balio dute.

Esan daiteke irudikatzea, subjektua eta objektuaren artean harreman bat sortzen duen pentsamenduaren egite bat dela. Hain zuzen ere, irudikapena pertsona, uste zein objektu baten buru-ordezkaria dela. Honekin batera, irudikapenak izaera adierazgarri bat du, ez dagoen edo kanpoan dagoen objektu bat berreraikitzeaz gain, dauden objektuak ere ordeztu bait ditzake. Hori dela eta, ez da erreprodukzio soila, sormen indibidual edo kolektiboa eta autonomia zati bat daramatzan eraiketa bat baizik (Jodelet 1986). Bestalde, irudikapen sozialak, subjektuak gizartean, ekonomian, kulturan edo dena delakoan duen posizioaren arabera ematen dira. Irudikapen orotan, zerbaitek norbaitentzat zerbait irudikatzen du. Honela, irudikapenak harreman hori eratzen duen prozesua eratzen du.

Irudikapen soziala ez da kanpokaldearen barneko berprodukzio pasibo hutsa. Irudikapen sozialean, portaera gidatuko duen elaborazio kognitibo eta sinbolikoko prozesu bat ematen da. Gainera, alde operatibo eta figuratiboen egituraketa laguntzen duen dimentsio afektibo bat du. Esan daiteke irudikapena jokabideen gidaritza, informazioaren prozesamendua eta inguruneari esanahia emateko funtzioak betetzen dituen egitura kognitibo-afektibo bat dela, prozesu sinbolikoak jokabidearekin lotzen dituelarik (Jodelet, 1986).

Irudikapenak era askotan azaltzen zaizkigu: esanahi multzo bat kondentsatzen duten irudiak; gertatzen dena ulertzeko balio diguten eta islada

afektibo eta ebaluatzailea duten erreferentzia sistemak; gurekin zerikusia duten gertaerak, gizabanakoak, e.a. sailkatzeko balio duten kategoriak, hauei buruzko egiteak planteatzea permetitzen duten teoriak,... Eta gure gizarte-bizitzaren errealitate konkretuaren baitan kokatzen direnean, gauza guzti horiek batera izango lirateke (Jodelet, 1986).

Irudikapenek betetzen dituzten funtzioen artean, honako hauek ditugu:

i) Testuinguru soziala deskribatzen dute.
ii) Irudikatzen dituzten objektu, ideia, talde edo pertsonak sailkatzen dituzte.
iii) Errealitate soziala azaltzen dute.
iv) Aurresanak egiten laguntzen dute.
v) Komunikazioa errezten dute.
vi) Ekintza soziala gidatzen dute eta subjektuek bere taldearen irudikapena barneratzen duten heinean, sozializazio funtzioa ere betetzen dute.
vii) Anbiguotasuna murriztu eta informazioa dudagabeko egiten dute.
viii) Subjektuen errealitate soziala eraikitzen dute (Moscovici, 1961; Moscovici eta Hewstone, 1986; Jodelet, 1986; McGuire, 1986).

Irudikapen sozialak taldeen ezaugarriak direla esan daiteke: Gizabanakoei aurreizaten zaizkien balio, uste eta ohitura sistema antolatuak osatzen

dituzte (Moscovici, 1973). Honekin batera, bizitza indibidual bat bizitzeko testuingurunea osatzen dute eta banakoak desagertzen direnean, irudikapenek oraindik bizirik irauten dute (Moscovici eta Hewston, 1983, 1986). Honek ez du esan nahi irudikapen hauek aldaezinak direnik: bai, ordea, aldaketa indibidualarekiko erresistentzia bat dutela. Haurrak kultura batetan jaiotzen dira eta gai bihurtu nahi ba dute, beraientzat kultura horren kategoriak berreraiki behar dituzte.

## 1.2.8. Irudikapen sozialen elaborazio edo lanketa

Irudikapen sozialen eraiketa psikologiko eta soziala nola ematen den azaltzeko era asko dago (Jodelet, 1986), hauetariko nagusienak hauek izanik:

a) Lehenengo ikuspegi baten arabera, subjektuak mundu sozialean duen experientzia irudikapenean isladatuko luke, honela subjektuak zentzu produktorea izango lukeelarik. Irudikapenaren izaera soziala, balio edo helburu sozialen produkzioak edo gizarteak ematen dizkigun kodifikazio eta interpretazio sistemen erabilpenean datza. Zentzu honetan irudikapenak gizarte zehatz baten adierazpentzat hartzen dira.

b) Beste korronte batek irudikapena diskurtso mota bat bezala tratatzen du eta honen ezaugarriak gizartean kokaturiko subjektuen praktika diskurtsibotik eratortzen ditu. Bere ezaugarri sozialak komunikazio egoeratik, hitzegiten duten subjektuen taldekidetza sozialetik eta bere diskurtsoaren helburutik eratorriko lirateke.

c) Hirugarren ikuspegiak, subjektuaren praktika soziala hartzen du kontutan. Gizarte posizio batetan murgildurik dagoen aktore soziala den subjektuak bere posizio sozialetik eratorritako arau instituzionalak edo/eta okupatzen duen lekuarekin erlazionaturiko ideologia isladatzen dituen irudikapen bat sortzen du.

d) Laugarren ikuspegiaren iritziz, taldearteko harremanek zehazten dute irudikapenaren dinamika. Tadearteko interakzioen garapenak taldeetako partaideek bere buruari, taldeari eta beste taldeetako partaideei buruz dituzten irudikapenak aldatzen ditu. Era honetara antolaturiko harreman sozialak arautu, aurresan eta justifikatzen dituen irudikapen-aktibitate bat mobilizatzen du.

e) Beste ikuspegi batek, berriz, irudikapen-aktibitatea gizarteak ezarritako ideologia nagusiek egituraturiko ikuspegietan, pentsamendu eskematan edo gizarte harremanen areagotze analogikoan

oinarritzen du.

f) Azkeneko ikuspegiak irudikapen sozialaren lanketa subjektuak irudikapena eraikitzeko aktibitate kognitibo hutsera murrizten du. Honela irudikapenak bi dimentsio agertzen ditu: testuingurunekoa eta taldekidetzakoa. Alde batetik, subjektua interakzio-egoera sozial batetan edo estimulu sozial baten aurrean aurkitzen da eta orduan, irudikapena kognizio sozialeko kasu bat bezala agertzen zaigu. Bestalde, subjektua subjektu soziala denez, irudikapenaren elaborazioan bere taldekidetzatik eratortzen diren balio, ideia eta ereduak edo gizartearen baitan transmitituriko ideologiak sartzen ditu.

Ikus daitekeenez, atal honetan "sozialak" irudikapen sozialen lanketan duen papera aztertzen da eta hori da hain zuzen, jarraian azalduko duguna.

## 1.2.9. Irudikapen sozialen prozesuak

Irudikapen sozialen baitan, eduki eta prozesuaren artean bereiztu behar da. Lehena, aldakorra da eta gizartearen barrenean aurkitzen da, subjektuak gizartearen barruan egiten duen akzioaren emaitza izanik. Prozesua, berriz, aldaezina da; hau da, nahiz eta gizartea garatu ez

da aldatzen. Barne-arau eta sistema orokorren koordinazioa da. Prozesua eduki bakoitzaren bihotzean aurkitzen da. Desberdintzapen honek edukiak balio koiuntural eta deskribatzaile hutsa izatea eragiten du.

Irudikapen sozialek prozesu bezala, mundua ulergarri bihurtzen dute eta "sailkapen, kategoria eta izenen asignazio sistema bat" osatzen dute (Moscovici, 1984, 30.or) honen helburua ezezaguna den zerbait gauza familiar batetan bilakatzea izanik. Irudikapen sozialak, ba da, ezagutza zientifikoa ezagutza arrunta bihurtzen duen prozesua ulertzeko sortuak dira, prozesu honetan eraldaketarako bi fase ematen direlarik: objektibizazioa eta aingurapena.

a) Objektibizazio fasea: fase honetan kontzeptu abstraktuak ia konkretua den zerbait bilakatzen dira (Moscovici, 1984). Irudikapen Sozialak prozesu bezala eguneroko zerbait dira, non gizabanako eta taldeek munduan orientatzeko balio duten irudi, azalpen, esanahi eta edukien eraiketan aktiboki parte hartzen duten. Irudi hauek gizabanakoen arteko komunikazio eta kooperazioetatik eratortzen diren neurrian, sozialak eta barreiatuak dira. Objektu kolektibo bati loturik aurkitzen dira eta guztiengatik partekatuak izaten dira. Gizarte-talde batetako partaideek gizarte-bizitzaren alde berezi bat bezala, irudikapen asko partekatzen dituzte eta "gure kolektibitateek ez lukete funtzionatzerik

izango irudikapen sozialak eraturik ez ba leude" (Moscovici, 1984, 19.or). Irudikapen hauen partekatzea da "talde identitatea ezartzen duena" (Moscovici & Hewstone, 1983, or.16). Nozio abstraktuei irudiak jarriz, gauzak hitzei egokitzen zaizkie, honela eskema kontzeptualak gorpuztuz, eguneroko experientziek lan horretan laguntzen digutelarik. Objektibazioa, irudi eta egitura eratzeko operazioa dela esan daiteke (Moscovici 1979; Paez et al. 1987; Elejabarrieta, 1990), honen baitan hiru azpifase ematen direlarik:

- **Eraiketa hautestailea:** Diskurtsu zientifikoaren zenbait elementu aukeratu eta destestuinguruzatu egiten dira. Aukeraketa hau erizpide kulturalen arabera ematen da eta (talde guztiek ez bait dute informazioekiko sarbide berdina), batez ere, erizpide normatiboen arabera (balio sistemarekin bat datorrena soilik mantentzen da). Honela, informazio hauek bere eremu zientifikotik ateratzen dira eta publikoari egokitzen zaizkio. Honek, informazioak bere unibertsuko gauza bezala kontsideratuz, menperatzea lortzen du.

- **Eskematizazio egituratzailea:** Ondoren kontzeptu hauek gune nagusi eta azaltzailean bilakatzen dira, diskurtsu originalaren beste elementuak ahaztuz. Honela, irudikapen sozialaren mami edo bihotza den eta irudikapenari koherentzia ematen dion gune irudikorra delakoa eratzen da. Gune irudikor

honetan oinarriturik, irudikapenaren azaleko elementu guztiek esanahia hartuko dute. Kontzeptu teorikoek, hauek indibidualki eta bere harremanetan murgildurik ulertzen uzten duen multzo grafiko eta koherente bat eratzen dute.

- **Naturalizazioa:** Gune irudikorrak, elementu hauek koordinatuz, elementu bakoitza zehazten lagunduko digu. Era honetan, diskurtso zientifikoaren kontzeptu abstraktuak konstruktu hipotetiko eta abstraktu izateari uzten diote, errealitatearen zati izatera pasatuz. Era honetara, metafora zientifikoek sentimenezko errealitate eta errealitate psikologikoa lortzen dituzte, zentzu komuneko errealitate bat hain zuzen. Honela, kontzeptu abstraktuek ia ia errealitate fisikoa hartzen dute.

b) Aingurapen Fasea: Fase honetan aurreko fasean gauzaturiko kontzeptuak gizarte testuingurunean sustraitzen dira, honela gizabanakoen eta objektuen sailkapena permetitzen duelarik. Honela, hauengandik itxarondako jokabideak aurresanak egiten eta gizarte-interakzioak gidatzen laguntzen du (Jodelet, 1986; Moscovici, 1961/67). Sozialaren interbentzioa objektuari ematen zaizkion esanahia eta erabilpenean datza. Baina aingurapenak beste alde bat ere inpliklatzen du: aurretik zegoen pentsamolde sisteman objektuaren integrazio

kognitiboa eta sistema honetatik eratorritako aldaketak. Gauza berriek lehendik zeuden irudikapenekin elkartzean, sistema hau eraldatzen dute, honela aldaketa kulturala gertatuz. Aldaketa kultural honek, irudikapenen bidez experientziak aldatzen dituzten pentsamolde eta jokabide ereduetan eragina izan dezake.

Aingurapena, aurretik zeuden sistema sinbolikoetan Irudikapen Sozial berriaren txertatze prozesua da. Honela, Irudikapen sozial berriak lehendik zeuden Irudikapen zaharrak berritu eta aldatzen ditu, honekin batera experientzia aldrebestu eta arraroak familiarizatzen dituelarik.

Bestalde, irudikapen sozialak taldearteko harremanetan eta gizarte egituran sartzen dira, gizarte interakzioak komunikatu, azaldu, justifikatu eta gidatzeko. Hori dela eta, esan dezakegu objetibizazioarekin harreman dialektiko baten baitan dagoen aingurapenak irudikapen sozialen oinarrizko hiru funtzioak giltzatzen dituela: berrikuntzaren integraziozko funtzio kognitiboa, errealitatea interpretatzeko funtzioa eta jokabide eta gizarte harremanak gidatzeko funtzioa.

## 1.2.10. Irudikapen sozialen edukia

Irudikapen sozialak oinarrizkoa den eduki

kolektiboagatik definitzen dira, honetan subjektuek munduaren irudiak eraikitzen dituztelarik: objektuarekin zerikusia duten informazio, irudi, iritzi, jarrerak eta abar (Jodelet 1986). Eduki hau kolektiboa, partekatua eta soziala da, bai eta irudikapen sozialaren funtsezko osagaia ere. Edukia irudikapen sozial batetan partekatzen den esanahi multzoa litzateke eta ikerketa enpirikoetan kontutan izan beharreko elementua (Farr eta Moscovici, 1984). Bertan irudikapen sozial batetan partekatzen diren esanahiak aurkitzen dira eta hau dugu prozesuetara heltzeko bide bakarra.

Edukia ikertzeko garaian honako hiru osagai hauek izan behar dira kontutan (Moscovici, 1979, 1988; Heirlich, 1975; Jodelet, 1984; Mugny eta Carugati, 1985; Ibañez, 1988):

a) Informazioa edo azalpenak: Gogora dezagun irudikapen sozialetaz ari garenean, eguneroko bizitzan sortzen diren kontzeptu, azalpen edo informazio eta baieztapenetaz ari garela hitzegiten (Moscovici, 1981). Hain zuzen ere, informazioa, irudikaturiko gizarte-objektuari buruz subjektuek duten ezagutza kualitatiboa zein kuantitatiboa litzateke. Informazio hau, kolektiboa, partekaturikoa, soziala eta irudikapen sozialaren oinarrizko elementua da.

Deschamps eta Clemence-en (1987, 123.or) hitzetan "egozpen sozialak, azpian dauden uste edo

irudikapen sozialen indikatzaileak edo sintomak" lirateke. Zentzu honetan ere, Jaspars eta Hewston-ek (1990) irudikapen hauek egozpenak zehazten dituztela baieztatzen dute.

Azalpenak, ba da, irudikapen sozialek zehazturik daude (Moscovici eta Hewston, 1983) eta ez dira oinarritzen daukagun informazio hutsean. Gure dedukziorako gaitasunak ere paper garrantzitsua jokatzen du lan honetan. Hori dela medio, Moscovici-ren ustez (1981) kausa-azalpen oro irudikapen hauengatik baldintzaturik dago eta hauen testuinguruan kokatu beharko litzateke. Irudikapenek egozpen sozialak ulertzen laguntzen dute: noiz, nola, zergatik sortzen eta nondik eratortzen diren (Hewston, 1989).

Moscovici-ren esanei jarraituz, ikerketa honetan egopena irudikapen sozialak martxan jartzeko prozesu bezala kontsideratuko ditugu. Egozpen hauek ere taldearteko harremanetan taldeek dituzten gizarte-posizioen menpe daude, hori dela eta hauetan ere testuinguruak garrantzia handia izanik. Honela, kategorizazioak eta taldekidetzak garrantzia handia izango dute egozpenetan (Deschamps, 1977) eta azken hauek, irudikapen sozialak bezelaxe, bai identitate sozialaren defentsan bai eta portaera gidatzen ere, paper garrantzitsua betetzen dutela esan daiteke.

Gure ikerketan, kausa egozpena aztertuko dugu. Hau da, ea zeri egozten dioten talde ezberdinek egoera konkretu bat -Bake eza egoera hain zuzen-.

Honela talde ezberdinek egozpen sozial ezberdinak egiten dituztela eta egozpen pertsonala zenbait talderen opzio ideologikoen ezaugarria dela dioen baieztapena (Windisch, 1982) egiaztatzen saiatu gara, honekin batera, egozpenek portaeran duten eragina ere aztertuko dugularik.

b) Irudikapen eremua edo informazioaren egitura: Irudikapen sozialek, talde betetan komunikazioa erraztu, interpretazioa zehaztu eta jokabidea gidatzen dute. Irudikapen hauen azterketa enpirikoan derrigorrezkoa da talde ezberdinek duten gune irudikorraren azterketa burutzea. Gune irudikorran, irudikatutako objektuaren alde espezifikoei buruzko irudi zehatzak osatuko lukete.Irudi terminuak objektuari buruzko orainaldi, lehenaldi zein geroaldiko kontzepzioak elkartzen ditu. Hauek elementu eratzaileen kopuru, aberastasun, zailtasun edo ezberdintasun mailan alda daitezke (Kelman, 1965) eta gure portaerarengan izugarrizko eragina dute. Jakina da, helburuek gure portaera zehazten dutela (Weiner 1980) eta gure motibazio mailan eta hauek lortzeko erabiltzen ditugun aukeratan ere eragina dutela (Lewin, 1935). Helburuen izaerak erabat erabakiko du gure portaera intentzioa. Honela, helburuak, egoera negatibo bat ekiditzeko ("helburu negatiboak") ba dira edo egoera positibo bat lortzeko ("xede positiboak") ba dira, gure portaeran eragin ezberdina izango dute (Wagner, 1988).

Lan honetan, alde hau ere jasotzen saiatu gara. Honela, bakearen irudi ezberdinek bakearekiko portaera intentzioan betetzen duten papera aztertuko dugu.

c) Jarrera: Jarrera irudikapen sozialen dimentsioetako bat dela baieztatzen da (Moscovici, 1967). Jarrerak irudikapenaren joera baloratzailea somatzen du. Ingurunearen zenbait aldeei era jakin batetan erantzuteko aldez aurretiko jarrera bat dela esan dezakegu. Moscovicik (1961/76) jarrera osagai bakar batera murrizten du: irudikapenaren joera ebaluatibora, hau da, erantzun baloratzaile-ebaluatzailera. Honen ondorioz, subjektuak irudikaturiko objektuari era batera edo bestera erantzuten dio. Honela, ingurunearen zenbait alderen aurrean era positibo zein negatibo batean erantzuteko aurreprestaera bat denez, jarrerak jokabidea gidatzen duela esan daiteke. Osagai honek garrantzia handia duela aipatu izan da; talde batek ez du dauden objektu sozial guztien Irudikapen sozialik sortzen. Bere aurrean posizionamendu bat inplikatzen duten oihartzun afektibo-kognitibo-konatiboak dituzten objektuak dira irudikapen sozialak sortarazten dituztenak. Honela, irudikapen sozialei buruzko ikerketa orok jarrerak kontutan izan behar ditu (Moscovici, 1961/1976).

Irudikapen sozialak uste eta jarrera multzo bat izateaz gain, azalpenak, sailkapenak, emozioak eta portaera-intentzioak batzen dituen egituraturiko eremu bat ere badira. Zentzu horretan

irudikapen sozial orok osagai emozional bat duela esan daiteke (Valencia, Paez eta Echebarria, 1989). Emozio eta portaera-intentzio hauek ere irudikapen sozialaren osagaiak direnez, ikerketa honetan gure objektuarekiko -bakearekiko hain zuzen-, emozioak eta portaera intentzioak ere jasoko ditugu.

Edukiaren hiru aldeak kontutan hartzen dituen azterketa honek bi abantaila nagusi dituela azpimarratu nahi dugu: alde batetik, egitura, joera ebaluatzailea eta irudikapenaren oinarri diren eduki zehatzak somatzen ditu. Bestetik, ezaugarri horietan oinarrituz taldeak aztertzeko aukera ere ematen du.

Irudikapen sozialak elementu baten (gune irudikorra) inguruan antolatzen dira eta gune irudikor hau talde ezberdinen arabera aldatu egingo dela uste dugu. Honela, irudikapen sozial baten egitura irudikapenak talde bakoitzean betetzen duen funtzioa isladatuko du. Gutxiengo edo talde menperatuetan, identitatearen defentsan garrantzia handia izango dute. Pentsatzen dugu kasu honetan identitate soziala izango dela irudikapen sozialaren ardatz nagusia eta irudikapenari koherentzia emango diona. Beste elementuak (azalpenak, portaera intentzioak,...) honen inguruan antolatuko dira. Honela, ikerketa honetan taldekidetza, azalpen eta prozesu kognitiboen arteko uztarketa aztertuko dugu, hauen bidez talde ezberdinetan bakeari buruzko irudikapen soziala nola antolatzen den aztertzeko.

Esaten genuen bezala, ikerketa honetan, ideologia politiko zein abertzalearen arabera bakearen irudikapen sozialaren dinamikan sakondu nahi izan dugu. Baina, zer da ideologia? eta zerk bereizten du ideologia irudikapen sozialetatik? Hori da hain zuzen, hurrengo atalean aurkezten saiatuko garena.

## 1.2.11. Irudikapen sozialak eta ideologia

Ideologia psikologia politiko zein sozialean denbora luzez eta askotan erabilitako kontzeptua da (McDougal, 1908/1967; Adorno, Frenkel-Brunswinck, Levinson & Sanford, 1950; Eysenck, 1964; Kelman, 1979; Salazar, 1983; Billig, 1984; Montero, 1980, 1984;...). Hala ere, eta gizarte-bizitzatik eratorri eta aldiberean gizarte-baldintza berriak sortzeko duen gaitasunak ideologiari ematen dion garrantzia kontutan izanik, psikologia sozialaren alorreko ikerketetan leku txikiegia bete duela esan daiteke (Tajfel, 1972).

Ideologia eraikuntza psikologikoen eremuan kokatzeko joera, mende honetako zortzigarren hamarkadan eman zen, batez ere Latino Amerikan, non paradigma berri bat sortu den, zeinean ideologia eta gatazkak izugarrizko garrantzia duten (Montero, 1990).

Ikerketa honetan aipaturiko bi ideologia mota

hauek irudikapen sozialetan duten eragina aztertzen saiatuko garen neurrian gai honetaz luzaro hitzegingo dugu, honela ezer baino lehen kontzeptu hau definitzen saiatuko gara.

a) Ideolojiaren definizioa eta ezaugarriak: Nahiz eta soziologiak ideologia, finkaturiko orden soziala lejitimatzen duen berbaldi gisa definitu izan, kontzeptu honek beste zenbait kontzeptuk bezala -usteak, jarrrerak, balioak, irudikapen sozialak, estereotipoak,...- ez du oraindik elkarte zientifikoak onarturiko definizio finkorik. Esan dezakegu orohar ideologia definitzeko XIX. mendean sustraituriko **bi joera** nagusi daudela:

i) Lehenak, era orokor batetan definitzen du. Honen arabera, ideologia talde zehatz bateko partaideek partekaturiko ideia multzo bat litzateke (Destutt de Tracy 1803/1970; Plamenatz, 1971). Aipatu behar da beranduago ideia hauek uste sistema, balio edo jarrera bezala definituak izan zirela. Ideologiak beraien artean sistematikoki elkarloturik dauden uste multzo bat litzateke. Uste sistemak, eta hain zuzen ideologia, talde batek sortua izan arren, beste talde batzuk ere erabil eta partekatu dezaketen neurrian, taldeen jabegoak dira (Scarbrough, 1990). Ideologia politikoa, ba da, uste sistema bat da (Scarbroug, 1990); suposizio, balio eta helburuek eremua ekintzarako prestatzen dute;

ekintzarako printzipioek, aktoreak egin behar dutena esanez gidatzen dituzte. Honela, subjektuak gidatzeko balio dute baina ez ekintzak zehazteko. Uste, balio eta irudi hauek negatiboak zein positiboak izan daitezke. Era berean, objektu sozial zein psikologikoei buruzkoak izan daitezke. Honela, batek ideologiari buruz hitzegiten duenean, munduari buruz kultura edo azpikultura zehatz batek duen ikuspegiaz hitzegin dezake.

ii) Bigarren joeraren aitzindariak Marx-en lehen saioak izan ziren (Marx & Engels, 1947; Marx, 1960, 1973). Ikuspegi honen arabera, ideologia ez litzateke hain gauza orokorra. Honela, ideologia, produkzio-harreman sozial explotatzaileak mozorrotzen dituen konszientearen distortsioa bezala definitzen dute. Honen ondorioz, jasaten duen explotazioaren inguruko subjektuaren kontzientzia blokeatzen du. Honela, subjektuak ez lirateke sozialki transmitituriko ideologia batetan subjektu pasiboak, ideologia horren ajenteak baizik.

Zentzu honetan, ideologiak orden ekonomiko eta soziopolitiko zehatz baten interesei erantzungo lieke. Ikuspegi honek, ez du baztertzen ideologia munduaren ikuspegitzat edo prozesu kognitibotzat duen ikuspegia. Ikuspegi honen arabera, ideologia, botere maila ezberdineko talde-enfrentamendutik sortzen den prozesu bihurtzaile eta

mozorrotzaile baten ondorio liratekeen irudi eta esanahi multzoa litzateke. Ideologia prozesu kognitiboen bidez adierazten da, baina ezin da munduari buruzko ikuspegi zehatz baten afirmazio multzo batetara murriztu.

**Ideologiaren ezaugarriei** buruz, jarraian aurkezten diren hauek egotzi ohi zaizkiola esan daiteke (Villarreal, 1987):

i) Funtzio arrazonalizatzaile eta sinplifikatzailea: subjektuei, konplexua den errealitatea antzeko eran interpretatzeko aukera ematen bait die.
ii) Izaera totalizatzaile eta sendoa: ideiak, gertakizun historikoei buruz egiten diren interpretazioak eta portaerak testuinguru orokor edo eskema totalizatzaile batetan integratzea baimentzen du, honekin batera itxuraz kontraesangarriak diren prozesuak integratzea laguntzen duelarik.
iii) Errealitatearen diagnostikatzailea; egoera latzen jatorria adierazi du eta injustiziaren arduradunak identifikatzen ditu (Turner eta Killian, 1972; Wilson, 1973; Billig, 1978).
iv) Aldatu beharreko egoeraren izaera kolektiboa sendotzen du: kolektibitate osoarentzat baliagarria den injustiziaren zergatia aurkitzea baimentzen du, honela arazo indibidualak gainditu eta hauek errealitate kolektiboagoetara orokortuz (Turner eta

Killian, 1972).

v) Gaitzen zergatia argitu ondoren, arazo soziala gainditzeko zer egin daitekeen zehazten duen akzio-bidea proposatzen du (Wilson, 1973).

vi) Izaera utopikoa. Ekintza arau errealistak eskeintzeaz gain, ideologiak lortu beharreko balio edo ideal morala eskeintzen du.

b) Ideologiari lotzen zaizkion faktore psikosozialak: Ideologiek gatazka kolektiboak ulertzen lagun dakiguketen zenbait ondorio psikosozial dituztela esan daiteke (Villarreal, 1987).

Alde batetik, "gu" bat sortzen du. Honek gizabanakoei botere eta indar sentsazio bat sortarazten dien taldearekin identifikatzea baimentzen die. Honela, identitate kolektibo bat garatzen da, honek, adibidez, injustizia banakoaren arazo bat izatetik talde arazo bat izatera pasatzea eragingo duelarik. Honela, gonbaraketa sozialerako erreferentzi-talde positibo edo negatibo bat aukeratzera bultzatzen du. Ideologiaren alde kognitibo hauetatik abiatuz, injustizia sentimentua bezalako fenomenu motibatzaileak azaldu ahal izango dira. Ideologiak subjektuen pertzepzio sozialarengan duen eragina izango litzateke, norberaren taldea status altuagoa duten beste taldeekin gonbaratuz subjektuengan injustizia sentimenduak sortaraziko lituzkeena (Paez, 1983; Rocher, 1980).

c) Ideologia abertzalea: Ideologiari buruzko ikerketak orohar ideologia politikoari buruzkoak izan badira ere, ikerketa honetan ideologia politikoa zein abertzalearen eragina aztertzen saiatuko gara. Kolektibitate nazional orok kolektibitate hau zer den definitu eta beste batzuengandik bereiztuko duen ideologia bat behar du. Abertzaletasunak identitate nazionala argitzeko balio du. Talde nazional horretako taldekideak "gu"arekin identifikatzera bultzatzen ditu, "gu" honetan bere identitatearen zati bat topatzen dutelarik (Villarreal, 1987).

Ideologia abertzaleak talde nazionalari bere lurraldea mugatzen dio. Era berean, taldearen mugak, eskubideak, patua eta etsaiak ere zehazten ditu. Taldearen etorkizuna lehen zein orainaldian irakurtzen ditu, honela, taldekideak kolektiboari loturik geratzen direlarik (Touraine, 1974; Rocher, 1980).

Honekin batera, subjektuengan injustizia sentimentu bat sortzen du, injustizia honen arduradunak identifikatuz. Honela, taldekideek egoera aldatu beharraren kontzientzia hartzen dute. Egoera aldatzera zuzenduriko ekintza hauek, ideologiaren balioetatik abiaturiko arau berriek subjektu guztiengan justizia zentzu bat sortzea eragingo dutenaren ustearekin batera ematen dira (Turner eta Killian, 1972).

d) Ideologiari buruzko ikerketa: Beste nozio askorekin gertatu ohi den bezala, ideologiaren ikerketa ere bitan zati daiteke: i) ikuspegi indibidualista batetik egindako lehen saioak eta ii) Ikuspegi sozialetik egindako ikerketak.

i) **Lehen saioak: ikuspegi indibidualista.** Lehen saioetan ideologia, psikologia sozial eta indibidualistaren ikuspegitik aztertzen zen. Horretarako erabiltzen zen metodologia, fenomenu konplexu hau osagai soiletan zatitzen saiatzen zen, honen helburua aldagai indibidualak isolatzea izanik. Ikuspegi honek kritika gogorrak jaso zituen. Hauen artean bat, hau berez "ideologikoa" zela -hau da, askotan izaera politikoa duten gizartearen ikuspegi orokorragotatik eratorritako suposizioetan oinarritzen dela- zioena dugu (Plon, 1972, 1974; Billig, 1976; Lubek, 1979; Israel, 1979; Buss, 1979).

Haseran, nortasuna eta ideologia elkarlotzen saiatu ziren lanak gauzatu ziren, hauen artean ezagunenetariko bat Adorno eta bere kideen "The Authoritarian Pertsonality" (Adorno, Frenkel-Brunswik, Levison & Sanford, 1950) dugularik.

Bere lanaren sarreran, Adorno eta bere lankideek ideologia "eritzi, jarrera eta balio antolakuntza edo gizarte eta gizabanakoari buruz pentsatzeko era" bezala definitzen du (2.or.). Bestalde, "ideologiek gizabanakoekiko existentzia independientea dute"la ere baieztatzen da (2.or).

Dakigunez, ikertzaile hauek ultra eskuindarren ideologia aztertzen saiatu ziren, horretarako zenbait subjektu faszista demokratikoekin gonbaratu zituztelarik.

Adorno eta bere kideek diotenez, fazista potentzialek, elkarren arteko lotura logikorik ez duten uste-konstelazio zehatz batzu izango lituzkete (beltza eta judutarren aurkako prejuizioak, autoritarismoarekiko mirespena, jerarkiaren beharra ikusten dute, disziplina eta portaera-kode argiak,...). Hala ere, Adorno eta bere kideen eritziz, uste hauek lotu eta egitura-unitate batetan bateratzen zituen harreman psikologiko bat legoke honen baitan non elementuak, oinarrian leudekeen dinamika psikologiek elkarloturik aurkituko liratekeen (Adorno et al., 1950).

Ikerketa honek kritika metodologiko eta teoriko ugari jaso zituen (Brown, 1965; Hyman & Sheatsley, 1954; Kischt & Dillehay, 1967; Peabody, 1966; Billig, 1978), baina orohar bere hildo nagusia onartua izan da.

Adornoren ikuspuntutik abiatuz, Rokeach-ek "The open and closed mind" (1960), Eysenck-ek "The psychology of politics" (1954) eta Eysenck & Wilson-ek (1959) bere "The psychological basis of ideology" lanak burutu zituzten. Lehenengo biek, beraien ikerketek oinarri zientifikoa zutela azpimarratzen zuten, eta inolaz ere ez politikoa. Beraien teoriak eratzeko garaian, bi autore hauek

ideologia eta honen oinarrian dagoen psikologia bereizten dituzte. Rokeach-ek (1960) adibidez, ideologia "gutxi gora behera instituzionalizaturiko uste-multzo" bat bezala deskribatzen du (35.or). Uste hauek gizabanakoen eritziak gidatzen dituzte, eritziak autoritarioak ("itxi") edo ez autoritarioak ("ireki") izango diren zehaztuz. Honela, edozein ideologiaren baitan, subjektu "ireki" edo "itxiak" aurkitzeko aukera izango genuke. Aipatu Rokeach-ek ere kritika metodologiko ugari jaso zituela (Billig, 1976; Parrott & Brown, 1972).

Eysenck-en eritziz ideologien azpian legokeen aldagai psikologikoa "bigun"-"gogor" joera litzateke, honen bidez jendeak bere usteak defendatzeko era azaltzen duelarik. Faktore hau beste faktore batengandik bereizten zuen: radikalismo-kontserbatismoarengandik hain zuzen, zeinak uste politikoen edukia deskribatuko lukeen. Honela, autore honen teoriak zera zioen; "gure ideologia radikala edo kontserbatzailea izango den zehazten duten jarrerak ikasirikoak dira" (1954;58), "bigun"-"gogor" joera, berriz, genetikoki zehazturikoa, inongo loturarik ez legokelarik bi joera hauen artean. Autore honek ere aurrekoek bezala, kritika ugari jaso zituen (Brown, 1965; Christie, 1956; Hanley & Rokeach, 1956; Rokeach & Hanley, 1956).

ii) **Ikertzeko ikuspegi soziala:** Ondoren, ikus ahal izan zen psikologia indibidualak erabiltzen

zuen atomismo prozedurala ez zela egokia eta zalantzan jarria izan zen; alde batetik ez zen argi ikusten honek egi garbirik ematen zuen. Bestetik, aztertzeko ez zuela balio ikusi zen, ideologia jarrera "gestalt" bat denez, normalean psikologia sozialaren analisietan bereizturik agertzen zaizkigun topiko multzo batez osaturik bait dago (Billig, 1984).

Honen adibidetzat, Marx eta Engels-en "Ideologia alemana"tik (1968) eratortzen den Mannheim-en ikuspegia dugu. Mannheim-ek bere "Ideology and Utopia" (1960) liburuan dioenez, talde sozial baten ikuspegi orokorra litzateke ideologia eta horrek, taldekideen esperientzia isolatu hutsak baino askoz ere gehiago suposatzen du. Gizabanako bakoitzak pentsamendu-sistemaren 8zati konkretuetan soilik hartzen du parte eta pentsamendu-sistema hau ez litzateke izango experientzia indibidual hauen batura hutsa (Mannheim, 1960). Honela, ideologiaren ulermena gizarte zabalaren azterketari lotzen zaio eta horren ondorioz, ideologia klase-interes, interes-politiko edo ekonomikoen adierazpen bezala interpretatu beharko litzateke. Ideologiaren ikerketak pentsamentu-sistema gizartearen egituraren baitan dagoela izan beharko luke kontutan eta horregatik, ezinezkoa da gizabanakoa beti abiapuntutzat duen psikologiaren ikuspegitik aztertzea (Mannheim, 1960).

Hildo beretik, Poulantzas-ek dio ideologia

ideia eta irudikapen multzo bat izateaz gain, praktika-material multzo bat ere ba dela. Honen baitan agenteen bizi-modua legoke, hauek praktika sozialean murgildurik daudelarik (Poulantzas, 1978). Horren ondorioz, ideologia osagai xumeetan zatitzen zuen, eta ustez kutsatu gabeko egiak lortuko zituen gizarte orokorretik aldenduriko metodologia ez litzateke egokia izango, ez eta laborategiko experimentuetan oinarriturikoa ere, honek ezin bait du gero fenomenoa bere osotasun zabalean berreraiki. Honela, ideologia ikuspegi sozialetik tratatzen hasi zen, lan honetan irudikapen sozialek laguntza handia eman dutelarik.

e) Ideologia eta irudikapen sozialen arteko harremana: Ideologia kontzeptuari gainbegirada bat eman ondoren, irudikapen sozial kontzeptuak ideologiaren azterketa enpirikoan nola lagun gaitzaken, irudikapenek ideologiaren baitan duten lekua eta bi kontzeptu hauen arteko ezberdintasunak aztertzen saiatuko gara.

Lehenik eta behin, aipatu behar da psikologia sozialaren alorrean irudikapen sozialak eta ideologiaren arteko alde amankomun eta ezberdinei buruzko eztabaida gogorra ematen ari dela, honen inguruko eritziak zeharo ezberdinak eta ugariak direlarik. Jarraian hauetariko batzu aztertuko ditugu, ondoren gure ikerketaren ikuspegia azaltzeko.

i) **Moscovici-ren ikuspegia:** Esan dezakegu Moscovicik ideologiarekiko duen jarrera nahiko negatiboa dela (Moscovici, 1984; 1987; Deschamps & Clemence, 1987), honek, ideologia, inongo balio heuristikorik gabeko kontzeptu bat dela esaten bait du eta hori dela eta, gizarte-psikologiaren alorreko aldagai explikatibo bezala desagertzea proposatzen du. Autore honen iritziz, ideologia errealitatearen ikuspegi bihurtu edo distortsionatu bat litzateke, honako ondorio hauek izanik:

> i.a) Alde batetik, ezagutza eta usteen bihurdura suposatzen du, zeinaren bidez, talde berezi baten interesen justifikazioa bilatzen den. Honela, ideologia diskurtso legitimatzailean bihurtzen da.
> I.b) Bestalde, ideologia mantentzen duten taldeak erizpide politiko eta ekonomikoengatik definiturik egotea kontutan hartzen da, taldearekiko taldekidetzaren kontzientzia ahaztu egiten den bitartean. Moscoviciren iritziz, klase-kontzientziaz konsziente izatea funtsezkoa da klase kontzientzia ikasteko garaian. Hau da, subjektu bat langilea izango da langile izatearen kontzientzia duen neurrian.

Guzti honengatik, Moscovici-k (1988) gizarte psikologian ideologia terminua erabili beharrean Irudikapen Soziala terminua erabiltzea planteatzen du, irudikapen hauek talde baten ideologiaren asimilazioa suposatzeaz gain, ideologiak munduaren

distortsio bat suposatzen duelako. Bere ustez, Irudikapen Sozialen izaera praktikoagoa da, usteak egiazkoak ala gezurrezkoak izatearen kezka ez bait da hain handia. Autore honen iritziz, ideologia, gizabanakoen komunitateetan instituzionalizatuz doan neurrian objetibizatzen den Irudikapen sozialen forma nabaria bezala trata daiteke, honela pentsamendu kolektiboaren era anormal batean bilakatuz (Moscovici, 1988).

Zenbait autoreren iritziz, Irudikapen Sozialen proiektuak ideologien ikerketan ikuspegi berriak zabaltzen ditu, (Scarbroug, 1990), nahiz eta ideologiaren arazoa zuzenean ez tratatzean, Irudikapen sozialen nozioa anbiguoa iruditu. Hala ere, "gizabanakoen pentsamendu-forma" eta "pentsamendu hauen edukin soziala"ren arteko konkordantzia bat proposatzea, ideologia eta irudien indarraren arteko dinamika menperatzeko saiakeran zientifiko politikoen atentzioa zorroztu zezakeen.

ii) **Beste zenbait autoreen eritzia:** Beste zenbait autorek irudikapen sozialak eta ideologia osagarritzat dituzte, bien arteko abstrakzio maila ezberdinduz. Zentzu honetan, Ameriok (1978) gure ikuspuntutik garrantzitsua den posizio sozial bat, aktibitate politiko eta sozial batetan isladatuko den fronte politiko ideologiko bat dela esaten du. Kasu honetan, munduaren eraipen kognitiboa, alde ideologiko edo balioengatik mugatua eta mundu honekiko interbentzio zuzenak zehazturik egongo da.

Honekin batera, ideologia eta uste sistema formalizatuak eguneroko experientzia eta jokabidearekin batera ez dutela lan egiten esaten du. Pentsamendu hau irudikapen sozialek aldatu eta gidatuko dute egunerokotasunera eta berezkotasunera hurbilduz (Amerio, 1991).

Zentzu honetan, Palmonari eta Doise-k ere, irudikapen sozialak ikuspegi kongnitibotik eta jokabidean betetzen duten paperagatik konkretuagoak eta bapatean lortzen errezagoak direla diote. Ideologia ez da bere sistema kontzeptualaren indarrarengatik bereizten. Hau baino iraunkorragoa den zerbait da. Irudikapen Sozialen unibertsua, berriz, ez da hain zurruna, aldakorragoa da (Palmonari & Doise, 1986).

Doiseren gogoramen teorikoen arabera, ideologiak Irudikapen Sozialen edukia baldintzatzen du eta hauek sistema ideologiko zabalago baten subsistematzat har daitezke. Bere ustetan, irudikapen baten aingurapenean, irudikapenaren esanahia eta testuinguru sozial zehatz baten esanahi sinbolikoaren unibertsuaren artean hiru aingurapen mota bereiz daitezke; lehena, irudikapen soziala eta gizabanakoaren taldekidetzaren edo posizio sozialaren arteko erlazioa da, honen arabera, intserzio bakoitzak dagozkion irudikapenak aldatuko dituen experientzia zehatz bat du ondorio bezala (Doise, 1986).

Ikuspegi honen arabera, ideologiaren ezaugarririk nagusiena bere izaera logikoaren indar kontzeptuala litzateke, era berean, aldaketara jarkitzen den zerbait izanik. Irudikapen sozialen baitan kontraesanak egon daitezkenez, ez lirateke izango pentsaera sistematizatuaren egitura logikoak. Bestalde, dinamikoagoak lirateke. Honen arabera, bi elementu hauek bereizten dituzten aspektuak ideologiaren izaera logikoa eta aldaketarako erresistentzia lirateke.

Beauvois eta Joule (1984) bi kontzeptu hauen artean dagoen interakzioa uztartzen saiatzen dira honako hau esanez: Irudikapenak bi elementuen eraginez sortuko liratekeela:

a) alde batetik, ideologiaren unibertso logikoa lekuz aldatuko litzateke, hau zehaztuz eta egunerokotasunera hurbilduz.
b) Bestetik, Irudikapen Sozialen konkrezioa, testuinguru zehatzetan portaera konkretuek zehazturik legoke. Hori dela eta Irudikapen Sozialek betetako papera, ideologia ezagutza praktiko batean bihurtzea litzateke. Honela, irudikapen sozialak diskurtsu ideologikoa eguneroko bizitzan ematen den arrazionalizazioarekin uztartzen dituztenak izanik. Honen arabera, irudikapen sozialak eguneroko azalpen eta diskurtsu ideologikoen arteko konbinaketatik sortuko lirateke. Irudikapen sozialen tokia, eguneroko portaera eta ideologiaren artean legoke, hau da, bi

elementu hauen konbinaketatik sortuko lirateke.

Lipiansky-k (1987) Irudikapen sozialak eta ideologiaren arteko ezberdintasunak eta alde amankomunak bezala honako hauek proposatzen ditu:

Ezberdintasunei dagokionez, abstrakzio mailan ezberdintasun bat ematen dela esaten du: ideologia irudikapen sozialen sistema bat litzateke, ideologia abstraktuagoa izanik. Ideologiak irudikapen sozialak baino barreiatuagoak egongo lirateke eta ideologien baitan irudikapen ezberdinak agertzea posible izango litzateke. Honela, ideologia terminua, talde sozialek partekaturiko Irudikapen sozialetaz aritzeko erabilia izan daiteke.

Bi nozio hauek dituzten ezaugarri amankomunei buruz esan daiteke biek funtzio kognitibo bera betetzen dutela, biak errealitatea berreraiki eta azaltzeko saiakera bat bait dira. Bestalde, biek, gidatzen dituzten balio multzo bat dute, hori dela eta funtzio axiologiko bat beteaz. Azkenik, biek dute jokabidean eragina, hori dela eta funtzio konatiboa betetzen dute.

Ikerketa honetan oinarritzat azken ikuspuntu hau hartuko dugu. Gure ustez, ideologiak irudikapen sozialen edukia baldintzatzen du, azken hauek sistema ideologiko orokorrago baten azpisistema

# 1.3. TALDE ARTEKO GATAZKA

Gogora dezagun "Bakearen dimentsio Kulturala" delakoak, uste sistemez gain, exotaldeari buruzko pertzepzioak ere barneratzen dituela, dimentsio honetan exotaldearen desgizaturiko pertzepzioetan gauzatzen diren biolentzia elementuak aurki daitezkeelarik.

Zentzu honetan, Euskal Herrian bizi diren taldeek exotaldeei buruz dituzten pertzezioetan biolentzia kulturala ematen den aztertzeko, Euskadin suertatzen den gatazka soziopolitikoaren azterketa psikosozial bat egiten saiatu gara. Horretarako Identitate Sozialaren teoria (Tajfel, 1978, 1982, 1983 eta 1984) eta Taldearteko gatazkaren teoriak (Tajfel, 1982; Doise, 1986; Sherif, 1966; Deutsch, 1986) egindako aportazioetan oinarritu gara.

Paradigma indibidualaren eremuan buruturiko ikerketetan, gizabanakoen jokabidea pertsonarteko zein taldearteko harremanetan berdina zela gogartzen zen. Honela, subjektu bat bakarrik edo beste subjektu edo talde batekin elkarrekintzatzen ari bazen edo talde bat subjektuarentzat garrantzitsua zen ekintzaren batetan parte hartzen ari bazen, bere portaera antzekoa zela onartzen zen, ikuspegi honen arabera, jokabidea bere ezaugarri indibidualek zehazturik bait zegoen.

Beranduago, zenbait ikerketen ondorioz (Dustin & Davis, 1970; Wilson eta Kayatani, 1968), egoera berdinean taldeak pertsonak baino era konpetitiboago batetan aritzen zirela ikusi zen. Negoziazioari buruzko ikerketetan ere, ezberdintasunak azaldu ziren subjektuen jokabidean hauek gizabanako edo talde ordezkari moduan agertzen zirenean (Stephenson, 1978). Guzti honen ondorioz, talde arteko teoriak pertsonen portaeran ematen ziren aldaketa hauek kontutan hartu beharko zituztela ikusten hasi zen.

Honelako gogarketek, Tajfel bere identitate sozialari buruzko teoria garatzera bultzatu zuten. Identitate Sozialaren teorian Tajfel-ek pertsona arteko jokabidea eta taldearteko portaera bereiztu behar direla planteatzen du eta taldearteko harremanen eremuan, subjektuen jokabidean taldekidetzarekin lotura duten zenbait prozesu psikosozialei egotz diezazkiekegun aldaketak ematen direla aldarrikatzen du. Hauen ondorioz subjektuaren jokabidea ezberdina izango da

gizabanako moduan edo talde bateko partaide bezala jokatzen duenean (Tajfel, 1978).

Deutsh-en "The Crude Law of Social Relations" teoriaren arabera (Deutsch, 1983), taldeek gatazkari norgehiagokako jarrera baten bidez aurre egiten badiote, gatazka suntsitzailea izatera pasatzen da, honetan parte hartzen dutenek gatazka galdu/irabazi borroka bat bezala hautematen dutelarik. Hori dela eta, gatazka areagotu eta iraunkortzen duen gizarte-prozesu bat ematen da: komunikazioaren pobretzea, bestearekiko etsai-jarrerak (Raven eta Rubin, 1976), estereotipo negatiboak eta ezberdintasunen hipertsentiberatasuna. Honela, elkarrekintza gatazkatsuen retroelikadura bat ematen da gatazka maila areagotuz (Deutsch eta Shichman, 1986) eta gure taldearekin gatazkan dagoen exotaldearen irudia erabat bihurtuz. Prozesu honek oso ondorio negatiboak izan ditzake. Hauen artean, biolentzia kulturalaren adierazpen argia den esklusio morala azaltzen da. Ikusiko dugun bezala, aipaturiko prozesu hau ez da pertsonarteko harremanetan ematen.

Exotaldeen pertzepzioetan biolentzia kulturalik ematen den aztertzeko eta, era berean, talde arteko eta pertsona arteko jokabideen arteko ezberdintasuna egiazkoa den konprobatzeko, ikerketa honetan identitate ezberdinen (indibiduala/soziala) salientzia kontestuala manipulatuko dugu. Honekin batera, aldagai honen eta bestearen ebaluaketaren

artean bitartekari lana egiten duten zenbait prozesu soziokognitibo hipotetiko planteatuko ditugu.

Ezer baino lehen eta bizi dugun testuinguru gatazkatsuak ikerketa honetarako duen garrantzia kontutan izanik, gatazkari buruzko zenbait argibide azalduko ditugu.

### 1.3.1. Gatazkari buruzko zenbait argibide

a) Gatazka motak: Ikerketa honetan pertsonarteko zein taldearteko gatazken arteko ezberdintasunak ikertuko ditugunez, lehenik eta behin bi gatazka mota hauek definituko ditugu.

i) Pertsona arteko gatazkak: gizabanakoen arteko gatazkak lirateke hauek. Kasu honetan, subjektuek ez dituzte bere taldekidetza ezberdinak kontutan hartzen.

ii) Gizarte-gatazkak: hauek talde sozioekonomiko edo soziopolitikoen arteko gatazka izango lirateke. Hauek, gatazkan dauden taldeek bere interesak bateraezinak direla hautematen dutenean ematen dira (Wallensteen, 1989). Gatazka hauen barnean, honako azpisailkapena egin daiteke:

ii.a) **Nazioarteko gatazkak**, estatu-artekoak

alegia.

ii.b) **Estatu barneko gatazkak** edo "barne gatazka armatuak".

ii.c) **"Estatu sorrerako gatazkak"**: Hauek talde batek konstituzioa aldatzea edo independentzia aldarrikatzen duenean ematen dira. Mota honetako gatazkak lurralde batean elkarte sentimendu bat garatu duten taldeak sortzen direnean ematen dira, sentimendu hau errealitate dominatzailearen aurka jarriz.

Gatazka hauek estatu-nazio eta mugimendu periferikoa aurrez aurre jartzen dituen dialektikak definiturik daude, mugimendu periferikoa estatu-aberriarekiko gatazka iraunkorraren adierazpen kolektibo bihurtzen delarik. Gatazkaren iraunkortasunak, gutxiengo nazionalaren diferentzialitate logika bat sortzen du. Hau da, errealitatearen irakurketa objektibo eta subjektiboetan oinarrituriko marku autonomoak. Honela, Estatu nazionalaren errealitatea problematizatu egiten da eta gizarte espazio minoritario bat sortzen dute, bere gizarte-harremanak, gu-besteak dikotomian oinarrituz -non "gu" kodigo abertzalea onartzen dutenak dira, "besteak" beraiekin harreman gatazkatsua edo bere aurka daudenak izanik- harreman esklusibo-inklusibo bihurtuz. Mota honetako gatazka bat ematen denean, identifikazio-sentimendua indartu egiten da, gizarte-fenomeno oro urgainduz (Mercade, 1989). Hemen kokatuko litzateke Euskal Herrian

ematen den gatazka.

b) Gatazkaren izaera positiboa: Bakeari buruzko atalean ikus ahal izan dugunez, gatazka eta bakea aurkakotzat hartu izan dira. Mendeetan zehar, gatazkak giza-izaerari egotzi izan zaizkio eta bere ondorio suntsitzaileak direla medio, gatazka gauza negatibo bezala ikusi izan da.

Azken urteetan, gatazka gauza natural bat eta bizitzarako beharrezkoa eta ona dela dioen ustea indartzen hasi da. Gizarte zein gizabanakoen aldaketa bultzatzen duten indarretariko bat eta gizarte harremanetan ezinbesteko elementu sortzailea dugu (Lederach, 1989). Hori dela eta, historiaren motorra dela esan daiteke.

Psikologiaren baitan, ikuspegi kognitibo-egituralak, gatazka garapena azaltzera iristeko ezinbesteko elementutzat du (Langer, 1969; Rest, 1974; Turiel, 1974; Perret-Clermont, Schubauer-Leoni, 1981) eta honek komunikazioa, arazoen irtenbidea eta gatazkan barrenahasitako aldeentzako aldaketa positiboak suposatzen dituela ere baieztatzen da (Coser, 1956; Deutsch, 1973). Bestalde, gatazka aberasgarria suerta daitekeela defendatu ohi da. Honengatik ez balitz, ez genuke aniztasunik izango ez eta hazteko gaitasunik ere (Lederach, 1989).

c) Gatazkari izaera negatiboa eman diezaioketen zenbait elementu: Gatazkaren berezko izaera positiboa izan arren, badira hau suntsitzaile bilaka ditzaketen zenbait faktore. Hauen artean garrantzitsuena gatazka erregulatzeko eta konpontzeko aukeratzen dugun jokabidea da. Egoera gatazkatsu baten aurrean aurkitzen garenean, talde zein pertsonek, aurkitzen garen testuingurunearen arabera erantzuteko joera dugula esan daiteke (Lederach, 1989). Erantzun ezberdin hauek, honako bost portaera motatan sailka daitezkeela baieztatu da (Lederach, 1989):

i) **Norgehiagokako jarrera:** Jarrera hau gure nahietaz kezka handia sentitzen dugunean eta bestearen nahietaz kezkatzen ez garenean ematen da. Honela jarraitzen den erizpide bakarra norberaren nahiak asetzearena da.

ii) **Ekidin:** Jarrera hau batek gatazkatik ihes egiten duenean eta arazoei aurre egiten ez dienean ematen da. Honela, subjektuak ez die inongo garrantziarik ematen ez bere nahiei eta ez besteenei ere.

iii) **Negoziatu, hitzartu:** Kasu honetan ez zaie norberaren nahiei uko egiten, eta bestearen nahiak ere kontutan izaten dira. Irtenbidea, erdibideko puntu bateraino hel dadin, bakoitzak neurri batean amore ematean datza.

iv) **Egokitu:** kasu honetan, alde batek bere nahiei uko egiten die beste aldearen nahiak bete daitezen. Norgehiagokako estiluaren aurkakoa litzateke.

v) **Lankidetu:** Honen arabera, posiblea da bestearen nahiak asetzea eta era berean, norberaren helburu edo nahietaz kezkatzea. Bi aldeen nahiak asetuko dituen irtenbide bat aurkitzeko ahalegintzea beharrezkoa da. Negoziatzearen helburua "pastela" zatitu eta banatzea den bitartean, lankidetzak hau zabaldu eta handitzeko era bilatzen du (Lederach, 1989).

Gatazka positiboa eta eraikitzailea izan dadin, gatazkan parte hartzen dutenen arteko komunikazioak funtsezko lana beteko duen estilu negoziatzaile edo kolaboratzaile bat hartu behar dugu (Lederach, 1989). Gatazkari aurre egiteko aukeraturiko jokabidea norgehiagokakoa bada, ordea, gatazkaren izaera negatiboa izatera pasatzen da. Deutsch-ek (1983) gatazka hauek "gatazka suntsitzaileak" izendatu zituen. Kasu honetan, gatazkan parten hartzen dutenek hau irabaztea ala galtzea borroka bat balitz bezala hautematen dute. Honen ondorioz, eta gizarte-gatazken kasuan, gatazka luzarazten eta areagotzen duen prozesu sozial bat aktibatzen da: komunikazioa pobretzen da, bestearekiko etsai-jarrera bat ematen da eta estereotipo negatiboak eta ezberdintasunekiko hipersentiberatasuna sortzen dira. Honela, elkarrekintza gatazkatsuen retroelikadura bat ematen da, honekin batera gatazka hautematu maila areagotzen delarik (Deutsch eta Shichman, 1986). Guzti honek, eragin kaltegarria izango duen zirkulu bat osatzen du, geroago ikusiko dugun bezala.

Aurreko parrafoan irakur ahal izango zenutenez, aipaturiko prozesua soilik gizarte gatazken kasuan ematen zela esaten genuen. Pertsonarteko gatazketan, berriz, ez da prozesu kaltegarri hau ematen. Ezberdintasun hau azaltzeko, pertsona eta taldearteko harremanen arteko ezberdintasunak aztergai dituen Identitate Sozialaren teoria (Tajfel 1978, 1982, 1983, 1984) ezinbestekoa da. Hau da, hain zuzen, jarraian aurkeztuko dizueguna, hasteko gizarte-kategorizazio prozesua azalduko dugularik.

## 1.3.2. Gizarte kategorizazio prozesua

a) Kategorizazio sozialaren definizioa eta ezaugarriak: Identitate sozialari buruzko teoriaren oinarrizko suposizioak dioenez, subjektuok gure ingurunea eta geure burua talde edo gizarte kategoriatan sailkatzeko joera bat dugu. Talde hauek, bizi garen munduaren nahaspiltasuna bakandu eta objektua sailkaturik dagoen kategoriaren ezaugarrien arabera identifikatzeaz gain, auto-erreferentzi bide bat dira (Tajfel, 1982). Kategoria edo talde hauek, gure esperientzian oinarriturik daude, baina gizarteak zehazten ditu. Gizarte guztietako pertsonek burutzen duten oinarrizko prozesu honi Gizarte Kategorizazioa deitzen zaio (Tajfel, 1978) eta superbizipenerako nahitaezko prozesu bat litzateke. Bestalde,

kategoriak osatzen dituzten elementu guztiek konnotazio emozional berdinak dituztenez, alde emozionalak dituela esan ohi da (Allport, 1954).

Kategorizazio prozesuaren **ezaugarriak**, honako hauek dira:

i) Kategorizazioa, taldekatzearen sinonimoa da.
ii) Kategoriak erabiltzeak, kategoria horien ezaugarrien bidez, objektua azkar bereizten laguntzen digu.
iii) Kategoria bat osatzen duten objektuek, konnotazio emozional berdinak dituzte.
iv) Kategoriak bere artean bere arrazionaltasun mailaren arabera bereiz daitezke. Aipatu kategoria baten arrazionaltasuna, kategoria hori zenbait nabaritasunen bidez aldatzeko erreztasuna izango litzatekeela (Allport, 1954).
v) Gizabanakoak kategorizazioa burutzeko erabiltzen dituen dimentsioetatik garrantzitsuena bere balioena da.

b) <u>Taldearen definizioa eta bere osagaiak</u>: Kategorizazio prozesutik, bada, sortzen dira gizarte-kategoriak eta taldeak. Bi nozio hauek ez dutela gauza bera adierazten aipatu nahi dugu: Talde bat definitzeko garaian, Emersonen nazioaren definizioa hartzen da. Honen arabera talde bat, talde bat osatzen duela sentitzen duen pertsona multzo batek talde bat osatuko luke (Emerson,

1960). Ikusten dugunez, taldearen definizioan kategoriatan ematen ez den taldekidetza sentimentu bat ematen da. Kategoriatan ez da sentimentu hau gertatzen. Begi marroiak ditugunok, adibidez, kategoria bat osatzen dugu, baina ez talde bat, ez bait dugu talde bat osatzen dugunaren sentimendurik. Aipaturiko taldearen definizioan hiru osagai aurki ditzakegu (Tajfel, 1982):

i) **Soziokognitiboa:** taldekidetza sentimendua, alegia. Bere ezagutzazko aldea edo alde soziokognitiboa, talde pertentziarekiko akordioan datza. Akordio hau beharrezkoa da aipaturiko pertenentziak endotalde zein exotaldeekiko jokabidean berdintasun sozialak zehazteko eraginkor izatera iritsi behar badu. Akordioa askotan, kategorizatutako taldeak eta, nolabait, hau inguratzen duten beste taldeek onartuko dute. Areago: akordioak beste talde batzuengan izan dezakela bere sorrera eta, eraberean, endotaldearen barneko zenbait pertenentzi-erizpideen izaera zehaztu dezakeela esan daiteke.

ii) **Ebaluatzailea:** Talde nozioak edo/eta taldekidetzak konnotazio baloratzaile positibo edo negatibo bat izan dezakeelako.

iii) **Osagai emozionala:** pertenentzia-talde eta honekin harremana duten beste taldeekiko emozioak lirateke.

## 1.3.3. Identitate soziala

Gizarte kategorizazioak, kategoria batetan sistematikoki sartuz eta beste kategoria batzutatik baztertuz, definitzen du pertsona. Kategoria batzuekiko pertenentziaren ezagutzatik eratortzen den subjektuaren autokonzeptuaren zatia, pertenentzia honek subjektuarentzat duen esanahi baloratzaile eta hunkiberazkoarekin batera subjektuaren Identitate soziala da. Bestela esanda, talde bat edo batzuekiko pertenentzia-sentimendua eta sentimendu honek subjektuarentzat duen balio eta esanahi emozionaletik eratortzen den subjektuaren autokontzeptuaren zatia litzateke subjektuaren Identitate soziala (Tajfel, 1972), hau kategorizazio prozesuaren ondorio zuzena dela esan daitekelarik. Honela, subjektu bat identifikatzen den taldeari -edo taldeei- endotaldea esaten zaio, beste talde guztiei exotaldeak deitzen zaielarik.

Subjektua, erizpide ezberdinen arabera, talde bat baino gehiagorekin identifika daiteke, identifikazio hauek bi eratakoak izan daitezkelarik: independienteak edo bere garrantzia erlatiboaren arabera antolaturikoak (Stryker, 1987). Identitate soziala, subjektuak bere burua definitzeko erabiltzen dituen identifikazioen batura izango litzateke. Identifikazio hauek onarturik, subjektuak talde horretako partaideei egozten zaizkien ezaugarriak eta talde horren erregulazio arauak -jarrerak, uste sistemak, ideologiak, iritziak...- onartzen ditu. Ezaugarri

hauek asumitzen dituen heinean, bai bere autoidentifikazio pertsonalean bai eta munduaren ikuspegi orokorrean eragina izango dute. Identitate soziala, bada, subjektuaren auto-konzeptuaren azpisistema bat da eta honen zati garrantzitsu bat dela esan daiteke.

Euskal Herrian ematen den gatazka soziopolitikoa bezalako zenbait kasutan, identifikazio-eremu batzu (Euskal nazioa eta espainiar estatuarena hain zuzen) elkartezinak bezala azaltzen zaizkigu. Honen ondorioz, hiru identitate mota azaltzen zaizkigu: (1) **Identitate gatazkatsuak** edo bi identifikazio eremuak elkarren aurka aurkitzen direneko identitateak. Identitate mota honen baitan, bi identitate mota aurki ditzakegu: identitate esklusibo estatala, zeinean estatuarekiko identifikazio maila altua eta estaturik gabeko nazioarekiko identifikazio maila txikia ematen den. Bestalde, identitate esklusibo nazionala, non aberriarekiko identifikazio maila altua eta estatuartekiko identifikazio maila baxua ematen den. (2) **Identitate inklusiboa**, berriz, bi identifikazio eremuak gatazkarik gabe ematen direnean suertatzen da. Kasu honetan, nazio zein estatuarekiko identifikazio maila altua izaten da. (3) Azkenik, bi taldeekiko identifikazio maila oso baxua ematen denean.

## 1.3.4. Jokabide indibidualetik portaera

Identitate Sozialari buruz, Tajfel (1974) proposatu zuen honek kontinuum delako baten bi buruei dagozkien bi ertz teoriko dituela. Ertz hauetariko batean, gizabanako bakoitzaren ezaugarriez eta bere burua beste gizabanakoekin gonbaratuz eraikitako Identitate Pertsonala legoke. Beste buruan pertenentzia-taldeko taldekidetzarekin lotura duten autodeskribaketek eta endotaldea beste talde ezberdinekin gonbaratuz eraikitako Identitate Soziala aurkituko litzateke. Edozein harremanetan hauetako buru bat nagusitzen da, eta horren ondorioz jokabidea horren menpe gelditzen da. Tajfelek pertsona arteko jokabidetik taldearteko jokabiderako bidea era honetara deskribatzen digu:

a) Jokabide indibiduala: Identitate pertsonala gure jokabidearen gidari bilakatzen denean, elkarrekintza guztia bi subjektuen arteko harremanengatik eta subjektuen ezaugarri pertsonalengatik zehazturik dago. Kasu honetan harremanak ez du taldekidetzaren eraginik izango. Horren ondorioz subjektuek, bere burua bai berarekin harremanetan dagoen bestearena ere, gizabanakotzat hautematuko dituzte, taldekidetza kontutan izan gabe. Hori dela medio, jokabidean gizabanakoen arteko ezberdinatsunak emango dira. Nahiz eta harremana gatazkatsua izan, judizioetan talde ezberdinekiko pertenentziak nahasten direnez, estereotipoak ez dira oso nabarmenki ematen.

b) Jokabide soziala: Subjektuak bere burua eta berarekin harremanetan dagoen pertsona -"bestea"- talde baten ordezkaritzat -eta ez banakotzat- hautematen dituenean, berriz, taldearteko jokabidea dugu (Tajfel eta Turner, 1979). Horren ondorioz, taldekidetzak harremanean eragin zuzena izango du. Taldearteko jokabidean taldeen ezaugarri indibidualek eta beste egoera batzutan suerta daitezkeen talde horietako partaide diren pertsonarteko harremanek ez dute eragin handirik. Talde bateko partaide diren gizabanakoek, indibidualki edo kolektiboki, beste talde batekin edo beraien taldekideekin talde-identifikazio terminutan elkarrekintzatzen duten bakoitzean, jokabide sozialaren kasu baten aurrean aurkitzen gara (Sherif, 1966).

Taldearteko jokabidea, partekaturiko identifikazio sozialen menpe dago. Jokabide hau ematen denean, estereotipaturiko pertzepzioak eta jokabideak ematen dira eta estereotipoak nabarmenki ematen direla esan daiteke. Taldearteko jokabidea, subjektuak talde-pertenentziari ematen dion garrantziaren menpe dago: Pertenentzia bat subjektuaren auto-irudiaren zati garrantzitsua ba da, subjektuak talde horri egotzitako arau eta estereotipoak aplikatzeko joera agertzen du (Turner, 1982, 1984). Egoera hauetan jokabidea zehazten duten ezaugarri nagusiak honako hauek dira: endotaldearekiko taldekidetza partekatua eta endotalde eta exotaldearen arteko harremanen interpretazio partekatua.

Jokabide soziala, endo eta exotaldeen ezberdintasun indibidualengandik eta bi taldeetako partaideen artean maila indibidualean suerta daitezken harremanengandik independientea da maila handi batetan. Gizabanakoen uneko egoera motibazionalek ere ez dute eraginik izango. Gizarte jokabidea ematen denean, estereotipoak nabarmenkiago ematen dira (Turner, 1982, 1984).

Orain arte azaldutako guztiagatik, gure ikerketarako oso interesgarriak diren **exotaldeekiko jokabideari buruzko jeneralizazio** hauek atera daitezke (Tajfel, 1982):

i) Egoera bat, taldearteko harreman bat bezala hautematen denean, exotaldeko partaideekiko jokabidea uniformizatu egingo da. Egoera pertsonarteko harremana bezala hautematen denean, ordea, besteekiko jokabidea aldakorragoa -ez hain uniformea, alegia- izango da.

ii) Egoera taldearteko egoera bat bezala hautematen den neurrian subjektuak, exotaldeko partaideak kategoria bat osatzen duten gizabanako berdintsu bezala hautematuko ditu, hauen arteko diferentziak kontutan hartu gabe. Prozesu hau aldiberean, era honetara isladatuko da: endotalde eta exotaldearen arteko dikotomiaren konzientzi-hartzean, exotaldeko subjektuei kategoria berekoak izateagatik egozten zaizkien estereotipoen egozpenean, ezaugarri hauei dagozkien balio-judizioetan, ebaluazio hauei loturiko esanahi

emozionalean eta exotalde-endotalde kategorizazioari lotzen zaizkion beste jokabide motetan. Egoera pertsonartekoa dela hautematen denean, berriz, judizioetan talde ezberdinekiko pertenentziak nahasten direnez, estereotipoak ez dira oso nabarmenki emango.

Egoera sozial guztiak, identitate pertsonala eta sozialaren artean kokatzen dira, eta endotalde edo exotaldeko partaideekiko jokabidea, subjektuak egoeraz duen pertzepzioaren menpe egongo da. Hala ere eta nahiz eta egoera gatazkatsua izan, ezin da esan exotaldeko partaide bat agertzen den bakoitzean derrigorrez taldearteko jokabide bat emango denik. Hala ere, egoeraren gatazka maila areagotzen denean egoera hau taldearteko harremantzat hartzeko aukera handitu egingo da.

## 1.3.5. Taldekidetza eta testuingurua

Frogatua izan da gure buruaren eta besteen pertzepzioan talde pertenentziak eragin handiagoa duela testuinguru batzutan beste batzuetan baino (Bruner & Pelmuter, 1957; Dion, 1975; Dion & Earn, 1975; Doise & Weinberger, 1973; Sherif, 1966). Hau ematen da, batez ere, taldearteko gatazka edo/eta deskriminazioa ematen direnean.

Honela, egoera ezberdinek bakoitzaren kontzepzio ezberdinak aktibatzen dituzte. Zenbait

egoerek Identitate Soziala bizkortzea eragiten dute. Gai honi dagokionez, badaude testuinguruak, egoera sozialak eta taldekidetza subjektiboek beraiengan duten isladaren arteko harremanari buruzko zenbait printzipio. Hauek jarraian azalduko ditugu:

i) Subjektuak talde bateko partaide moduan banaka edo taldeka elkarrekintzatuko duen egoera kopurua handitzen duten faktoreak honako hauek lirateke:

i.1.- Taldekidetzaren kontzientzia garbia.
i.2.- Taldekidetza horrekiko egiten dituen ebaluaketak zenbaiteraino diren positiboak edo negatiboak.
i.3.- Kontzientzia eta ebaluaketekiko konpromezu emozional maila.

ii) Nahiz eta taldearekiko lotura txikia izan subjektua talde partaide bezala jokatzera bultzatuko duten egoerak ere badira.

iii) Honela, aurreko bi puntuen arteko feed-back positibo bat ematen da: aldez aurretik garrantzitsuak ez diren zenbait identifikazio areagotu edo identifikazio berriak sor ditzakeen egoerak ere ematen dira (Tajfel, 1984).

## 1.3.6. Taldearteko diferenziaziotik estereotipoetara

a) Talde barneko homogeneizazio eta taldearteko desberdintzapen prozesuak: Oraindik gizarte kategorizazioa berez talde arteko gatazka suerta dadin, nahikoa den (Rabbie et al, 1989) ala ez eztabaidatzen da. Hala ere, esan daiteke honek talde arteko gatazkan funtsezko papera jokatzen duela (Valencia, Villarreal, 1992). 1963. urtean, Tajfel eta Wilkes-ek aurkitu zuten estimulu multzo bat kategorizatzean, baldin eta kategorizazio hau estimuluak dimentsio fisiko baten barruan zuen lekuarekin koerlazionaturik bazegoen, prozesu bikoitz bat ematen zela: alde batetik **"kategoria arteko diferenziazioa"** edo kategoria ezberdinak osatzen dituzten kideen arteko ezberdintasunak areagotzea, eta bestetik, kategoria osatzen duten elementuen arteko berdintasunak gehitzeko joera edo **"taldebarneko homogenizazioa"** (Tajfel, 1978, 1981; Forgas-ek, 1981; Doise et. al., 1978, 1982; Doise, 1978, 1982; Turner, 1979, 1987; Brown, 1985). Bi joera hauek, kategoria eta juzgatzen den kualitate fisikoaren arteko harreman sistematikoarengatik ez balitz, ez lirateke gertatuko.

Beranduago burututako ikerketetan, Tajfel eta bere lankideek aurkitu zuten oraintxe deskribatu ditugun fenomeno hauek aurkeztutako estimuluak subjektuak zirenean ere ematen zirela (Tajfel, 1978, 1981; Tajfel & Forgas, 1981; Doise, 1978, 1986).

b) Estereotipoak: Kategorizazio prozesuak, kategoriarteko bereizketa eta kategoria barneko homogeneizazioaz gain, taldearteko diskriminazioa edo etnozentrismoa eta talde barneko faboritismoa ere dakartzala frogatu izan da (Tajfel, 1978, 1981, 1982; Turner, 1979, 1989; Brown, 1985), honen ondoriotzat estereotipo sozialak suerta daitezkeelarik: gizabanako orok bere buruaren irudi positibo bat behar du, hori dela eta, hau lortzen saiatzen dira. Talde batekiko identifikazioa ematen denean, irudi positiboaren behar hau norberaren taldea besteekin gonbaratuz hobetzat hartzean isladatzen da. Gogarpen baikor honek, gonbaraketa dimentsio egokietan norberaren taldea besteena baino "hobea" dela dioen ikuspegia behar du (Tajfel, 1978).

Diferentziazio behar hau, subjektuek bere taldearteko egoerari eman behar dioten esanahian datza eta talde arteko diferentziak sortuz asetzen da. Honela, ezberdintasunik ez dagoenean, talde arteko diferentziak sortu egiten dira eta daudenean, ezberdintasun hauek areagotu egiten dira, hori dela eta, Tajfelen ustez diskriminazioa eta estereotipoak kategorizazio sozialaren ondorio hutsak dira, eta bestalde, diskriminazio fenomenoak norberaren talde identitate sozialaren defentsarako funtzioa betetzen du (Tajfel, 1981).

Hala ere, nahiz eta gizarte-eremu baten baitan kategoria multzo bat egon, ez da derrigorrez taldearteko desberdintzapen prozesua ematen. Kategoria supraordenatu batekiko pertenentziak

prozesu hori ahuldu dezake. Frogatua izan da taldekidetza ezberdinen gurutzapenak efektu diferentziatzailea deuseztatu egin dezakeela (Deschamps eta Doise, 1979). Gizabanakoek beraientzat garrantzitsutzat duten gizarte-afiliazio amankomuna dutenean, endotalde eta exotaldearen arteko desberdintzapen erizpideen aukeraketa eta talde bakoitzari egotzitako ezaugarriak, talde osoarentzako amankomunak diren ohitura kultural, talde-interes eta gizarte-diferentziazioengatik zehaztua egongo da.

## 1.3.7. Norgehiagokako joera duten gizarte gatazkak

Lehen aipatu dugun kategoriarteko desberdintzapen prozesuak ondorio negatiboak izan ditzake zenbait kasutan. Adibidez, Euskal Herrian ematen den gatazka-egoera bezalako prozesuetan. Gatazkari aurre egiteko garaian norgehiagokako jarrera bat hartzen bada, gatazka suntsitzailea bihurtzen da (Deutsch, 1983), honetan taldeek gatazka irabazi ala galduko borroka bat balitz bezala hautematen dutelarik. Honen ondorioz, gatazka luzarazten eta areagotzen duen prozesu sozial bat aktibatzen da: lankidetza eragozten duten distorsio kognitiboak ematen dira (Doise, 1976; Blake eta Mouton, 1979) eta komunikazioa pobretu egiten da. Oinarrizko uste eta balio mailan ezberdintasuna hautematen da, honela bestearen irudi estereotipatu bat ematen da, bestea

norberaren interesekiko mehatsu bilakatzen delarik.

Gatazka garatzen den neurrian, bi taldeen arteko komunikazioa bihurtu eta gutxitu egiten da (Raven eta Rubin, 1976). Taldearen barne-kohesioa, "gu" eta "bestea"ren arteko mugak eta gatazka hautematua areagotu egiten dira. Honela, bestearekiko etsai-jarrera bat garatzen da eta exotaldearen ezberdintasunekiko sentiberatasuna areagotu egiten da, bi taldeen arteko berdintasunei inongo garrantzirik ematen ez zaielarik. Exotaldearen irudi estereotipatu negatiboa areagotu egiten da ematen da eta elkarrekintza gatazkatsuak retroelikatu egiten dira, gatazka-hautematu maila igoz eta taldearteko harremana etsai-harremana bihurtuz.

Honela, gatazkaren irtenbide bakarra talde baten nahien inposaketan datzala hautematen da.

Prozesu konpetitiboak eragindako prozesu honen ondorioz -komunikazioa gutxitzea, jarrera etsaitsuak, oinarrizko uste eta balioekiko ezberdintasun hautematua, estereotipo negatiboak eta desberdintasunekiko hipersentiberatasuna- harreman gatazkatsuen retroelikadura bat eta gatazka mailaren areagotze bat ematen dira (Deutsh eta Shichman, 1986). Honela, borobil oker bat ematen da: bestearen irudia gero eta negatiboago hautematen da eta gatazka maila ere areagotu egiten da, hau oso gogorra dela pertzibitzera iritsi arte.

## 1.3.8. Esklusio morala

Aipaturiko prozesu honek normalean emaitza latzak ekartzen ditu: tadearteko justiziari buruzko interesa ahuldu egiten da eta justiziaren mugak edo pertsonaren elkarte moralaren muga psikologikoak murriztu egiten dira (Opotow, 1990). Guzti honek objetuak ezberdintzeko dugun joeratik eratortzen den Esklusio morala (Tajfel & Wilkes, 1963) ekar dezakelarik. Fenomeno hau gizabanakoak gure balio moralak, arauak eta justizia aplikatzen diren mugetatik kanpo hautematen direnean suertatzen da. Moralki eskluitzen diren subjektu edo taldeak, ez baleude bezala hautematen dira, beraz, hauen aurkako edozein ekintza zilegia da (Tajfel, 1981; Wilder, 1986).

Kategoriazazioa eta diferentziazioa oso negatiboak bihur daitezke injustiziarako razionalizazio moralaren lana betetzen dutenean. Hau gertatzen denean, neutroak diren zenbait ezaugarri, talde ezberdinetako partaideentzat tratu ezberdina eta ondorioak sortzen dituzten balioz kargaturiko etiketa bihurtzen dira (Tajfel, 1978). Gizabanako edo taldeak justiziaren kontsiderazioa, balio moralak eta arauak aplikatzen diren mugetatik at hautematen dira, bere eskubideak iraitziz eta ondorioz hauek -fisiko zein psikikoki- zauritzea eta explotatzea justua eta onargarria bilakatzen delarik.

Kultura ezberdinen eta une historikoaren eraginez alda daiteken justiziaren muga, maila handi batetan gure harremana besteekin eta beraien eskubideei buruz ditugun usteak definitzen dituen orden nagusiak zehazten du. Gutako bakoitzak bere kode morala eraikitzen du, baina arau kulturalek zehazten dute zein izakik duen justiziarako gogartze eskubidea (Bandura, 1986; Edwards, 1987; Shweder, Mahapatra eta Miller, 1987).

Gizabanako guztiok moralki bizitzaren zenbait esferetatik eskluitu dezakegu zenbait jende. Gure burua, familia, lagun eta abarrekiko moralki beharturik sentitzen dugu, baina ez dugu beste zenbait pertsona eta taldeekiko gauza bera sentitzen, hauek gure unibertsu moraletik at uzten ditugularik.

Zenbait egora psikologiko indibidual eta egoera sozialek, esklusio morala eta ondorioz, bestearen deshumanizazioa eman daitezen baldintzak sortzen dituzte: alde batetik, subjektuak ideologia barneratzen du, besteekiko dituen hautemateak eta bere komunitate morala berregituratuz eta hau esklusio moralaren zenbait sintomatan -deslegitimizazioa, distantzia psikologikoa...- egokitzen du.

Bestalde, esklusio morala subjektuen harremanetatik sortzen da: bere jarrera eta jokabideek gizarte ordena berregituratu, taldearen eskubideak berdefinitu eta justiziaren mugak eraldatzen dituzte, jarrera eta jokabide horiek

sortu dituzten bihurketa kognitiboak berrindartzen dituzte. Honela, ba da, gizabanakoaren eta gizartearen arteko elkarrekintza bat ematen da.

Bazterketa morala aurresaten duten faktore psikologikoen artean honako hauek ditugu:

* **Gatazka maila:** egoera gatazkatsu batetan, justizia aldatu egiten da. Arriskua, stressa eta gatazkak taldebarneko mugak indartzen dituzte, honekin batera ere informazioa prozesatzeko estrategiak eta arau justuen aukeraketak aldatu egiten dituzte (Coser, 1956: Leventhal, 1979: Staub, 1985). Gatazka areagotzen den neurrian, talde barneko kohesioa indartu egiten da eta talde arteko justiziarekiko interesa gutxitu egiten da, justiziaren mugak murriztu egiten direlarik (Opotow, 1990).

* **Lotura eza (unconnectedness):** Esan bezala, bazterketa morala objetuak ezberdintzeko dugun joeratik eratortzen da (Tajfel eta Wilkes, 1963). Bestea guregandik aldendurik edo ezberdindurik hautematen dugunean, jarrera negatiboak, lehia suntsitzailea (Deutsch, 1973) eta erantzun baztertzaileak eragin ditzake (Tajfel, 1978), hau da, bazterketa moralarekin bat datozen jarrera eta jokabideak. Burutu diren zenbait ikerketen ondorioz (Deutch, 1973; Staub, 1978; Byrne, 1971; Brewer, 1979; Schwartz & Struch 1989),

esan daiteke loturak enpatia eta laguntza-jokabidea bultzatzen dituela, hauek inklusio moralarekin bat datozen jokabideak direlarik. Hala ere, beste zenbait ikerketek, antzekotasuna inklusio moralaren aurrezle egokia ez dela adierazi dutela aipatu behar da (Opotow, 1990).

Bazterketa morala ahula edo gogorra izan daiteke. Lehenengoak giza eskubideen bortxaketa, errepresio politikoa, esklabismoa, sarraskiak... ditu bere baitan. Eskluitutako taldea mehatxu bezala ikusten da, horren ondorioz tortura edo erahilketa bezalako ekintzak burutu daitezkelarik. Bigarren kasuan, ez dira kontutan izaten talde edo subjektuaren oinarrizko beharrak -etxebizitza, osasun serbitzuak, tratu duina,...-. Nahiz eta bazterketa moral mota hauek ezberdinak izan, badituzte zenbait ezaugarri berdinak: bi kasutan, subjektuak bestea psikologikoki aldendurik hautematen du, honen ondorioz, nazkagarritzat hartzen du eta bere eskubideak, autonomia eta duintasuna ukatzen dizkio.

## 1.3.9. Esklusio moralaren operazionalizazioa

Gure ikerketan bazterketa morala aukeratu dugu Euskal Herrian exotaldeen pertzezioan biolentzia kulturala ematen den ala ez aztertzeko. Horretarako esklusio morala aurreiritzi eta

estereotipoen ikuspuntutik aztertu dugu eta bazterketa moralaren bi sintoma kontutan hartu ditugu: a) balio egituren arteko distantzia hautematua (Schwartz & Struch, 1989) eta b) deslegitimizazioa (Bar-Tal, 1990).

a) Balio Distantzia hautematua: Balioak jendearen helburu indibidual zein sozialak, eta hauek lortzeko onartzen diren jokabideen adierazgarri dira (Kluckhohn, 1951; Rokeach, 1973; Schwartz eta Bilsky, 1987)-. Jendeak bere eta besteen jokabidea ebaluatzeko neurri batean erabiltzen dituen finkoak diren erizpideak lirateke eta jarrera eta arauen oinarrien papera betetzen dute (Rokeach, 1973).

Jendeak, desiragarri eta onargarriak iruditzen zaizkion helburu eta jokabideen bitartez bere gizatasuna adierazten du. Honen ondorioz, hautemailearentzat taldeen balio jerarkiek talde horietako subjektuen gizatasunari buruzko ikuspuntua adierazten dute (Swartz eta Struch, 1989).

Gure taldeko subjektuek gure gizatasun maila bera dutenez, guk merezi dugun tratu gizakor berbera merezi dute. Exotaldearen balioak gure balioetatik ezberdinak direla pentsa dezakegu eta kasu honetan, bere oinarrizko xedeak gure xedeekin bat ez datozenez, esklusio morala ematen da eta outgroupeko partaideek gizatasunik ez dutela

hautematen dugu. Honek, beraien aurkako motibazio sozialak sortzen ditu gure baitan (Berkovitz, 1962; Sherif eta Sherif, 1953). Horrela, exotaldearen partaideak gizatasunik gabeko bezala pertzibitzen dira.

Outgrouparen estereotipo deshumanizatzaile honek, honen aurkako ekintzak justifikatzen ditu (Tajfel, 1981; Wilder, 1986), beraz, hau suertatuko balitz, gure kulturan biolentzia kulturala dimentsioan kokatuko litzatekeen elementu bat izango genuke. Swartz eta Struch-ek (1989) gatazka hautematuaren eta agresioaren artean ematen diren prozesuak deshumanizazioan eta balio arteko desberdintasunean kokatzen dituzte.

b) Deslegitimizazioa: kategorizazio sozialaren kasu zehatz bat da. Talde zein subjektuak oso kategoria negatiboetan sailkatzen dituen estereotipazio mota bat da. Honen ondorioz, deslegitimizaturiko subjektu zein taldeak, balio edo arau onargarrietatik at gelditzen dira (Bar-Tal, 1988, 1989). Hori dela medio, esklusio morala errezten du. Kategorizazio mota bat denez, kategorizazio soziala gidatzen duten arau berdinek gidaturik dago (Eiser eta Stroebe, 1972; Rosch, 1978; Tajfel, 1978; Tajfel eta Turner, 1979). Deslegitimizazioa kategoriaturiko taldearen gizatasun ezeztatutzat har daiteke ere (Swartz-ek Bar-Tal-i 1985. urtean egindako iradokizuna), beraz, biolentzia kulturalaren elementu bat izan daiteke.

Alde kognitibo, afektibo -mehatxu sentimendu bati erantzuna da- eta konduktualak ditu. Deslegitimizazioa taldeen helburuen arteko elkarrezinetik sortzen da (Bar-Tal, 1989). Orduan taldeak deslegitimizazioa erabiltzen du gatazka azaldu eta bestearen aurka burutu daitezkeen agresioak justifikatzeko.

Kasu hauetan, deslegitimizazioak besteari buruzko pertzibituriko ezaugarri eta portaerarentzat azalpen bat emanez eta geroan gerta daitezkeen ekintzen aurresanak egitea posibilitatuz errealitatea antolatzen duela esan dezakegu. Behin deslegitimizazioa erabiliz gero, deslegitimizaturiko taldearen mehatxu inferentzietara bultzatzen gaitu. "Agresiboa", "krudela" edo "zapaltzailea" bezalako etiketek, exotaldea biolentzia erabiltzeko kapaz dela adierazten dute, ekintza hauek, zalantzarik gabe, endotaldearen segurtasuna arriskuan jarriz.

Deslegitimizazioak honako **funtzio** hauek betetzen ditu (Bar Tal, 1989):

i) Oso negatiboak diren portaeren justifikazioa.
ii) Taldearteko diferenziazioa.
iii) Nagusitasun sentimendua.
iv) Taldebarneko berdintasuna.

Nahiz eta estereotipazio mota bat izan, deslegitimizazioak ba ditu estereotipo eta

aurrireitzietatik bereizten dituen zenbait **ezaugarri:**

i) Kategorizazioaren oinarritzat erabiltzen diren edukinak zeharo arraro eta negatiboak dira.
ii) Talde deslegitimatzailearen eredu edo/eta balioetatik at kokatzen diren kategorietan sartzen da subjektu edo talde deslegitimizatua, honela betirako gizartetik at dagoela kontsideratzen delarik. Estereotipoekin ez da hau gertatzen, nahiz eta estereotipoa negatiboa izan, gizartearen barnean jarraitzen bait dute.
iii) Deslegitimizaturiko taldearen aurkako emozio negatiboekin batera ematen da.
iv) Beste taldea endotaldearentzat mehatxu bat dela inplikatzen du.
v) Gainera beste talde edo pertsonaren gizatasuna ukatzen du. Honen ondorioz, besteak ez du tratu onik merezi, eta min egitea justifikatua gelditzen da. Hori dela eta, askotan subjektuen jokabidea eta erabakiak gidatzen dituela esan daiteke.
vi) Prozesu hau bultzatzen duten arau sozialek araututa dago. Euskal Herrian suertatzen den bezala, askotan instituzio eta komunikabideek bultzaturik ematen da.

**Deslegitimizazio bideen** artean, honako hauek aurkituko lirateke (Bar Tal, 1989):

i) Aipaturiko deshumanizazioa: Honek talde bati humanoak ez diren zenbait izakien edo gaizki ikusiak dauden gizakien ezaugarriak egoztea suposatzen du. Deslegitimizazio bide hau, bestea aipaturiko izakien izenez izendatzearekin isladatzen da: deabrua, mamuak, txakurrak... Bi kasuetan, deslegitimizaturiko taldeak izaki hauen ezaugarriak dituztela suposatzen da.

ii) Berezitasunen ezaugarritzea: "etsaia" onargarriak ez diren zenbait ezaugarrien bidez izendatzen da: hiltzaileak, agresiboak...

iii) Bazterketa: besteak arau sozialak betetzen ez dituzten izakien izenen bidez izendatuz: lapurrak, eroak...


iv) Etiketa politikoak erabiliz: faxistak, terroristak... Deslegitimizazio mota honekin, bestea oinarrizko balioak arriskuan jarriko balitu bezala deskribatzen da. Askotan, talde hauek deslegitimizatzen duen gizartearen balioak arriskuan jartzen dituzte eta gizarte hauen ongizatearentzako mehatxu bezala kontsideratzen dira.

v) Taldearteko konparaketa: gaizkile eredu bezala diren izenak erabiliz. Hauek kultura batetik bestera aldatu egiten dira. Gure kulturan, adibidez, bandaloak, basatiak, biolentoak...

Laburbilduz esan dezakegu ikerketa honen bigarren zatian Euskal Herrian bizi diren taldeen pertzepzioetan biolentzia kulturala ematen den

aztertzeko, Identitate Sozialaren teoria (Tajfel, 1978, 1982, 1983, 1984) eta Taldearteko gatazkaren teoriak (Doise, 1986; Sherif, 1966; Deutsch, 1986) egindako aportazioeak tartekatu ditugula. Honela, identitate sozialaren salientzia, gatazka hautematua, esklusio morala eta bestearen ebaluaketa aldagaien arteko harremana aztertzen saiatuko gara, horretarako honako prozesu hipotetikoak planteatuz:

**1.3.a. Irudia**



# II. KAPITULUA

# METODOLOGIA

# 2.1. SARRERA

Gogora dezagun ikerketa honen helburua bakearen dimentsio kulturalean sakontzea dela. Horretarako, Euskal Herrian bakeari buruz dauden uste sistemetak eta exotaldeari buruzko pertzepzioak aztertzen saiatu gara: alde batetik, bakearen Irudikapen Soziala eta Identitate soziala eta ideologia -abertzalea zein politikoa- prozesuen arteko dinamikatan sakondu dugu. Bestetik, taldekidetzarekin lotuta dauden eta exotaldeen ebaluaketan eragin handia duten zenbait prozesu psikosozial bereizgarriek testuinguru ezberdinetan duten funtzionamendua ikertu dugu.

Aipaturiko helburuak lortzeko, diseinu koerlazionatzaile bat eta aldagaien manipulaketan oinarrituriko diseinu kuasi-experimental bat tartekatzen zituen galdesorta baten pasaketaren

bidez eremu-lan bat burutu genuen. Aldez aurretik, galdera irekietan oinarritutako izaera kualitatibodun eremu-lan bat egin genuen, zeinaren bidez, Euskal Herrian Bakeari buruz dagoen Irudikapen Sozialak testuinguru ezberdinetan dituen edukien lehen ikuskapen bat egin nahi izan genuen.

Konbinazio honek alde batetik, lagin errepresentakorren artean zenbait irudikapen prozesuen funtzionamendua kontrajartzea eta Irudikapen Sozialen dinamikaren azterketan tinkaturiko irudikapen sozialei buruzko datu deskribatzaileak aurkeztea permetitu zigun. Beste alde batetik, gure ustez identitate sozialaren salientzia eta gurekin gatazkan dagoen "bestearen" ebaluaketaren artean dauden zenbait prozesu soziokognitibo hipotetikoetan sakontzea ere baimendu zigun.

# 2.2 HIPOTESIAK

Aipatu bezala, ikerketa honen helburu orokorra bakearen dimentsio kulturalean sakontzea da, horretarako euskaldunen bakeari buruzko uste sistema eta exotaldearen pertzepzio eta ebaluazioan, zenbait aldagaiek (ideologia abertzale zein politikoa eta identitate esklusiboekiko taldekidetza) baldintzaturiko bake zein biolentzia elementuak aurki daitezkeela planteiatzen genuelarik.

Elementu hauetan aipaturiko aldagaiek zer eragin duten ezagutzeko asmoz, lehen azaldutako teorietatik abiatuz, honako hipotesi hauek planteiatu genituen:

a) Subjektuek bakeari buruz dituzten irudi, azalpen, jarrera eta emozioak, dimentsio positibo

eta negatiboak dituen uste sistema batetan oinarriturik daude.

b) Bakearen definizio positibo batek, hau lortzeko subjektuen partehartze altuago bati eragingo dio.

c) Identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak, balio hiererarkian eta bakeari buruzko irudikapen sozialean diferentziak inplikatuko ditu. Hain zuzen ere eta bakeari buruzko irudikapen sozialari dagokionez, identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak bakearen dimentsio ezberdinak azpimarratuko ditu. Horren ondorioz Euskadi mailako irudietan taldekidetzaren eraginez ezberdintasunak aurkituko ditugu.

d) Subjektuen ideologia politikoak, hauen balio-hierarkian eta bakeari buruzko irudikapen sozialean eragina izango du.

e) Ideologia abertzalearen arabera, balio-hierarkia eta bakeari buruzko irudikapen sozial ezberdinak emango dira.

f) Identitate sozialaren salientziak, gatazka hautematua, balio ezberdintasun hautematua eta deslegitimizazioa areagotuko ditu eta prozesu honen ondorioz, bestearen ebaluaketa negatiboagoa izango da. Taldekidetza soilak ez dio prozesu honi eragingo.

g) Identitate soziala eta honen salientziaren

arteko interakzioak ere gatazka hautematua, balio ezberdintasun hautematua eta deslegitimizazioa areagotuko ditu eta prozesu honen ondorioz, bestearen ebaluaketa negatiboagoa izango da.

h) Identitate sozialaren salientziak eta gatazka hautematuak, eragin zuzena zein zeharkakoa -esklusio morala neurtzeko erabili ditugun deslegitimizazioa eta balio diferentzia hautematuaren bitartez- izango dute bestearen ebaluaketa negatiboan.

# 2.3. IKERKETA KUALITATIBOA: BAKEAREN ESANAHIA

Aipatu berri dugun bezala, Bakearen Irudikapen Sozialak testuinguru ezberdinetan dituen edukien lehen ikuskapen bat egin genuen. Horretarako, jarraian aurkezten dugun galdera irekietan oinarrituriko eta izaera kualitatibodun eremu-lana burutu genuen.

## 2.3.1. Lagina

Laginari buruz esan behar da nahiz eta murritza izan (n=85, 49 emakumezkoak eta adinaren batezbestekoa 37 urtekoa zen) gizartean dauden sektore ezberdinak sartzen saiatu ginela. Honela bateginik gizartearen ordezkari izan daitezken

ondoko talde hauek aukeratu genituen: erdi-mailako ikasleak (N=15. Adinaren batezbestekoa 17 urtetakoa), unibertsitariak (N=14. Adinaren batezbestekoa 21 urte), funtzionariak (N=10. Adinaren X=38 urte), etxeko-andreak (N=14. Adinaren X=49 urte), langileak (N=12. Adinaren batezbestekoa 34 urte), jubilatuak (N=10. Adinaren batezbestekoa 78 urtea) eta langabetuak (N=10. Adinaren batezbestekoa 26 urte).

## 2.3.2. Prozedura

Bakearen Irudikapen Sozialaren eduki ezberdinak non oinarritzen diren lehen ikuskapen bat egin ahal izateko, irudikapen hauek aztertzeko erabili ohi diren zenbait metodoen berrikusketa sakon bati ekin genion honako metodo hauek aurkituz: Galdesorta Standartuak (Paez, 1983), zuzendurik gabeko elkarrizketa sakonak (Jodelet, 1986; Herzlich, 1973), estimuluei loturiko hitz elkarketak (Digiacomo, 1981; Paez et al., 1987) eta galdera irekiz osaturiko galdesortak (Moscovici, 1961/1976; Paez et al. 1987).

Guzti hauek banan banan aztertu ondoren, gure helburua lortzeko galdesortarik egokiena galdera irekiek osaturikoa zela erabaki genuen. Honek, zuzendurik gabe dagoenez eta erantzunerako indukziorik ematen ez duenez, subjektuak aske adierazteko eta informazio eta ebaluaketaren

jalgiera emateko aukera eskeintzen bait zuen. Azterketa honek, subjektuek bakeari buruz dituzten uste nagusiak -irudikapen eremua, jarrerak, azalpenak,...- zer motatakoak diren eta uste hauen kalitatea aztertzea baimendu zigun.

Galdera irekietarako gidoia honako hau izan zen:

a) Irudiak aztertzeko, subjektuei beraientzat Bakea hitzak honako maila hauetan zer esan nahi zuen idazteko eskatu genien: egunerokotasunean, Euskadi mailan eta Nazioarteko mailan.

b) Ondoren, portaera eredu orokorrak ezagutzeko, galdera hau egin genien: "Lehen aipaturiko hiru maila horietan bake hori lortzeko, zer baliabide erabil daitezkela edo erabili behar direla uste duzu?".

c) Bake ezari buruzko azalpenak aztertzeko beraien ustez lehen aipaturiko hiru mailatan zergatik ematen zen bake eza galdetu genien.

d) Subjektuek bakearekiko duten inplikazio maila aztertzeko, aipaturiko hiru mailatan bakea lortzeko pertsonalki zer egingo luketen galdetu genien.

e) Bukatzeko bakearekiko ebaluaketa ezagutzeko zera galdetu genien: "zuretzat, aipaturiko hiru

mailatan, zertarako balioko luke mundu baketsu batean bizitzeak?".

## 2.3.3. Galdesortaren itzulpena

Galdesorta hau bukatu genuenean, Gaztelaniara itzultzeari ekin genion. Ondoren, bi galdesortetan subjektuek gauza berbera ulertzen zuten frogatzeko, hamar subjekturi euskarazko bertsioa eman genien, honek sortarazten zizkien zalantza guztiak apuntatzeko eskatuz. Ondoren -astebete beranduago galdesortaren edukia ahaz zezaten- Gaztelaniako bertsioa eman genien.

Subjektuek agertutako zalantzak argitzeko beharrezkoak ziren aldaketak egin ondoren, bi bertsioek subjektuentzat esanahi berdina zuten egiaztatu genuen. Horretarako, berriro ere pretest bat egin genuen hamar subjekturekin eta azkenean arestian agertu dizuegun bertsioa lortu genuen.

## 2.3.4. Erantzunen kodifikazioa

Erantzunen kodifikazioa egiteko, honako urrats hauek eman genituen:

a) Hasteko, subjektuek eman zituzten hitz

guztiekin hiztegi bat osatu genuen.

b) Ondoren, aipaturiko hitz guztiekin zerrenda bakar bat osatu genuen, hauen maiztasunak begiratuz.

c) Hitz sinonimoak elkartu genituen azken zerrenda eginez.

Ikerketa honetatik eratorritako hitzen bidez, bada, ikerketa kuantitatiboan neurketa-tresna bezala erabiliko dugun galdesorta osatu genuen (ikus I eta II eraskinak).

# 2.4. BIGARREN IKERKETA: IKERKETA KUANTITATIBOA

Lehenago aipatzen genuen bezala, ikerketa kuantitatiboa, diseinu koerlazionatzaile batetan eta aldagaien manipulaketan oinarrituriko diseinu kuasi-experimental bat tartekatzen zituen galdesorta baten pasaketaren bidez burutu genuen.

## 2.4.1. Lagina eta prozedura

Euskal Herriko hegoaldean "ruta" delako sistemaren bidez burututako laginketa estratifikatutik, laginak honako ezaugarri hauek izan zituen: 14 urtetatik 78 urtetara (Batezbestekoa, 32 urte) zihoazen 386 subjektuk osatzen zuten lagina, hauetariko 196 emakumezkoak

zirelarik. Berrogei Araban bizi ziren, Gipuzkoan 102, Nafarroan 75 eta Bizkaian 166 bizi zirelarik. Hiru lagunek ez zioten galdera honi erantzun. Lan egoerari buruz, 62 langabetuak ziren, 67 esku-lan zuzeneko langileak, 122 ikasleak (erdiak unibertsitariak eta beste erdiak UBI eta COUkoak), 33 jubilatuak, 34 etxeko-andreak eta 68 funtzionariak. 196 subjekturi identitate indibiduala azpimarratzen zuen galdesorta eman genien, 190ri identitate soziala azpimarratzen zuena eman genielarik.

## 2.4.2. Aldagaien neurketa

Galde-sorta hau, aldaga soziodemografikoetaz aparte, honako atal hauek osatzen dute:

a) Aldagai askeak:

a.1.- **Identitate soziala:** Hasteko, identitateen egituraketa aztertzeko, subjektuei batetik zortzira zihoan eskala batetan noraino sentitzen ziren euskaldun edo espainiar adierazteko eskatu genien. Ondoren taldekidetza horrek bere bizitzan zuen garrantzia batetik lauera puntuatuz (1= ez da batere garrantzitsua, 2= maila txiki batean garrantzitsua, 3=nahiko garrantzitsua eta 4= oso garrantzitsua) adierazteko ere eskatu genien. Bi puntuazio hauek bere artean biderkatuz eta

biderkaketaren emaitzak taldeen medianengatik zatituz, lau identitate mota lortu genituen: a) Identitate inklusiboa -altu identitate euskaldun zein espainiarrean (N=27)-. b) Identitate esklusibo espainiarra -Identitate Euskaldunean baju eta altu espainiarrean (N=62)-. c) Identitate esklusibo euskalduna -Identitate espainiarrean baju eta altu Euskaldunean (N=164)- eta d) Desdentifikatuak -baju bi identitateetan (N=66)-. Gure ikerketarako identitate gatazkatsuak erabili genituen, b) eta c) identitateak hain zuzen.

Aukeraketa honen arrazoia honako hau litzateke: uste sistemen funtzioetatik bi errealitatea berreraikitzea eta honi esanahia ematea eta identitatearen defentsa dira. Tajfelek (1981) taldearteko harremanetan, taldeek sare sozialean duten posizioa eta taldeak duen status-a aldatzeko ekintza sozialaren larritasunari buruzko diskurtsoak lantzeko joera dutela baieztatu zuen. Honela, talde bati emozioz zamaturiko objektu bat aurrean jartzen zaionean, objektuari buruzko azalpen bat lantzen saiatzen da. Uste sozial hauek taldearen defentsarako balio dute. Honela, uste sistema ezberdinak, taldeek balio, interes e.a. ezberdinak dituztelako suertatzen dira. Identitate gatazkatsuak kontrako interesak dituzten neurrian, bi hauen irudikapen sozialen arteko ezberdintasunak nabariagoak izango direla uste dugu, uste sistema hauen arteko ezberdintasunak zertan datzaten aztertuko dugularik.

a.2.- **Ideologia politikoa:** subjektuei bere burua batetik (Eskubi radikala) hamarrera (Ezker Radikala) zihoan eskala batetan kokatzeko eskatu zitzaien. Taldeen araberako azterketa burutu ahal izateko, puntuazioak trikotomizatu egin genituen honako hiru talde hauek lortuz: Eskalan puntuazio bajua lortu zuen subjektu multzoa, -hauei "eskuindar" deituko diegu. N=121- erdiko puntuazioak lortu zituztenak -"zentrukoak" N=94- eta puntuazio altuak lortu zituztenak edo "ezkertiarrak" -N=150-. Indize honek ezker-eskubiko botu-intentzioarekin koerlazio signifikatiboak lortu zituen (.58; P=.000).

a.3.- **Ideologia abertzalea:** Subjektuei Euskadi eta Espainiar Estatuaren arteko harremanekiko bere iritzia adierazteko eskatu genien. Harreman hauek, honako lau aukera hauetan isladatzen ziren: a) Estatuzalea b) Autonomizalea, baina egungo konpetentziak gutxituz. c) Autonomizalea egungo estatutuaren arabera d) Autonomizalea konpetentziak areagotuz eta e) Independentziazalea.

Bestalde, subjektuei bere burua batetik (ez abertzalea) hamarrera (oso abertzalea) zihoan eskala batetan kokatzeko eskatu zitzaien. Ondoren, puntuazioak dikotomizatu egin genituen eta bi talde lortu genituen: ez abertzaleak -eskalan puntuazio bajua eman zutenak N=175- eta abertzaleak -eskalan puntuazio altuak lortu zituztenak N=203-. Bi eskala hauen arteko koerlazioa signifikatiboa izan zen (.45; p= .000).

a.4.- **Identitate sozialaren salientziaren manipulaketa**ren eragina aztertzeko, galdesortaren zati honetan identitate ezberdinen salientzia (pertsonala edo soziala) manipulatu genuen. Honela subjektuei bi motatako galde-sorta banatu genizkien: batean, IDENTITATE PERTSONALA azpimarratzen genien, zeinean subjektuari "istilu handiak zituen pertsona batetan pentsatu eta pertsona hori nor den adieraz ezazu" esaten genion. Beste galdesortan, ordea, IDENTITATE SOZIALA azpimarratzen genien, kasu honetan subjektuei euskaldun bezala istilu handiak zituzten talde batetatik galdetuz.

b) Menpeko aldagaiak:

b.1.- Ikerketa honetan norberaren eta bestearen arteko balio hierarkien arteko diferentzia hautematua landuko dugunez, subjektuen **balio hierarkia**ri begirada bat bota behar izan genion. Horretarako Rokeach-en (1969) balio-zerrendan oinarrituriko hamabi baliotako zerrenda bat aurkeztu genien subjektuei bere eritziaren arabera ordena zezaten. Zerrenda, honako balio hauek osatzen zuten: benetazko adiskidetasuna, maitasun heldua, zoriona, berdintasuna, askatasuna, mundu garbia, mundua bakean, gozamena, giza errealizazioa, begirunea, salbazioa eta nazio segurtasuna. Subjektuei balio hauek bere bizitzan zuten garrantziaren arabera ordena zitzatela eskatu genien (garrantzi handiena zuenari 1 puntuazioa,

bigarrenari 2 puntuazioa,... honela hamabigarreneraino iritsi arte).

b.2.- Ondoren, **Bakearen Irudikapen Sozialari** buruzko atala dugu, esan bezala hau ikerketa kualitatibotik eratortzen zelarik. Bloke hau honako aldagai hauek osatzen zuten:

i) Bake ezari buruzko AZALPENAK: subjektuei galdetzen genien ea zeri egozten dioten bake eza Euskal Herrian, erantzuteko honako aukera hauek zituztelarik:

* Gizakiak eta animaliak agresiboak direlako.
* Gizakien nortasuna edo pertsonalitatea horrelakoa delako.
* Estatuak Euskadi zapaltzen duelako.
* Erlijioa baztertu delako.

Subjektuei erantzun hauekiko adostasun maila batetik zazpira zihoan eskala batetan azaltzeko eskatu genien.

ii) Ondoren, JARREREI zegokioen atala genuen. Subjektuei honako baieztapen hauek azaltzen genizkien, hauekiko zuten adostasun maila batetik zazpira zihoan Likert formatuko eskala batean adieraz zezatela eskatuz. Baieztapen hauek Izadia hondatzearen kontrako borroka bultzatu beharra nahiz eta eta borroka honek aurrerapen ekonomikoa galerazi, arma- karrera desagertzearen beharra, estatuek minoriekin

eta minoriek estatuekin dituzten istiluei aurre egiteko biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabiltzeari buruzko jarrera, sexuen arteko berdintasuna lortzeko legea aldatzeko beharra, lurralde pobreen eta aberatsen arteko ezberdintasunak ezabatuko dituen marku ekonomiko berri baten beharra, bakezaletasunean hezitzearen beharra, gosea eta injustizia berehala desagertu beharra, herri guztiek maila beretsuko bizimodua izan dezaten, bizimodu apalago bat eramateko prest egotearen beharra eta biztanle guztiengan eta hurrengo belaunaldiengan ere eragin kaltegarria izango duten arazo ekologikoei irtenbide bat aurkitzearen beharra adierazten zuten. Eskala honen Alfa koefizientea 0.65 izan zen.

iii) EMOZIOAK: Kasu honetan subjektuek adierazi behar zuten batetik zazpira zihoan eskala batetan zer mailataraino zeuden erlazionaturik emozio hauek bakearekin: Harrotasuna, Mespretxua, poza, amorrua, axolagabetasuna, errukia, lasaitasuna eta beldurra. Honen Alfa 0.65koa izan zen.

iv) PORTAERA INTENTZIOARI dagokionez, subjektuei eskatu genien harreman baketsuak bultzatzeko ezer ez egitetik mobilizaziotan zuzenean parte hartzera zihoan eskala batetik zein jokabide aukeratuko luketen (hau ere eraskinean begiratu).

v) Jarraian, bakearen IRUDIEI buruzko atala genuen. Atal hau osatzeko, ikerketa kualitatiboan lortutako hiru mailei buruzko irudiak erabili genituelarik. Subjektuek hamar puntutako Likert eskala batetan, beraien ustez zenbait irudi bakearekin zenbaiterainoko zerikusia zuten adierazi behar zuten. Eskala honek .082ko alfa indizea lortu zuen (Irudiak, eraskinean begiratu).

b.4.- **Gatazka maila** neurtzeko, bestearekiko hautematen duen gatazka maila batetik hamarrera zihoan Likert eskala batean adierazteko eskatu genien.

b.5.- **Esklusio moral**ari dagokionez, hau bi eratara aztertu genuen:

i) Bestearen BALIO hierarkiarekiko DIFERENTZIA HAUTEMATUA aztertzeko, bere balio jerarkia adierazteko erabili genuen balio zerrenda berriz eman genien oraingoan balio hauek lehen aukeratu zuten Pertsona edo Talde horrek bere bizitzaren gida-printzipio gisa izango luketen garrantziaren arabera ordenatuko lituzken bezala ordenatzeko.

Erantzun bakoitzerako, endotalde eta exotaldeari egotziatako jerarkien arteko koerlazioak (Spearman-en Rho-a) eman zigun balio diferentziaren indizea. Indize honen Batezbestekoa eta mediana -.141ekoak izan ziren eta balioak -1.36tik 1era joan ziren.

Hirurogeitamabost subjektuk ez zioten galdera honi erantzun.

ii) Bestalde, DESLEGITIMIZAZIOA aztertzeko, subjektuei lehen aipaturiko deslegitimizazio bost bideak adierazten zituzten zenbait etiketa kontrajarri genizkien: animalia/gizakia, zoroa/neurritua, hiltzaileak/zintzoa, fazistak/askatasunaren aldeko gudariak eta basatia/ondo hezia. Honela, gure galdesortan, alde batean etiketa negatiboak eta bestean positiboak jarri genituen (Adibidez: Animalia 1 2 3 4 5 6 7 Gizakia). Subjektuak, 1etik 7ra zihoan Likert eskala baten bidez besteak -talde zein pertsonak- zer mailataraino zituen ezaugarri horiek adierazteko. Eskala honen Alfa koefizientea 0.89koa izan zen.

b.6.- **Bestearen ebaluaketa:** hogei izenlagunek -hamar positibo, hauek Alfa=.87 izan zutelarik eta hamar negatibo, Alfa=.82- os2aturiko eskala bat (Frank, 1982) erabili genuen. Zerrenda honako ezenlagunek orden honetan osatzen zuten: agresiboa, krudela, prestua, demokrazizalea, deabruzkoa, espantsiozalea, baldarra, adiskidetsua, langilea, justua, arriskutsua, jatorra, garbia, abertzalea, boterezalea, argia, susmagarria, traidorea, fidagarria eta gerrazalea.

Subjektuak batetik hamarrera zihoan eskala batetan adierazi behar zuen "beste"ak -berarekin

gatazkan dagoen taldeak edo pertsonak- zer mailataraino zituen ezaugarri horiek.

## 2.4.3. Galdesortaren Itzulpena

Galdesorta honen zirriborroaren zenbait alde Euskaraz eta beste zenbait gaztelaniaz zeudenez, bi galdesorta osatu genituen, bakoitza hizkuntza batean. Bi bertsio hauek esanahi berdina zuten egiaztatzeko, UZEIko (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) partaide batekin elkartu ginen. Hau egin ondoren, ikerketa kualitatiboan erabilitako prozedura berdinari jarraituz, hogei subjektukin pretest bat burutu genuen, hauei bi bertsioak eskeini genizkielarik.

# III. KAPITULUA

# EMAITZAK

# 3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Atal honen helburua, laginaren ezaugarri soziodemografiko nagusiak azaltzea da eta hori da hain zuzen ere jarraian egingo duguna.


a) Sexua:

Lagina osatzen duten 386 subjektuetatik %50'3-a emakumezkoak dira, hauen kopurua N=194 delarik. Gizonezkoei dagokienez, laginaren %49'7-a osatzen dute (N=192).

b) Egoera zibila:

Egoera zibilari dagokionez, laginaren gehiengoa ezkongabeek osaturik dago -%64,1-.

Ondoren ezkonduak ditugu -%34,4-. Laginaren %0,3a bere bikotearekin bizi da, %0,8a separaturik dago eta %0,5a alargunek osatzen dute. Hiru subjektuk ez zioten galdera honi erantzun.





c) Adina:

Gure laginean, adin guztietako jendea sartzen saiatu gara. Honela, lagineko pertsonarik gazteenak 14 urte dituen bitartean, zaharrenak 78 urte ditu. Adinaren batezbestekoa 32 urtetakoa izan da eta desbiderazio standartua SD=.501. Aipatu beharra dago ¿bost subjektuk ez dutela adinik adierazi.

d) Biziterria:


Ikerketa honetako laginak giro ezberdinak (baserrikoa eta hirikoa, herri-tamaina ezberdinak, hiriak, ...) barnera zitzan, Hego Euskal Herriko populazioaren sakabanaketa isladatu nahi izan dugu. Hori dela eta, laginaren banaketa egiteko garaian, INE delakoaren 1988ko Urtekari Estatistikoan agertzen zen Euskal Herriaren herri-tamaina ezberdinen araberako biztanlegoaren sakabanaketan oinarritu gara. Sakabanaketan aukeraturiko herriak tamaina honetakoak izan dira: 2.000 biztanletik beherako herriak, 2.000 eta 10.000 bizatanle arteko herriak, 10.000 eta 50.000 biztanle artekoak eta 50.000 biztanletik gorako hiriak. Kasu honetan, subjektu bakarra izan da erantzunik eman ez duena.

**3.1.b Irudia**



e) Ikasketak:


Datu hauen arabera esan dezakegu lagin honetan ikasketarik gabeko subjektu bakar bat dagoela, honek laginaren %0.3 suposatzen duelarik. Oinarrizko ikasketak dituztenak, %13.7a dira eta bigarren mailakoak dituztenak, berriz, %16.9a. Erdi mailako ikasketak dituztenak dira gehienak -%43.3-, ondoren goi-mailakoa ikasketadunak ditugularik -%25.9-. Oraingoan bost izan dira erantzunik eman ez duten subjektuak.




f) Lan egoera:


Ikus daitekenez, laginaren %16a langabetuek osatzen dute. %35a langileak dira, hautatik %17.4a

funtzionariak -udaltzainak, postariak, bulegariak,...- direlarik. Ikasleen kopurua, nahiko handia da -%31.6-. Hauen artean hiru motatako ikasleak ditugu: BUPekoak, UBIkoak eta unibetsitariak. Bukatzeko aipatu behar dugu jubilatu eta etxekoandreen kopurua besteenaren erdia dela. Hau horrela izatea erabaki geneuen sektore hauei eta batez ere jubilatuei, inkestak pasatzea zaila egiten da eta. Etxekoandreen taldean, bere burua etxekoandretzat duten emakumeak sartu ditugu.



g) Klase soziala:


Klase sozialari dagokionez, %0.8a bakarrik du bere familia klase altukotzat. %20.7a erdi-altukoak eta, ondoren, medio-bajuko %36.3a dugu. Aipatu beharra dago gehiengoak - %42.2a- langileriakotzat hartzen duela bere burua. 9 subjektuk ez diote galderari erantzun.




h) Erlijioa:


3.1.h.irudian ikus daitekenez, katolikuak dira lagin honetan gehienak, denera %63.2a osatzen dutelarik. Aipatu beharra dago agnostikuen kopurua ere handia dela, %28.2ra iristen bait da. Beste erlijioei dagokionez, %9ra bakarrik iristen dira.

Zazpi subjektuk ez diote galdera honi erantzun.





i) Euskadi eta Espainiar Estatuaren harremanak:

Datu hauetan fijatzen ba gara, ikusiko dugu estatuzaleak -talde honetan estatuzaleak eta orain baino konpetentzia gutxiago eskatzen dituztenak elakartuz- %7.5a direla. Laginaren %11.7ari ondo iruditzen zaio egun indarrean dagoen Gernikako Estatutua. Bestalde, konpetentziak areagotzea eskatzen dutenak %31.5a osatzen dute eta azkenik, independentzizaleak ditugu, hauek %49a osatzen dutelarik. Aipatu behar da galdera honi ez diotela hogeitabost subjektuk erantzun.




j) Botu intentzioa:

Gure laginari begirada bat botaz, ikus dezakegu gehiengoak ez duela botorik ematen -%27.2-. Ondoren HB bozkatzen dutenak ditugu, laginaren %22.8arekin. PSOE eta PNV 32 bozkatzaile bana izan dituzte, laginaren %8,3-a alegia. Botoa beste alderi batzuri %7.7-ak eman dio. Hauek Berdeak, UA, Ekologistak, Batzarre, Ruiz Mateos, UPN edo boto txuria eman dutela adierazi dute. Azkenik, aipatu beharra dago berrogehitasei subjektuk ez dutela erantzunik eman.




m) Erabilitako hizkuntza:

Azkenik, galdesortari erantzuteko erabilitako hizkuntzari dagokionez, aipatu ehuneko 20.7ak (N=80) bakarrik erantzun diola galdesortari Euskaraz. Besteek erderaz bete dute (N=305).

# 3.2. ALDAGAIEN EGITURAKETA

Jarraian aldagaien egituraketari dedikaturiko tartea azaltzen dugu. Bertan, bakeari buruzko irudikapen soziala osatzen duten aldagaien item-ei egindako azterketa faktorialek agertu diguten egituraketa agertzen dugu. Beterik gabe, ba da, egituraketarekin hasiko gara.

## 3.2.1. Bakeari buruzko irudien egituraketa

Lehenik eta behin, bakeari buruzko irudiak sailkatzeko, hiru mailatako azterketa faktorialak (Varimax delako rotazioa) burutu genituen. Azterketa hauen ondorioz hiru mailatako bakeari buruzko irudiak faktore ezberdinetan sailkatzen

direla agertzen zaigu, jarraian azterketen emaitzak azaltzen ditugularik:

a) Egunerokotasunari buruzko bake irudien saturazioa: Analisia egin genien egunerokotasunari buruzko irudiei, itemak honako hauek izanik: Maitasuna, Gauza zoragarri bat, Elkartasuna, besteari laguntzea, Konpetitibitatea, Komunikazioa, Lankidetasuna, Norberaren kultura bultzatzea, Inbidia, Ezinezko zerbait, Gorrotoa, Borrokak. Azterketak honako emaitzak eman zizkigun:

3.2.a. TAULA

| | FAK.1 | FAK.2 |
|---|---|---|
| KOOPERAZIOA | .79 | |
| ELKARTASUNA | .77 | |
| KOMUNIKAZIOA | .77 | |
| ZORAGARRIA | .70 | |
| MAITASUNA | .66 | |
| KULTURAREN GARAPENA | .53 | |
| GORROTOA | | .82 |
| ARAZOAK | | .82 |
| INBIDIA | | .79 |
| KONPETITIBITATEA | | .56 |
| EZER EZ | | .39 |
| Eig.V. | 3.75 | 1.96 |
| Exp.V. | 34,2 | 17,8 |

Egunerokotasunari buruzko irudiei buruz esan dezakegu bi faktore aurkitzen ditugula, hauek bariantzaren %52a -1.faktoreak %34,2-a eta bigarrenak %17,8a- azaltzen dutelarik. Lehenengo faktorea osatzen duten itemak honako hauek dira: kooperazioa, elkartasuna, komunikazioa, zoragarria

den zerbait, maitasuna eta kulturaren garapena. Ikus daitekenez, eta lan honen teoriari buruzko atalean azaldu dugun bezala, item hauek **egunerokotasun mailako bakearen definizio positiboa** lirateke.

Bigarren faktorea osatzen duten item-ak, berriz, honako hauek dira: gorrotoa, arazoak, inbidia, konpetizioa eta ezinezko zerbait. Esan dezakegu faktore hau **egunerokotasun mailako bakearen definizio negatiboa** dela.

b) Euskadi mailako irudien saturazioa: Ondoren, gauza bera egin genuen Euskadi mailako irudiekin, oraingoan item-ak hauek izanik: Autodeterminazioa, Droga, ETA, Independentzia, Adierazpen askatasuna, Injustiziaren aurkako borroka, negoziazioa, Bizimodu hobea, Langabezia, Polizia, Presoak, errespetoa, tortura.

Analisi honen emaitzak honako hauek izan ziren: Euskadi mailako bake irudien kasuan, bariantzaren %59,7-a azaltzen duten hiru faktore aurkitzen ditugu. Lehenengoa, tortura, polizia, langabezia, presoak eta droga itemek osatzen dute. Faktore honek bariantzaren %25,4-a azaltzen du eta ikus daitekenez, elementu egituralen aldaketari buruzko itemak osatzen dute. Faktore hau **Euskal Herri mailako bake negatibo** bezala izendatu dugu. Aipatu behar da ETA irudiak ekarpen positiboa duela faktore honetan.

Bigarren faktorea (honek bariantzaren %21,9-a explikatzen duelarik) bizibaldintzen hobekuntza, adierazpen askatasuna, injustiziaren aurkako borroka, elkarrizketa-negoziazioa eta besteekiko begirunea item-ek osatua dago. Faktore honi **Euskadi mailako bake positiboa** deituko diogu.

Hirugarren faktorea, berriz, autodeterminazioa, independentzia eta ETA itemek osatzen dute. Ikus daitekenez, lehenengo bi irudiek aldaketa politiko bat suposatuko lukete, hirugarrenak aldaketa hauek lortzeko bide bat suposa dezakelarik, beraz, faktore hau **Euskadi mailako aldaketa politikoari buruzko irudia** bezala izendatuko dugu, honek bariantzaren %12,4-a azaltzen duelarik.

3.2.b. TAULA

| | FAK.1 | FAK.2 | FAK.3 |
|---|---|---|---|
| TORTURA | .80 | | |
| POLIZIA | .76 | | |
| LANGABEZIA | .75 | | |
| PRESOAK | .68 | | |
| DROGA | .60 | | |
| BIZIMODU HOBEA | | .77 | |
| ADIERAZPEN ASKATASUNA | | .77 | |
| INJUSTIZIA | | .76 | |
| NEGOZIAZIOA | | .63 | |
| BEGIRUNEA | | .63 | |
| INDEPENDENTZIA | | | .85 |
| AUTODETERMINAZIOA | | | .83 |
| E.T.A. | .37 | | .68 |
| Eig.V. | 3.30 | 2.84 | 81.60 |
| Exp.V. | 25,4 | 21,9 | 12,4 |

c) Mundu mailako irudien saturazioa: Kasu honetan azterketa faktoriala honako item hauekin egin genuen: Arma-karrera, Izadiaren defentsa, gerra, gosea, gizarte-berdintasuna, inperialismoa, burujabetasuna, biolentzia, mundua zaintzea. Azterketa honetatik bariantzaren %67,5a azaltzen duten bi faktore lortu genituen:

3.2.c. TAULA

| | FAK.1 | FAK.2 |
|---|---|---|
| GERRA | .93 | |
| BIOLENTZIA | .91 | |
| INPERIALISMOA | .86 | |
| ARMA KARRERA | .84 | |
| GOSEA | .82 | |
| IZADIAREN DEFENTSA | | .78 |
| MUNDUA ZAINTZEA | | .74 |
| BERDINTASUNA | | .71 |
| BURUJABETASUNA | | .66 |
| Eig.V. | 4.08 | 1.99 |
| Exp.V. | 45,4 | 22,1 |

Lehen faktoreak bariantzaren %45,4-a azaltzen du eta guda, biolentzia, inperialismoa, arma-karrera eta gose irudiek osatzen dute. Hau dela eta, faktore honi **nazioarteko bake definizio negatiboa** etiketa jarri diogu.

Bigarren faktorea (honek bariantzaren %22,1-a explikatzen duelarik) izadiaren defentsa, mundua zaintzea, berdintasuna eta herrien burujabetasuna itemak osatzen dute. Ikus daitekenez, faktore honetan elementu ekolojikoak eta berdintasuna

azpimarratzen ditu, hori dela eta **nazioarte mailako bake definizio positiboa** izendatu dugularik.

## 3.2.2. Bake ezari buruzko azalpenak

Bake ezari buruzko azalpenen kasuan ere Varimax delako rotazioaz azterketa faktorial bat burutu genuen honako itemekin: Gizakiak eta animaliak agresiboak direlako -biologiatik eratorritako azalpena-, Gizakien nortasuna edo pertsonalitatea horrelakoa delako -psikologiatik hartutako azalpena-, Estatuak Euskadi zapaltzen duelako -azalpen egiturala-, Erlijioa baztertu delako -azalpen erlijiosoa-. Azterketak honako emaitzak eman zituen:

3.2.d. TAULA

| | FAK.1 | FAK.2 |
|---|---|---|
| AZALPEN EGITURALA | -.76 | |
| AZALPEN PSIKOLOGIA | .68 | .35 |
| AZALPEN BIOLOGIKOA | .67 | .38 |
| AZALPEN ERLIJIOSOA | | .87 |
| Eig.V. | 1.71 | .91 |
| Exp.V. | 42,9 | 22,8 |

Analisiaren ondorioz, bariantzaren %65,6-a azaltzen zuten bi faktore atera ziren. Lehen faktorea azalpen psikologiko, biologiko eta egituralak osaturik dago eta **azalpen egiturala edo**

**indibiduala** deitu genion, bariantzaren %42,9a azaltzen duelarik. Aipatu itemen saturazioek balio positiboak lortu zituztela azalpen biologiko eta psikologikoetan, azalpen egituralean, berriz, ekarpen negatiboa izan zutelarik.

Bigarren faktoreak, berriz, bariantzaren %22,8-a azaltzen du eta azalpen erlijiosoak osaturik dago, hori dela eta erlijiosoa deitu geniolarik. Azalpen psikologiko eta biologikoak ekarpen positiboa dute. Faktore honi **azalpen erligiosoari buruzko faktorea** deituko diogu.

### 3.2.3. Emozioak

Bakearekiko emozioak sailkatzeko, berriz ere aipaturiko azterketa faktoriala (Varimax delako rotazioaz) burutu genuen, kasu honetan honako itemak sartu genituelarik: amorrua, mespretxua, axolagabetasuna, beldurra, lastima, harrotasuna, poza eta lasaitasuna. 3.2.e. taulan ikus daiteken bezala, azterketa honen ondorioz bakearekiko emozioak bariantzaren %56,6-a azaltzen zuten bi faktoretan sailkatu ziren.

Lehenengo faktorea amorrua, mespretxua, axolagabetasuna, beldurra, lastima eta harrotasuna emozioek osatzen dute eta bariantzaren %42,7-a azaltzen du. Emozio hauek negatiboak dira, beraz faktore hau **bakearekiko emozio negatiboen faktorea**

bezala izendatuko dugu. Aipatu behar da amorrua, mespretxua, axolagabetasuna eta beldurra emozioek bigarren faktorean ekarpen negatiboa dutela.

Bigarren faktorea, berriz, poza eta lasaitasuna emozioek osatzen dute, beraz, **bakearekiko emozio positiboak** lirateke. Faktore honek bariantzaren %13,9-a explikatzen du.

3.2.e. TAULA

| | 8FAK.1 | FAK.2 |
|---|---|---|
| AMORRUA | .75 | -.38 |
| MESPRETXUA | .74 | -.43 |
| AXOLAGABETASUNA | .64 | -.30 |
| BELDURRA | .63 | -.37 |
| LASTIMA | .61 | |
| HARROTASUNA | .52 | |
| POZA | | .83 |
| LASAITASUNA | | .78 |
| Eig.V. | 3.41 | 1.11 |
| Exp.V. | 42,7 | 13,9 |

## 3.2.4. Jarrerak

Bakearekiko jarrerak sailkatzeko ere azterketa faktorial bat (Varimax delako rotazioaz) burutu genuen. Gogora dezagun jarreren saila osatzen zuten itemak honako hauek zirela: (1) Izadia hondatzearen kontrako borroka bultzatu beharko litzateke, nahiz

eta borroka honek aurrerapen ekonomikoa galerazi. (2) Nazioarteko harremanak baketsuagoak izan daitezen, arma- karrera desagertzeko ahalegin guztiak egin beharko lirateke. (3) Estatuek minoriekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik. (4) Minoriek estatuekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik. (5) Lehenbaitlehen aldatu beharko liirateke legeak sexuen arteko berdintasuna lortzeko. (6) Lurralde pobreen eta aberatsen arteko ezberdintasunak ezabatuko dituen marku ekonomiko berri bat sortzea ezinbestekoa da, nahiz eta honek herri aberatsentzat egokitze ekonomiko bat suposatu. (7) Eskolaren helburu nagusienetariko bat, bakezaletasunean hezitzea da. (8) Mundu baketsu bat nahi ba dugu, gosea eta injustizia berehala desagertarazi behar ditugu. (9) Herri guztiek maila beretsuko bizimodua izan dezaten, bizimodu apalago bat eramateko prest egon beharko genuke. (10) Ezinbestekoa eta larria da munduko biztanle guztiengan eta hurrengo belaunaldiengan ere eragin kaltegarria izango duten arazo ekologikoei -ozono geruzaren zuloa, Amazonia aldeko basoen desagerpena...- irtenbide bat aurkitzea.

Azterketa honek bakearekiko jarreratan bariantzaren %50,4-a azaltzen duten honako hiru faktore hauek eman zituen:

3.2.f. TAULA

| | FAK.1 | FAK.2 | FAK.3 |
|---|---|---|---|
| ESTATUEK BIOLENTZ.EZ | .65 | | |
| ARAZO EKOLOGI.IRTENB. | .64 | | |
| ARMA KARR.DESAGERTZEA | .55 | | |
| BIZIMODU APALAGOA | .54 | | |
| GOSE, INJUSTIZIA EZ | .46 | .35 | .36 |
| MINORIEK BIOLENTZ EZ | | .79 | |
| BAKERAKO HEZIKETA | | .59 | .37 |
| IZADIAREN DEFENTSA | | .48 | -.53 |
| SEXU BERDINTASUNA | | | .81 |
| MARKU EKONO.JUSTU | .32 | | .65 |
| Eig.V. | 2.65 | 1.37 | 1.00 |
| Exp.V. | 26,6 | 13,8 | 10 |

Lehengo faktorea (honek bariantzaren %26,6-a esplikatzen duelarik), estatuek arazoak konpontzeko biolentziarik ez erabiltzea, arma-karrera gelditzea, gosea eta injustizia desagertaraztea, bizimaila berdina lortzeko guk bizimodu apalago bat eramatea eta denon gain eragina duten arazo ekologikoen irtenbidea eskatzen duten itemak osatzen dute. Esan dezakegu faktore hau guztiongan eragina duten arazo globalekiko kezka adierazten duten itemek osatua dagoela. Gosea eta injustiziari buruzko itemak ekarpen positiboa du bigarren eta hirugarren faktoreetan. Faktore hau bakearen alde positiboa -justizia soziala- eta negatiboa -biolentzia zuzen eza- ditu bere baitan, nahiz eta minoriek biolentzia erabiltzearen aurkako jarrera hemen ez aurkitu. Hori dela eta, **bake maximalista iraultzaileari** buruzko faktore bezala izendatu dugu.

Bigarren faktoreak, berriz, bariantzaren %13,8-a azaltzen du eta item hauek osatzen dute: izadia defendatzeko borroka, minoriek biolentziarik ez erabiltzea eta bakezaletasunean hezitzea. Item hauek bake minimalista delakoa isladatzen dute, honen arabera, bakea minoriek biolentziarik ez erabiltzea delarik. Ikuspegi hau estatuek erabiltzen duten biolentzia bezalako beste biolentzia mota batzutaz ahaztu egiten da. Hain zuzen ere, biolentzia horren arrazoiak maila handi batetan aurkitzen den egituran inongo aldaketarik ez du planteatzen. Hori dela eta, faktore honi **bake minimalistari buruzko faktorea** izendatuko dugu. Aipatu beharra dago, nahiz eta progresuaren murrizketa izan izadia defendatu behar dela dioen itemean ekarpen negatiboa duela, lehenengo faktorean, berriz, positiboa duelarik.

Hirugarren faktorea, sexu berdintasunerako aldaketa legala eta marku ekonomiko berriari buruzko itemek osatzen dute. Faktore honek bariantzaren %10-a explikatzen du. Ikusten dugunez, faktore hau osatzen duten item-ak, aldaketa estrukturalari buruzkoak dira, beraz **harremanetan berdintasuna lortzeko aldaketa estrukturala eskatzen duten jarrerak** biltzen dituen faktorea dela esan dezakegu. Aipatu, marku ekonomiko berriaren aldeko jarrerak lehenengo faltorean ekarpen positiboa duela.

# 3.3. BAKEAREN DEFINIZIOA EUSKAL HERRIAN

Bakeari buruzko irudi, emozio, jarrera eta azalpenak dimentsio positibo eta negatiboetako uste sistema batetan oinarritzen direla dioen gure lehen hipotesia egiaztatzeko, lehenik eta behin irudi, emozio, jarrera eta azalpenei buruzko itemen hurbiltasunaren azterketei jarraituz, ALSCAL delako analisi bat burutu genuen. Honek bi lehenengo dimentsioak barneratu zituen eta hirugarrena ez zen signifikatiboa izan (Stress = 1.106: RSQ = 0.95). Gogora dezagun analisi honek "Kruskal's Stress eta Squaren correlation coefficient" delakoa ematen digula. Gure kasuan, datuen eta analisiaren soluzioaren arteko moldaera ia perfektoa izan zen.

Ondoren, hurbilasun matrizeari CLUSTER analisia egin genion, honek emandako dendograma 3.3.a. irudian aurkezten delarik. Analisiak, ondo bereizten ziren bi dimentsio eman zituen, lehenengoa **bakearen definizio positibotzat** har

ditzakegun honako elementuez osaturik zegoelarik: emozio positiboak (poza, lasaitasuna), kanpo-azalpenak (estatuaren menderapena), bakeak suposatuko lituzken aldaketa soziopolitikoak Euskadi mailan (autodeterminazioa, independentzia), ekologia (mundua zaintzea, izadiaren defentsa), elkartasuna (komunikazioa, kooperazioa, elkartasuna), innobazioa (zoragarria, maitasuna), justizia eta askatasunari buruzko irudiak (expresio askatasuna, injustiziaren aurkako borroka, berdinatsuna, kulturaren garapena, burujabetasuna) eta nazioarte mailako elementu soziopolitikoei buruzko jarrerak (gosea, injustizia eta arma karreraren desagerpena), ekologiari buruzko jarrerak (humanitate guztiarengan eragina duten arazoen irtenbidea, naturaren desbastazioaren aurkako borroka), justizia eta elkartasunari buruzko jarrerak (bizi maila justuago lortzearren gure bizi maila jeistearekiko adostasuna, marku ekonomiko justuago baten beharra), elementu egituralei buruzko jarrerak (sexuen berdintasuna lortzeko aldaketa legala), heziketari buruzko jarrera (bakeari buruzko heziketaren beharra) eta biolentzia ez erabiltzearen aldeko jarrerak (minoria zein estatuek bere arazoak konpontzeko biolentzia erabili beharrean elkarrizketa erabiltzearen aldeko jarrera).

Bigarren dimentsioa, **bakearen definizio negatibo** bezala izendatu ditzakegun elementuez osaturik zegoen: emozio negatiboak (mespretxua, beldurra, amorrua, axolagabetasuna, gorrotoa eta errukia), barne-azalpenak (biologiko, psikologiko

eta erlijiosoa) eta bakea oztopatzen zenbait elementu soziopolitikoei buruzko irudiak (borrokak, arazoak), elementu egituralak (droga, langabezia), nazioarte (gosea, inperialismoa, armamentismoa) eta Euskadi mailako elementu soziopolitikoak (tortura, polizia, ETA, presoak).

3.3.a. Irudian agertzen diren etiketen esanahia honako hau da:


ACDC01: Izadia hondatzearen kontrako borroka bultzatu beharko litzateke, nahiz eta borroka honek aurrerapen ekonomikoa galerazi.
ACDC02: Nazioarteko harremanak baketsuagoak izan daitezen, arma- karrera desagertzeko ahalegin guztiak egin beharko lirateke.
ACDC03: Estatuek minoriekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik.
ACDC04: Minoriek estatuekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik.
ACDC05: Lehenbaitlehen aldatu beharko liirateke legeak sexuen arteko berdintasuna lortzeko.
ACDC06: Lurralde pobre eta aberatsen arteko ezberdintasunak ezabatuko dituen marku ekonomiko bat sortzea ezinbestekoa da, honek herri aberatsentzat egokitze ekonomiko bat suposatu arren.
ACDC07: Eskolaren helburu nagusienetariko bat, bakezaletasunean hezitzea da.
ACDC08: Mundu baketsu bat nahi ba dugu, gosea eta injustizia berehala desagertarazi behar ditugu.
ACDC09: Herri guztiek maila beretsuko bizimodua izan dezaten, bizimodu apalago bat eramateko

prest egon beharko genuke.
ACDC10: Ezinbestekoa eta larria da munduko biztanle guztiengan eta hurrengo belaunaldiengan ere eragin kaltegarria izango duten arazo ekologikoei irtenbide bat aurkitzea.
PAKEM01: harrotasuna.
PAKEM02: mespretxua.
PAKEM03: poza.
PAKEM04: amorrua.
PAKEM05: axolagabetasuna.
PAKEM06: errukia:
PAKEM07: lasaitasuna.
PAKEM08: beldurra.
PAKEZ01: Gizakiak eta animaliak agresiboak direlako -biologiatik eratorritako azalpena-.
PAKEZ02: Gizakien nortasuna edo pertsonalitatea horrelakoa delako -psikologiatik hartutako azalpena-.
PAKEZ03: Estatuak Euskadi menperatzen duelako -azalpen egiturala-.
PAKEZ04: Erlijioa baztertu delako -azalpen erlijiosoa-
PAKI01etik PAKI33ra bakeari buruzko irudiak orden honetan: Maitasuna, Gauza zoragarri bat, Elkartasuna, besteari laguntzea, Konpetitibitatea, Komunikazioa, Lankidetasuna, Norberaren kultura bultzatzea, Inbidia, Ezinezko zerbait, Gorrotoa, Borrokak, autodeterminazioa, Droga, ETA, Independentzia, Adierazpen askatasuna, Injustiziaren aurkako borroka, negoziazioa, Bizimodu hobea, Langabezia, Polizia, Presoak, errespetoa, tortura, Arma-karrera, Izadiaren defentsa, gerra, gosea, gizarte-berdintasuna, inperialismoa, burujabetasuna, biolentzia, mundua zaintzea.

## 3.3.a IRUDIA

* * H I E R A R C H I C A L  C L U S T E R  A N A L Y S I S * *

Dendrogram using Average Linkage (Between Groups)
Rescaled Distance Cluster Combine



# 3.4. BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK EUSKAL HERRIAN

Jarraian, laginak balioei eta bakearen irudikapen sozialari buruz azaldutako emaitza orokorrak deskribatuko dugu.

a.- Balioak: Subjektuen bizitzaren gida-printzipio diren balioei dagokienez, gogora dezagun subjektuei hamabi balioz osaturiko zerrenda bat batetik hamabira ordenatzeko eskatzen geniela.


3.4.1. taulan ikusten dugun bezala, lagineko subjektuek orohar "Benetazko adiskidetasuna", "zoriona", "askatasuna" eta "berdintasuna" balioak jartzen dituztela bere balio-jerarkiaren lehen lekuetan. Tartekoetan, berriz, "mundua bakean", "begirunea", "amodio heldua" eta "errealizazioa" leudeke eta azkeneko lekuetan "mundu garbia", "gozamena", "salbazioa" eta "nazio segurtasuna" ditugu.

3.4.1. TAULA

| | X | MODA |
|---|---|---|
| BENETAZKO ADISKIDETASUNA | 4.18 | (1) |
| MAITASUN HELDUA | 6.36 | (8) |
| ZORIONA | 4.10 | (1) |
| BERDINTASUNA | 4.82 | (2) |
| ASKATASUNA | 3.46 | (1) |
| MUNDU GARBIA | 7.63 | (9) |
| MUNDUA BAKEAN | 5.68 | (6) |
| GOZAMENA | 7.75 | (10) |
| GIZA ERREALIZAZIOA | 6.36 | (6) |
| BEGIRUNEA | 6.25 | (6) |
| SALBAZIOA | 9,98 | (11) |
| NAZIO SEGURTASUNA | 10,4 | (12) |

b.- Bakeari buruzko irudiei dagokienez, emaitzak honako hauek izan ziren:

i) **Pertsonarteko bake irudiak:**




Orohar, egunerokotasun mailako bakea "komunikazioa", "lankidetasuna", "elkartasuna", "gauza zoragarri bat", "maitasuna" eta "norberaren kultura bultzatzea" bezalako irudi positiboetan ainguratzen dela esan daiteke. Egunerokotasunari buruzko bakearekin zerikusi gutxien duten irudiak, berriz, "gorrotoa", "inbidia" eta "borrokak" dira. Batezbestekoak, 3.4.a. Irudian azaltzen dira.

ii) **Euskadi mailako bake irudiak:**

**3.4.b. Irudia**

Euskadi mailako bake-irudien batezbestekoak





Euskadi mailako bakea batez ere "besteak errespetatzea", "elkarrizketa, negoziazioa", "injustiziaren aurkako borroka", "bizimodu hobea" eta "adierazpen askatasuna" irudiei lotzen zaio. Bigarren maila batetan, autodeterminazioa eta independentzia ditugu, irudi hauek Euskal Herri

mailako bake positiboa eta aldaketa politikoa isladatzen dutelarik.

Bakeari gutxien lotzen zaizkion irudiak, berriz, "droga", "tortura", "langabezia", "polizia", "presoak" eta "ETA" ditugu, nahiz eta azkenengo biak maila altuxeago batetan izan.

iii) **Mundu mailako bake irudiak:**





Mundu mailako bakeari, nazioarte mailako bake positiboa isladatzen duten "berdintasuna", "izadiaren defentsa", "mundua zaintzea" eta "herrien burujabetasuna" irudiak lotzen zaizkio batez ere. Gutxien lotzen zaizkionak, berriz, "biolentzia", "guda", "inperialismoa", "gosea" eta "arma-karrera" ditugu, hauek mundu mailako bake negatiboari buruzko irudiak izanik.


c.- Bake ezari buruzko azalpenen kasuan, datuen arabera, orohar subjektuek batez ere arrazoi egituralei egozten diote bake eza Euskal Herri mailan, ondoren arrazoi psikologikoak ditugularik. Azalpen erligiosoari dagokionez, esan Euskadi mailako bake eza maila urri batean egozten zaiola azalpen honi. Emaitzak 3.4.d. irudian agertzen dira.

**3.4.d. Irudia**


**Euskadiko bake ezaren azalpenen batezbestekoak**




d.- Bakearekiko emozioei dagokienez, emaitzek adierazten digute orohar bakearekin zerikusi handiena duten emozioak positiboak direla -"lasaitasuna" eta "poza"-, zerikusi txikiena dutenak emozio negatiboak -"errukia", "mespretxua", "axolagabetasuna" "beldurra" eta "amorrua"- izanik. "Harrotasuna" tartean geldituko litzateke.





e.- Bakearekiko jarrerei dagokionez, aipatu behar da subjektuek jarrera guztiekiko adostasun maila altua adierazi dutela, batez ere arazo ekologiko orokorrei irtenbidea aurkitzearen aldekoa, gosea eta injustiziaren desagerpena aldarrikatzen duena, marku ekonomi berriari buruzkoa, arma-karreraren desagerpenaren beharra isladatzen duena, sexuen arteko berdintasuna lortzeko aldaketa legala eskatzen duena eta estatuek biolentziarik ez erabiltzeari buruzkoak. Bigarren maila batetan gure bizi-maila jeisteari buruzko jarrera, bakerako heziketari buruzkoa, aurrerapenaren murrizketa bat suposatu arren izadiaren defentsa aldarrikatzen duena eta minoriek biolentziarik ez erabiltzeari buruzko jarrerak izan dira.




f.- Bakea lortzeko portaera intentzioa: Harreman baketsuak bultzatzeko portaera intentzioari dagokionez, maiztasunak aztertzen ba ditugu, ikusten dugu laginaren gehiengoak -hain zuzen ere 247 subjektu- mobilizaziotan parte hartzeko asmoa adierazten duela. Lagineko 47 subjektuk zuzenean parte hartzeko asmoa adierazi dute.

Bakea lortzearren ezertxo ere ez egitea edo egoera gatazkatsuari inongo kasorik ez egitea aukeratu duten subjektuak, berriz, oso gutxi dira.

Azkenik, bere eginbeharra botere lejitimoen esku utziko luketeenak, hirurogehitalau dira. Zazpi subjektuk ez diote galdera honi erantzun.




Laburpen moduan esan dezakegu, orohar, laginaren bakeari buruzko irudikapen sozialak honako ezaugarri hauek izango lituzkeela:

(1) Bakeari buruzko Irudiei dagokionez, 2bakea batez ere irudi positiboei lotzen zaio: komunikazioa, lankidetza, elkartasuna, gauza zoragarri bat (pertsonarteko mailan), errespetua, elkarrizketa, injustiziaren aurkako borroka, adierazpen askatasuna (Euskadi mailan), gizarte berdintasuna, izadiaren defentsa, mundua zaintzea eta herrien burujabetasuna (mundu mailan). Bake negatiboari buruzko irudiak gutxiago lotu zaizkio.

(2) Bestalde eta bake ezaren azalpenei dagokionez, laginak orohar, Euskadiko bake eza estatuak Euskadi dominatzeari egotzi dio, hau da,

azalpen egiturala erabili du Euskadi mailako bake eza azaltzeko.

(3) Emozio mailan, bakeak subjektuengan orohar emozio positiboak -poza, lasaitasuna- sortarazten dituela esan daiteke.

(4) Azkenik, jarrera mailan, guztiek onarpen maila altua lortu dute, baina batez ere honako hauek: arazo ekologiko orokorrei irtenbidea aurkitzearen aldeko jarrera -existentziarako ezinbestekoa den oreka ekologikoaren adierazgarri-, gosea eta injustiziaren desagerpena aldarrikatzen duena, marku ekonomiko berriari buruzkoak -botere eta errekurtsoen banaketa igualitarioa-, arma-karreraren desagerpenari buruzkoa eta estatuek biolentziarik ez erabiltzeari buruzkoa -biolentzia zuzen eza-.

g) <u>Identitate Soziala, bake irudiak, azalpenak, eta portaera intenzioak</u>: Bakearen definizio positiboak bakea lortzeko partehartzea areagotu egingo duela duela dioen gure bigarren hipotesia egiaztatzeko asmoz, erregresio ainitzeko analisi bat burutu genuen menpeko aldagaitzat bakea lortzeko portaera intentzioa hartuz. Aldagai independiente bezala bake dimentsio positiboa eta negatiboa osatzen dituzten itemen batukariak aukeratu genituen. Gogora dezagun item hauek lehenago aipatzen genuen aldagaien Cluster delako analisiatik eratorritakoak zirela -begiratu 3.3.a. irudia-.

Analisi honek adierazi zigun bakearen

dimentsio positiboak baduela eragin esanguratsua portaera intentzioan (b=.21; R square=.045; p=.001; F=16). Dimentsio positiboak, berriz, ez zuen inongo eraginik azaldu (b=-.041; R square=.0017; p=.432; F=.616).

Ondoren, kognizioak kausa-azalpenetan eta hauek eraberean identitate sozialean oinarritzen diren eta guzti hauek portaera intentzioan eraginik duten aztertzeko, "Regresión Múltiple Jerárquica" delako analisi bat burutu genuen aldagai independientetzat honako hauek hartuz:

a) **Bakearen irudi positiboa (BAKEP):** aldagai hau sortzeko, arestian aipatutako aldagaien Cluster delako analisiatik eratorritako bake dimentsio positiboa osatzen duten itemen batukaria aukeratu genuen.

b) **Identitate soziala (IDEAB):** Identifikazio indize diferentzial bat osatu genuen. Hau identitate esklusibo euskaldun eta espainiarraren arteko kenketatik lortu genuen.

c) **Kausa-azalpenak (EGOZP):** analisia burutu ahal izateko, azalpenen indize diferentziala kalkulatu genuen. Gogora dezagun bake ezari buruzko azalpenen itemekin -Gizakiak eta animaliak agresiboak direlako, Gizakien nortasuna horrelakoa delako, Estatuak Euskadi zapaltzen duelako eta Erlijioa baztertu delako- analisi faktorial bat burutu genuela, honen ondorioz bi faktore lortu genituelarik. Lehen faktorea azalpen psikologiko,

biologiko eta egituralak osaturik zegoen eta azalpen egiturala edo indibiduala deitu genion. Aipatu itemen saturazioak balio positiboak lortu zituela azalpen biologiko, psikologiko, azalpen egituralak, berriz, ekarpen negatiboa izan zuelarik. Faktore honetan oinarrituz, azalpen egiturala eta barne-azalpenen batukaria biarekin zatituz ateratako emaitzaren kenketatik lortu genuen.

3.4.2. TAULA

| | BAKEP | BAKEP EGOZP | BAKEP EGOZP IDEAB |
|---|---|---|---|
| BAKEP | .20** | .13** | .095 |
| EGOZP | | .18** | .050 |
| IDEAB | | | .26 |
| $R^2$ | .04 | .07 | .12 |
| $R^{change}$ | .04 | .03 | .05 |
| $F^{change}$ | 12.3 | 9.55 | 15.6 |
| p. | .000 | .002 | .000 |

Portaera intentziorako Erregresio ainikoitz hierarkikoa analisiaren emaitzak aurkezten dituen 3.4.2. taulan ikus daitekenez, kausa-azalpenek portaera intentzioaren azalpen maila $R^{change}$=.03-a areagotu egiten dute.

Ondoren, identitatea sartu dugunean, azalpen hau esanguratsuki areagotzen dela ikus daiteke, azalpen eta irudiek bariantzaren %7-a azaltzen ba zuten, identitatea gehitzean azalpen hau %12-ra igo bait da. Hori dela eta, esan dezakegu identitateak irudi eta azalpenen gaitasun aurresalea areagotu egin zuela. Honela, ikus daiteke textuinguru kulturalak eragin esanguratsua duela kognizio-azalpen-portaera prozesuan.

# 3.5. IDENTITATE GATAZKATSUAK ETA BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK

Identitate gatazkatsuekiko (identitate esklusibo euskalduna eta espainiarra) taldekidetzaren eraginez balio-hierarkian eta bakearen irudikapen sozialean ezberdintasunak emango direla dioen gure hirugarren hipotesia egiatatzeko, MANOVA delako Aldagai Ainitzeko Bariantza Analisi ezberdinak burutu genituen.

Aldagai independientea -identitate gatazkatsuekiko taldekidetza, hau da, identifikazio arlo ezberdinen artean gatazka bat suertatzen denean sortzen den identitatea-, espainiar eta euskaldun identitateen taldekidetzari buruzko sentimentua eta taldekidetza hauek subjektuarentzat duten

garrantziari buruzko itemetako puntuazioen arabera eratu zen. Hain zuzen ere, identitate indizea, bi puntuazio hauen arteko biderketaren emaitzak medianekin dikotomizatuz lortu genuen. Prozedura honetatik lau identitate mota lortu genituen: a) Indentitate inklusiboa edo identitate euskaldunean zein espainiarrean altu puntuatu dutenak (N=27). b) Identitate esklusibo espainiarra edo identitate euskaldunean baju eta altu espainiarrean altu puntuatu dutenak (N=62). c) Identitate esklusibo euskalduna edo identitate espainiarrean baju eta euskaldunean altu puntuatu dutenak (N=164) eta d) bi identitateetan puntuazio bajuak eman dituztenak. Lau identitate mota hauetatik eta metodologiari buruzko atalean azaltzen genuen bezala, identitate gatazkatsuak -identitate esklusibo espainiarra eta euskalduna, (b eta c) alegia- aukeratu genituen.

Menpeko aldagai bezala, balioen puntuazio standartuak eta modak eta bakeari buruzko emozio, jarrera, azalpen eta irudietako puntuazio zuzenak erabili ziren.

a.- <u>Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta balioak</u>: Balioak analizatzeko Feather-en estrategia erabili genuen (Feather, 1975, 1984,

1985, 1989), honek batetik (garrantziarik handiena duen balioa) hamabira (garrantzi gutxien duena) doazen puntuazioak "z" puntuazio estandartuetan bihurtzen dituelarik. Puntuazio hauek, kurba normalaren area hamabi zati berdinetan banatzen duen zatiketa bati dagozkio. Eraldaketa hau, subjektuentzat ertzetan dauden balioen garrantzia erlatiboa diskriminatzea erdikoena diskriminatzea baino errezagoa izango zelakoan burutu genuen (prozedura honen justifikazioa, Cohen & Cohen, 1975, 285.or eta Hays, 1967 35-39 orrialdeak begiratu). Taularen interpretazioari dagokionez, aipatu behar da puntuazio estandartu negatiboak direla garrantziarik handiena dutenak. Emaitzak honako hauek izan ziren:

3.5.1. TAULA

TALDEKIDETZA

| | —Euskalduna— | | —Espainiarra— | | S |
|---|---|---|---|---|---|
| | Moda | "z" | Moda | "z" | |
| ADISKIDETASUNA | (1) | -.106 | (1) | -.020 | .56 |
| MAITASUNA | (3) | .062 | (6) | -.073 | .38 |
| ZORIONA | (1) | .072 | (1) | -.101 | .26 |
| BERDINTASUNA | (2) | -.156 | (4) | .327 | .00 |
| ASKATASUNA | (1) | -.184 | (2) | .247 | .00 |
| MUNDU GARBIA | (8) | -.079 | (9) | -.056 | .87 |
| MUNDU BAKEAN | (6) | .118 | (3) | -.322 | .00 |
| GOZAMENA | (10) | -.005 | (10) | .191 | .02 |
| ERREALIZAZIOA | (6) | -.062 | (6) | .240 | .03 |
| BEGIRUNEA | (6) | .127 | (7) | .048 | .54 |
| SALBAZIOA | (11) | .017 | (11) | -.089 | .46 |
| NAZIO SEGURTASUNA | (12) | .166 | (12) | -.349 | .00 |

Lehenik eta behin, efektu orokor esanguratsua aurkitzen dugu identitate gatazkatsuekiko taldekidetzaren eraginez subjektuen balio hierarkian (Pilliais $F_{(1,223)}$ 2,87; p =.001). Efektu hau ere berdintasuna, askatasuna, gozamena, bakea, errealizazioa eta nazio segurtasuna signifikazio unibariatuetan aurki daiteke.

Identitate esklusibo euskalduneko subjektuek, berdintasuna, askatasuna eta adiskidetasuna balioei garrantzi handiagoa ematen diete eta gutxiago begirunea eta nazio segurtasuna balioei. Identitate esklusibo espainiarrekoek, ordea, bakea, salbazioa eta nazio segurtasuna balio kontserbatzaileei ematen diete garrantziarik handiena, eta gutxiena berdintasuna eta askatasuna balioei (hauek elkartasuna-askatasuna adierazte dutelarik). Bestalde, ikus daiteke antzekoak diren balio-ordenazioetan, balio garrantziaren areagotze bat ematen dela.


b.- <u>Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakearen irudikapen sozialaren edukia</u>ri dagokionez, efektu orokor signifikatiboa aurkitzen dugu identitate gatazkatsuekiko taldekidetzaren eraginez (Pilliais $F_{(1,223)}$ 4,62; p=.000), identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak bai balioetan eta bai bakearen irudikapen sozialean ere ezberdintasunak suposatzen dituela dioen gure hirugarren hipotesia baieztaturik geratzen delarik.

b.1.- <u>Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakeari buruzko irudiak</u>: Bakearekin zerikusia duten irudiei dagokionez, bariable ainitzeko bariantzaren analisia burutu genuen.


Analisi honek adierazi zigun eragin orokorrei dagokienez, pertsonarte mailako irudietan, diferentziarik ez zegoela (Pilliais $F_{(1,217)}$ 1.28 ; p=.235), Euskadi mailako irudietan, berriz, diferentzia orokorrak aurkitu genituelarik (Pilliais $F_{(1,213)}$ 15,03; p=.000).

i) **Pertsonarteko bakeari buruzko irudiak:**

Pertsonarteko bakeari buruzko irudietako efektu unibariatuei dagokienez, aipatu behar da ez dela inongo eraginik eman.




ii) **Euskadi mailako bakeari buruzko irudiak:**




Euskadi mailan, autodeterminazioa (p=.00), ETA (p=.00), independentzia (p=.02), adierazpen askatasuna (p=.00), injustiziaren aurkako borroka (p=.00), negoziazioa (p=.00), polizia (p=.00) eta presoak (p=.00) irudietan aurkitu ditugu eragin unibariatuak. Irudi hauen batezbestekoetan fijatzen ba gara, ikusten dugu identitate esklusibo euskaldunekoak direla polizia eta presoen kasuan izan ezik irudi hauek bakeari gehien lotzen dizkiotenak, aipaturiko bi irudi hauek Identitate esklusibo espainiarrekoek euskaldunekoek baino gehiago lotzen dizkiotelarik.

iii) **Nazioarte mailako bakeari buruzko irudiak:** Nazioarte mailako irudietan efektu orokorra aurkitu dugu (Pilliais $F_{(1,221)}$ 2,71; p = .005).

Esan dezakegu efektu hau signifikazio unibariatu bakarra duen eta subjektuek bizi duten gatazkarekin zerikusia duen elementuak -burujabetasunak alegia- sortarazia egon daitekeela.




b.2.- <u>Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bake ezari buruzko azalpenak</u>: Euskal Herriko bake ezaren azalpenei dagokionez, aurreko bietan bezala MANOVA delako analisia estastistikoa burutu genuen, emaitzak honako hauk izanik:

3.5.2. TAULA

TALDEKIDETZA

| | Euskalduna | Espainiarra | S |
|---|---|---|---|
| AZALPEN BIOLOGIKOA | 2.55 | 3.98 | .00 |
| AZALPEN PSIKOLOGIKOA | 3.4 | 4.42 | .00 |
| AZALPEN EGITURALA | 6.06 | 3.26 | .00 |
| AZALPEN ERLIGIOSOA | 1.81 | 2.78 | .00 |

Emaitzek adierazten digute ezberdintasun esanguratsuak daudela identitate esklusiboekiko taldekidetzaren eraginez bake ezari egotzitako azalpenetan (Pillais $F_{(1,225)}$ 40.97; p=.000). Honela, identitate espainiarreko subjektuek bake eza barne-azalpenei (biologiko eta psikologikoa) egozteko joera duten bitartean, identiate euskaldunekoek kanpo-azalpenei (elementu egituralei) egozteko joera agertzen dute.

b.3.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakearekiko emozioak: Bakearekin lotutako emozioak buruzko MANOVA analisiak zera adierazi zigun:

3.5.3. TAULA

TALDEKIDETZA

| | Euskalduna | Espainiarra | S Unib. |
|---|---|---|---|
| HARROTASUN | 4,20 | 3,98 | es |
| MESPRETXU | 2,68 | 1,86 | .00 |
| POZA | 6,04 | 6,16 | es |
| AMORRUA | 2,75 | 2,00 | .00 |
| AXOLAGABETAS. | 2,64 | 2,47 | es |
| ERRUKIA | 2,36 | 2,01 | es |
| LASAITASUNA | 5,99 | 6,40 | es |
| BELDURRA | 2,84 | 2,27 | .00 |

Emozioetan orohar ez dugu diferentzia signifikatiborik aurkitzen identitatearen eraginez (Pillais $F_{(1,216)}$ 1.23; p=.279). Efektu unibariatuei dagokionez, diferentziak emozio negatiboetan ematen dira (mespretxua, beldurra eta amorrua), emozio hauek bakeari gehien lotzen dizkioten subjektuak identitate esklusibo euskaldunekoak izanik.

b.4.- Identitate gatazkatsuekiko pertenentzia eta bakearekiko jarrerak: Bakearekiko jarrerei dagokionez, emaitzak hauek izan ziren:

3.5.4. TAULA
TALDEKIDETZA

| | Euskalduna | Espainiarra | S |
|---|---|---|---|
| IZADI BAI, AURRER.MUGAT. | 6.07 | 4.90 | .000 |
| ARMA-KARRERARIK EZ | 6.36 | 6.01 | .080 |
| ESTATUEK BIOL. EZ | 6.41 | 6.11 | .136 |
| MINORIEK BIOL. EZ | 4.74 | 6.30 | .000 |
| SEXU BERDINTASUNA | 6.29 | 5.95 | .091 |
| MARKU EKONOMIKU BERRIA | 6.60 | 6.30 | .060 |
| BAKERAKO HEZIKETA | 5.65 | 6.33 | .00 |
| GOSE, INJUSTIZIARIK EZ | 6.63 | 6.71 | .557 |
| DENOK BIZIMODU BERDIN | 6.04 | 5.60 | .031 |
| ARAZO EKOLOGIK. IRTEN. | 6.73 | 6.60 | .291 |

Orohar diferentzia signifikatiboa ematen da identitatearen eraginez (Pillais $F_{(1,221)}$ 6.41 ; p = .000). Bestalde eta efektu unibariatuei dagokionez, batez ere lau itemetan ematen da: izadia babesteko aurrerapena murriztearen aldeko jarreran (P = .000), minoriek biolentziarik ez erabiltzearen buruzkoan (P = .000), bakerako heziketaren beharra adierazten duen itemean (P = .002) eta azkenik, bizi maila berdina aldarrikatzen duen jarreran, nahiz eta kasu honetan eragina ahulagoa izan (P= .031).

Arma-karreraren desagerpena, sexu berdintasunari buruzkoan eta marku ekonomiko justu baten beharra azaltzen duten jarreretan diferentzia tendentzialak aurkitzen ditugula adierazi behar da, kasu hauetan jarrera hauekiko onarpen maila altuena identitate esklusibo

euskalduneko subjektuek adierazi dutelarik.

Batezbestekoei dagokienez, aipatu behar da identitate esklusibo euskaldunekoek adostasun maila altuagoa adierazi dutela izadiaren babesari eta gure bizi maila jeisteko prest egoteari buruzko jarreratan. Identitaten espainiar esklusibokoek, berriz, minoriek biolentziarik ez erabiltzearen aldeko jarrera eta bakerako heziketaren beharra azaltzen duen jarreratan.

Sail honetan aipatutakoa laburbilduz, esan dezakegu balio hierarkia zein bakeari buruzko irudikapen sozialaren edukinean ezberdintasunak aurkitu ditugula identitate gatazkatsuekiko taldekidetzaren eraginez, emaitza hauek gure hirugarren hipotesia baieztatzen dutelarik.

Pertsonarteko irudien kasuan, esan bezala ez dago bi taldeen arteko ezberdintasunik. Euskadi mailan, berriz, eta bizi dugun gatazkaren ondorioz, ezberdintasunak aurkitzen ditugu taldekidetzaren eraginez. Honela, identitate esklusibo euskaldunekoek gehiago lotzen dizkiote bakeari aldaketa politikoa isladatzen dituzten irudiak. Nazioarte mailako bake irudiei buruz, esan behar da herrien burujabetasunari buruzko irudian soilik aurkitu ditugula ezberdintasun esanguratsu unibariatuak.

Bake ezari buruzko azalpenetan ere, ezberdintasun esanguratsu orokorra aurkitu dugu, identitate esklusibo euskaldunekoek bake eza arrazoi egituraletan kokatu duten bitartean, identitate espainiarrakoek arrazoi psikologiko

eta biologikoetan kokatu bait dute. Emozio mailan ez da inongo ezberdintasunik gertatu eta jarrera mailan taldekidetzaren eragin orokorra aurkitu dugu.

Guzti hau dela eta, esan dezakegu identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak bakearen irudikapen sozialaren zenbait dimentsioetan duela eragina. Hain zuzen ere, gure kasuan azalpenetan, jarreratan eta Euskadi eta nazioarte mailako irudietan aurkitu dugu eragin esanguratsua. Nazioarte mailan eragina gertatzearen arrazoia izan daiteke bizi dugun egoera gatazkatsuak taldekidetza sentimendua areagotu egiten duela, sentimendu honen eragina gizarte-fenomeno orotara hedatuz (Mercadé, 1989).

# 3.6. IDEOLOGIA POLITIKOA ETA BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK.

Ideologia politikoaren ondorioz subjektuen balio hierarkian eta bakearen irudikapen sozialean ezberdintasunak emango direla dioen gure laugarren hipotesia egiatatzeko asmoz, berriz ere MANOVA delako aldagai ainitzeko bariantza analisi batzu burutu genituen. Menpeko aldagaitzat, balioen puntuazio estandartuak, emozio, azalpen eta jarreretako puntuazio faktorialak eta irudietako puntuazio zuzenak erabili genituen.

Aldagai independientea -ideologia politikoa- ideologia politikoari buruzko itemeko puntuazioak trikotomizatuz lortu genuen. Hemendik hiru talde lortu genituen: eskuindarrak -eskalan puntuazio bajua eman zutenak, N=121-, zentrukoak -eskalan erdiko puntuazioa eman zutenak, N=94- eta ezkertiarrak -eskalan puntuazio altuak lortu zituztenak, N=150-.

Bestalde, eskala honek bozkatzeko asmoarekin zuen koerlazioa kalkulatu genuen. Horretarako ideologiaren arabera alderdi politikoak lau kategoriatan sailkatu genituen: lehenengo kategorian, ezkerreko alderdiak sartu genituen, hau da, HB, IU eta EUE. Bigarrenean, zentru-ezkerrekoak -PSOE-EE-. Hirugarrenean, zentru-eskubikoak -EA eta CDS- eta laugarrenean eskubikoak -PP eta PNV-. Bi eskala hauen arteko koerlazioa signifikatiboa izan zen (.58; P=.000).

a.- Ideologia politikoa eta balioak: balio-ordenazioaren standarizazioari dagokionez, berriro ere arestian aipatzen genuen Feather-en estrategia jarraitu genuen (Feather, 1984, 1985, 1987). Emaitzak honako hauek izan ziren:

3.6.1. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| ADISKIDETASUNA | -.006 | .076 | -.033 | .702 |
| MAITASUNA | -.012 | -.173 | .090 | .136 |
| ZORIONA | -.043 | -.056 | .052 | .634 |
| BERDINTASUNA | .382 | -.134 | -.216 | .000 |
| ASKATASUNA | .221 | .023 | -.230 | .001 |
| MUNDU GARBIA | .105 | .065 | -.105 | .178 |
| MUNDU BAKEAN | -.309 | .035 | .246 | .000 |
| GOZAMENA | .209 | -.073 | -.155 | .010 |
| ERREALIZAZIOA | .171 | -.086 | -.118 | .045 |
| BEGIRUNEA | -.075 | .090 | .015 | .486 |
| SALBAZIOA | .412 | .229 | .188 | .000 |
| NAZIO SEGURTASUNA | .265 | .080 | .178 | .001 |

Orohar ezberdintasun esanguratsua ematen da ideologiaren eraginaren ondorioz subjektuek bere bizitzarako aukeratzen dituzten balioetan (Pillais $F_{(1, 365)}$: 4,15; p = .000), diferentzia hau efektu unibariatuetan ere aurki dezakegularik

berdintasuna, askatasuna, mundu baketsua, gozamena, salbazioa, errealizazioa eta nazio segurtasuna balioetan.

Puntuazio negatiboek garrantzia handiagoa adierazten dutela kontutan izanik, eskuindarrek gehien baloratzen dituzten balioak salbazioa, mundu baketsua eta nazio segurtasuna lirateke. Gutxien baloratzen dituztenak, berriz, berdintasuna, askatasuna eta gozamena lirateke.

Ezkertiarrek, ordea, garrantzi handiagoa ematen diete berdintasuna, askatasuna eta gozamena balioei eta gutxiago mundu baketsua, salbazioa eta segurtasun nazionala balioei.

Zentrukoen balioei dagokienez, esan talde honek gehien baloratzen dituenak berdintasuna, errealizazioa direla eta gutxien salbazioa eta nazio segurtasuna balioak.

b.- Ideologia politikoa eta Bakearen irudikapen sozialaren edukia: kasu honetan, efektu orokor signifikatiboa aurkitzen dugu ideologia politikoaren eraginez (Pilliais $F_{(1,365)}$ 1,97; p = .000), arestian aipatzen genuen gure laugarren hipotesia baieztaturik geratzen delarik.

b.1.- Ideologia politikoa eta bakeari buruzko irudiak: irudien kasuan ere bariable ainitzeko bariantzaren analisia burutu genuen, analisia honetatik honako emaitza hauek lortu genituelarik:

i) **Pertsonarte mailako bakeari buruzko irudiak:**

Pertsonarte mailako bake irudietan, ideologiaren eragina oso ahula dela esan dezakegu (Pillais $F_{(1, 362)} = 1.60$; p=.039). Maila unibariatuari dagokionez, norberaren kulturaren garapenari buruzko itemean aurkitzen dugu ezberdintasun esanguratsu bakarra, kooperazio eta konpetitibitateari buruzko itemetan ere eragin ahula aurki dezakegularik. Hauetariko lehena, ezkertiarrek lotzen diote gehiago bakeari, lankidetzaren kasuan ere gauza bera gertatuz. Konpetibitatea, berriz, eskuindarrek lotu diote gehiago bakeari.

3.6.2. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| MAITASUNA | 8.207 | 7.677 | 8.007 | .297 |
| GAUZA ZORAGARRIA | 8.339 | 8.160 | 8.429 | .661 |
| ELKARTASUNA | 8.298 | 8.362 | 8.755 | .152 |
| KONPETENTZIA | 4.388 | 3.468 | 3.490 | .012 |
| KOMUNIKAZIOA | 8.397 | 8.330 | 8.872 | .100 |
| LANKIDETZA | 8.339 | 8.362 | 8.844 | .042 |
| KULTURA | 7.074 | 7.553 | 8.150 | .003 |
| INBIDIA | 2.694 | 2.372 | 2.544 | .631 |
| EZER EZ | 3.157 | 3.202 | 3.660 | .286 |
| GORROTO | 2.372 | 2.383 | 2.347 | .994 |
| ISTILUAK | 2.785 | 3.096 | 2.993 | .698 |

ii) **Euskadi mailako bakeari buruzko irudiak:**

Euskadi mailako iruduetan, ordea, ezberdintasun esanguratsua ematen da (Pillais $F_{(1, 347)} = 4.72$ ; p = .000) eta eragin unibariatua, droga eta presoak irudien kasuan izan ezik, aldagai guztietan ematen da, langabezia, begirunea eta torturari buruzko itemetan eragina

ahula izan arren. Eragin esanguratsua izan duten item guztietan, poliziaren kasuan izan ezik, ezkertiarrak izan dira puntuazio altuena azaldu dutenak.

3.6.3. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| AUTODETERMINAZIOA | 4.816 | 6.885 | 8.07 | .000 |
| DROGA | 2.307 | 3 | 2.347 | .145 |
| E.T.A. | 3.132 | 3.815 | 5.348 | .000 |
| INDEPENDENTZIA | 5.368 | 6.239 | 7.745 | .000 |
| ADIERAZPEN ASKATASUNA | 8.184 | 8.196 | 9.057 | .001 |
| INJUSTIZIAREN AURKA BO. | 8.377 | 8.824 | 9.043 | .013 |
| NEGOZIAZIOA | 8.456 | 8.457 | 9.149 | .002 |
| BIZIMODU HOBEA | 7.781 | 7.533 | 8.518 | .004 |
| LANGABEZIA | 3.579 | 4.717 | 3.884 | .031 |
| POLIZIA | 4.509 | 4.066 | 2.879 | .000 |
| PRESOAK | 3.991 | 4.587 | 4.901 | .102 |
| BEGIRUNEA | 8.640 | 8.674 | 9.199 | .031 |
| TORTURA | 2.904 | 3.783 | 2.794 | .049 |

Euskadi mailako iruduetan, ordea, ezberdintasun esanguratsua ematen da (Pillais $F_{(1, 347)}=4.72$; p=.000) eta eragin unibariatua, droga eta presoak irudien kasuan ezik, aldagai guztietan ematen da, langabezia, begirunea eta torturari buruzko itemetan eragina ahula izan arren. Eragin esanguratsua izan duten item guztietan, poliziaren kasuan ezik, ezkertiarrak izan dira puntuazio altuena azaldu dutenak.

iii) **Mundu mailako bakeari buruzko irudiak:** Azkenik, mundu mailako irudietan ere, ezberdintasuna esanguratsu orokorra ematen da (Pillais $F_{(1, 359)}= 3.51$; p=.000). Eragin unibariatua, izadiaren defentsa, berdintasuna, burujabetasuna irudietan aurkitzen dugu eta

hulagoa arma-karrera irudian. Lehenengo hiru irudien kasuan, ezkerreko subjektuak izan dira irudi hauek bakeari gehien lotu dizkiotenak, azkenekoaren kasuan eskuinekoak izan direlarik.

3.6.4. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| ARMA KARRERA | 3.647 | 4 | 2.899 | .033 |
| IZADIAREN DEFENTSA | 7.759 | 7.372 | 8.356 | .009 |
| GUDA | 3.060 | 3.787 | 2.906 | .138 |
| GOSEA | 3.155 | 3.95 | 3.423 | .259 |
| BERDINTASUNA | 7.871 | 7.894 | 8.678 | .009 |
| INPERIALISMOA | 3.138 | 3.649 | 2.926 | .192 |
| BURUJABETASUNA | 6.664 | 7.181 | 8.678 | .000 |
| BIOLENTIA | 2.983 | 3.415 | 2.852 | .410 |
| MUNDUA ZAINTZEA | 7.940 | 7.372 | 7.191 | .176 |

b.2.- Ideologia politikoa eta bake ezaren azalpenak: bake ezaren zalpenekin ere, MANOVA delako analisi estastistikoa burutu genuen, oraingoan menpeko aldagaitzat azalpenen puntuazio faktorialak hartuz. Gogora dezagun bake ezari buruzko azalpenen itemekin -Gizakiak eta animaliak agresiboak direlako, Gizakien nortasuna horrelakoa delako, Estatuak Euskadi zapaltzen duelako eta Erlijioa baztertu delako- analisi faktorial bat burutu genuela, honen ondorioz, bariantzaren %65,6-a azaltzen zuten bi faktore atera zirelarik. Lehen faktorea azalpen psikologiko, biologiko eta egituralak osaturik zegoen eta azalpen egiturala edo indibiduala deitu genion. Aipatu itemen saturazioak balio positiboak lortu zituela azalpen biologiko, psikologiko, azalpen egituralak, berriz, ekarpen negatiboa izan zuelarik.

Bigarren faktorea azalpen erlijiosoak osaturik zegoen, hori dela eta erlijiosoa deitu 2enion. Honetan, azalpen psikologiko eta biologikoak ekarpen positiboa zuten. Faktore honi azalpen erligiosoari buruzko faktorea deitu genion.

Honela, Manova analisiak honako emaitza hauek eskeini zizkigun:

3.6.5. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| EGITURALA-INDIBIDUALA | .422 | .020 | -.406 | .000 |
| ERLIJIOSOA | .263 | -.113 | -.135 | .002 |

Ikus dezakegunez, orohar ezberdintasun esanguratsua ematen da (Pillais $F_{(1, 359)} = 15.910$; p: .000), beraz ideologiak ba du bere eragina azalpenetan. Bestalde, eragin unibariatua ematen da bi faktoreetan. Datuen arabera, esan daiteke eskuindarrek bake eza arrazoi pertsonalei egozteko joera azaltzen dutela, ezkertiarrek, berriz, arrazoi egituralei. Bestalde ikus dezakegu eskuindarrek ere arrazoi erlijiosoari egozten diotela bake eza, beste bi taldeak azalpen hau oso maila bajuan erabiltzen duten bitartean.

b.3.- <u>Ideologia politikoa eta bakearekiko emozioak</u>: Bakearekin lotutako emozioei MANOVA burutu genuen menpeko aldagaitzat emozioen puntuazio faktorialak hartu genituelarik. Hauek lehenago egindako analisi faktorialatik (Varimax

delako rotazioaz) lortu genituen. Analisi honetan honako itemak sartu genituen: amorrua, mespretxua, axolagabetasuna, beldurra, lastima, harrotasuna, poza eta lasaitasuna. Analisi honen ondorioz bakearekiko emozioak bi faktoretan sailkatu ziren.

Lehenengo faktorea amorrua, mespretxua, axolagabetasuna, beldurra, lastima eta harrotasuna emozioek osatzen zuten. Emozio hauek negatiboak dira, beraz faktore hau bakearekiko emozio negatiboen faktorea bezala izendatu genuen. Aipatu behar da amorrua, mespretxua, axolagabetasuna eta beldurra emozioek bigarren faktorean ekarpen negatiboa zutela.

Bigarren faktorea, berriz, poza eta lasaitasuna emozioek osatzen zuten, beraz, bakearekiko emozio positiboak lirateke.

Menpeko aldagaitzat faktore hauek zituen MANOVA analisiak honako emaitza hauek eskeini zizkigun:

3.6.6. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| EMOZIO POSITIBOAK | .079 | -.037 | -.040 | .573 |
| EMOZIO NEGATIBOAK | .003 | -.105 | -.084 | .373 |

Emozioen kasuan, orohar ez da ezberdintasun esanguratsurik ematen (Pillais $F_{(1, 358)} = .77$ ; $p = .543$) ez eta eragin unibariaturik ere. Hala ere, esan dezakegu eskuindarrek gehiago lotzen dizkiotela bakeari emozio positiboak ezkertiarrek

baino, emozio negatiboetan aurkakoa suertaturik.

b.4.- Ideologia politikoa eta bakearekiko jarrerak: Bakearekiko jarrerei dagokionez, eta MANOVA analisiarako puntuazio faktorialak erabili genituenez, hauek azalduz hasiko gara. Gogora dezagun bakearekiko jarrerak sailkatzeko ere analisi faktorial bat (Varimax delako rotazioaz) burutu genuela, jarreren saila osatzen zuten itemekin -(1) Izadia hondatzearen kontrako borroka bultzatu beharko litzateke, nahiz eta borroka honek aurrerapen ekonomikoa galerazi. (2) Nazioarteko harremanak baketsuagoak izan daitezen, arma-karrera desagertzeko ahalegin guztiak egin beharko lirateke. (3) Estatuek minoriekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik. (4) Minoriek estatuekin dituzten istiluei aurre egiteko, biolentzia alde batera utzi eta elkarrizketa erabili beharko lukete soilik. (5) Lehenbaitlehen aldatu beharko liirateke legeak sexuen arteko berdintasuna lortzeko. (6) Lurralde pobreen eta aberatsen arteko ezberdintasunak ezabatuko dituen marku ekonomiko berri bat sortzea ezinbestekoa da, nahiz eta honek herri aberatsentzat egokitze ekonomiko bat suposatu. (7) Eskolaren helburu nagusienetariko bat, bakezaletasunean hezitzea da. (8) Mundu baketsu bat nahi ba dugu, gosea eta injustizia berehala desagertarazi behar ditugu. (9) Herri guztiek maila beretsuko bizimodua izan dezaten, bizimodu apalago bat eramateko prest egon beharko genuke. (10) Ezinbestekoa eta larria da munduko biztanle guztiengan eta hurrengo

belaunaldiengan ere eragin kaltegarria izango duten arazo ekologikoei irtenbide bat aurkitzea-.

Analisi honek bakearekiko jarreratan honako hiru faktore hauek eman zituen: Lehengo faktorea, estatuek arazoak konpontzeko biolentziarik ez erabiltzea, arma-karrera gelditzea, gosea eta injustizia desagertaraztea, bizimaila berdina lortzeko guk bizimodu apalago bat eramatea eta denon gain eragina duten arazo ekologikoen irtenbidea eskatzen duten itemak osatzen zuten. Esan dezakegu faktore hau gauztiongan eragina duten arazo globalekiko kezka adierazten duten itemek osatua zegoela. Gosea eta injustiziari buruzko itemak ekarpen positiboa zuen bigarren eta hirugarren faktoreetan. Faktore hau bakearen alde positiboa -justizia soziala- eta negatiboa -biolentzia zuzen eza- zituen bere baitan, nahiz eta minoriek biolentzia erabiltzearen aurkako jarrera hemen ez aurkitu. Hori dela eta, bake maximalista iraultzaileari buruzko faktore bezala izendatu genuen.

Bigarren faktoreak, berriz, item hauek osatzen zuten: izadia defendatzeko borroka, minoriek biolentziarik ez erabiltzea eta bakezaletasunean hezitzea. Minorien biolentzia desagertzearen beharra, baina biolentzia honen arrazoiak maila handi batetan aurkitzen diren egituran inongo aldaketaren beharrik adierazten ez duten jarrerak isladatzen ditu faktore honek. Hori dela eta, faktore hau bake minimalistari buruzko faktorea izendatu genuen. Aipatu beharra dago, nahiz eta progresuaren murrizketa izan izadia defendatu behar dela dioen itemean ekarpen

negatiboa zuela, lehenengo faktorean, berriz, positiboa zuelarik.

Hirugarren faktorea, sexu berdintasunerako aldaketa legala eta marku ekonomiko berriari buruzko itemek osatzen zuten. Faktore hau osatzen duten item-ak, aldaketa estrukturalari buruzkoak dira, beraz harremanetan berdintasuna lortzeko aldaketa estrukturala eskatzen duten jarrerak biltzen dituen faktorea dela esan dezakegu. Aipatu, marku ekonomiko berriaren aldeko jarrerak lehenengo faktorean ekarpen positiboa zuela.

Menpeko aldagaitzat faktore hauek zituen MANOVA analisiaren emaitzak hauek izan ziren:

3.6.7. TAULA

PERTENENTZIA IDEOLOGIKOA

| | ESKUB | ZENTRU | EZKER | S |
|---|---|---|---|---|
| BAKE MAXIMA. IRAULTZ. | -.247 | -.023 | .233 | .000 |
| BAKE MINIMALISTA | .380 | .111 | -.405 | .000 |
| ALDAKETA EGITURALA | -.115 | -.062 | .210 | .012 |

Ideologiaren eraginez ezberdintasun esanguratsua ematen da orohar (Pillais $F_{(1, 365)} = 12.35$; $p = .000$), bai eta eragin unibariatua ere hiru faktoreetan. Lehen faktorean ikus dezakegu hiru taldeetatik faktore honekiko adostasun mailarik altuena agertu dutenak ezkertiarrena dela, beste biek adostasun maila bajua azaldu dutelarik. Bigarren faktorean, ordea, aurkakoa ematen da, eskuindarrak bait dira honekiko adostasun maila altuena agertu dutenak. Hirugarren faktorean -aldaketa egituralei

dagokiena- lehenengo faktorean ematen den efektu berdina aurkitzen dugu, honekin adostasun maila altuena azaldu dutenak ezkertiarrak izanik.

Laburpen moduan esan dezakegu ezberdintasunak ematen direla bai balio hierarkian eta bai irudikapen sozialean ere ideologia politikoaren eraginez, honek gure laugarren hipotesia egiaztatzen duelarik.

Balioei dagokionez, ideologia eskuindarrekoek salbazioa, segurtasun nazionala eta mundu baketsua balio kontserbatzaileak jartzen dituzte bere hierarkiaren lehenengo tokietan. Ezkerreko subjektuek, ordea, elkartasun-berdintasuna adierazten duten askatasuna eta berdintasuna eta gozamena balio hedonista jartzen dituzte. Bestalde, ezkerreko subjektuentzat garrantzia gutxien duten balioak salbazioa, segurtasun nazionala eta mundu baketsua dira eta eskuindarrek gauza bera egiten zuten askatasuna, berdintasuna eta gozamena balioekin. Bi hierarkia hauetan fijatzen bagara, ikus dezakegu guztiz aurkakoak direla. Hori dela eta, esan dezakegu ideologiak erabateko eragina duela subjektuen balio-hierarkian.

Bakeari buruzko irudiei dagokionez, pertsonarteko mailan ideologiaren eragin ahula aurkitzen dugu, hau kulturaren garapena eta konpetitibitatea irudietan eman diren signifikazio unibariatuetan isladatzen delarik. Hauetariko lehena bakeari gehien lotzen diotenak, ezkertiarrak ditugu. Hau izan daiteke ezkerreko ideologiak herrien kulturari ematen dion

garrantziagatik, hau herrien identitatearen islada bait da. Konpetibitatearen kasuan, berriz, eskuindarrak izan dira irudi hau bakeari gehien lotu diotenak. Hau izan daiteke beraientzat justuagoa den sistemaren oinarria konpetitibitatea delako; konpetitiboa ez denak ez du gizartean lekurik eta porrota besterik ez du aurkituko.

Euskadi mailan, ezberdintasun orokorrak aurkitzen ditugu, bai eta unibariatuak era item guztietan presoak eta drogaren kasuan izan ezik.

Nazioarte mailako irudietan eragin orokorra aurkitu dugu ere, honekin batera izadiaren defentsa, gizarte berdintasuna eta burujabetasuna irudietan aurkitu dugularik.

Bake ezari buruzko azalpenetan ere, ezberdintasun esanguratsu orokorra aurkitu dugu, ideologia ezkertiarrekoek bake eza arrazoi egituraletan kokatu duten bitartean, eskuindarrekoek arrazoi psikologiko, biologiko eta erligiosoetan kokatu bait dute.

Jarrera mailan, ezberdintasun esanguratsuak eman dira orokorrean eta maila unibariatuan hiru faktoreetan. Lehengo faktorean -bake maximalista- ezkerrekoak izan dira honekiko adostasun maila altuagoa adierazi dutenak, eskuindarrek faktore honekiko duten adostasun maila askoz ere baxuagoa izanik. Gogorarazi dezagun faktore honetan bake positiboa zein negatiboari buruzko jarrerak kokatzen direla, nahiz eta faktore honek minoriek biolentziarik ez erabiltzeari burzko jarrera ez

barneratu. Zentzu honetan esan dezakegu faktore honek bake egiturala zein zuzena justifikatzen dituela, baina, minorien biolentzia errefuxatzen ez duenez, nolabait hau justifikatzen duela. Hori dela eta, biolentzia kulturala emango litzateke ezkertiarren aldetik.

Bigarren faktorea, berriz, minoriek biolentziarik ez erabiltzeari, bakerako heziketari eta izadiaren defentsari -hau ekarpen negatiboz- buruzko jarrerek osatzen dute eta eskuindarrak izan dira faktore honekiko adostasun mailarik altuena adierazi dutenak. Faktore honetan, estatuek erabiltzen duten biolentziaren aurkako jarrerarik ez da azaltzen, beraz, nolabait, hau justifikatzen du. Honela, subjektu hauek minorien biolentzia desagertzea nahiko lukete, baina hau maila handi batetan sortarazten duten egituretan inongo aldaketarik gabe. Hori dela eta, faktore honetan ere biolentzia kulturala legoke, minoriek biolentziarik ez erabiltzearen aldeko jarrera barneratu arren, estatuek erabiltzen duten biolentzia ez bait du kontutan hartzen.

Aldaketa egituralei buruzko jarreratan, ezkertiarrek adostasun maila handiagoa adierazi dute, eskuindarren adostasuna baxuakoa izanik. Ezkertiarrek sistemaren berregituraketan oinarrituriko bake bat nahi luketeela esan daiteke (Galtung, 1990), zentzu honetan bake kulturala adieraziko luketelarik. Eskuindarrak, ordea, egitura mailako aldaketarik ez dute onartzen eta zentzu horretan bere uste sistematan biolentzia egon zitekeela esan dezakegu.

# 3.7. IDEOLOGIA ABERTZALEA ETA BAKEARI BURUZKO USTE SISTEMAK

Kasu honetan, ideologia abertzaleak balio hierarkian eta bakearen irudikapen sozialean eragina izango duela dioen gure bostgarren hipotesia egiaztatzearren, berriro ere MANOVA edo Bariantzaren Analisi Multiplea estatistikoa erabili genuen. Aldagai independiente bezala ideologia abertzaleari buruzko itemeko puntuazio dikotomizatuak erabili genituen, bi talde lortu genituelarik: ez abertzaleak -eskalan puntuazio bajua eman zutenak. N=175- eta abertzaleak -eskalan puntuazio altuak azaldu zituztenak. N=203-.

Bestalde, estatu espainiarra eta Euskadiren arteko harremanak nolakoak izan beharko luketen adieraztea eskatu genien subjektuei, erantzun aukerak hauek zirelarik: 1) Esatatuzalea. 2) Autonimizalea, baina konpetentziak murriztuz. 3) Autonomizalea, egungo estatutuaren arabera. 4) Autonomizalea, baina konpetentziak areagotuz. 5)

Independentzizalea. Bi eskala hauen arteko koerlazioa signifikatiboa izan zen (.45; p=.000).

Menpeko aldagaitzat balioen puntuazio standartuak, emozio, azalpen eta jarreretako puntuazio faktorialak eta irudietako puntuazio zuzenak erabili ziren.

a.- Idelogia abertzalea eta balioak: Balio-ordenazioaren standarizazioari dagokionez, berriro ere lehen aipaturiko Feather-en estrategia jarraitu genuen (Feather, 1984, 1985, 1987). Emaitzak honako hauek izan ziren:

3.7.1. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| ADISKIDETASUNA | .058 | -.057 | .268 |
| MAITASUNA | -.068 | .053 | .245 |
| ZORIONA | -.033 | .019 | .622 |
| BERDINTASUNA | .153 | -.127 | .007 |
| ASKATASUNA | .165 | -.134 | .004 |
| MUNDU GARBIA | .075 | -.066 | .175 |
| MUNDU BAKEAN | -.143 | .150 | .005 |
| GOZAMENA | .108 | -.108 | .038 |
| ERREALIZAZIOA | .138 | -.124 | .012 |
| BEGIRUNEA | .090 | .067 | .135 |
| SALBAZIOA | -.191 | .159 | .001 |
| NAZIO SEGURTASUNA | -.186 | .158 | .001 |

Taula hau interpretatzeko, gogorarazi behar da puntuazio standartuetan puntuazio negatiboak direla garrantzi handiena dutenak. Esan dezakegu, orohar ezberdintasun esanguratsua ematen dela ideologia abertzalearen eraginez subjektuak bere bizitzarako aukeratzen dituen balio hierarkian (Pillais $F_{(1, 371)}$: 3,68; p = .000). Ezberdintasun hau efektu unibariatuetan ere aurki dezakegu berdintasuna, askatasuna, mundu baketsua,

errealizazioa, salbazioa eta nazio segurtasuna balioetan. Gozamena balioan, eragin ahula aurkitzen dugu.

Aipatu behar da ez abertzaleek gehien baloratzen dituzten balioak salbazioa, mundu baketsua eta nazio segurtasuna direla, gutxien baloratzen dituztenak berdintasuna, askatasuna, errealizazioa eta gozamena direlarik.

Abertzaleek, ordea, garrantzi handiagoa ematen diete berdintasuna, askatasuna, errealizazioa eta gozamena balioei eta gutxiago mundu baketsua, salbazioa eta segurtasun nazionala balioei. Fijatzen ba gara, bi talde hauen arteko ezberdintasuna balio mailan izugarrizkoa da, ia kontrako balio hierarkia dutelarik.

b.- Idelogia abertzalea eta bakeari bakearen irudipan sozialaren edukia: Bakearen irudikapen sozialaren edukiari dagokionez, eragin orokor esanguratsua aurkitzen dugu ideologia abertzalearen eraginez (Pilliais $F_{(1,378)}$ 4,07; p = .000), gure bostgarren hipotesia baieztaturik geratzen delarik.

b.1.- Ideologia abertzalea eta bakeari buruzko irudiak: Ideologia abertzaleak bakeari buruzko irudietan duen eragina aztertzeko burutu genuen bariable ainitzeko bariantzaren analisiak diferentziak azaldu zizkigun Euskadi eta nazioarte mailako bake irudietan, pertsonarteko irudietan eragina oso ahula izan zelarik.

Jarraian analisi honetako datuak aurkezten dira:

i) **Pertsonarteko bakeari buruzko irudiak:** egunerokotasunari buruzko bake irudietan, ideologia abertzalearen oso eragin ahula ematen da (Pillais $F_{(1, 367)} = 1.47$; $p = .074$), gorrotoa eta istiluei buruzko itemetan ezberdintasun unibariatu tendentziala aurkitzen dugularik.

3.7.2. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| MAITASUNA | 8.176 | 7.821 | .612 |
| GAUZA ZORAGARRIA | 8.529 | 8.183 | .458 |
| ELKARTASUNA | 8.324 | 8.577 | .697 |
| KONPETENTZIA | 4.176 | 3.518 | .219 |
| KOMUNIKAZIOA | 8.162 | 8.696 | .124 |
| LANKIDETZA | 8.324 | 8.685 | .370 |
| KULTURA | 7.015 | 7.738 | .137 |
| INBIDIA | 2.338 | 2.768 | .248 |
| EZER EZ | 3.191 | 3.381 | .890 |
| GORROTO | 2.250 | 2.643 | .078 |
| ISTILUAK | 2.485 | 3.351 | .024 |

ii) **Euskadi mailako bakeari buruzko irudiak:**

3.7.3. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| AUTODETERMINAZIOA | 3.738 | 8.160 | .000 |
| DROGA | 2.631 | 2.834 | .352 |
| E.T.A. | 2.754 | 5.573 | .000 |
| INDEPENDENTZIA | 3.815 | 8.521 | .000 |
| ADIERAZPEN ASKATAS. | 7.877 | 9.011 | .000 |
| INJUSTIZI AURKA BOR. | 8.431 | 8.828 | .362 |
| NEGOZIAZIOA | 7.927 | 9.129 | .000 |
| BIZIMODU HOBEA | 7.815 | 8.172 | .522 |
| LANGABEZIA | 3.138 | 4.196 | .067 |
| POLIZIA | 4.900 | 3.466 | .011 |
| PRESOAK | 3.708 | 3.319 | .356 |
| BEGIRUNEA | 8.754 | 8.914 | .852 |
| TORTURA | 2.877 | 3.405 | .131 |

Euskadi mailan orohar diferentzia signifikatiboa da (Pillais $F_{(1, 351)}$ = 7.72 ; p = .000) eta efektu unibariatua, droga, bizimodu hobea, begirunea, presoak eta tortura kasuetan izan ezik aldagai guztietan ematen da.

iii) **Mundu mailako bakeari buruzko irudiak:**

3.7.4. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| ARMA KARRERA | 3.908 | 3.520 | .238 |
| IZADIAREN DEFENTSA | 7.615 | 7.997 | .582 |
| GUDA | 2.785 | 3.322 | .568 |
| GOSEA | 2.862 | 3.550 | .350 |
| BERDINTASUNA | 8.069 | 8.439 | .175 |
| INPERIALISMOA | 3.062 | 3.322 | .571 |
| BURUJABETASUNA | 6.662 | 8.165 | .000 |
| BIOLENTZIA | 2.415 | 3.211 | .235 |
| MUNDUA ZAINTZEA | 7.954 | 7.713 | .788 |

Pillais $F_{(1, 363)}$= 2.43; p = .001

Mundu mailan ere, orohar diferentzia signifikatiboa ematen da. Eragin unibariatuan item guztietan dugu, mundua zaintzea eta berdintasunaren iruditan diferentzia hau ahula izanik.

b.2.- <u>Ideologia abertzalea eta bake ezari buruzko azalpenak</u>: Bake ezaren azalpenekin, MANOVA delako analisi estastistikoa burutu genuen kasu honetan menpeko aldagaitzat lehen aipaturiko azalpenen puntuazio faktorialak hartuz. Honela, Manova analisiak honako emaitza hauek eskeini zizkigun:

3.7.5. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| EGITURALA-INDIBIDUALA | .481 | -.439 | .000 |
| ERLIJIOSOA | .026 | -.023 | .636 |

Orohar diferentzia signifikatiboa ematen da (Pillais $F_{(1, 373)} = 49,68$; $p = .000$), beraz ideologia abertzaleak ba du bere eragina azalpenetan. Bestalde, efektu unibariatua ematen da lehen faktorean. Datuen arabera, esan daiteke ez abertzaleek arrazoi pertsonalei egozten diotela pake eza, abertzaleek, berriz, estatuan -arrazoi egituraletan- kokatzen dutelarik Euskadi mailako bake ezaren arrazoia. Azalpen erlijiosoaren kasuan ez da diferentzia signifikatiborik ematen.

b.3.- <u>Ideologia abertzalea eta bakearekiko emozioak</u>: Bakearekin lotutako emozioei MANOVA burutu genuen menpeko aldagaitzat emozioen puntuazio faktorialak hartu genituelarik. Hauek arestian aipatzen genuen bezala, lehenago egindako analisi faktorialatik (Varimax delako rotazioaz) lortu genituen. Analisi honek honako emaitza hauek eskeini zizkigun:

3.7.6. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZ8LEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| EMOZIO POSITIBOAK | -.086 | .090 | .095 |
| EMOZIO NEGATIBOAK | .052 | -.037 | .406 |

Emozioen kasuan, orohar ez da ezberdintasun esanguratsurik ematen (Pillais $F_{(1,369)} = 1.72$ ; p = .179). Eragin unibariatuei dagokienez, oso oso eragin ahula aurkitu dugu emozio positiboen faktorean. Hala ere, esan dezakegu ez abertzaleek emozio positiboak gutxiago lotzen dizkiotela bakeari abertzaleek baino, emozio negatiboen kasuan aurkakoa gertatuz.

b.4.- Ideologia abertzalea eta bakearekiko jarrerak: Bakearekiko jarrerei dagokionez, eta MANOVA analisiarako puntuazio jarrerak sailkatzeko burutu genuen analisi faktorialetik atera genituen eta emaitzak hauek izan ziren:

3.7.7. TAULA

IDEOLOGIA ABERTZALEA

| | EZ ABERTZALEA | ABERTZALEA | S |
|---|---|---|---|
| BAKE MAZIMA. IRAUL. | -.113 | .137 | .015 |
| PAZIFISTA-MINIMALI. | .314 | -.283 | .000 |
| ALDAKETA EGITURALA | -.045 | .102 | .143 |

Orokorrean ezberdintasun esanguratsua ematen da ideologia abertzalearen eraginez (Pillais $F_{(1, 369)} = 15,44$; p = .000). Eragin unibariatua lehenengo bi faktoreetan ematen da: lehen faktorean bi taldeetatik faktore hau gehien baloratzen duena abertzaleena da. Bigarren faktorean, ordea, aurkakoa ematen da, ez abertzaleak bait dira hau gehien baloratzen dutenak. Hirugarren faktorean -aldaketa egituralei dagokiena- ez dugu diferentziarik aurkitzen.

Laburpen moduan esan dezakegu ezberdintasunak ematen direla bai balio hierarkian eta bai irudikapen sozialean ere ideologia abertzalearen eraginez, honek gure hipotesia egiaztatzen duelarik.

Balioei dagokionez, ideologia ez abertzalekoek salbazioa, segurtasun nazionala eta mundu baketsua balio kontserbatzaileak jartzen dituzte bere hierarkiaren lehenengo tokietan, azkenekoetan askatasuna, berdintasuna eta gozamena balioak jartzen dituztelarik. Ideologia abertzalekoek, ordea, elkartasun-berdintasuna adierazten duten askatasuna eta berdintasuna eta gozamena balio hedonista jartzen dituzte lehen lekuetan eta salbazioa, segurtasun nazionala eta mundu baketsua dira azkenekoetan. Bi hierarkia hauetan fijatzen bagara, ikus dezakegu guztiz aurkakoak direla. Hori dela eta, esan dezakegu ideologia abertzaleak, politikoak bezalaxe, erabateko eragina duela subjektuen balio-hierarkian.

Bakeari buruzko irudiei dagokionez, Euskadi eta mundu mailako irudietan aurkitzen dugu ideologia abertzalearen eragin esanguratsua. Honen arrazoia, bizi dugun gatazkaren ondorioz sentimendu abertzaleak gizarte-fenomeno orotara hedatzean egon daiteke.

Euskadi mailan, ezberdintasun orokorrez gain, eragin unibariatuak aurkitzen ditugu item guztietan droga, injustiziaren aurkako borroka, bizimodu hobea, begirunea, presoak eta tortura kasuetan izan ezik. Aipatu behar da eragin

unibariatua izan duten item-etan, poliziaren irudian izan ezik, abertzaleak izan direla altuago puntuatu dutenak.

Bake ezari buruzko azalpenetan ere, ezberdintasun esanguratsu orokorra aurkitu dugu, ideologia abertzalekoek bake eza arrazoi egituraletan kokatu duten bitartean, ez abertzalekoek arrazoi psikologiko eta biologiko kokatu bait dute.

Jarrera mailan, ezberdintasun esanguratsuak eman dira orokorrean eta maila unibariatuan bi lehenengo faktoreetan, honek ideologia politikoaren kasuan bezalaxe, bi taldeen irudikapen sozialean biolentzia kulturala isladatzen duelarik.

Aldaketa egituralei buruzko jarreratan, abertzaleek adostasun maila handiagoa adierazi dute, ez abertzaleen adostasuna baxuagoa izanik. Zentzu honetan esan daiteke abertzaleek sistemaren berregituraketan oinarrituriko bake bat nahi dutela (Galtung, 1990), zentzu honetan bake kulturala adieraziko luketelarik. Ez abertzaleak, ordea, egitura mailako aldaketarik ez dute onartzen eta zentzu horretan bere uste sistematan biolentzia egon zitekeela esan dezakegu.

# 3.8. GATAZKA EUSKAL HERRIAN

Jarraian laginak gatazkari buruz azaldutako emaitzak deskribatzen dira.

a.- "Bestea": Lehenik eta behin, subjektuek beraiekin gatazkan dauden "besteak" (talde ala pertsonak) aztertuko ditugu.

3.8.1. TAULA

| | N | % |
|---|---|---|
| NAEMeko PARTAIDEAK | 51 | 13,2 |
| PAKTOko PARTAIDEAK | 24 | 6,2 |
| FAMILIARRAK | 33 | 8,6 |
| ESPAINIAR/ESKUINDA | 27 | 7 |
| LAGUNAK | 68 | 17,6 |
| NAGUSI/IRAKASLEAK | 14 | 3,6 |
| ESTATU/BERE INSTITU. | 59 | 15,3 |
| BESTE TALDE | 37 | 9,6 |
| PERTSONA ANONIMO | 32 | 8,3 |
| EZ ERANTZUN | 40 | 10,4 |

Ikus daitekenez, subjektuek gatazka duten pertsona/taldea aukeratzerakoan gehien aipatu dituztenak lagunak izan dira -laginaren %17,6-, ondoren Estatua eta bere instituzioak (polizia, Guardia Zibilak,...) eta Nazional Askapenerako Euskal Mugimendua delakoaren erakundeak (ETA, HB,...) hirugarren tokian. Aipatzekoa da 40 subjektuk -%10,4- ez dutela erantzun.

b.- Gatazka hautematua: aldagai honi dagokionez, emaitzek adierazi ziguten gatazka maila hautematu handia dagoela Euskal Herrian ematen diren pertsonarteko eta talde arteko harremanetan. Hain zuzen ere, gatazka hautematuaren batezbestekoa X=7.26 izan zen eta desbiderazio estandarra, berriz SD= 2.63-koa.

c.- Balio ezberdintasun hautematuari buruz, emaitzak honako hauek izan ziren:

3.8.2. TAULA

| | X | Mediana | Moda | EE |
|---|---|---|---|---|
| ADISKIDETASUNA | 6.54 | 7.00 | 7 | 74 |
| MAITASUNA | 6.84 | 7.00 | 5 | 72 |
| ZORIONA | 5.17 | 5.00 | 2 | 72 |
| BERDINTASUNA | 7.04 | 7.00 | 11 | 72 |
| ASKATASUNA | 6.24 | 6.00 | 1 | 73 |
| MUNDU GARBIA | 7.22 | 7.00 | 8 | 74 |
| MUNDU BAKEAN | 6.67 | 7.00 | 5 | 74 |
| GOZAMENA | 5.84 | 5.00 | 1 | 69 |
| ERREALIZAZIOA | 6.22 | 6.00 | 5 | 71 |
| BEGIRUNEA | 6.82 | 7.00 | 10 | 73 |
| SALBAZIOA | 6.45 | 6.00 | 2 | 72 |
| NAZIO SEGURTASUNA | 6.48 | 7.00 | 1 | 67 |

Ikus daitekenez, orohar subjetuek honela hautematen dute bestearen balio hierarkia: lehenengo lekuetan, askatasuna -"self-direction" delako motakoa-, zoriona, gozamena -balio hedonistak-, nazio segurtasuna eta salbazioa -balio kontserbatzaileak- hautematen dituzte. Zerrendaren bukaeran, beriz, begirunea, maitasuna, begirunea eta berdintasuna balio prosozialak kokatzen dituzte.

Emaitza hauek kontutan izanik, balio diferentzia hautematu indizea lortu genuen. Horretarako norberaren balioen eta besteari egotzitakoen arteko koerlazioa (Spearman-en Rho-a delakoa) erabili genuen. Batezbestekoa X=-.141 izan zen eta medianak ere balio berbera lortu zuen. Puntuazioak -1.36tik 1erako tartean ibili ziren. 75 subjektuk ez zioten galdera honi erantzun.


d.- <u>Deslegitimizazioa</u>: Esklusio morala neurtzeko erabili genuen bigarren aldagai honi dagokionez, batezbestekoak honako hauek izan ziren:

3.8.3. TAULA

| | S | SD |
|---|---|---|
| ANIMALI | 4.22 | 2.02 |
| HILTZAILE | 4.49 | 1.92 |
| ZOROA | 4.86 | 1.91 |
| FAZISTA | 4.98 | 1.89 |
| BASATIA | 4.68 | 1.88 |

Ikus daiteken bezala, deslejitimizazio maila oso handia da. Nahiz eta puntuazioak antzekoak izan, badirudi gehien ematen den deslejitimazio mota etiketa politikoen erabilpenari buruzkoa dela -Faszistarena alegia-, ondoren "zoroa" dugularik.

e.- Bestearen ebaluaketa:




Bestearen ebaluaketari buruz, aipatu behar da gehien erabili diren adjetiboak negatiboak izan direla eta hauen artean boterezalea, krudela eta agresiboa. Ondoren arriskutsua, gerrazalea, traidorea, susmagarria, espantsiozalea eta deabruzkoa ditugu. Gutxien erabili diren izenlagunak, berriz, justua eta fidagarria izan dira, biak positiboak izanik.

Hamargarren lekuan kokatzen da lehen izenlagun positiboa, beraz esan daiteke gatazka dugun talde eta pertsona, orohar, oso negatiboki ebaluatzen dela. Aipatu behar da erantzunik eman ez duten sujetuen kopurua oso altua izan dela (Berrogehitamar subjektu inguru).

Laburpen moduan esan dezakegu subjektuek orohar gatazka maila altua hautematen dutela, bere "kontrako"arekiko balio ezberdintasun maila ere handia hautematen dutelarik. Subjektuek bere bizitzaren gidatzat adiskidetasuna, berdintasuna balio prosozialak, askatasuna -norbereko norabidea edo ingeleseraz "self-direction"- eta zoriona balio hedonista aukeratzen zituzten bitartean, "bestea"ren kasuan, honako balio hierarkia hautematen dute: lehenengo lekuetan askatasuna, zoriona eta gozamena balio hedonistak, segurtasun nazionala eta salbazioa balio kontserbatzaileak eta azkenekoetan mundu garbia, begirunea, maitasuna eta berdintasuna balio prosozialak. Aipatu behar da balio prosozial -besteen ongizatearekiko interesa adierazten duten balioak (Schwartz eta Struch, 1989)- eta hedonistei -behar organiko eta hauek asetzearekin zerikusia duen gozamenetik eratorritakoak, (Schwartz, 1992)- emandako garrantziak humanitate maila adierazten dutela esan ohi dela (Schwartz eta Struch, 1989): Honela, kasu honetan bezala, besteari balio prosozialei garrantzi gutxi ematen dien bitartean hedonistei garrantzi handia ematen diela hautematen duen

estereotipazio hau, honekiko antagonismoarekin zerikusia duela esan ohi da (Struch eta Schwartz, 1989).

Deslegitimizazioari eta bestearen ebaluaketari dagokienez, bi kasuetan bestea orokorrean oso negatiboki hautematen dela ikus ahal izan dugu. Aipatzekoa da bestearen ebaluaketaren kasuan lehen izenlagun positiboa hamargarren tokian agertzea.

Guzti hau dela eta, esan dezakegu orohar bestearen irudi nahiko negatiboa dagoela, moralki baztertu eta negatiboki ebaluatzen delarik. Hau, "bestea"ren aurkako biolentzia zuzena erabiltzearen zilegitasuna justifikatzeko erabilia izan daiteken neurrian (Galtung, 1990), biolentzia kulturalaren alde baten islada litzatekela esan daiteke (Gutierrez, 1991).

# 3.9. IDENTITATE GATAZKATSUAK, IDENTITATE SOZIALAREN SALIENTZIA ETA BESTEAREN PERTZEPZIOA ETA EBALUAKETA

Identitate sozialaren salientziak -eta ez taldekidetza soilak- gatazka hautematua, esklusio moral eta bestearen irudia areagotuko dituela dioen gure hipotesia egiaztatzeko, jarraian azaltzen diren bi MANOVA delako azterketa estatistiko burutu genituen.

## 3.9.1. Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta bestearen pertzepzioa eta ebaluaketa

Taldekidetzak berez bestearen ebaluaketan eraginik duen aztertzeko, lehen azterketa bat burutu genuen, honetan aldagai independiente bezala identitate gatazkatsuekiko taldekidetza, hau da, bi

identifikazio eremuen artean (gure kasuan aberri eta estatuaren artean) gatazka bat ematen den identitatea hartu genuelarik.

Aldagai hau, espainiar eta euskaldun taldeekiko taldekidetza sentimenduak eta hauek subjektuentzat duten garrantziaren arabera eratu zen. Bi puntuazio hauek bere artean biderkatuz eta biderkaketaren emaitzak taldeen medianen bidez zatituz, 4 identitate mota lortu genituen: a) Identitate inklusiboa -altu identitate euskaldun zein espainiarrean (N=27)-. b) Identitate esklusibo espainiarra -Identitate Euskaldunean baju eta altu espainiarrean (N=62)-. c) Identitate esklusibo euskalduna -Identitate espainiarrean baju eta altu Euskaldunean (N=164)- eta d) Desdentifikatuak -baju bi identitateetan (N=66)-. Gure ikerketarako identitate gatazkatsuak erabili genituen, b) eta c) identitateak hain zuzen. Aukeraketa honen arrazoia, metodologiari buruzko sailean azaltzen denez, ez dugu berriz errepikatuko.

Menpeko aldagaitzat gatazka hautematua, balio diferentzia hautematua, deslegitimizazioa eta bestearen irudia hartu genituen. Azterketa honen ondorioz ez genuen identitatearen araberako efektu orokorrik aurkitu (Pillais $F_{(1, 205)} = 1.64$; $p = .089$ /). Hori dela eta, esan dezakegu identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak berez ez duela bestearen ebaluaketan eraginik.

a.- Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta gatazka hautematua: Identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak gatazka hautematuan eraginik duen egiaztzeko burutu genuen MANOVA delako azterketak adierazi zigun gatazka hautematu mailan ez dagoela taldekidetzaren eraginik (Pillais $F_{(1, 226)} = .612$; $p = .435$). Batezbestekoei dagokienez, X=7.46-koa izan zen identitate esklusibo euskaldunekoen kasuan eta X=7.13 identitate esklusibo espainiarraren kasuan, beraz, identitate euskaldunekoen kasuan altuxeagoa dela esan daiteke.

b.- Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta balio diferentzia hautematua: aldagai honek balio ezberdintasun hautematuan duen eraginari buruzko emaitzek adierazi ziguten taldekidetzaren ondorioz diferentzia signifikatiboa ematen dela (Pillais $F_{(1, 226)} = 1.27$; $p=.000$). Batezbestekoei dagokienez, identitate euskaldunekoen kasuan X=-0.32 izan zen eta identitate espainiarrekoenean, X=.007. Hori dela eta esan daiteke identitate euskaldun esklusibokoak izan direla balio diferentzia maila handiago batetan hautematen dutenak.

c.- Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta deslegitimizazioa: Esklusio morala neurtzeko erabili genuen bigarren aldagaia honi dagokionez, esan dezakegu ez dagoela taldekidetzaren eragin orokorrik (Pillais $F_{(1, 226)}=1.27$; $p=.275$). Eragin

unibariatuari dagokionez, "faszista" etiketaren kasuan aurkitzen ditugu soilik diferentziak, kasu honetan bestea deskribatzeko etiketa hau gehien erabili dutenak identitate euskaldunekoak izanik. Gogora dezagun etiketa honek besteak norberaren balioak mehatxatzen dituenaren deskripzioa adierazten duela (Bar-Tal, 1989). Identitate esklusibo espainiarrekoek gehien erabilitako etiketa, "zoroa" izan da, honek bestea gizarte-arauen hausle bezala kontsideratzen duela adierazten duelarik.

3.9.1. TAULA

TALDE PERTENENTZIA

| | Euskalduna | Espainiarra | S |
|---|---|---|---|
| ANIMALI | 4.3 | 4.12 | .578 |
| HILTZAILE | 4.6 | 4.18 | .158 |
| ZOROA | 4.88 | 4.72 | .587 |
| FAZISTA | 5.16 | 4.5 | .025 |
| BASATIA | 4.66 | 4.5 | .572 |

d. - <u>Identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta bestearen ebaluaketa</u>: ikus daiteke ez dagoela ez eragin orokor esanguratsurik (Pillais $F_{(1, 226)}$= 1.07; p = .380) ez eta unibariaturik ere.

Batezbetekoei dagokionez, bi taldeek bestea oso negatiboki ebaluatu arren -identitate espainiarraren kasuan bestea deskribatzeko lehen izenlagun positiboa zortzigarren lekuan eta

identitate euskaldunekoen kasuan hamargarren tokian aurkitzen dugula kokaturik esatea besterik ez dago- identitate esklusibo euskaldunekoak lirateke besteago negatibokiago ebaluatzen dutenak.

3.9.2. TAULA

TALDE PERTENENTZIA

| | Euskalduna | Espainiarra | S |
|---|---|---|---|
| AGRESIBOA | 7.12 | 7.36 | .607 |
| KRUDELA | 6.9 | 7.28 | .438 |
| PRESTUA | 3.58 | 3.53 | .907 |
| DEMOKRAZI. | 3.36 | 2.98 | .325 |
| DEABRUZKOA | 5.7 | 4.91 | .120 |
| EXPANTSIOZALEA | 5.7 | 4.93 | .119 |
| ADISKIDETSUA | 3.44 | 3.30 | .741 |
| UTZIA | 4.75 | 4.81 | .897 |
| LANGILEA | 4.51 | 4.67 | .740 |
| JUSTUA | 2.73 | 2.77 | .897 |
| ARRISKUTSUA | 6.34 | 4.72 | .338 |
| JATORRA | 3.02 | 4.5 | .468 |
| GARBIA | 4.14 | 4.18 | .630 |
| ABERTZALEA | 5.07 | 4.72 | .246 |
| BOTEREZALEA | 7.90 | 4.5 | .399 |
| ADIMENTSUA | 5.27 | 4.12 | .916 |
| SUSMAGARRIA | 6.16 | 5.87 | .579 |
| TRAIDOREA | 6.42 | 6 | .420 |
| FIDAGARRIA | 2.54 | 2.53 | .967 |
| GUDAZALEA | 5.65 | 6.46 | .438 |

Laburbilduz esan dezakegu identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak ez duela berez bestearen ebaluaketa negatiboan inongo eraginik.

## 3.9.2. Identitate sozialaren salientzia eta bestearen pertzepzioa eta ebaluaketa

Identitate sozialaren salientziak gatazka hautematua, esklusio morala eta bestearen irudi negatiboa areagotzen dituela dioen gure hipotesia egiaztatzeko aldagai independiente bezala Identitatearen salientzia erabiliz burutu genuen MANOVA azterketak, efektu orokor multibariatu signifikatibo bat eman zigun emaitza bezala (Pillais $F_{(1, 271)} = 3.15$; p= .000), identitate sozialak arestian aipatzen genuen prozesu negatiboari eragiten ziola dioen gure hipotesia egiaztaturik geratu zelarik.

Salientzia honek gatazka hautematua, deslegitimizazioa, balio diferentzia hautematua eta bestearen ebaluaketa aldagaietan duen eraginari dagokionez, emaitzak honako hauek izan ziren:

a.- Identitate sozialaren salientzia eta gatazka hautematua: eragin signifikatiboa ematen da identitate sozialaren salientziaren eraginez (Pillais $F_{(2, 332)} = 23.61$; p=.000) aldagai honetan. Batezbestekoak X=8.05 identitate sozialaren kasuan eta X=6.41 indibidualarenean izan ziren, honen arabera gatazka hautematua identitate sozialaren salientziarekin areagotzen delarik.

c.- Identitate sozialaren salientzia eta balio diferentzia hautematua: aldagai honi dagokionez, eragin esanguratsua aurkitu genuen azpimarratutako identitatearen arabera (Pillais $F_{(1,332)}=10.23$; $p=.002$). Batezbestekoei dagokienez, $X=-.36$ identitate sozialaren kasuan eta $X=-.07$ identitate indibidualarenean izan ziren, beraz esan dezakegu subjektuek balio diferentzia handiagoa hautematen dutela identitate soziala azpimarratzen zaienean.

d.- Identitate sozialaren salientzia eta deslegitimizazioa: Esklusio morala neurtzeko erabili genuen bigarren aldagaiari dagokionez aurkitu genuen identitate sozialaren salientziak eragin orokorra zuela (Pillais $F_{(2,327)}=10.21$; $p=.000$), item guztietan ere eragin unibariatua zuelarik. Batezbestekoak begiratuz, identitate sozialaren salientziak deslegitimizazioaren bateztestekoak igotzea suposatzen duela, hau da, deslegitimizazio maila areagotzen duela esan daiteke.

Etiketei dagokionez, ikusten dugu identitate sozialaren kasuan subjektuek maila handiago batetan erabilitako etiketa faszista izan dela, esan bezala etiketa honek besteak norberaren balioak mehatxatzen dituenaren deskripzioa adierazten duelarik (Bar-Tal, 1989). Identitate indibidualaren kasuan, berriz, zoroa etiketa izan da maila altuena lortu duena, honek bestea arau sozialen hausle bezala hautematea isladatzen duelarik.

3.9.3. TAULA

AZPIMARRATUTAKO IDENTITATEA

| | I.SOZIALA | I.INDIBIDUALA | S |
|---|---|---|---|
| ANIMALI | 4.79 | 3.62 | .000 |
| HILTZAILE | 5.02 | 3.72 | .000 |
| ZOROA | 5.11 | 4.50 | .008 |
| FAZISTA | 5.59 | 4.17 | .000 |
| BASATIA | 5.12 | 4.08 | .000 |

e. - Identitate sozialaren salientzia eta bestearen ebaluaketa:

3.9.4. TAULA

AZPIMARRATUTAKO IDENTITATEA

| | I.SOZIALA | I.INDIBIDUALA | S |
|---|---|---|---|
| AGRESIBOA | 7.84 | 6.39 | .000 |
| KRUDELA | 7.84 | 5.88 | .000 |
| PRESTUA | 3.10 | 4.66 | .000 |
| DEMOKRAZI. | 2.7 | 4.36 | .000 |
| DEABRUZKOA | 5.7 | 4.62 | .000 |
| EXPANTSIOZALEA | 5.57 | 5.42 | .686 |
| ADISKIDETSUA | 2.74 | 4.60 | .000 |
| UTZIA | 4.49 | 4.67 | .600 |
| LANGILEA | 3.74 | 5.63 | .000 |
| JUSTUA | 2.3 | 3.63 | .000 |
| ARRISKUTSUA | 7.33 | 4.85 | .000 |
| JATORRA | 2.27 | 4.43 | .000 |
| GARBIA | 3.14 | 5.73 | .000 |
| ABERTZALEA | 4.37 | 5.48 | .008 |
| BOTEREZALEA | 8.02 | 7.06 | .006 |
| ADIMENTSUA | 4.85 | 5.90 | .002 |
| SUSMAGARRIA | 6.88 | 4.72 | .000 |
| TRAIDOREA | 6.9 | 4.97 | .000 |
| FIDAGARRIA | 2.21 | 3.67 | .000 |
| GUDAZALEA | 6.7 | 5.19 | .000 |

Taula honetan ikus daiteke negatiboago ebaluatzen dela bestea identitate soziala

azpimarratzen denean, identitatearen salientziak eragin orokor esanguratsua izanik (Pillais $F_{(2,327)}=5.38$; p= .000). Signifikazio unibariatuei dagokienez, 3.9.4. taulan ikus daitekenez, expantsiozalea eta utzia itemetan izan ezik, beste guztietan ematen da.

Identitate indibidualaren salientziaren kasuan bestea deskribatzeko gehien erabili diren izenlagunak boterezlaea, agresiboa, argia, krudela, garbia eta langilea izan dira. Sei hauetatik, hiru positiboak dira.

Identitate soziala azpimarratzean bestea deskribatzeko gehien erabilitako izenlagunak, ordea, boterezalea, agresiboa, krudela, arriskutsua, traidorea, susmagarria, gerrazalea, expantsiozalea, deabruzkoa eta argia izan dira. Ikus daitekenez, hamargarren tokian kokatzen da lehen izenlagun positiboa. Guzti hau dela eta, esan dezakegu negatiboago ebaluatzen dela bestea identitate soziala azpimarratzen denean.

Konklusio bezala, zera esan dezakegu: azaldutako emaitzek gure hipotesia egiaztatu dutela, ikusi dugun bezala, identitate gatazkatsuekiko taldekidetzak ez bait ditu gatazka hautematua, esklusio morala eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotzen. Honen ondorioz esan dezakegu identitate sozialaren bidez egindako egoeraren kontextualizazioak bestearen pertzepzioan biolentzia kultural maila erabat areagotzen duela.

# 3.10. IDENTITATE GATAZKATSUEKIKO TALDEKIDETZA, IDENTITATE SOZIALAREN SALIENTZIA ETA BESTEAREN PERTZEPZIO ETA EBALUAKETAN.


Gatazka hautematua, esklusio morala eta bestearen ebaluaketa negatiboaren polarizazioan Identitate sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzio bat ematen dela dioen gure hipotesia egiaztatzeko, berriro ere MANOVA delako analisia burutu genuen, aldagai independientetzat aipaturiko interakzioa hartuz. Emaitzek gure hipotesia egiaztatu zuten, efektu orokorra signifikatiboa izan bait zen (Pillais $F_{(2, 205)}=1.65$; $p=.026$).

a.- <u>Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina gatazka hautematuan</u>: Lorturiko batezbestekoetan aditasuna jartzen badugu, ikusten dugu bi kasuetan gatazka hautematua identitate sozialaren

salientziarekin areagotzen dela. Bestalde, bi taldeetan identitate sozialaren salientziak emandako puntuaziak konparatzen ba ditugu, ikusiko dugu ez dela diferentzia handirik ematen.

**3.10.a. Irudia**

Gatazka Hautematua Identitatearen Salientziaren arabera




Identitate indibidualaren kasuan, berriz, batezbestekoek adierazten digutenez, identitate euskaldun esklusibokoak dira gatazka maila handiagoa hautematen dutenak. Interakzioaren eragin orokorra esanguratsua izan zen (Pillais $F_{(2, 205)}=11.43$; $p=.000$).

b.- <u>Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina balio</u>

ezberdintasun hautematuan: emaitzak honako hauek izan ziren:

3.10.1. TAULA

TALDEKIDETZA

| | EUSKALDUNA | | ESPAINIARRA | |
|---|---|---|---|---|
| | I.SOZ. | I.IND. | I.SOZ. | I.IND. |
| BALIO DIFEREN. | -.44 | -.17 | -.09 | 0.23 |

Esklusio morala neurtzeko erabili genuen lehen aldagai honi dagokionez, esan daiteke hemen ere aurrekoan gertatutakoa errepikatzen dela, hau da, bi taldeetako subjektuek balio diferentzia gehiago hautematen dutela identitate soziala azpimarratzen zaienean. Bestalde aipatu behar da identitate esklusibo euskaldunekoek gehiago hautematen dutela balio diferentzia identitate esklusibo espainiarrekoak baino. Hala ere, interakzioaren eragin orokorra oso ahula izan zen (Pillais $F_{(2, 221)}=11.43$; p=.081).

c.- Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina deslegitimizazioan: Esklusio morala neurtzeko erabili genuen bigarren aldagaiari dagokionez - Deslegitimizazioari alegia-, batezbestekoak begiratzen ba ditugu, ikusiko dugu bi taldeetan identitate sozialaren salientziak deslegitimizazioa areagotzen duela. Identitate sozialaren salientziaren kasuan bi taldeen batezbestekoak

konparatzen ba ditugu, ikusten dugu identitate esklusibo euskaldunekoek gehiago deslegitimizatzen dutela identitate esklusibo espainiarrekoek baino. Kasu honetan interazkioaren eragina esanguratsua izan zen ( $F_{(2, 221)} = 5.15$; p=.000).

3.10.2. TAULA

TALDEKIDETZA

| | EUSKALDUNA | | ESPAINIARRA | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | I.SOZ. | I.IND. | I.SOZ. | I.IND. | S |
| ANIMALI | 3.89 | 2.66 | 3.32 | 2.92 | .012 |
| HILTZAILE | 4.17 | 2.97 | 3.84 | 2.52 | .000 |
| ZOROA | 3.91 | 3.86 | 3.76 | 3.68 | .819 |
| FASZISTA | 4.69 | 3.57 | 3.80 | 3.20 | .003 |
| BASATIA | 4.15 | 3.15 | 3.80 | 3.20 | .000 |

Batezbesteko altuenak lortu dituzten etiketei dagokienez, ikus daitekenez identitate esklusibo euskaldunekoek, identitate soziala azpimarratu zaienean maila altuago batetan erabili duten etiketa Faszistarena - besteak norberaren balioak mehatxatzen dituenaren deskripzioa adierazten duelarik (Bar-Tal, 1989)- izan dela, identitate indibidualaren kasuan zoroa izan delarik -esan bezala,honek bestea arau sozialen hausle bezala hautematea isladatzen du-. Identitate esklusibo espainiarrekoen kasuan eta identitate soziala azpimarratzerakoan, hiltzaileak etiketa erabili dute -taldea gizartean onartezinak diren eta oso negatiboak diren ezaugarrien jabe dela adierazten dituen etiketa (Bar-Tal, 1989)- eta identitate indibidualaren kasuan zoroa.

d.- Identitate Sozialaren salientzia eta talde pertenentziaren arteko interakzioaren eragina bestearen ebaluaketan:

3.10.3. TAULA

TALDEKIDETZA

| | EUSKALDUNA | | ESPAINIARRA | |
|---|---|---|---|---|
| | I.SOZ. | I.IND. | I.SOZ. | I.IND. |
| AGRESIBOA | 7.64 | 6.51 | 8.4 | 6.29 |
| KRUDELA | 7.58 | 6.10 | 8.36 | 6.16 |
| PRESTUA | 3 | 4.25 | 3.12 | 3.95 |
| DEMOKRAZI. | 2.73 | 4.10 | 2.28 | 3.70 |
| DEABRUZKOA | 6.1 | 5.24 | 4.68 | 5.16 |
| EXPANTSIOZALEA | 6.12 | 5.18 | 4.28 | 5.62 |
| ADISKIDETSUA | 2.81 | 4.18 | 2.88 | 3.75 |
| UTZIA | 4.59 | 4.98 | 4.68 | 4.95 |
| LANGILEA | 3.78 | 5.33 | 3.72 | 5.66 |
| JUSTUA | 2.14 | 3.42 | 2.52 | 3.04 |
| ARRISKUTSUA | 7.12 | 5.53 | 7.88 | 3.66 |
| JATORRA | 2.20 | 3.97 | 2.36 | 4.37 |
| GARBIA | 3.02 | 5.28 | 3.4 | 5.33 |
| ABERTZALEA | 4.66 | 5.59 | 3.48 | 5.33 |
| BOTEREZALEA | 8.27 | 7.45 | 7.92 | 7.08 |
| ADIMENTSUA | 5.12 | 5.42 | 5.32 | 5.33 |
| SUSMAGARRIA | 7.04 | 5.19 | 7.12 | 4.58 |
| TRAIDOREA | 7.25 | 5.51 | 6.32 | 5.66 |
| FIDAGARRIA | 1.93 | 3.25 | 2.6 | 2.45 |
| GUDAZALEA | 6.4 | 4.78 | 7.84 | 5.04 |

Kasu honetan esan behar da interakzioak eragin esanguratsu orokorra izan duela (Pillais $F_{(2, 221)} = 3.69$; $p = .000$), eragin unibariatuei dagokionez deabruzkoa, expantsiozalea, argia, boterezalea eta fidagarria izan ezik, beste guztietan aurkitzen dugularik.

Ikus daiteke bi taldeek negatiboago ebaluatzen dutela bestea identitate soziala azpimarratzen

zaienean, hori dela eta interakzioak biolentzia kultural maila areagotzen duela esan dezakegularik.

Batezbestekoetan aditasuna jartzen badugu, ikusiko dugu identitate esklusibo espainiarrekoek gehiago erabili dituztela agresiboa, krudela eta gerrazalea izenlagunak. Identitate esklusibo euskaldunekoek, ordea, deabruzkoa, traidorea, expantsiozalea eta boterezalea izenlagunak erabili dituzte.

Orain arte esandako guztiaz laburbilduz honako hau esan dezakegu: identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta identitate sozialaren arteko interakzioak gatazka hautematu maila, deslegitimizazioa eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotzen dituela, honen ondorioz, honek bakearen dimentsio kulturalean eragin negatiboa duela esan dezakegularik.

# 3.11. IDENTITATEAREN SALIENTZIA, GATAZKA HAUTEMATUA, BALIO EZBERDINTASUN HAUTEMATUA, DESLEGITIMIZAZIOA ETA BESTEAREN EBALUAKETA ALDAGAIEN ARTEKO HARREMANA


Azkenik, aldagaien arteko zeharkako harremana eta harreman zuzenetan sakontzeko, datuei "Análisis de Ecuaciones Estructurales" (EQS) delako azterketa egin genien, azterketa honek honako harremanak hauek eman zituelarik: (Bentler Bonnet Fit Index = 0.96; X = 10.35; p = 0.11):

1.3.a. irudian ikus daiteken bezala, aldagaien arteko harremana guk egindako aurresanen arabera eman zen. Honela, alde batetik, identitate sozialaren salientziak eragin zuzena du bai deslegitimizazioan, bai balio ezberdintasun hautematuan eta bai bestearen ebaluaketan ere.

Bestalde, identitate soziala azpimarratzean, gatazka hautematua areagotu egiten da, honek ere eragin zuzena zein zeharkakoa -deslegitimizazioa eta balio ezberdintasun hautematuaren bitartez- duelarik bestearen ebaluaketan.

Besteari egozten zaizkion ezaugarriei dagokienez, aipatu behar da identitate esklusibo espainiarreko subjektuek agresibitatea adierazten duten izenlagunak -agresiboa, arriskutsua, gerrazalea eta krudela- egotzi dizkietela bere etsaiei, identitate esklusibo euskaldunekoek, berriz, botere maila ezberdinetako harreman bateko alde negatiboak adierazten dituzten izenlagunak -deabruzkoa, expantsiozalea, traidorea eta boterezalea- egotzi dizkiete bere etsaiei.

**1.3.a. Irudia**



# IV. KAPITULUA

# KONKLUSIO OROKORRAK

Ezer baino lehen eta ikerketa hau testuinguratzeko, honako hiru gaiei buruzko zenbait burutazio egin nahi ditugu: ikerketa-objektua, emaitzen orokorpena eta lan hau burutu deneko testuinguru soziopolitikoari buruzkoak alegia.

Lehenengo gaiari buruz, hau da, ikerketa-objektuari buruz, bakearen dimentsio kulturala orain arte ikertu gabe zegoen eremu bat zenez gero, aipatu nahi dugu zailtasun handiak izan ditugula ikerketa burutzeko orduan. Honen ondorioz, gai honi buruz idatzita dauden lan urriak aurkitzea ez zaigu batere erraza izan, emaitzen eremu teoriko interpretatiboak aurkitzeko garaian zailtasun hauek areagotu egin direlarik.

Emaitzen orokorpenari buruz, azpimarratu behar dugu jarraian aurkeztuko diren ideien

bidez, bakeari buruzko ikerketan eta gizarte psikologiaren eremuan garrantzia handia duten zenbait idazle ezagunen (Curle, Galtung, Moscovici, Tajfel,...) garapen teorikoetatik abiatuz bake-prozesuak eta prozesu psikosozial aplikatuen artean uztardura bat egin dugula. Berauen generalizazioarako beharrezkoa izango litzateke gai honetan gehiago sakontzea.

Esan bezala, burutazio hauetatik azkena, lan hau inguratzen duen testuinguru soziopolitikoari buruzkoa da. Zentzu honetan, aipatu behar dugu konklusioak ateratzeko garaian, hego Euskal Herrian egun, lan honetan ikertzen den biolentzia kulturalaz gain, gatazka soziopolitikoarekin zerikusia duten bi biolentzia mota ematen direla:

(1) **Estatuak erabiltzen duen biolentzia egiturala:** Espainiar Konstituzioaren bigarren artikuluak textualki honela dio: *"La Constitución se fundamenta en la Indisoluble unidad de la Nación Española, patria común e indivisible de todos los españoles"*. Espainiar aberriaren zatiezintasuna azpimarratzen duen artikulu honek, estatua osatzen duten nazioei -edo "aberri bat osatzen dutela sentitzen duten pertsona multzo"- ei (Emerson, 1960)-, herri orok duen autodeterminazio eskubidea ukatzen die. Eskubide honen ukapenarekin, herritargoekiko estatuaren menperaketa eta inposaketa egoera bat ematen da eta, zentzu honetan, biolentzia egiturala dagoela esan daiteke (Curle, 1971).

(2) **Biolentzia zuzena:** Euskadin garatzen den gatazka soziopolitikoarekin zerikusia duen

biolentzia zuzena, batez ere honako bi eragilek erabiltzen dute:

a) Alde batetik, espainiar estatuak: bota diezaiogun berriz ere begirada bat Espainiar Konstituzioari, zeinaren zortzigarren artikuluak honela dioen: *"Las Fuerzas Armadas (...) tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, así como su integridad territorial"*. Artikulu honetan ikus daitekenez, Espainiaren subiranotasuna eta lurralde-batasuna defendatzeko, Konstituzioak armadaren bitartez biolentzia zuzena erabiltzea onartzen du -betebehar honetarako Estatuko Segurtasun Indarrak erabiltzen dituen arren.

b) Bestalde ETA erakunde armatuak erabiltzen duen biolentzia zuzena: erakunde honen helburu taktikoa Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea lortzea da, hemendik abiatuz Euskal Herria independiente eta sozialista bat eraikitzeko. ETA-ren ustez, *"espainiar estatuaren interes ekonomikoen, militarren, poitikoen zein diplomatikoen aurkako biolentzia armatuak Euskal Herriaren subiranotasun osoa lortzeko beharrezko elementua izaten jarraitzen du"*. Hala ere, *"argi dago borroka armatuak bere soilean ez dituela lortuko eskuratu nahi ditugun helburuak, baina, aldi berean, begibistakoa da borroka politiko hutsaren bidetik eta borroka armaturik gabe gure herriarenak*

*egin zuela honez gero"* (erakunde armatuaren buruzagitzak **"EGIN"** egunkariari 1991. urtean eskeini eta urte bereko abenduaren zortzi eta bederatzian egunkari honetan argitaratutako elkarrizketa).

Burutapen hauek egin ostean, gogorarazi dezagun ikerketa honen helburu orokorra, aldagai eta prozesu batzuren eraginez, euskaldunen uste sistema eta pertzepzio eta ebaluaketetan bake zein biolentzia kulturalaren elementuak aurki zitezkeen ikertzea eta, hala bada, hauek definitzea zela. Honekin batera talde bakoitzak biolentzia zuzena zein egiturala justifikatzeko erabiltzen dituen mekanismoak aztertzea zen. Horretarako gure herriaren kultura politikoaren bi alde garrantzitsu aukeratu genituen -bakeari buruzko uste sistemak eta exotaldeari buruzko pertzepzioak eta ebaluaketak-, eta hauei buruzko zenbait teorietatik abiatuz, gure helburu orokorrerako baliagarriak diren konklusioak ateratzen lagundu diguten hipotesiak planteatu genituen.

Burututako azterketa estatistikoek, orohar, proposaturiko hipotesiak berresteaz gain, zenbait aldagaien arabera -identitate gatazkatsuekiko taldekidetza, ideologia politikoa, ideologia abertzalea- taldekaturiko euskaldunen uste sistema eta pertzepzioetan bake, zein biolentzia kulturalaren adibideak zeudela baieztatu ziguten. Behin amaierara iritsi eta gero, jarraian emaitzetatik abiatuz egoki iruditu zaizkigun konklusioak aurkeztera pasako gara.

a) Bakearen definizioa Euskadin:

Subjektuen bakeari buruzko irudi, jarrera, emozio eta azalpen ezberdinak dimentsio positibo eta negatibotan oinarrituriko uste sistema batetik abiatzen direla zioen lehen hipotesiari dagokionez, aldagaien "Cluster" delako azterketarengatik baieztaturik gelditu zen. Azterketa honek, ondo bereizturiko bi dimentsio eman zituen. Lehenengoa, bakearen definizio positibotzat har ditzakegun honako elementuez osaturik zegoen: emozio positiboak, kanpo-azalpenak, bakeak Euskal Herri mailan suposatuko lituzkeen aldaketa soziopolitikoei buruzko irudiak, ekologia, elkartasuna, innobazioa, justizia eta askatasunari buruzko irudiak, nazioarte mailako elementu soziopolitikoei buruzko irudiak, ekologiari, justiziari, elkartasunari, aldaketa egituralei, heziketari eta estatu eta minoria mailetan biolentzia erabili beharrean elkarrizketa erabiltzeari buruzko jarrerak. Bigarren dimentsioa, berriz, bakearen definizioa negatibo bezala izendatu ditzakegun elementuez osaturik zegoen: emozio negatiboak, barne-azalpenak eta bakea oztopatzen zuten zenbait elementu soziopolitikoei buruzko irudiak, elementu egituralak, nazioarte eta Euskal Herri mailako elementu soziopolitikoak.

Honela ikusten genuen nola laginak orohar, bake positiboari buruzko irudiak harremandu dizkion bakeari (komunikazioa, lankidetasuna,...) eta maila urriago batetan bake negatiboari buruzkoak (biolentzia, polizia,...). Bake ezaren azalpenei dagokionez, orohar Euskadi mailako bake

eza arrazoi egituralei egotzi diete, batez ere lagina osatzen zuten subjektuek jarrera mailan, jarrera guztiekiko adostasun maila altua adierazi zuten. Emozio mailan, bakeari loturikoak, zoriona eta lasaitasuna emozio positiboak izan ziren. Subjektuak bakea lortzeko mobilizazioetan parte hartzeko prest leudeke.

Emaitza hauei begirada bat bota ondoren, esan daiteke Euskal Herrian dimentsio positibo zein negatiboetan oinarrituriko bake kontzeptzio bat dagoela -hau da, biolentzia zuzena zein egiturala barneratzen dituen bake kontzepzio bat-, eta bakeak subjektuengan emozio positiboak sortzen dituela. Euskaldunek, orokorrean, terminuaren zentzu galtunianoan "benetazkoa" (Galtung, 1982) den bakea nahiko lukete, honek sistemaren berregituraketa bat exigitzen duelarik.

Bake definizio honek estatu barneko zein estatu-arteko zapalkuntza eta ezberdintasun arazoak bakearen funtsezko elementuak direla azpimarratzen du (Pardesi, 1982). Hori dela eta, bakeari buruzko irudikapen sozial honek bake egiturala zein zuzena legitimatzeko balio duela esan daiteke. Zentzu honetan, euskaldunen bakeari buruzko uste sistemen alde hau bakearen dimentsio kulturalaren adibide bat izango litzateke.

b) <u>Identitate gatazkatsuak eta bakeari buruzko irudikapen soziala</u>:

Identitate esklusiboekiko taldekidetzak balio-garrantzia eta bakeari buruzko irudi,

jarrera, emozio eta azalpenetan eragina duela dioen gure hipotesiari dagokionez, hau ere emaitzengatik egiaztaturik gelditu zela esan daiteke, identitate gatazkatsu ezberdinekiko (identitate esklusibo euskalduna eta espainiarra) taldekidetzaren ondorioz, eragin esanguratsua aurkitu bait genuen, bai subjektuen balio-hierarkian eta bai bakearen irudikapen sozialaren edukinean ere.

Egunerokotasun mailako bakeari buruzko irudiei dagokionez, lehen aipaturiko azterketen arabera, ikus ahal izan dugu ez dela eman ezberdintasun esanguratsurik identitatearen arabera; egoera pertsonartekoa dela azpimarratzen denez, ez bait dago inongo taldekidetzarengatik eragindurik. Honen ondorioz, ez da taldekidetzaren arabera egunerokotasun mailako bakearen esanahiaren talde-ideologizaziorik eman.

Honela, bi taldeek pertsonarteko bakea ulermen eta elkartasunean oinarritutako zerbait bezala definitu dute, planteamendu hau Curleren bake definizioarekin bat datorrelarik (Curle, 1971). Definizio honek bake egiturala -menperaketarik eta zapalkuntzarik ez- zein zuzena justifikatzen ditu, hori dela eta, pertsonarteko mailan irudiak bake kulturalaren adibideak direla esan dezakegu.

Euskadi mailako irudietan, ordea, talde bakoitzean, taldearen errealitatearen eta beste taldeekiko gatazken arabera konzeptu sozialak eraikitzea egiten duen irudikapen sozialen izaera dinamikoaren ondorioz (Echebarria, Elejabarrieta,

Perera, Ruiz, Valencia, Villarreal, 1991), irudikapen sozialak testuinguru gatazkatsuaren eragina izan du. Hori dela eta, identitate gatazkatsu ezberdinekiko taldekidetza ezberdinak, Euskadi mailako bake irudietan isladatu dira, non bakearen talde-ideologizazio bat suertatu den eta bakearen ideia ezberdin eta bateraezinak sortu diren.

Honela, identitate esklusibo espainiarreko subjektuentzat, Euskadi mailako bakea bizimodu hobea, begirunea, elkarrizketa/negoziazioa, injustiziaren aurkako borroka eta adierazpen askatasuna irudiei lotuta dago batez ere. Gutxiago, ordea, droga, ETA, independentzia, autodeterminazioa, langabezia eta tortura irudiei. Irudi hauek adierazten digute, alde batetik, subjektu hauentzat Euskadi mailako aldaketa politikoak ez luketela bakearekin zerikusi handirik izango. Bestalde, subjektu hauek ETA-ren biolentzia zuzena ere errefusatzen dutela adierazten dute, nahiz eta estatuak ordena eta legea mantentzeko erabiltzen dituen biolentzia ezberdinak -zuzena, poliziaren bitartez eta egiturala, herrien askatasun nahiaren (Galtung, 1985) adierazgarri den autodeterminazio eskubidea ukatuz- ez errefusatu eta nolabait justifikatu.

Emaitza hauek ikusirik, esan dezakegu estatuarekin identifikatzen diren subjektuen Euskal Herri mailako bake nozio hau, ikerketa korronte minimalistaren bake kontzepzioarekin bat datorrela (Curle, 1971), zeinaren arabera, bakea guda eza eta "status quo"aren mantenimendua

litzatekeelarik. Tradizio greko-erromatarretan oinarriturik dagoen bake nozio honek, ez du egitura mailako aldaketen beharrik ikusten, non, neurri handi batetan, biolentziaren arrazoiak aurkitzen diren. Honen arabera, legea eta ordenaren mantenimendua funtsezkoa litzateke, horretarako defentsa armatua erabiltzea ez litzatekeelarik errefusatuko. Bake konzeptzio hau, estatuaren barne-batasuna ezartzea -biolentzia egiturala- eta ordena mententzeko defentsa armatua erabiltzea -biolentzia zuzena- zilegitzen dituen neurrian, indarkeria kulturalaren adibide bat dela esan dezakegu.

Identitate esklusibo euskalduneko subjektuek, bakeak Euskadi mailako aldaketa politikoen islada diren independentzia eta autodeterminazioa irudiekin zerikusi handia duela hautematen dute. Aldaketa hauek Euskal Herriari ukatzen zaizkion neurrian, Valencia eta Villarreal-ek (1992) burututako ikerketa batetan ikusi zen bezala, injustizia bat ematen dela hautematen dute, hau da, egoera ez dela zilegia. Hori dela eta, ekintza sozialaren bidez egoera hau aldatzea derrigorrezkotzat hatzen dute. Bake nozio honek bakearen dimentsio positiboa -justizia soziala, aldaketa egituralak,...- zein negatiboa -biolentzia eza- barneratzen ditu, eta egoera aldatzeko biolentzia ere zilegi bezala hartuz. Zentzu honetan, bake kontzepzio hau Curlek korronte maximalista iraultzailea izendatzen duen bake kontzepzio berriarekin bat etorriko litzateke. Bake honek egitura aldatzeko biolentzia zuzena zilegitzen duen neurrian, biolentzia kulturala emango litzateke.

Nazioarteko irudiei dagokienez, ezberdintasun esanguratsu orokorra aurkitzen genuen identitate gatazkatsuekiko taldekidetzaren ondorioz. Hau burujabetasuna irudiarengatik izan daiteke, honek, subjektuak murgildurik dauden gatazkarekin zerikusia zuzena izanik.

Ezberdintasun hauek gaindituz, bi taldeek mundu mailako bakea gizarte-berdintasuna eta oreka ekologikoan -ekologiarekin zerikusia duten irudietan- oinarritzen dutela esan daiteke, gosea, guda edo biolentzia bezalako irudi negatiboetan maila baxuago batetan oinarritzen dutelarik. Identitate esklusibo euskalduna dutenek, herrien burujabetasuna irudiak bakearekin duen zerikusia azpimarratzen dute. Guzti hori dela eta, irudi guzti hauek bake zuzena zein egiturala justifikatzen dituzten neurrian, bake kulturalaren alde bat lirateke (Galtung, 1990).

Bake ezaren azalpenei dagokienez, identitate esklusibo espainiarrekoek, bake eza barne-arrazoiei egozteko joera azaldu dute (azalpen biologiko eta psikologikoetan, hain zuzen). Subjektu hauek, talde menperatzailea osatzen dutenez, egoera justua dela hautematen dute (Tajfel, 1983) eta honen ondorioz, egoera negatibo honen zergatia barne-azalpenetan kokatzen dute. Identitate esklusibo euskalduna duten subjektuek, berriz, talde menperatua osatzen dute (Tafjel, 1983) eta, mundua injustua dela uste duten neurrian (Valencia & Villarreal, 1992), egoera negatibo honen arrazoia egituran kokatzen dute (Moscovici, 1984). Emozioei

dagokienez, orohar esan dezakegu bi taldeengan batez ere emozio positiboak -poza, lasaitasuna- sortarazten dituela bakeak.

Azkenik, eta jarrerei dagokienez, aipatu behar da orohar eragin esanguratsua eman dela taldekidetzaren arabera, nahiz eta subjektuek onarpen maila altua adierazi duten jarrera guztiekiko. Hala ere, minoriek biolentzia erabiltzeari buruzko jarreran, identitate esklusibo euskalduna duten subjektuek adierazi duten onarpen maila baxuagoa izan dela ikus ahal izan dugu. Zentzu honetan, eta biolentzia mota hau justifikatzen duten neurrian, biolentzia kulturalaren adibide bat izango litzateke.

Emaitza hauek ikusirik, esan dezakegun orohar, identitate sozialak subjektuen munduari buruzko ikuskapenean eta uste sistemetan eragina duela. Hain zuzen ere, gure kasuan, identitate gatazkatsu ezberdinek, bakearen irudikapen sozial ezberdinak sortu dituzte, hauek bere artean zenbait dimentsiotan ezberdintzen direlarik.

Bakearen irudikapen ezberdin hauek, talde bakoitzean funtzio ezberdinak beteko lituzkete: identitate esklusibo euskalduna duten subjketuek (menperatutako taldea), bere identitate soziala defendatu eta menperaketa egoera aldatzera zuzenduriko ekintza sozialak justifikatzen dituen irudikapen sozial bat garatu dute. Identitate esklusibo espainiarrekoen kasuan, berriz, hauek talde menperatzailea osatzen duten neurrian, bere posizioa legitimatzeko irudikapen sozial bat garatu dute (Echebarria et. al. 1994).

c) Ideologia politikoa eta Bakearen irudikapen soziala:

Laugarren hipotesiari dagokionez, esan dezakegu hau ere egiaztaturik gelditu dela. Emaitzek adierazi digute ideologia politikoaren arabera eragin esanguratsu bat ematen dela bai balio-hierarkian eta bai irudikapen sozialean ere. Honek, dimentsio ideologikoek errealitatearen interpretazioan eta, ondorioz, irudikapen sozialetan eragina duela adierazten du (Moscovici, 1961). Honela, azterturiko ideologiak ezberdinak direnez, irudikapen sozial ezberdinak bilakatu dira.

Bi taldeen balio-hierarkiak guztiz kontrakoak izanik, frogatua geratu zen ideologia politikoak erabateko eragina duela subjektuen balio-hierarkian.

Pertsonarteko mailan bakeari buruzko irudiei dagokionez, egoera pertsonartekoa dela azpimarratzen denez bakearen esanahia ez dago taldekidetzarengatik eragindurik eta horren ondorioz ez dugu eragin esanguratsurik aurkitu, ahula baizik.

Euskadi mailako irudietan, berriz, ezberdintasun orokorrak aurkitzen ditugu. Honela, emaitzen arabera, ideologia eskuindarreko subjektuentzat, autodeterminazioa eta independentzia irudiak zerikusi urriagoa izango lukete bakearekin. Hauek, polizia irudiarekin batera, tarteko mailan lotu dizkiote bakeari. Subjektu hauen aldetik ETAren biolentzia

zuzenaren errefusapena ematen bada ere, ez da gauza bera gertatzen ordena eta legea mantentzeko baliagarria den poliziaren biolentziarekin, beraz, biolentzia kulturalaren adibide baten aurrean aurkitzen garela esan dezakegu.

Ideologia ezkertiarreko subjektuen kasuan, berriz, bakeak Euskadi mailako aldaketa politikoen islada diren independentzia eta autodeterminazioa irudiekin zerikusi handia duela hautematen dute, hauek gizarte-aldaketak ekar bait ditzakete -gogora dezagun independentzia eta sozialismoa sozialki desiratuak diren balioetarikoak direla (Valencia & Villarreal, 1992)-. Aldaketa hauek oraingoz ukaturik dauden neurrian, subjektu hauen iritziz egoera injusto bat emango litzateke, egoera hau aldatzea ezinbestekoa ikusten dutelarik. Zentzu honetan bake egiturala justifikatuko lukete, baina, orohar, ETA irudia bakeari lotzearekin, egoera hau aldatzeko biolentzia zuzena erabiltzea zilegi ikusten dutela isladatzen duen neurrian, biolentzia kulturala emango litzateke.

Nazioarte mailako irudietan eragin orokorra aurkitu dugu ere. Kasu honetan, esan dezakegu ideologia politikoa batez ere testuinguru sozialetan ainguratzen. Oraingoan, bi taldeek bakeari irudi positiboak maila altuan eta negatiboak maila bajuagoan lotuz, biolentzia zuzena zein egiturala justifikatuko lukete eta zentzu honetan bake kulturala emango litzateke. Hala ere, ezkertiarrek mundu guztiaren ongizateagatik kezka adierazten duten izadiaren defentsa, gizarte berdintasuna eta burujabetasuna

irudien garrantzia azpimarratu dutenez, hauen nazioarte mailako bake irudietan bake kultural maila altuagoa izango litzatekeela esan daiteke.

Bake ezari buruzko azalpenetan ere, ezberdintasun esanguratsu orokorra aurkitu dugu. Honela, ideologia ezkertiarrekoek, Euskadi berez injustua den sistema kapitalistaren baitan murgildurik dagoenez, errealitatearen azterketa bat egiten dute, zeinaren arabera bake eza marxismotik eratorritako azalpen egituralaren bidez, egiturari egozten dioten. Honela, egoera negatibo honen ardura Estatuan kokatzen dute eta arazoa kolektiboa den zerbaitetan bihurtzen dute (Villarreal, 1987).

Eskuindarrak, berriz, mundua justua dela hautematen duten neurrian, arrazoi psikologiko, biologiko eta erligiosoetan kokatu dute Euskadi mailako bake ezaren arrazoia. Zentzu honetan, Moscovici-ren hipotesia egiaztaturik gelditzen da, zeinaren arabera gizarte-arazoen arrazoia subjektuengan kokatzea eskuindarren berezitasun bat den, kanpo-arrazoietan kokatzea ezkertiarren ezaugarri bat izanik (Moscovici, 1984).

Ideologiak bakeari buruzko irudikapen sozialean duen eraginarekin amaitzeko, aipatu behar dugu deskribaturiko irudikapen sozialek talde bakoitzaren posizioa eta interesak isladatzen dituzte (Jodelet, 1984). Baieztapen honen adibide gisa, irudikapen sozialaren osagai eta, ondorioz, islada diren jarrerak jarriko ditugu: jarrera mailan adibidez, eskuindarrek estatuaren biolentzia alde batera utzirik,

beraientzat minoriek biolentziarik ez erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu dute. Subjektu hauek, mundua justuaren ustetik abiatzen direnez, (Vala, 1984) gizartearen kontrolaz arduratzen diren agenteek ekintza protestari biolentoen aurka erabiltzen duten errepresio biolentoa ez dute hain biolentotzat hartzen. Honela, subjektu hauek egituren aldaketa bat eman behar dela kontutan izan gabe, minoriek erabiltzen duten biolentzia desagertu arazi nahi dute. Hau dela eta, estatuaren biolentzia egiturala zein zuzena zilegitzen dituzten heinean, biolentzia kulturala ere ematen dela esan dezakegu.

Ezkertiarrek, berriz kontrakoa egiten dute: estatuen biolentzia ezaren garrantzia azpimarratu eta minorien biolentzia eza bigarren maila batetan utzi. Hauentzat mundu kapitalista injustu bezala hautematen duten neurrian, sistemaren aurkako ekintza biolentoak ez dituzte hain biolento bezala hautematen.

d) <u>Ideologia abertzalea eta bakeari buruzko irudikapen soziala</u>:

Hasteko, esan dezakegu ezberdintasunak ematen direla bai balio hierarkian bai irudikapen sozialean ere, ideologia abertzalearen eraginez, honek gure hipotesia egiaztatzen duelarik.

Balioei dagokionez, ikus ahal izan dugu bi taldeen balio-hierarkiak guztiz aurkakoak direla. Hori dela eta, esan dezakegu ideologia abertzaleak, politikoak bezalaxe, erabateko

eragina duela subjektuen balio-hierarkian.

Bakeari buruzko irudiei dagokienez, pertsonarteko irudietan ez dugu ideologia abertzalearen eragin esanguratsurik aurkitzen. Nazioarteko mailan, berriz, bai. Honen arrazoia, bizi dugun gatazkaren ondorioz sentimendu abertzalea lehen maila batera pasatzean eta gizarte-fenomeno orotara hedatzean egon daiteke (Mercadé, 1989).

Euskadi mailako irudietan, emaitzek adierazten zuten ideologia abertzaleak hauetan eragin handia duela. Ideologia ez abertzalea duten subjektuentzat, negoziazioa, injustiziaren aurkako borroka, adierazpen askatasuna, begirunea eta bizimodu hobea lotuko litzaizkioke eta droga, ETA, langabezia, autodeterminazioa eta independentzia irudiek zerikusi urriagoa izango lukete bakearekin. Polizia irudia, tarteko mailan harremandu diote bakeari.

Hori dela medio, esan dezakegu subjektu hauek egungo egitura mantentzearen aldekoak direla, honen arabera Espainiaren zatiezintasuna ukaezinzezkoa izanik. Subjektu hauek ez lukete autodeterminazio eskubidearen ukapenean eta egitura mantentzeko estatuak erabiltzen duen biolentzia polizialean biolentziarik ikusiko. Zentzu honetan, biolentzia kulturala izango litzateke (Galtung, 1990).

Ideologia abertzalea duten subjektuek, berriz, bakeak aldaketa egiturala isladatzen duten independentzia eta autodeterminazioa

irudiekin zerikusi handia duela hautematen dute. Hauek oraingoz ukatzen direnez, subjektu hauen ustetan egoeran zilegitasun eza ematen da (Valencia & Villarreal, 1992) eta egoera hau aldatzea ezinbestekoa dela iruditzen zaie. Zentzu honetan bake egiturala justifikatuko lukete, baina, orohar, ETA irudia bakeari lotzearekin batera, egoera hau aldatzeko biolentzia zuzena erabiltzea zilegi ikusten dutela erator daiteke eta zentzu honetan biolentzia kulturala emango litzateke.

Nazioarteko mailan, bi taldeek bakearen irudia bai dimentsio positiboetan bai negatiboetan oinaritzen dute, bake zuzena zein egiturala justifikatzen dituztelarik. Guzti honengatik nazioarteko mailan bi taldeetako subjektuen bakeari buruzko uste sistematan bake kulturala ematen da.

Euskadin dagoen bake ezari buruzko azalpenei dagokienez, ideologia abertzalea duten subjektuek, esan bezala, egoera hau ilegitimotasuna hautematen dute. Hori dela eta, azalpen egiturala aukeratzen dute batez ere, zeinaren arabera erantzunkizuna estatuari leporatzen dioten. Ideologia ez abertzalea duten subjektuek, berriz, egoera bidezko bezala pertzibitzen dute, eta bake eza barne azalpenei -arrazoi psikologiko eta biologikoei- esleitzen diete. Honela, egoera negatiboaren erantzule bezala euskaldunak hartzen dituzte, joera hau estatus menperatzaileko taldeetan emanez (Moscovici, 1984).

Emozio mailan, ideologia abertzalearen eragin ahul bat aurkitu dugu emozio positiboetan, zeinak subjektu abertzaleen artean bakearekin erlazionatuagoak azaltzen diren.

Jarrerei dagokienez, idelogia abertzalea dutenak izan dira bake nozio positiboa zein negatiboari buruzko jarrerak integratzen dituen lehenengo faktorearekiko -bake maximalista- adostasun maila altuagoa adierazi dutenak. Honek minoriengatik biolentziarik ez erabiltzea barneratzen ez duenez, esan dezakegu bake egiturala ez ezik biolentzia zuzena ere justifikatzen dituela. Zentzu honetan, biolentzia kultural baten exenplu bezala interpretatu daiteke.

Subjektu ez abertzaleen kasuan, hauek beraien onarpena azaltzen zuten bigarren faktorearekiko, zeina minorien aldetik biolentzia ez erabiltzeari dagokion jarrera eta bakerako heziketa eta izadiaren defentsaren aldeko jarrerek -hau ekarpen negatiboz- osatzen duten. Faktore honetan, estatuek erabiltzen duten biolentziaren aurkako jarrerarik ez da azaltzen, beraz, nolabait, justifikatua geratzen da.

Aurkeztu ditugun irudikapen sozialetan ideologia abertzaleari lotzen zaizkion zenbait faktore psikosozial isladatu dira: identitate nazional bat sortzeaz gain, talde nazionalaren etsaiak -subjektu hauen ustez egoera ilegitimoaren erantzule den esapiniar estatua- eta eskubideak -autodeterminazio eta independentzia eskubideak- ezarri ditu. Honela,

helburutzat egoera aldatzea duen kontzientzia bat sortu da (Valencia, Villarreal, 1992), horretarako biolentzia zuzenaren eralbilpena baztertzen ez delarik.

e) Bestearen pertzepzioa:

Bestearen pertzepzioari dagokionez, biolentzia kulturalaren elementuak aurkitzea posible zela planteiatzen genuen. Aipatu behar da orohar bestearen pertzeptzioa nahiko negatiboa dela eta honek arestian aipatzen genuen planteiamentua zuzena dela adierazten digu.

Bestearen balio-hierarkiari buruz, esan dezakegu subjektuek bere "kontrako"arekiko balio ezberdintasun maila handia hautematen dutela. Subjektuek bere bizitzaren gidatzat adiskidetasuna, berdintasuna balio prosozialak, askatasuna -norbere norabidekoa edo ingeleseraz "self-direction" (Schwartz, 1992)- eta zoriona balio hedonista aukeratzen zituzten bitartean, "bestea"ren balio hierarkia hautematuaren kasuan, honako balio hierarkia ematen da: lehenengo lekuetan askatasuna, zoriona eta gozamena balio hedonistak, segurtasun nazionala eta salbazioa balio kontserbatzaileak eta azkenekoetan mundu garbia, begirunea, maitasuna eta berdintasuna balio prosozialak.

Aipatu behar da balio prosozialei -besteen ongizatearekiko interesa adierazten duten balioak (Schwartz eta Struch, 1989)- eta hedonistei -behar organiko eta hauek asetzearekin zerikusia

duen gozamenetik eratorritakoak, (Schwartz, 1992)- emandako garrantziak humanitate maila adierazten duela esan ohi dela (Schwartz eta Struch, 1989): honela, bestearen balio hierarkian balio prosozialei garrantzi gutxi ematen zaien bitartean, hedonistei garrantzi handia ematen zaiela hautematen duen bestearen estereotipazio hau, honekiko antagonismoarekin zerikusia duela esan ohi da (Struch eta Schwartz, 1989).

Deslegitimizazioari eta bestearen ebaluaketari dagokienez, bi kasuetan bestea orokorrean oso negatiboki hautematu eta ebaluatzen dela ikus ahal izan dugu. Aipatzekoa da bestearen ebaluaketaren kasuan lehen izenlagun positiboa hamargarren tokian agertzea.

Guzti hau dela eta, esan dezakegu orohar bestearen irudia nahiko negatiboa dela, moralki baztertu eta negatiboki ebaluatzen delarik. Hau, "bestea"ren aurkako biolentzia zuzena erabiltzearen zilegitasuna justifikatzeko erabilia izan daitekeen neurrian (Galtung, 1990), biolentzia kulturalaren alde baten islada litzatekeela esan daiteke (Gutierrez, 1991).

f) <u>Identitate esklusiboekiko taldekidetza, identitate sozialaren salientzia eta beraien ondorioak bestearen ebaluaketan</u>:

Identitate sozialaren salientziak -eta ez taldekidetza soilak- gatazka hautematua, esklusio moral eta bestearen irudia areagotuko dituela dioen gure seigarren hipotesia egiaztatzeko

burututako bi MANOVA analisi estatistikoek adierazi ziguten planteamentu hau zuzena zela; ez bait genuen ezberdintasun orokor esanguratsurik aurkitu taldekidetzaren eraginez, bai, ordea, identitate sozialaren salientziaren eraginez.

Honi dagokionez, aipatu nahi dugu identitate indibidualaren kasuan balio diferentzia hautematua eta deslegitimizazio mailak nahiko altuak badira ere, hauek, teoriari dedikaturiko atalean azaldu dugun prozesu sozialaren eraginez -komunikazioa pobretzea, etsai-jarrerak, estereotipo negatiboak eta ezberdintasunekiko hipersentiberatasuna-. erabat areagotzen direla identitate sozialaren salientziarekin. Identitate sozialaren salientziak bestearen irudi bihurtua areagotzen duen neurrian, bihurturiko pertzeptzio honek biolentzia kultural maila areagotu egingo luke, pertzeptzio bihurtu desgizakor honek bestearen aurkako agresioak justifika bait ditzake (Gutierrez, 1991).

Gure hipotesia egiaztatzeaz gain, datuek bestearen irudian biolentzia kulturala ematen dela adierazi digute bai identitate esklusibo euskaldunekoen bestearen pertzepzioan eta bai espainiarrarenean ere, bietan esklusio morala -balio desberdintasun hautematua eta deslegitimizazioa- eta ebaluaketa negatibo maila oso altua izan bait dira.

Bestalde, zazpigarren hipotesiari dagokionez, ikus ahal izan dugu ere taldekidetza eta identitate soziala azpimarratzearen arteko interakzioa aldagai independientetzat hartuz

bariantzaren azterketa multiplearen bidez lortutako emaitzek egiaztatu digutela bi aldagai hauen arteko interakzio bat dagoela gatazka hautematua, esklusio morala eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotzean. Interakzio honek bestearen ebaluaketa negatiboan eragina duen neurria, aldagai honek bakearen dimentsio kulturalean eragin negatiboa duela esan dezakegu.

Ekuazio egituralen ereduaren (EQS) bidez lortutako emaitzek ere azaltzen digute egoera gatazkatsuetan identitate sozialaren salientzia eta exotaldearen ebaluaketaren arteko harreman zuzen zein zeharkako bat ematen dela, honek identitate indibiduala azpimarratzen denean ematen ez den eta zenbait aldagaietan eragina duen prozesu bati eragiten bait dio: lehenik eta behin, gatazka hautematua areagotzen da, honen ondorioz deslegitimizazio eta balio diferentzia hautematuaren bidez neurtu dugun esklusio morala areagotzen delarik. Prozesu honen eraginez, subjektuek exotaldeari estereotipo negatiboak egozteko erraztasun handiagoa azaldu dute.

Identitate indibiduala azpimarratzean, berriz, ez da gatazka hautematuaren areagotzerik eman eta, ondorioz, ez da aipaturiko prozesua gauzatu. Bestea ebaluatzeko garaian subjektuek ez dute hain joera negatiborik azaldu, hau da, estereotipoek ez dira gehiegi azaldu (Tajfel, 1978).

g) Konklusio orokorrak:

Lehenik eta behin azpimarratu nahi dugu bizi dugun gizarte gatazka suntsitzailearen ondorioz "gu"-aren eta "besteak"-ren arteko mugak areagotu egin direla, hori dela medio identitate gatazkatsuak sortu direlarik. Hau da, identifikazio arlo ezberdinen artean gatazka bat suertatzen denean sortzen diren identitateak (identitate esklusibo euskalduna eta espainiarra hain zuzen ere).

Irudikapen sozialei dagokienez, ikerketa honetan azaldu diren bakearen irudikapen ezberdinek izen berberako teoriak irudikapen hauei egozten dizkion funtzioak isladatu dituzte.

Ikus ahal izan dugu bakeari buruzko irudikapen sozialak dinamikoak izanik, identitate sozialaren bitartez testuinguru gatazkatsuaren eragina jasotzen dutela. Honela, bakea gizarte objektuaren eraikipen soziala, taldeen errealitatearen eta beste taldeekiko gatazken eragina izan du eta horren ondorioz, bakearen irudikapen sozial ezberdinak garatu dira.

Hau, adibidez, maila ezberdinetako irudietan isladatu da: pertsonarteko bake irudietan, inongo taldekidetzaren eraginik ez dagoenez, ez da bakearen esanahiaren talde ideologizaziorik eman. Orohar, bada, ez da ezberdintasun handirik suertatu maila honetako bake irudietan eta talde guztiek bakea ulermen eta elkartasunean oinarritutako zerbait bezala definitu dute, planteamendu hau Curleren bake definizioarekin

bat datorrelarik (Curle, 1971). Honen arabera, bake egiturala -ezarpen eta menperaketa eza- zein zuzena justifikatzen dituen neurrian, taldeen pertsonarteko bakeari buruzko irudia bake kulturalaren alde bat dela esan daiteke.

Euskadi mailako irudietan, berriz, bizi dugun gatazka soziopolitikoaren ondorioz, bakearen esanahiaren talde-ideologizazio bat eman da. Zentzu honetan, bakearen irudikapen sozialak estatikoak ez direnez eta gizarte-objektuen eraikipen soziala, taldeen beharren, interesen, eguneroko errealitatearen eta beste taldeekiko dituzten gatazken menpe daudenez, irudikapen sozialek subjektuen identitate sozialaren bitartez testuinguru gatazkatsuen eragin zuzena izan dute. Hori dela eta, identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta ideologia ezberdinen ondorioz ematen diren gizarte-posizio ezberdinek, Euskadi mailako bake irudietan bere islada izan dute, non, esan bezala, bake zein biolentzia kulturalaren elementuak aurkitu ditugun.

Nazioarte mailan, identitate gatazkatsuekiko eta ideologia ezberdinekiko taldekidetzaren eraginez ezberdintasunak aurkitu ditugu. Ideologia abertzalearen eta identitate esklusiboen kasuan, gatazkaren indarraren ondorioz suerta daiteke, zeinaren arabera taldekidetza sentimendua gizarte-fenomenu orora hedatu den (Mercade, 1989). Ideologiaren kasuan ezberdintasuna langile eta kapitalisten arteko kategorizazioa ematen delako suerta daiteke.

Bestalde, taldeek gizartean duten posizioan oinarrituriko bake-ezaren azalpen bat eratu dute (Tajfel, 1982), honek ondorio bezala egozpenak zeharo ezberdinak izatea eman duelarik. Honela, identitate esklusibo euskaldunaren eta ideologia abertzalearen kasuan, adibidez, talde hauek desabantaila egoera batetan aurkitzen direnez, bake eza kanpo-arrazoietan kokatu dute bake eza estatuaren menperaketari egotziz.

Identitate esklusibo espainiarraren eta ideologia ez abertzalearen kasuetan, berriz, bake ezaren arrazoia barne-azalpenei egotzi diete. Talde hauek talde menperatzaileak diren neurrian, irudikapen sozialak bere posizioa justifikatzeko funtzioa beteko lukete (Bar-Tal, 1989; Schwartz eta Struch, 1989).

Jarrerei dagokienez, ikus ahal izan dugu talde menperatuak osatzen duten subjektuek (identitate exklusibo euskalduna, ideologia abertzalea eta ideologia ezkertiarra dutenak) aldaketa egiturala adierazten duten jarrerekiko adostasuna adierazi dutela. Talde menperatzaileak osatzen duten subjektuek, berriz, minoriek biolentziarik ez erabiltzea eta bakerako heziketaren beharra isladatzen duten jarrerekiko adostasuna azaldu dute batez ere.

Emaitza hauek ikusirik, esan dezakegu ideologia abertzalea, ezkertiarra eta identitate esklusibo euskaldunaren kasuetan, bake nozioak bakearen dimentsio positiboa -justizia soziala, aldaketa egituralak,...- zein negatiboa -biolentzia eza- barneratzen dituela, egoera

aldatzeko biolentzia zilegi bezala hartuz. Zentzu honetan, aldaketa egituralean oinarritzen den bake kontzeptzio hau, Curlek korronte maximalista iraultzailea izendatzen duenaren bake-nozioarekin bat etorriko litzateke. Bake honek egitura aldatzeko biolentzia zuzena zilegitzen duen neurrian, biolentzia kulturala emango litzateke.

Identitate esklusibo espainiarra, ideologia eskuindarra eta ideologia ez abertzalea duten subjektuen (talde menperatzaileak) bake nozioa, berriz, korronte minimalistaren tradizio greko-erromatarretan oinarrituriko bake-nozioarekin bat etorriko litzateke, zeinaren arabera bakea gerra eza eta "status quo"aren mantenimendua izango litzatekeen. Estatuan oinarritzen den bake nozio honek ez du egitura mailako aldaketaren beharrik planteatzen eta honek funtsezkotzat hartzen du legea eta ordena mantentzea, horretarako defentsa armatua onartzen duelarik. Guzti hori dela eta, bake nozio honetan ere biolentzia kulturala ematen dela esan dezakegu.

Bestalde, irudikapen sozialaren elementu integratzaileen arteko harreman prozesuei dagokienez, emaitzek kognizio soziala-azalpenak-portaera prozesuan testuinguru sozialak eragin esanguratsua duela adierazi digute. Honela, ikus ahal izan dugu kognizioak azalpenetan oinarritzen direla, hauek, era berean, identitate sozialean oinarritzen direlarik. Guzti hori dela eta, identitate sozialak irudikapen sozialetan eragin zuzena duela eta irudikapen sozialek informazioaren prozesamendua gidatu eta ekintzarako plan bezala ere balio dutela esan

dezakegu (Moscovici, 1984; Jodelet, 1984; Herlitz, 1985).

Bestearen pertzeptzioari dagokionez, esan emaitzek identitate gatazkatsuekiko taldekidetza eta identitate sozialaren arteko interakzioak gatazkaren, esklusio moralaren -balio ezberdintasun hautematua eta deslegitimizazioa- eta bestearen ebaluaketa negatiboa areagotzen dituela dioen gure zazpigarren hipotesia baieztaturik gelditu dela.

Ekuazio egituralen ereduaren (EQS) bidez lortutako emaitzek azaltzen digute egoera gatazkatsuetan identitate sozialaren salientzia eta exotaldearen ebaluaketaren arteko harreman zuzen zein zeharkako bat -esklusio moralak bitartekaturik- ematen dela, zenbait aldagaietan eragina duen prozesu bat eragiten bait du: lehenik eta behin, gatazka hautematuaren areagotzea ematen da, honen ondorioz deslegitimizazioa eta balio diferentzien pertzepzioaren bidez neurtu dugun esklusio morala areagotuz.

Prozesu honen ondorioz, subjektuek exotaldeari estereotipo negatiboak egozteko erraztasun handiagoa azaldu dute. Identitate indibidualaren salientziari eragin diogunean, ez da gatazka hautematuaren areagotzerik suertatu eta ez da aipaturiko prozesua martxan jarri. Era berean, subjektuek ez dute bestearen ebaluaketan hain joera negatiborik azaldu. Zentzu honetan, subjektuen jokabidean ezberdintasunak daude talde bateko partaide bezala edo subjektu indibidual

bezala jokatzen ari direnean (Tajfel, 1978).

Norgehiagokako joera duen egoera gatazkatsu batetan murgildurik egotean, taldearteko gatazkaren prozesuak areagotu egiten dira eta exotaldearen estereotipoak era nabarmenagoan ematen dira (Tajfel, 1974). Hauen aurka biolentziaren erabilpena justifikatzeko erabil daitekeen (Galtung, 1990) bestearen irudi bihurtu bat ematen da (Deutsch, 1986).

Honela, identitate sozialaren salientzia kontextualaren bidez egoeraren taldearteko izaera azpimarratuz, exotaldeko subjektuak era uniformeago batetan, -hau da, bere arteko ezberdintasun indibidualak kontutan hartu gabe- tratatzeko joera bat eman da. Hau gure ikerketan besteari egotzi dizkioten izenlagun negatiboetan isladaturik gelditu da.

Bestalde, exotaldeko partaideekiko etsai-jarrera bat sortarazi duen gatazka hautematuaren areagotze bat eman da. Honek endotaldearen balioa handitu eta exotaldearena erabat gutxitu du, bestea "hori" batean bihurtu arte. Betearen irudi bihurtu bat sortu da, irudi honek endotaldeko partaideak bestearen aurkako biolentzia justifikatua ikustera bultzatzen dituelarik.

Azkenik, taldekidetzaren efektuari dagokionez, kontutan hartu behar dugu jeneralki ez dela ezberdintasun esanguratsurik egon identitate gatazkatsuekiko taldekidetzaren arabera. Honela, baieztetu dezakegu honek berez zuzenki ez duela eragiten bestearen ebaluaketan.

Identitate sozialaren salientziak egindako kategorizazioaren bitartez emango da taldearteko gatazka prozesuen areagotzea, prozesu hauek bestearen ebaluaketan -eta, ondorioz, bakearen dimentsio kulturalean- oso eragin negatiboa izango dutelarik.

Puntu honetara iritsiz, ikerketa honek bai maila teorikoan, bai metodologikoan azaldu dituen zenbait ekarpen nabarmen aipatzea komenigarria iruditzen zaigu.

(1) Lehenik eta behin, bakearen kontzeptua kontestu soziokognitibo batean kokatu izatea azpimarratu nahi dugu, konkretuki irudikapen soizala eta uste sistemen kontestuan. Horretarako, bi paradigma teorikoen integrazioaren bidez -irudikapen sozialaren eta identitate sozialaren teoriak-, uste sistemen, irudikapen sozialen -emozioak, jarrerak, azalpenak eta irudiak- eta taldearteko harremanen hurbilketa teoriko holistiko bat egin dugu.

Integrazio honi esker, elementu hauen artean dagoen harremanean sakondu dugu eta, era berean, taldearteko dinamikak irudikapen sozialetan eragiten duela baieztatu dugu. Honek Moscoviciren teoria baieztatu du, zeinaren arabera, taldeek interes ezberdinei eta talde berberaren helburuei irudikapen funtzionalak sortaraztea eragiten dien.

Bi teoria hauen uztarketaren emaitza, eredu azaltzaile berri eta sendo bat izango litzateke, zeinaren abantailak anizkunak izango liratekeen:

identitate sozialaren teoriak prozesu identifikatzaileek errealitatearen eraikuntza sozialean jokatzen duten rolari garrantzia handiagoa emango lioke. Irudikapen sozialen teoria, berriz, irudikapen sozial batek forma zehatz bat hartzearen zergatiari buruzko informazio zehatzago batez aberastuko litzateke.

Era berean, irudikapen sozialen kontzeptua, irudikapen hauek osatzen dituzten dinemtsioetan -azalpenak, irudiak, jarrerak, emozioak eta portaera intentzioak- eta kontzeptu hau eta beste -ideologia, uste sistemak,...- batzuren arteko ezberdintasunetan sakondu dugu.

Azkenik, prozesu soziokognitiboen bitartez, gatazken funtzionamenduan murgildu gara. Honela ikus ahal izan dugu identitate sozialaren salientziaren bidez aktibatzen diren prozesu kognitiboak lehiazko joera duten gatazken testuinguruetan, bestearen ebaluaketan oso eragin negatiboa dutela.

(2) Metodologia mailan, egindako eremu lanean lortutako emaitzetan oinarrituz izaera kuantitatiboa duen neurri-tresna bat eratzeko metodologia kualitatibo bat erabili izana azpimarratu nahi dugu. Irudikapen sozialen edukiaren zenbait joerazko elementu abiapuntutzat hartzea beharrezkotzat jo dugu. Honela, azken galde-sorta egin ahal izateko, beharrezkoa iruditu zaigu, Euskadin bakearen irudikapen soziala testuinguru ezberdinetan eta edukin ezberdinetan finkatzen den lehenengo hurbilketa bat egitea.

Azken galde-sortan neurketa-tresna bezala diseinu koerlazionatzaile bat eta aldagaien manipulaketa bidezko diseinu kuasi-esperimental bat tartekatu ditugu. Konbinaketa honek, alde batetik, lagin ordezkakorretan prozesu jakin batzuen irudikapenaren funtzioamendua konparatzea ahalbidetu zigun. Era berean, irudikapen sozialen dinamikaren analisian oinarrituta dauden irudikapen sozialaren emaitza deskriptiboak aurkeztea erraztu zigun, honela, identitate eta irudikapen sozialaren arteko erlazioa hobeto sakontzen lagunduz. Bestalde, aldagaien manipulaketak, zenbait prozesu soziokognitiboen funtzionamendua ezagutzen lagundu zigun, prozesu hauek identitate sozialaren salientzia eta gurekin gatazkan dagoen subjektu edo taldearen ebaluaketa tartekatzen dituzte.

Lan hau amaitzeko, azpimarratu nahi dugu talde ezberdinen irudikapen sozialetan irudikapen hauek betetzen dituzten funtzioak isladatu direla: hain zuzen ere, menperatutako taldeen kasuan, irudikapen sozialak identitatearen defentsa eta egoera aldatzeko ekintzak justifikatzeko funtzioa bete dute. Talde menperatzaileen kasuan, berriz, bere posizioa justifikatzeko funtzioa bete dute, honekin batera talde menperatuekiko portaera errepresiboak nolabait justifikatuz (Echebarria et. al, 1994).

Bestalde, aipatu behar da talde menperatzaileekiko partaidetzak, subjektuen bakearen definizioa nozio tradizionaletan oinarritzea inplikatu duela, nozio hauen arabera,

ez legoke egitura mailako aldaketaren beharrik. Talde menperatuentzat, berriz, helburua aldaketa bat izanik, bake kontzepzioa dimentsio positibo zein negatiboak barneratzen dituzten joera berrietan oinarritzen da.

Bi bake kontzepzio hauetan bake zein biolentzia kulturaleko elementuak aurkitu ditugula aipatu behar da. Hori dela eta, ezin dugu esan talde baten uste sistemak eta pertzepzioak bere osotasunean bake kulturalaren adibideak direnik edo talde baten uste sistema eta pertzepzioak bestearenak baino bakezaleagoak direnik. Denek era ageri batetan adierazia izan daitekeen biolentziarako izugarrizko indarra dute (Galtung, 1990). Gure erronka biolentziarako indar hori bakearen aspektuetan bihurtzea da.

Hemen aurkeztu diren hausnarketak geroaldi hurbilean bake zein biolentziaren dimentsio kulturalaren ulermenean ekarpen bat suposatuko dutela espero dugu, hemendik abiatuz, justizia, berdintasuna eta herri guztien eskubideen begirunea kontutan izanik, soluzioak bilatu ahal izateko. Hala ere, bakerako bide zailean aurrera egin ahal izateko, oraindik gai honetan sakontzen jarraitu behar dela azpimarratu behar da. Guk lehenengo urratsa besterik ez dugu eman.

# BIBLIOGRAFIA

ABELSON (1976), "Script processing in attitude formation and decision making" in Carrol and Payne (eds.), *Cognition and social behavior*. Hillside, NI:Erlbaum.

ABERCROMBIE & TURNER (1978), "The dominant ideology thesis", *British Journal of Sociology* (29), 149-170.

ADORNO et al. (1950), *The authoritarian personality*, Nueva York, Harper.

ALLPORT (1954), *The Nature of Prejudice*, Cambridge, Mass: Addison-Wesley.

ALMOND & VERBA (1965), *The Civic Culture*, Boston: Little Brown.

APFELBAUM (1974), "On Conflicts and bargaining", in Berkowitz (ed.) *Advances in Experimental Social Psychology*, 7, New York:Academic Press.

ARENAL (1984), *Introducción a las Relaciones Internacionales*, Madrid, Tecnos, p.251.

ARENAL (1990), "La Investigación para la Paz", *Iripaz*, (2), 147-195.

BANDURA (1986), *Social foundations of though and action: A social cognitive theory*, Englewood Cliffs, NJ: Prentie-Hall.

BANKS (1983), *Resolution of Conflict: a Manual and Theoretical Framework*, Londres.

BAR-TAL (1990), "Causes and Consequences of Delegitimation: Models of Conflict and Ethnocentrism", *Journal of Social Issues*, 46. Bol., Zbk.1., orri.: 65-81.

BAR-TAL eta BESTE, (1989) *Stereotyping and Prejudice: Changing Conceptions* SPRINGER-VERLAG argitaletxea, Londres. ISBN: 0- 387-96883-0.

BAR-TAL, STROEBE eta BESTE, (1988) *The Social Psychology of Intergroup Conflict*, SPRINGER-VERLAG, Berlin. ISBN: 3-540-17965-0. Pp: 198.

BEAOUVOIS J.L. eta JOULE R. (1981) *Soumission et Idéologies*, Presses Universitaires de France, Paris. 205 orrialde. ISBN: 2 13 036636 8.

BENTLER & SPECKHART, (1981), "Attitudes cause behaviours: a structural equations analysis", *Journal of Personality and Social Psychology*, 40 226-238.

BENSON J. eta MARK (1989), "Attributional measurement techniques; Classification and comparison of approaches for measuring causal dimensions",*The Journal of Social Psychollogy*, CXXIX. Bol, 3. alea, or:307-323.

BERCKLER (1984), "Empirical validation of affect, behavior and cognigtion as destinct components of attitude" *Journal of Personality adn Social Psychology*, 47, 6, 1191-1205.

BERCOVITCH (1984), *Social Conditions and 3rd Parties. Strategies of Conflict Resolution*, Boulder, Co.

BERGER A.A. (ed), (1989) *Political Culture and Public Opinion*, Transaction Publishers, New Brunswick, ISBN: 0-88738-753-5.

BERGER & LUCKMAN (1966), *The Social Construction of the Reality*, New York: Doubleday.

BERGER & LUCKMAN (1979), *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires.

BETHLEHEM D.W. (1990) "Attitudes, Social Attitudes and Widespread Believes" in Fraser and Gaskell (eds.) *Attitudes, Beliefs and Representations: The Social Psychology of Widespread Beliefs*, OXFORD UNIVERSITY PRESS, Oxford 1990.

BILLIG (1976), *Social Psychology and Intergroup Relations*, London, Academic Press.

BILLIG (1978), *Fascists: a Social Psychological view of the NAtional Front*, London, Academic Press.

BILLIG M., (1982) *Ideology and Social Psychology*, Basil Blackwell, Oxford, ISBN: 0-631-13063-2.

BILLIG M., CONDOR S., EDWARDS D., GANE M., MIDDLETON D, RADLEY A., (1988) *Ideological Dilemmas*, sage publications, London, ISBN: 0-8039-8095-7.

BJERSTEDT A., (1990) "Enemy Images explored via Associative Techniques", *Thirteenth General Conference of the International Peace Research Association*, Groningen, Netherlands.

BLAKE R. eta MOUTON (1979), "Intergroup Solving in Organizations" in W. Austin and S. Worchel, *The Social Psychology of Intergroup Relations*, Brooks-Cole Pu.Co., Monterey.

BODENHAUSEN G.V. eta WYNER R.S., Jr. (1985) "Effects of Stereotypes on Decision Making and Information-Processing Strategies", *Journal of Personality and Social Psychology*, 48. bol, 2. alea, 267-282.

BOULDING (1978) "Futuristics and the imaging capacity of the West" in Maruyama (ed), *Cultures of Future*, 7-31, The Hague:Mouton.

BOULDING (1980), "Twelve Friendly Quarrels with Johan Galtung" in *Johan Galtung: A Bibliography of his Scholary and Popular Writings 1951-1980*, PRIO, Oslo, 7-26.

BOULDING E., (1988) "Image and action in peace building",*Journal of Social Issues*, XLIV. Bol, 2. alea, or:17-37.

BOULDING E., (1989) "International Peace, Security and Conflict Resolution: Trends, Gaps, Possibilities", prepared for the *UNU Planning meeting on Peace and Governance*, Barcelona.

BOULDING E., BRIGAGAO C. eta CLEMENTS K. (ED.) (1991), *Peace Culture and Society*, WESTVIEW PRESS, Oxford, ISBN: 0-8133-1218-3.

BRANSCOMBE N.R., WANN D.L. eta NOEL J.G. (1993) "In-Group or Out-Group Extremity: Importance of the Threatened Social Identity", *Personality and Social Psychology Review*, 19. bol, 4. alea, 381-387.

BREWER (1979), "The Role of the Ethnocentrism in Intergroup Conflict" in Austin & Worchel (Ed.) *The Social Psychology of Intergroup Relations*, Monterey, CA: Brooks/Cole.

BREWER & CRAMER (1985), "The Psychology of intergroup attitudes and behaviour", *Annual Review of Psychology*, 36, 219-243.

BREWSTER SMITH M., (1969) *Social Psychology and Human Values*, Aldine Publishing company, Chicago, 1969.

BROWN R., (1988) "Intergroup Relations" in *Introduction to Social Psychology*, Hewstone, Stroebe, Codol eta Stephenson ed., Basil Blackwell, Oxford, ISBN: 0-631-15164-8, 381-408.

BRUNER J.S. eta PELMUTTER H.V., (1957) "Compatriot and Foreigner: A Study of Impression Formation in 3 Countries", *Journal of Abnormal and Social Psychology*, 1957, 55, 253-260.

BURTON (1986), "The Theory of Conflict Resolution", *Current Research on Peace and Violence*" (9), 125-130.

BUSS (1979), *Psychology in social context*, New York: Irvington.

